

Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz

Beatriz Femández Fernández

oman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco
servicio editorial

Euskal Herriko
Unibertsitatea
argitalpen zerbitzua

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiazea, bai eta berorri tratamendu informatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratar, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Ninguna parte de esta publicación, incluido el diseño de la cubierta, puede ser reproducida, almacenada o transmitida en manera alguna ni por ningún medio, ya sea eléctrico, químico, mecánico, óptico, de grabación o de fotocopiado, sin permiso previo y por escrito de la entidad editora, sus autores o representantes legales.

©Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
I.S.B.N.: 84-7585-928-3
Depósito Legal/Lege Gordailua: BI-1789-97
Impresión/Inprimaketa:
Servicio Editorial/Argitalpen Zerbitzua UPV/EHU
EUSKAL FILOLOGIA SAILA

Juankar Alberdi Martirenari

Aurkibidea

Eskerrik asko	
Laburdurak	7
Hitzaurrea	10
1. KASU TEORIA ETA EGITURAZKO KASUA	
1.0 Atarian	1
1.1 Kasu sistemak eta subjektua	5
1.1.1 Kasu flexioa	6
1.1.2 Aditz komunztadura	8
1.1.3 Subjektua: AG berdin S	13
1.1.3.1 Agintera	14
1.1.3.2 Aginte aditzen osagarriak	15
1.1.3.3 <i>Hasi, amaitu</i> edota <i>saiatu</i> aditzen osagarriak	17
1.2 Bidezidor gurutatzatuak: ERG berdin NOM	18
1.2.1 D eta KMZ funtzio buruak, egiturazko kasua eta Gutizia	19
1.2.2 Mugimendu Laburrena eta Distantziakidetasuna	27
1.2.3 Tasunak eta hitz hurrenkera	33
1.2.4 Nahitaezko Kasuaren Parametroa	43
1.2.5 Anafora: AG/S versus O	46

1.2.6 Perpaus jokatugabeak eta PRO	50
1.2.6.1 [-denbora] NZ zehar galderak euskaraz	55
1.2.6.2 NZ-zehar galderak: [-kasua] D eta PRO	57
1.3 Bidezidor kabiratuak: ABS berdin NOM	59
1.3.1 D eta IRGK funtzio buruak	60
1.3.2 Bidezidor gurutzatuak versus kabiratuak	61
1.3.3 Ergatibotasunaren Parametroa	63
1.3.4 Perpaus jokatugabe iragankor vs. iragangaitzak	70
1.4 Ondorioak	73
Oharrak	75

2. EZERGATIBOAK, INKORPORAZIOA ETA BURUZ BURUKO KASUA

2.0 Atarian	83
2.1 Ezergatiboak eta inkorporazioa	85
2.1.1 Ezakusatiboak vs. ezergatiboak	85
2.1.2 Ezergatiboak eta inkorporazioa	95
2.1.3 Inkorporazioa, kasuaren erkabide	104
2.2 Ezergatiboak euskaraz	108
2.2.1 <i>Mintzatu</i> erako ezergatiboak	108
2.2.2 <i>Borrokatu</i> erako ezergatiboak	114
2.2.3 <i>Alde egin</i> erako ezergatiboak	119
2.2.3.1 <i>I + egin</i> erako ezergatiboak	119
2.2.3.2 IS vs. DETS	121
2.2.3.3 Inkorporazio gabeko ezergatiboak?	122
2.2.3.4 <i>Egin</i> arina vs. <i>egin</i> astuna	126
2.3 Inkorporazioa euskal ezergatiboetan	130
2.4 Ondorioak	134
Oharrak	136

3. EGITURAZKO DAT, AS AZALA ETA KMZ3

3.0 Atarian	143
3.1 Egiturazko DAT euskaraz	145
3.1.1 DAT, ϕ 3-tasunak eta predikatu azpisailak	146

3.1.2 Egiturazko DAT eta Aukerako Kasuaren Parametroa	150
3.2 KMZ3, AS azala eta Distantziakidetasuna	153
3.2.1 AS azala, Gutxieneko Eremua eta Distantziakidetasuna	154
3.2.2 Pertsona-Kasuaren Muga	166
3.3 Ezakusatiboak, AS azala eta KMZ3	170
3.4 ϕ 3-komunztadura eza eta DAT ezkanonikoez	179
3.5 Ondorioak	181
Oharrak	182
4. ERGATIBOTASUN ERDIBITUA, I-TASUNEN ERKABIDE ERDIBITUA	
4.0 Atarian	187
4.1 Sistema ergatiboak, sistema erdibituak	190
4.1.1 ISen izaera semantikoa	191
4.1.2 D edota ASP	194
4.1.3 Perpaus nagusiak versus mendekoak	199
4.2 Euskara, sistema erdibitua	200
4.2.1 Kasu flexioa euskaraz	201
4.2.2 Aditz komunztadura euskaraz	206
4.3 Erkabide Erdibitua eta AS azalaren baitako KMZ	214
4.3.1 [Espez, KMZ] eta I-tasunen erkaketa	215
4.3.2 AS azala, mendeko KMZ eta ϕ -tasun gabeko objektua	219
4.3.3 D, [Espez, D] eta ERGren erkaketa	229
4.4 Ondorioak	231
Oharrak	232
Ondorioak	237
Aipu bibliografikoak	239
Hiztegia : euskara-ingeles / ingeles-euskara	251

Eskerrik asko

Jon Ortiz de Urbina, Myriam Uribetxebarria, Javier Ormazabal, Andolin Eguzkitza, Vidal Valmala, Iñaki Amundarain, Itziar Laka, Igone Zabala, Xabier Artiagoitia, Joseba Lakarra, Koldo Sainz, Rikardo Gómez, Joseba Abaitua, Juan Carlos Odriozola, Jon Franco, Alazne Landa, Luismari Larringan, Maitena Etxebarria, M^a José Ezeizabarrena, Paula Gómez, Jose Luís Iturrioz, Thomas Smith Stark, Dori Martinez, Isabel Etxebarria, Itziar Marquiegui, Vicky Olsen.

Iñaut Amezaga, Xabier Sarasketa, Jon Amezaga, M^a Carmen Fernández, Edelmiro Fernández, Joseba Bengoetxea, Uxune Iriondo, Mixel Sarasketa, Mikel Alberdi, Joseba Zuazo, Manu Idarraga, Joxe Arzallus, Sonia Ortega, Juanmari Fullaondo, Garbiñe Karazatorre, Felix Alzelai, Estibaliz Bengoetxea, Txetxu Martinez, Iñaki Agirre, Itziar Laresgoiti, Imanol Malaxetxebarria, Jon Otxoantezana.

Laburdurak

ABS/A	absolutibo
A	aditz
A-tasun	aditz tasun
ADJ	adjektibo
A-egitura	Azaleko egitura
AG	predikatu iragankorreko subjektua
A gune	argumentu gune
A' gunea	ez-argumentu gune
AS	aditz sintagma
ASP	aspektu
ASP _{GN}	gertaera neurketarako aspektu buru
bbaldin	baldin eta solik baldin
biz	biziduna
O-komandoa	osagarri-komandoa
DAT/D	datibo
D	denbora
DET	determinatzaile
E	errol tematiko

ED	egitura deskribapen
ERG/E	ergatibo
erfl	erreflexibo
Espes	espezifikatzaile
ϕ-tasun	komunztadura tasun
f	femenino
FF	forma fonetiko
FL	forma logiko
ϕ-tasunak	komunztadura tasun
ϕ1-tasunak	subjektu komunztadura tasun
ϕ2-tasunak	objektu komunztadura tasun
ϕ3-tasunak	zehir objektu komunztadura tasun
GEN	genitibo
helb	helburu
I	izen
ind	indikatibo
INES	inesibo
inf	infinitibo
INFL	inflexio
irgg/IRGG	iragangaitz (predikatu)
irgk	iragankor (predikatu)
IRGK	iragankor (funtzio burua)/(predikatu)
irgn	iragan
I-tasun	Izen tasun
IS	izen sintagma
K	kasu
K _{ASP}	Aspektuaren kasu
K _D	Denboraren kasu
kl	klitiko
KMZ	komunztadura
KMZ1	subjektu komunztadura
KMZ2	objektu komunztadura
KMZ3	bigarren objektu komunztadura

KONP	konplementatzaile
m	maskulino
O	predikatu iragankorreko objektua
Obj	objektua
p	plural
P	preposizio / posposizio
PART	partitiboa
s	singular
S	predikatu iragangaitzeko subjektua
S-egitura	sakoneko egitura
Subj	subjektua (S/ AG); subjektu gunea
<i>t</i>	azterna
top	mintzagai
θ -errol	errol tematiko
θ -itsua	theta-itsua
θ gunea	gune tematiko
θ' gunea	gune ez-tematiko

Hitzaurrea

Bi kasu sistema nagusi bereiz daiteke munduko hizkuntzetan: sistema nominatibo/akusatiboa eta sistema ergatiboa. Sistema nominatibo/akusatiboetan bi kasu ezberdinez banatzen dira subjektua eta objektua, nominatiboaz eta akusatiboaz, hurrenez hurren. Baina sistema ergatiboetan bi kasu dagokio subjektuari, absolutiboa eta ergatiboa, eta bi kasu hauetarik bat, absolutiboa, alegia, objektuari ere egozten zaio. Euskara hizkuntza ergatiboa da, eta ergatibotasuna da, hain zuzen, tesi honen ikergai nagusia.

Dena den, kasu sistema ezberdinengatik ere, gizakiok jakintza sistema bera dugu jaiotzez, gramatikan hatsarre unibertsalez adieraz daitekeena, hizkuntzen arteko bereizkuntza parametroen balioez zehaz daitekeelarik: Hatsarre eta Parametroen Teoria da ikerketa honen esparru teorikoa.

Hizkuntza nom/akusatibo eta ergatiboak diren bezain batean, bi hipotesi formulatu da Egitarau Minimalistaren baitan. Batean, ergatiboaz markatutako argumentua nominatiboaz adierazitakoari egokitzen zaio, eta bestean, berriz, akusatiboaz markatutakoari.

Lehenak (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993; Laka, 1993), predikatu iragankorreko perpausetan berdintzen ditu bi hizkuntzak, predikatu iragangaitzeko perpausetan bereiziz *Nahitaezko Kasuaren Parametroaz*. Bigarrenak (Levin & Massam, 1984; Murasugi, 1992; Murasugi, 1994), aldiz, predikatu iragankorreko perpausetan bereizten ditu bi hizkuntzak *Ergatibotasunaren Parametroarez*, eta predikatu iragangaitzekoetan berdintzen ditu.

Bi hipotesietarik lehenari jarraikiko natzaio egungo euskalarien ildoan (Sarasola, 1977; Eguzkitza, 1986; Ortiz de Urbina, 1989). Nolanahi ere, Bobaljikengandik (1993) bereizi eta Chomskyrekin (1993) edota Lópezekin (1995) bat etorriko naiz, perpaus jokatugabeetan Denborak kasu nulua duela dioenean, alegia, PROk duen kasu bera, predikatu iragankorreko zein iragangaitzeko perpausetako subjektuek Denboraren Espezifikatzaile gunean erkatu behar dutena.

Lehen hipotesiari loturik, Denbora eta Komunztadura buruak banatuko ditut perpausetan, baina subjektu eta objektu komunztadura buruez gain, zehar objektu komunztadura burua ere ezberdinduko dut Inflexioan, Datiboari egiturazko kasua deritzadalako euskaraz, Hualdek (1986), Collins & Thráinssonek (1993), Cheng & Demirdachek (1993) edota López & Austinek (1995) bezala.

Hirugarren komunztadura buruaren Espezifikatzaile gunean erkatuko ditu zehar objektuak Datiboa nahiz komunztadura tasunak. Nolanahi ere, Distantziakidetasuna (Chomsky, 1993; 1995) beteko da baita hirugarren komunztadura burua indartzen denean ere. Horretarako, Aditz Sintagma azalaren (Larson, 1988) barruan ezarriko dut komunztadura buruetarik bat. Eta euskaraz, zehar objektua eta Datiboa bera aukerakoa denez, *Aukerako Kasuaren Parametroaz* ezberdinduko dut euskara zehar objektu komunztadura izan ezin dezaketen hizkuntzetatik.

Euskara zein gainontzeko hizkuntza ergatiboetan bada, bestalde, Ergatibotasun Erdibitua (Silverstein, 1977; Dixon, 1979, 1994) deritzana, zenbait irizpideri egokitu zaiona tipologiaren baitan. Irizpide horietatik bi dira euskara erdibitzen dutenak, hau da, predikatuaren izaera semantikoa eta Izen Sintagmaren izaera semantikoa. Lehenaren arabera, predikatu iragangaitzeko subjektua predikatu iragankorreko objektua bezala markatu baino, predikatu iragankorreko subjektuaren antzera adierazten da. Eta bigarren irizpideari dagokio Erdibiketa uztartu vs. askea (Dixon, 1994), zeinetan kasu sistema ergatiboa den bitartean, komunztadura sistemak erdibiketa jasaten duen, sistema neutroaren (Comrie, 1981 a) arabera eratuz.

Bi irizpide hauen araberako erdibiketa bi hipotesiez azalduko dut. Lehenari dagokionean, predikatu ezergatiboak direnez subjektuak predikatu iragankorrekoak bezala marka dezaketeenak, iragankortzat joko ditut Egitura Lexiko Erlaziozkoan (Hale & Keyser, 1993; Bobaljik, 1993; Laka, 1993), konputazio sisteman iragangaitz ala iragankor izan badaitezke ere. Euskaraz hiru ezergatibo sail banatuko dut, eta objektua Egitura Lexiko Erlaziozkoan ezeze, konputazio sisteman ere objektua inkorporatzen dutela proposatuko dut. Honelaxe, bada, Izena + *egin* erako ezergatiboek ere inkorporatzen dute objektua (Uribetxebarria, 1989 a; López & Austin, 1995; Martinez, 1995). Eta objektua, predikatuotan zehaztugabea dena, eta perpausaren Aktionsart deritzanaren arteko lokarriaz ere hausnartuko dut, Borer (1993) edota Tennyren (1992; 1994) ildoan.

Euskarak jasaten duen Erdibiketa uztartu vs. askea (Heath, 1976; Trask, 1977; Ortiz de Urbina, 1986; Laka, 1988) Izen-tasunen Erkabide Erdibitua deritzadanaz azalduko dut, euskaraz, georgieraren antzera (King, 1994; Lyle, 1996) kasua eta

komunztadura tasunak beti Espezifikatzaile gune berean erkatu ezin daitezkeela erakutsiz.

Tesiak lau kapituluko eraketa du. Lehen kapituluan, *Kasu Teoria eta egiturazko kasua* deritzanean, Egitarau Minimalistaren berri emango dut ergatibotasunaren bi azterbide nagusiak erakutsiz. Perpaus jokatugabeen gaineko hipotesia bertan emango dut, eta baita euskararen hitz hurrenkerarako tasunen tipifikazioa ere. Bigarren kapituluan, *Ezergatiboak, inkorporazioa eta buruz buruko kasua* deritzanean, ezergatiboak aztertuko ditut, hiru taldetan sailkatuz. Hirugarren kapituluan *-Egiturazko Datiboa, Aditz Sintagma Azala eta Zehar objektu komunztadura burua-*, Datiboa eta zehar objektu komunztadura izango dut aztergai. Eta azken kapituluan, *Ergatibotasun Erdibitua, Izen tasunen Erkabide Erdibitua* deritzanean, euskararen komunztadura sistemak jasaten duen erdibiketa deskribatu eta azalduko dut. Lau kapitulu hauezaz gain, hiztegia dakart tesiaren amaieran, Minimalismoan euskaraz diharduten hizkuntzalarientzat lanabes eta eztabaidagai izan nahi duena.

1. Kasu Teoria eta egiturazko kasua

1.0 ATARIAN

Kasu sistemen arabera bi hizkuntza mota bereizi izan da, batetik, hizkuntza nom/akusatiboak eta bestetik, hizkuntza ergatiboak. Hizkuntza nom/akusatiboetan kasu marka bana dagokie subjektu eta objektuari: nominatiboa (NOM) predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuari eta akusatiboa (AK), berriz, predikatu iragankorreko objektuari. Hizkuntza ergatiboetan, bestalde, subjektuari bi kasu dagokio, ergatiboa (ERG) predikatu iragankorretan eta absolutiboa (ABS) predikatu iragangaitzetan eta ABS predikatu iragangaitzeko subjektuari ezeze, predikatu iragankorreko objektuari ere ezartzen zaio (Comrie, 1978, 1981; Dixon, 1979, 1994).

Sistema nom/akusatiboetan, orduan, subjektua kasu bakar batez, alegia, NOM kasuaz markatzen den artean, bi kasu ezartzen zaio subjektuari sistema ergatiboetan, hau da, ERG eta ABS kasuak. Subjektutasuna NOM argumentuari dagokio sistema nom/akusatiboetan eta sistema ergatiboko ERG argumentua da

subjektua predikatu iragankorreko perpausetan, hots, ERG argumentua da NOM argumentua bera, baina ABS argumentua ere egotzi zaio NOM argumentuari predikatu iragangaitz nahiz iragankorreko perpausetan.

Kasu Teoriak bi hipotesiak ezarri ditu *Minimalismoaren* baitan (Chomsky, 1993) baina bietatik lehenari lotuko natzaio (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1992 b, 1993), sistema ergatiboetako ERG argumentuari baiteritzat sistema nom/akusatiboetako NOM argumentua eta halaxe iritzi baitzaio euskaraz ere (Sarasola, 1977; Rotaetxe, 1978, 1979; Eguzkitza, 1986; Hualde, 1986; Ortiz de Urbina, 1989). Gainera, badira sistema nom/akusatibo nahiz ergatiboetan, kasuak kasu, predikatu iragankorreko subjektua (AG) zein predikatu iragangaitzekoa (S) bateratu eta predikatu iragankorreko objektuetatik (O) bereiz ditzaketen egiturak (Keenan, 1976; Dixon, 1979, 1994); eta halatan, ERG argumentuak NOM argumentuaren antzera jokutzen du baita sistema ergatiboetan ere.

Kasu Teoriak ezarritako lehen hipotesiak (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1992 b, 1993) isomorfikotzat jotzen ditu sistema nom/akusatibo eta ergatiboak predikatu iragankorreko perpausetan. Lehen hipotesi honi jarraiki, bi funtzio buru bereiz daiteke perpausetan, Denbora (D) eta Komunztadura (KMZ) buruak, eta Izen Sintagmek (IS) *egiturazko kasua* nahiz komunztadura tasunak, ϕ -tasunak erkatzekotan, KMZren Espezifikatzaile (Espez) gunea iristen dute, sistema nom/akusatibo zein ergatiboetan *bidezidor gurutzatuak* eratuz. Predikatu iragankorreko perpausetan bi KMZ buruak *indartuko* dira: Aditza (A) KMZ2ri adjunktatu eta objektua, IS2, [Espez, KMZ2] gunera igoko da, ABS edo AK zilegiztatuz; era berean, D KMZ1ri adjunktatutakoan, subjektuak, IS1ek, [Espez, KMZ1] gunea iritsiko du ERG edo NOM erkatuz.

Sistema nom/akusatibo eta ergatiboak, bestalde, predikatu iragangaitzeko perpausetan bereiz daitezke *Nahitaezko Kasuaren Parametroaz*. Perpausotan KMZ buruetarik bat baino ez da indartuko: sistema nom/akusatiboan KMZ1 dagoke *indarrean* eta KMZ2, *indarge*, eta horregatik, NOM erkatuko du argumentuak; sistema ergatiboan, KMZ2 indartuko da, ordea, eta ABS zilegiztatuko du argumentuak.

Bigarren hipotesiak (Murasugi, 1992, 1994), lehen hipotesiari aitziz, predikatu iragangaitzeko perpausetan deritze isomorfiko bi sistemei, batetik, kasu markatugabeak (ABS eta NOM) bilduz eta bestetik, kasu markatuak (ERG eta AK) (Levin & Massam, 1984). Predikatu iragankorreko perpausetan bereizten ditu, alabaina, sistema nom/akusatiboak ergatiboetatik: Isek bidezidor gurutzatuak eratzen dituzte sistema nom/akusatiboetan eta bidezidor *kabiratuak*. berriz, sistema ergatiboetan. *Ergatibotasunaren Parametroak* bereizten ditu bi sistemak. Bigarren hipotesia euskal aditzaren Pasibotasunaren Teoriarik (Schuchardt, 1893; Lafon, 1943, 1954) lotu dakioke.

Lehen hipotesia onetsiz, halaber, errefusatuko dut bigarrena, ERGri NOM baderitzat, ezin bainaiteke bat etor *Ergatibotasunaren Parametroak* sistema nom/akusatibo eta ergatiboen artean ezarritako bereizkuntzarekin. Era berean, *Mugimendu Laburren Distantziakidetasunaren* arabera (Chomsky, 1993) definituz gero, bi sistemetan ezin era daiteke bidezidor gurutzaturik baino predikatu iragankorreko perpausetan. Beraz, Murasugik darabiltzan *Ekonomia Hatsarreetatik* ere aldenduko naiz, Chomskyrekin (1993, 1995) bat etorrik. Azkenik, Murasugik (1992) darabiltzan funtzio buruak, D eta iragankortasun (IRGK) buruak dira eta buruon Espez guneetan erkatzen da egiturazko kasua; ene aburuz, ordea, KMZ burua da bereizi behar dena, areago, bi KMZ buru baino, hiru KMZ buru bereiziko dut perpausean Hualdek (1986), Collins & Thráinssonek

(1993), Cheng & Demirdachek (1993), Koizumik (1993) edo López & Austinek (1995) bezala.

Ez deritzat zilegi, halaber, Bobaljikek (1992 b, 1993) perpaus jokatugabeetan darabilen azterbideari, Chomsky eta Bobaljiken hipotesia oro har onesten dudan arren. Bobaljiken hipotesiak anaforen jokabidea eta perpaus jokatugabeen eraketa du euskarri eta anaforak jokabide bera du euskaraz nahiz sistema nom/akusatiboetan (Salaburu, 1985; Hualde, 1986; Ortiz de Urbina, 1989). Honetan, bada, bat nator Bobaljikekin. Baina kontrol egiturei dagokienean, [-denbora] NZ-zehar galderetan, PRO bai predikatu iragankorreko bai predikatu iragangaitzeko subjektua izan daiteke euskaraz eta ez, Bobaljiken hipotesiak aurresan bezala, ABS argumentua, hau da, predikatu iragangaitzeko subjektua nahiz predikatu iragankorreko objektua. Perpaus jokatugabeetan, orduan, Chomskyren (1993) ildoan, D funtzio buruari [-kasua] iritziko diot, hots, kasu nulua duena eta [-kasua] den PROrekin batera erka dezakeena, predikatu iragankor zein iragangaitzeko subjektuarekin, alegia.

Kapitulu honetan zehar, kasu eta komunztadura sistemak deskribatu eta adibideez erakutsitakoan {1.1.1} eta {1.1.2}, subjektua izango dut mintzagai (1.1.3) atalean. Agintera (1.1.3.1), *esan* edota *agindu* agente aditzen osagarri egiturak (1.1.3.2) eta *hasi* edota *amaitu* aspektu aditz eta *saiatu* kontrol aditzen osagarri egiturak (1.1.3.3) aztertuko ditut, predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuak bateratu eta objektuetatik bereizteko.

Kasu Teoriaren baitan ezarritako bi hipotesietara joko dut ondoren. Chomsky (1993) eta Bobaljiki (1992 b, 1993) lotuko natzaie lehenik (1.2), perpausaren bereizten dituzten funtzio buruak zehaztu eta egiturazko kasua definitzeko (1.2.1). Predikatu iragankorreko perpausetan ISen *gurutzatzea* da eta ez *kabiratzea*, ordea,

Mugimendu Laburrena, Distantziakidetasunaren arabera definituz erakutsiko dudan bezala (1.2.2). Tasun *sendo* eta *ahulak* bereiziko ditut ondoren (1.2.3), hizkuntzatik hizkuntzara aldakorra den hitz hurrenkera azaltzeko, eta euskaraz behin behinean tipifikatuko ditut I eta A-tasunak, Kayne (1994) abiaburu harturik. *Nahitaezko Kasuaren Parametroa* formulatuko dut gero (1.2.4), sistema nom/akusatiboak ergatiboetatik bereiziz, eta lehen hipotesi honen bi oinarriak, alegia, anaforaren jokabidea (1.2.5) eta perpaus jokatu gabeak (1.2.6) aztertuko ditut azkenik.

Murasugiri (1992) jarraituko natzaio ondoren (1.3), bigarren hipotesia garatzeko. Lehenengo eta behin, perpausean bereizten dituen funtzio buruen berri emango dut (1.3.1). Bigarrenik, *Ergatibotasunaren Parametroaz* bereiziko ditut sistema nom/akusatiboak ergatiboetatik (1.3.2) eta (1.3.3). Eta hirugarren eta azkenik, perpaus jokatu gabeetan darabilen azterbideak dakartzan arazoak izango ditut hizpide (1.3.4).

1.1. KASU SISTEMAK ETA SUBJEKTUA

Atal honetara dakartzat hizkuntzetan aurki daitezkeen bi kasu sistema nagusiak, alegia, sistema nom/akusatiboa eta sistema ergatiboa. Argumentuen kasu flexioa aztertuko dut lehenik sistema hauetan (1.1.1). Komuntaduraren arabera ere bi sistemak bereiziko ditut (1.1.2) atalean.

1.1.1 Kasu flexioa

Sistema ergatiboetan predikatu iragankorreko subjektua ERGz markatzen da eta predikatu iragankorreko objektua zein predikatu iragangaitzeko subjektua, berriz, ABSz (Comrie, 1978; Dixon, 1979, 1994). (1) taulara dakart sistema ergatiboen eraketa.

(1) Sistema ergatiboa

AG		ERG
S		
	}	ABS
O		

Sistema nom/akusatiboetan predikatu iragankorreko zein predikatu iragangaitzeko subjektua, NOMz adierazi eta AKz markatutako predikatu iragankorreko objektutik bereizten da. (2) taula sistema nom/akusatiboei dagokie.

(2) Sistema nom/akusatiboa

AG		
	}	NOM
S		
O		AK

Dakusagun bi sistemen kasu flexioa etsenplu bidez. Mendebal Groenlandiako Inuitera da (3) adibideetakoa (Bittner & Hale, 1992). (3.i) perpausean predikatu iragankorreko subjektua ERGz markaturik dator eta objektua, berriz, ABSz, (3.ii) predikatu iragangaitzeko perpauseko subjektua bezalaxe. Inuitera hizkuntza ergatiboa da.

- (3) i. Anguti-p puisi aallaa-v-a-a
gizon-ERG bale (ABS) tirokatu-ind-irgk-3₁-3₂¹
'Gizonak balea tirokatu zuen'
- ii. Puisi kivi-v-u-q
bale (ABS) hondoratu-irgg-3₂
'Balea hondoratu zen'

Euskara ere hizkuntza ergatiboa da -(4) adibideetan-. Predikatu iragankorreko perpausean (4.i), subjektuak ERG dakar -euskaraz kasu markatua dena- eta objektuak, bere aldetik, ABS. Predikatu iragangaitzeko perpausean (4.ii), gainera, subjektua ABSz adierazirik dator, (4.i) perpauseko objektua bezalaxe.

- (4) i. Nik izurdea ikusi dut
ni-ERG izurde-ABS ikusi 3₂/D-edun-1₁
- ii. Izurdea joan da
izurde-ABS joan 3₂/D-izan

Ondora (5) dakardan hau miskitoera da (Bittner & Hale, 1992) sistema nom/akusatiboari jarraitzen zaiona. (5.i) predikatu iragangaitzeko perpausean subjektuari NOM ezarri zaio, predikatu iragankorreko perpauseko (5.ii) subjektuari bezalaxe. Perpaus bereko objektuari AK ezarri zaio, ordea.

- (5) i. Waitna ba sula ba-ra sab-an
gizon-det (NOM) orein-det-AK tirokatu-irgn-3
'Gizonak oreina tirokatu zuen'
- ii. Sula ba plap-an
orein-det (NOM) korritu-irgn-3
'Oreinak korritu zuen'

Argumentuen kasu flexioa aintzat harturik, beraz, bi kasu sistema nagusi bereiz daiteke, sistema nom/akusatiboa eta ergatiboa. Sistema nom/akusatiboan predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuak NOM kasuaz adierazi eta objektutik, AKz, bereizten dira. Sistema ergatiboan, berriz, predikatu iragangaitzeko subjektu eta predikatu iragankorreko objektuek bat egiten dute, ABSz markaturik biak, eta predikatu iragankorreko subjektutik, alegia, ERG argumentutik ezberdintzen dira.

1.1.2 Aditz komunztadura

Sistema nom/akusatibo eta ergatiboa kasu flexioaz ezeze, aditz komunztaduraz ere azal daiteke hizkuntzetan. Aditzak argumentuen pertsona, zenbaki, genero edota klasearen berri eman diezaguke komunztadura dela bide, alegia, ϕ -tasunak direla bide. Komunztadura sistemetan pertsona edota zenbakiaren berri eman ohi da (Dixon, 1994).

Kasu flexioan gertatzen den bezala, komunztadura sistema nom/akusatiboa dugu predikatu iragankor nahiz iragangaitzeko subjektuak berdindu eta predikatu iragankorreko objektutik bereizten dituen eta ergatiboa, ostera, predikatu iragangaitzeko subjektua zein predikatu iragankorreko objektua bateratu eta predikatu iragankorreko subjektutik ezberdintzen dituen.

Swahilierak² sistema nom/akusatiboa darabil pertsona/zenbaki komunztaduran. Dakusagun, Dixonek (1995) dakartzan ondoko adibideetan (6).

- (6)
- i. tu-li-anguka
1_{ϕ1}-li-erori
'Gu erori ginen'
 - ii. m-li-anguka
2_{ϕ1}-li-erori
'Zuek guztiak erori zineten'
 - iii. m-li-tu-ona
2_{ϕ1}-li-1_{ϕ2}-ikusi
'Zuek guztiak gu ikusi gintuzuen'
 - iv. tu-li-wa-ona
1_{ϕ1}-li-2_{ϕ2}-ikusi
'Guk zuek guztiak ikusi zintuztegun'

Swahilieraren adibideotan ondoko paradigmari jarraitu zaio (7).

(7)	S/Ag (ϕ1)	O (ϕ2)
gu	tu-	-tu-
zuek-guztiak	m-	-wa-

Dixonek adierazten duenez, pluraleko (pl) bigarren pertsonarako (2 pertsona), *m-* aurrizkia darabilte swahilieraz, predikatu iragangaitzeko zein iragankorreko subjektuetan, (6.ii) zein (6.iii), eta *-wa-* artizkia, predikatu iragankorreko objektua adierazteko. Swahiliera, hortaz, sistema nom/akusatiboari lotzen zaio. Pluraleko lehen pertsonarako (1 pertsona), bestalde, *-tu-* darabilte predikatu iragangaitzeko subjektua (6.i), predikatu iragankorreko objektua (6.iii) edota predikatu iragankorreko subjektua (6.iv) denean³.

Badira, gainera, komunztadura sistema nom/akusatiboa barik, sistema ergatiboa darabilten hizkuntzak. Maiera yukatekoa eta, oro har, maiar hizkuntzak sistema ergatiboari lotzen zaizkio aditz komunztaduran. Maiar hizkuntzetan bi morfema sail nagusi darabilte. Lehena [A] saila, ϕ 1-tasunei dagokiena, predikatu iragankorreko subjektuei zein edukizaillei egozten zaie; bigarrena [B] saila, ϕ 2-tasunen adierazgarri, predikatu iragankorreko objektuei zein predikatu iragangaitzeko subjektuei ezartzen zaie (Reifler Bricker, 1977, 1981).

Maiera yukatekoaren ondoko adibideetan (Glen Ayres, 1991) predikatu iragankorreko perpausean (8.i) subjektua A saileko *-in* morfemaz -singularreko lehen pertsona (1s)- komunztatzen da adizkian eta objektua B saileko *-ec* morfemaz -singularreko bigarren pertsona (2s)-. (8.ii) predikatu iragangaitzekoan⁴, berriz, subjektua *-ec* morfemaz komunztatzen da, (8.i) perpauseko objektua bezalaxe. (8.iii) perpausean, azkenik, *-en* ezarri zaio -singularreko lehen pertsona-predikatu iragangaitzeko subjektuari, (8.i) predikatu iragankorreko subjektuari ez bezala.

Predikatu iragankorreko perpausak (8.i) Aspektu (ASP) ezburutua du, *k-* morfemaz adierazirik; predikatu iragangaitzeko perpausek (8.ii) eta (8.iii), berriz, ASP burutua⁵.

- (8) i. k-in w- il -ik $\check{e}c$
 k-1s ϕ 1 ikusi -irgk 2s ϕ 2
 'Nik zu ikusten zaitut'
- ii. h wèen $\check{e}c$
 h lo egin 2s ϕ 2
 'Zuk lo egin zenuen'

- iii. h lúub en
 h jausi 1s_{φ2}
 'Ni jausi nintzen'

Mameraren adibideak dira ondokoak (9). Mameraz ere, komunztadura sistema ergatiboa da maiera yukatekoaz bezalaxe (England, 1983). Predikatu iragankorreko subjektua A saileko morfemaz komunztatzen da eta predikatu iragangaitzeko subjektua nahiz predikatu iragankorreko objektua, berriz, B sailekoez. (9.i) eta (9.ii) perpausetan *tzeeq'a* 'jo' aditz erroa dugu. Singularreko lehen pertsona *n-* A saileko morfemaz komunztatzen da predikatu iragankorreko subjektua denean (9.i) eta *chin-* B sailekoaz, predikatu iragankorreko objektua denean.

- (9) i. ma tz'-ok n-tzeeq' a-n-a
 irg 2s_{φ2}-dir 1s_{φ1}-jo-dir-1s/2s
 'Nik zu jo zintudan'
- ii. ma chin ok t-tzeeq' a-n-a
 irg 1s_{φ2} dir 2s_{φ1}-jo-1s/2s
 'Zuk ni jo ninduzun'

Ondoko adibideetan (10), *b'eet* 'paseatu' predikatu iragangaitzaren erroa dugu. Singularreko lehen pertsona *chin-* morfemaz markatzen da (10.i) perpausean, (9.ii) perpauseko objektua bezala. Singularreko bigarren pertsona (2s), $\emptyset$ morfemaz adierazten da (10.ii) perpausean, (9.ii) perpauseko predikatu iragankorreko subjektua, *t-* morfemaz, ez bezala.

- (10) i. ma chin b'eet-a
 irg 1s_{φ2} paseatu-1s_{φ2}
 'Nik paseatzen nuen'

- ii. ma $\emptyset$ -b'eet-a
 irg 2s $\emptyset$ 2-paseatu-2s $\emptyset$ 2
 'Zuk paseatzen zenuen'

Euskaraz, halaber, komunztadura sistema ergatiboa da: predikatu iragangaitzeko subjektua nahiz predikatu iragankorreko objektua aditz erroari erantsitako aurrizkiez komunztatzen da aditzean eta predikatu iragankorreko subjektua, berriz, atzizkiez. Goiko adibideetan (4), *ikusi* predikatu iragankorreko perpausean (4.i), *izurdea*, ABS markaturiko argumentua, marka ezaz edo $\emptyset$ markaz⁶ komunztatu da **edun* laguntzailean eta *nik*, ERG kasuaz markaturiko argumentua, bere aldetik, erroaren ondoko -*t* morfemaz. *Joan* predikatu iragangaitzeko perpausean (4.ii), bestalde, $\emptyset$ - morfema ezaz komunztatu da *izurdea* argumentua *izan* laguntzailearekin, (4.i) perpausean bezalaxe.

Bada, komunztadura sistema ergatiboa da euskaraz, mameraz zein maiera yukatekoaz eta nom/akusatiboa, berriz, swahilieraz: komunztadura sistemak ere bereiz ditzake hizkuntza nom/akusatibo eta ergatiboak. Hizkuntza nom/akusatiboetan subjektu eta objektuari kasu marka bana edo $\emptyset$ -*tasun* -komunztadura tasun- bana badagokie ere -NOM/ $\emptyset$ 1-tasuna predikatu iragankor nahiz iragangaitzeko subjektuari eta AK/ $\emptyset$ 2-tasuna, predikatu iragankorreko objektuari, hizkuntza ergatiboetan bi kasu edo bi $\emptyset$ -tasun dagokie subjektuari, ERG/ $\emptyset$ 1-tasuna predikatu iragankorretan eta ABS/ $\emptyset$ 2-tasuna predikatu iragangaitzetan, eta ABS edo $\emptyset$ 2-tasuna bera da predikatu iragankorreko objektuetakoa.

Ilde honetan, haxe galde daiteke ea sistema ergatiboko ABS argumentua den sistema nom/akusatiboko NOM argumentua bera eta ERG, berriz, AK, ala subjektua ERG eta ABS kasuez adierazi arren, ERG argumentua den sistema ergatiboetan NOM argumentuari

dagokiona. Eta kasuak kasu, ez al dagoen sistema nom/akusatibo zein ergatiboetan predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuak halabeharrez bateratzen dituen egiturarik. Honako galdera hau da ondoko azpiatalaren ardatza.

1.1.3 Subjektua: AG berdin S

Gorago nioen bezala, sistema nom/akusatiboetan, predikatu iragangaitzeko nahiz iragankorreko subjektuek bat egiten dute kasu zein komunztadura sisteman, predikatu iragankorreko objektuetatik bereizirik. Sistema ergatiboetan, ordea, predikatu iragangaitzeko subjektuak eta predikatu iragankorreko objektuak dira bat egiten dutenak, predikatu iragankorreko subjektuetatik banaturik.

Sistema nom/akusatiboetan, orduan, subjektu/objektu aurkakotasun gardenen dago, zeren subjektuak berdin markatzen baitira predikatu iragankor zein iragangaitzetan eta objektua ez bezala, gainera: kasu marka bana dagokie hizkuntzotan subjektu/objektuei, alegia, NOM, subjektuei eta AK, objektuei.

Sistema ergatiboek, alabaina, ez dute honelako aurkakotasun morfologiko gardenik, zeren batetik, subjektuak bi kasu morfologiko ezberdin erakus baitezake, predikatu iragangaitzeko subjektuak ABS eta predikatu iragankorrekoak ERG, eta bestetik, predikatu iragankorreko objektuak, ABS bera baitarama.

Dixonek (1979), Keenane (1976) subjektua zehazteko darabiltzan irizpideetatik, subjektuaren unibertsaltasunari lotu eta sistema nom/akusatibo nahiz ergatiboetan predikatu iragankorreko zein iragangaitzeko subjektuak bateratzen dituzten egiturak ditu hizpide, hau da, agintera, aginte aditzen osagarri egiturak eta zenbait

aspektu aditz eta *saiatu* kontrol aditzenak. Egitura hauek predikatu iragankorreko ERG argumentua predikatu iragangaitzeko ABS argumentuarekin bateratzeaz gain, sistema nom/akusatiboko NOM bera dela erakusten dute, ene iritziz.

1.1.3.1 Agintera

Aginteran, hartzaileak AG edo S izan behar du, alegia, predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektua. Aginteran subjektua AG edota S izatea, subjektuaren egiletasunetik dator (Dixon, 1979, 1994).

Euskaraz ere aginteraren hartzailea subjektua da, bai predikatu iragankorrekoa bai iragangaitzekoa. Bigarren pertsonaren izenordainaz gain, hirugarren pertsonarena ere aurki daiteke aditz modu honetan. Dakusagun etsenplu bidez. Bigarren pertsonaren izenordaina predikatu iragangaitzeko subjektua da (11.i) perpausean eta predikatu iragankorrekoa, berriz, (11.ii) perpausean

- {11} i. Zatoz
- ii. Ekar ezazu

Hirugarren pertsonaren izenordaina ere, predikatu iragangaitzeko subjektua da (12.i) perpausean eta iragankorrekoa, aldiz, (12.ii)an.

- {12} i. Etor bedi
- ii. Bekar

Aginteran, hortaz, hartzailea S nahiz AG izan daiteke: ERG argumentua ere subjektua dela erakus daiteke, beraz, agintera bidez, sistema nom/akusatiboko NOM argumentuarekin bateraturik.

1.1.3.2 Aginte aditzen osagarriak

Levinek (1983) kontrol egituratzat jotzen ditu aginte aditzen, hau da, *agindu*, *esan* edota *eskatu* aditzen mendeko perpausez eratzen direnak. Predikatu hauen mendeko perpausetako kontrolpeko argumentuak, predikatu iragankorreko ERG argumentua ala predikatu iragangaitzeko ABS argumentua-izan behar du ezinbestez, subjektua, alegia, baina ezin du, ordea, objektua izan, hau da, predikatu iragankorreko ABS argumentua.

Predikatuok osagarri jokatu zein jokatugabeez lagun daitezke. Osagarri jokatugabeetan, *-ko* atzizkidun nominalizazioa dugu. Ondoko adibideetan (13), *esan* predikatua ageri da, bi eratako osagarriekin, jokatua lehena (13.i) eta jokatugabea bigarrena (13.ii).

- (13) i. Aitak ixil zaitezen esan du
 ii. Aitak ixiltzeko esan du

Predikatu hauek, gainera, Datibo (DAT) komunztadura erakus dezakete aukeran, (14) perpausen erara.

- (14) i. Aitak ixil zaitezen esan dizu
 ii. Aitak ixiltzeko esan dizu

Levinek *-ko* atzizkidun nominalizazio osagarriei erreparatzen die. Ageriko ISrik azaldu ezean, *agindu*, *esan* edota *eskatu* predikatuen mendeko perpausetako isilpeko argumentua, perpaus nagusiko objektuak kontrolatutakoa, AG edo S izan daiteke, ez, O, ordea. (15.i) perpausean, (14.ii) azpiatalean nekarrena, S da isilpeko argumentua; (15.ii) perpausean, berriz, AG⁷.

- (15) i. Aitak ixiltzeko esan dizu
 ii. Aitak telebista itzaltzeko esan dizu

Egitura hauetan, bestalde, nominalizazio osagarriaren subjektuak ez du nahitaez isilpean agertu behar, osagarriaren subjektua perpaus nagusiko objektuaren erreferentziakidea ez denean, agerian eman baitaiteke eta, horregatik, *zu* nominalizazioaren subjektua agerian azalduko zaigu (16) perpausean. Hortaz, ez dira ezinbestez kontrol egiturak (Goenaga, 1985).

- (16) Aitak *zu* ixiltzeko esan du

Dixonek (1979) dioenez, aginte predikatuak berdin darabiltzate sistema nom/akusatibo zein ergatiboek, subjektuak berdindu eta objektuetatik bereiziz. Ondoko azpiatalera (17) dakartzadan ingelesaren perpausetan, *order* 'agindu' eta *tell* 'esan' aginte aditzak ditugu. Perpaus jokatugabearen subjektua *S* da (17.i) perpausean eta *AG*, berriz, (17.ii) perpausean.

- (17) i. I ordered him to go
 nik agindu berari joan
 'Nik berari joateko agindu nion'
- ii. I told him to bring the water
 nik esan berari ekarri ura
 'Nik berari ura ekartzeko esan nion'

Sistematik sistemara, beraz, ez da bereizkuntzarik: osagarri egituretako isilpeko argumentua, perpaus nagusiko objektuak kontrolatutakoa, *S* ala *AG* izan daiteke baina ez, aldiz, *O*. Aginte aditzen osagarri egituretan, orduan, aginteran bezalaxe, predikatu

iragangaitzeko nahiz iragankorreko subjektuak berdintzen dira baita sistema ergatiboetan ere, ERG argumentuari subjektutasuna egotziz.

1.1.3.3 Hasi, amaitu edota saiatu aditzen osagarriak

Hasi, amaitu aspektu aditzen edota *saiatu* kontrol aditzaren mendeko perpausaren subjektua, AG zein S, perpaus nagusiaren subjektu bera da. Dixonek (1979, 1994) dakarzkigu ondoko etsenpluak ingelesez (18).

- (18) i. I began to paint the wall
 ni hasi pintatu horma
 'Ni horma pintatzen hasi nintzen'
- ii. I began to laugh
 ni hasi barre egin
 'Ni barre egiten hasi nintzen'

Perpaus hauetan *begin* 'hasi' A nagusiko perpausaren subjektua eta *paint* 'pintatu' edota *laugh* 'barre egin' predikatuko mendeko perpausen subjektu bera da, *I* 'ni' argumentua. Mendeko subjektua AG da (18.i) perpausean eta S (18.ii), perpausean.

Euskaraz *-n* inesibodun nominalizazio egiturak dira *hasi, amaitu* edota *saiatu* aditzekin batera datozkigun osagarri egiturak (Goenaga, 1985). Adibideetan ikus daitekeenez, mendeko perpausaren subjektua eta perpaus nagusiarena subjektu bera da. Isilpeko argumentua AG da (19.i) eta (19.ii) perpausetan eta S, (19.iii) perpausean.

- (19) i. Xabier hitz egiten hasi da
- ii. Garazik txokolatea jaten amaitu du
- iii. Iñaut ibiltzen saiatzen da

Predikatu hauen osagarri egituretan AG zein S izan daiteke isilpeko argumentua sistema nom/akusatibo eta ergatiboetan, eta aginte aditzen osagarri egiturak ez bezala, kontrol egiturak dira halabeharrez. Honenbestez, sistema nom/akusatiboetan ematen den subjektu/objektu aurkakotasun bera da ardatz sistema ergatiboetan ere eta ildo honetan, ez dirudi, ERG argumentua NOM argumentutik bereiz daitekeenik, Chomsky (1993) eta Bobaljikekin (1992 b, 1993) bat etorritz, erakutsiko dudana bezala (1.2)⁸.

1.2 BIDEZIDOR GURUTZATUAK: ERG BERDIN NOM

Dakusagun orain Kasu Teoriak sistema nom/akusatibo eta ergatiboak aztertzerakoan, darabiltzan bi hipotesiak. Lehen hipotesiari lotuko natzaio (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1992 b, 1993), sistema ergatiboetako ERG argumentua, sistema nom/akusatiboetako NOM argumentuari eta ABS, aldiz, AKri dagokiola erakutsiz. Hipotesi honek ERG argumentua sistema nom/akusatiboetako NOM argumentua bera dela iritzirik, berari egozten dio subjektutasuna predikatu iragankorreko perpausetan (Sarasola, 1977; Rotaetxe, 1978, 1979; Eguzkitza, 1986; Hualde, 1986; Ortiz de Urbina, 1989).


1.2.1 D eta KMZ funtzio buruak , egiturazko kasua eta Gutizia

Chomsky (1991, 1993) eta Bobaljik (1992 b, 1993), Pollocken (1989) ildoan, D eta KMZ buruak bereizi dituzte Inflexioan (INFL)⁹, eta KMZ buruari, halaber, beste bi buru egokitu diote, subjektu komunztadurarako bata, KMZ1, eta objektu komunztadurarako, bestea, KMZ2¹⁰. Murasugik (1994) ere, Murasugik (1992) ez bezala, bi KMZ buru darabil perpausean.

Chomsky/Bobaljik hipotesiak, bestalde, bi KMZ buru baino banatzen ez badu ere, eta neuk ere argumentu bat ala biko predikatuez dihardudala, bi KMZ buruok besterik ez badarabiltzat ere, bada, ene aburuz, *bigarren objektu* edo *zihar objektuetarako* bereizi beharreko hirugarren KMZ burua, KMZ3 alegia. Hiru KMZ buru darabilte, era berean, Hualdek (1986), Collins & Thráinssonek (1993), Cheng & Demirdachek (1993), Koizumik (1993) edota López & Austine (1995).


D eta KMZ, D''eta KMZ'' sintagmen buru dira, Aditz sintagma (AS), KMZ2''ren osagarri eta KMZ2'', era berean, Drena. Honakoa (20) dateke, bada, perpausaren funtsezko adierazpena Pollock (1989) abiaburu duen Chomskyri (1991, 1993) jarraiki, *Egitarau Minimalistaren* baitan¹¹.

(20)



Predikatu iragankorra da goiko adierazpenaren oinarri (20). Predikatu iragankorrak bi argumentu du ezinbestez, IS1 (subjektua) eta IS2 (objektua), ASren Espez gunean sortua lehena -barne subjektuaren hipotesiarekin bat etorririk (Fukui & Speas, 1986; Kuroda, 1988; Koopman & Sportiche, 1991; Kitagawa, 1994)- eta ASren osagarri gunean, bigarrena. (21)ra dakart berriro ASren oinarrizko eraketa, euskararen *buru-azkeneko* kokapenarekin.

(21)




Bestalde, hiztegian bildutako ale lexikoak konputazio sistemari¹² egokitu eta ale *sailak* osatzeko *X-Barra Teoriaz* balia gaitzke, beronek dakartzan hatsarreak baitira sailen eraketarako oinarria¹³. Ale

lexikoen arteko funtsezko harremanak ezartzen ditu, halaber, X-Barra Teoriak. Funtsezko harreman hauek buruari lotzen zaizkio eta leku harremanak dira gainera: *Espezifikatzaile-buru harremana*, ZS Xri lotzen zaiona eta *buru-osagarri harremana* X YSri lotzen zaiona (22)an.

- (22) i. XS (ZS) X'
ii. X' (YS) X

Edota (23)an, zuhaitz bidez.

(23)



Kasu Teoria X-Barra Teoriak aditzera eman dituen harreman primitiboetan oinarritzekotan, funtsezko harreman bietatik, Espez/buru harremanean zilegiztatuko da *egiturazko kasua*: ISek, subjektuak zein objektuak, [Espez, KMZ] gunean erkatuko dute egiturazko kasua, eta berau ezeze, ϕ -tasunak ere gune horretantxe zilegiztatuko dituzte: IS eta KMZ funtzio buruaren arteko Espez/buru harremana da erkaketan oinarri.

Izan ere, ale lexikoak flexionaturik datozkigu hiztegitik (Chomsky, 1993): α ale lexikoa badugu, α k inflexio tasunak dakartza hiztegitik -hipotesi lexikalistari hertsiro lotuz- eta tasunok erkatu eta zilegiztatu behar ditu, eratorpenak Forma Fonetikoa (FF) eta Forma Logikoa (FL) elkarguneekin bat egingo badu¹⁴.

Gatozen (24) adibideetara -(4) azpiatalean emanik dagoeneko-.

- (24) i. Nik izurdea ikusi dut
ii. Izurdea joan da

Adibideen azalpenean nioen bezala, (24.i) predikatu iragankorreko perpausean bi argumentu dugu, *nik* batetik, ERG kasuaz markaturik, eta *izurdea* bestetik, ABSz flexionaturik. *Ikusi* predikatu iragankorraren **edun* laguntzailea, gainera, aipatu bi argumentuekin komunztaturik dator eta iraganean jokaturik. (24.ii) *joan* predikatu iragangaitzeko perpausean, argumentu bakarra dugu, *izurdea*, *izan* laguntzaileaz komunztaturik. (24.i) eta (24.ii) perpausetako IS nahiz Ak, orduan, inflexio tasunak dakartzate hiztegitik eta eratorpenean zehar erkatu behar dituzte.

α k berez dakartzan inflexio tasunak zilegiztatzeko, KMZ buruaren tasunekin batera erkatu behar ditu [α , KMZ] konplexuan: α ren tasunak KMZren tasunekin erka badaitezke, desagertu egingo dira eta *eratorpenak bat egingo du FFrekin*; α ren tasunak KMZren tasunekin erkatu ezin badira, aldiz, tasunek *Ahoskatu* ondoren iraungo dute eta *eratorpenak huts egingo du FFn*.

Deritzegun *Izen tasunak* (*I-tasunak*), IS mugiarazi eta Espez/buru harremanean erkatzen direnei. ISk dakartzan ϕ -tasunek KMZ buruaren ϕ -tasunekin bat egin behar dute eta kasuak, KMZ buruari adjunktatutako D eta Aren kasuarekin. Bada, ISk nahiz D, A eta KMZ buruek dakartzate I-tasunak eta ISk [Espez, KMZ] gunea iritsi eta jatorriz dakartzanen erakoak badira D, A eta KMZ buruenak, I-tasunok erkatu eta desagertuko dira.

(24.i) perpausean, kasurako, *nik* ISk ERG kasua eraman behar du Dk daraman bezala eta baita KMZ1en ϕ -tasunekin bat egin ere, alegia, singularreko lehen pertsonaren -*t* morfemak islatzen dituen ϕ 1-tasunekin. Eta *izurdea* ISk Aren ABS kasua ezeze, singularreko

hirugarren pertsonaren $\emptyset$ morfema ezak islatzen dituen ϕ 2-tasunak ere erkatu behar ditu KMZ2rekin batera.

Tasunak, halaber, *Aditz-tasunak* (A-tasunak) izan daitezke, hau da, buruaren mugimenduari lotu eta buruz buruko adjunkzioaz erkatzen direnak. (24.i) perpausera itzuliz berriro, *ikusi dut* A, KMZ eta D buruei adjunktatu zaie, zeren ϕ 1/ ϕ 2-tasunak ezeze, [+iragan, -alegia] tasunak ere erkatu behar baititu besteak beste.

IS nahiz Aren mugimendua edo, oro har, edozein bururen mugimenduaz mintzatu naiz lerro hauetan. Aleen mugimendua, alabaina, ez da edonolako mugimendua, *Ekonomia Hatsarreei* loturikoa baino: IS zein Arena, mugimendu *gutiziatsua* da, aleak beren betebeharrak morfologikoak asetzekotan mugitzen dira jatorrizko guneetatik beste guneetara, beren inflexio tasunak erkatzekotan. *Gutizia* hatsarreak (Chomsky, 1993) mugiarazten ditu IS zein A bera ere: ez dago mugimendu *altruistikorik*, hau da, beste aleen beharretan lagungaririk, nork bere burua asetzekoa baino¹⁵.


IS nahiz Aren mugimendu gutiziatsua (24.i) adibideaz erakus daiteke, I nahiz A-tasunen erkabidea azalduz. *Ikusi* predikatu iragankorren bi argumentuak, *nik* eta *izurdea*, kasu nahiz ϕ -tasunez markaturik datozenak, *Kasu Iragazkia* urratu ezean, jatorrizko guneetatik KMZren Espez guneetara mugituko dira, I-tasunak erkatzera. (25)era dakart *Kasu Iragazkia*, ISk kasua ezinbestez erkatzera daramatzana.

- (25) *Kasu Iragazkia*
Argumentu orok X kasua erkatuko du nahitaez

Aipatu predikatu iragankorreko perpausaren eratorpenerako, bi KMZ buruak *indarrean* dirateke: subjektuak, *nik*, [Espez, KMZ1] gunean zilegiztatuko du kasua, alegia, ERG kasua, eta objektuak,

izurdea, bere aldetik, [Espez, KMZ2]n ABS kasua. Subjektuari (Subj) begira diezaiogun lehenik (26)an.


(26)



ASren Espez guneko IS1ek -ikus (21)-, alegia, subjektuak, ERG kasua dakar hiztegitik. D, bere aldetik, ERG kasua ere badakarrena, KMZ1 buruari adjunktatuko zaio ($[_{\text{KMZ1}} D_i \text{ KMZ1}]$, t_i) katea osatuz. Halatan, IS1ek [Espez, KMZ1] iritsirik, ERG erka dezake eta kasua ezeze, ϕ -tasunak ere erkatuko ditu gune horretantxe.

Dakusagun orain ASren osagarri guneko IS2, hots, objektua (Obj) (27)an.

(27)




IS2 jatorrizko gunetik [Espez, KMZ2]ra igoko da, ABS zilegiztatzera: Ak, ABS kasua dakarrena, KMZ2 gunea iritsiko du $\{ [_{kmz2} A_i \text{ KMZ2}] , t_i \}$ katea osatuz eta KMZ2ren Espez gunean ABS erkatuko du IS2k. Subjektuarekin gertatu bezala, kasua ezeze, IS eta Aren arteko ϕ -tasunak ere honelaxe erkatuko ditu objektuak.

Hipotesion euskarria subjektu eta objektu inflexioaren *simetrikotasuna* da, zeren subjektu nahiz objektuetan KMZ buruari adjunktatutako buruaren arabera kasua baitugu -KMZri D adjunktatuz gero, ERG/NOM eta A adjunktatuz gero, ordea, ABS/AK-eta, gainera, KMZ baita IS eta Aren arteko tartekari, KMZ buruaren ϕ -tasunen sorta delarik komunztaduraren adierazgarri bai subjektuan bai objektuan (Chomsky, 1993).

(28)ra dakart predikatu iragankorreko edozein perpausen eredu datekeena sistema ergatibo nahiz nom/akusatiboetan, hau da, euskararen (24.i) edota miskitoeraren (5.i) perpausak azal ditzakeena. Eratorpenean ikus daitekeenez, objektua zein subjektua [Espez, KMZ] guneeetara igo dira jatorrizko guneeetan aztarna utziz.

(28)



Ez dirudi, beraz, subjektu zein objektuei kasua egoztean, bereizkuntzarik dagoenik, X-Barra Teoriak dakartzan funtsezko harremanetan oinarritzen bagara: Espez/buru harremanari, alegia, (IS, KMZ) harremanari zor zaio egiturazko kasuaren erkaketa eta berau ezeze, KMZ buruaren ϕ -tasunen zilegiztatzea ere.

Subjektuaren kasua NOM da sistema nom/akusatiboetan, eta ERG, sistema ergatiboetan; eta objektuaren kasua, bestalde, AK, sistema nom/akusatiboetan, eta ABS, sistema ergatiboetan. Predikatu iragankorreko perpausetan, bada, bai NOM bai ERG, egiturazko kasu bera da, subjektuaren kasua, kasu bietan gorago dagoena; AK eta ABS, halaber, objektuaren kasu beraren bi erakusgarri dira: sistema nom/akusatiboetatik ergatiboetara antzeman daitekeena bereizgarritasun morfologiko hutsa da.

1.2.2 Mugimendu Laburrena eta Distantziakidetasuna

ISk, kasua erkatzekotan [Espez, KMZ] gunea iristen duela nioen goiko atalean (1.2.1). Dakusagun orain ISen mugimenduaren izaera. Kasu Teorian *gurutzatzea* dugu, ez, ordea, *kabiratzea*: ASren barne subjektuak [Espez, KMZ2] gurutzatuko du, [Espez, KMZ1] iristekotan eta objektuak, halaber, subjektu gunea gurutzatu behar du, [Espez, KMZ2]ra heltzekotan. Predikatu iragankorreko perpausetan, ISeK, bidezidor kabiratuak baino, bidezidor gurutzatuak eratzen dituzte.

Ekonomia Hatsarreetan oinarriturik, kabiratzea behar luke Kasu Teoriak, ez gurutzatzea, *Gutxieneko Ahaleginaz* (Chomsky, 1995), eratorpenik laburrena baita gramatikala dena. Horregatik, subjektuak [Espez, KMZ2] gunea gurutzatu baino gune horretantxe kabiratu behar luke. Baina Mugimendu Laburrena Distantziakidetasunaren arabera berdefinituz gero, gurutzatzea da nahitaezkoa eta, gainera, balizko mugimendu bakarra (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993). (29)ra dakart Mugimendu Laburrenaren definizioa.

- (29) *Mugimendu Laburrena*
 α eta β *Gutxieneko Eremu* berean badaude, γ ren
 distantziakideak dira

Illo honetan, Distantziakidetasuna hiru KMZ buru indarrean dagoenean ere betetzen da, ene aburuz - ikus hirugarren kapitulua. Izan ere, hiru KMZ buru indar daiteke, baldin eta hiru argumentuko predikaturik badago eta Distantziakidetasuna, *AS azalaren* (Larson, 1988) baitako KMZ2 A1en osagarria denean baino ez da beteko.

KMZ3ren gaineko hipotesia garatzear, bego honako hau gogoan, alegia, Kasu Teoriak predikatu iragankorreko perpausetan baldin eta Distantziakidetasunari baderitza Mugimendu Laburrenaren ardatza,

Distantziakidetasuna nahitaez beteko dela hiru argumentuko predikatuetan ere.

Mugimendu Laburrenaren definizioan (29), bestalde, Gutxieneko Eremu bereko elementuei iritzi diet distantziakide baina, zer da Gutxieneko Eremua?, edo zer da Eremua bera? *Mendekotasunari* lotuko natzaio lehenik (30), Gutxieneko Eremuaren funtsa baita.


- (30) α β menderatzen du, α ren segmentu¹⁶ guztiek β menderatzen badute

Mendekotasunean, beraz, α ren segmentu *guztiek* menderatzen dute β eta α ren segmenturen *batek* baino menderatzen ez badu, *Barrukotasunaz* dihardugu, orduan (31). Barrukotasunean oinarritzen da, halaber, Eremuaren definizioa.

- (31) α β barruan du, α ren segmenturen batek β menderatzen badu.

Dakusagun (32)an. XSk, ZS, WS, X' eta berauek menderatzen duten guztia menderatzen du; ZSk WS barruan du baina ez du menderatzen eta Xk, azkenik, H barruan du baina ez du menderatzen.

- (32)



Barrukotasuna azaldu eta (32) azpiataleko segmentuetan erakutsirik, gatozen orain Eremua definitzera (33).

- (33) α ren Eremua: " (α) Gorenak¹⁷ barruan duen α ez beste adabegi multzoa, zeinak α bere barruan ez duen."

Xren Eremuan, orduan, ez da ez X ez X barruan duen segmenturik. Xren Eremua ondoko segmentuek osatzen dute (32) azpiatalean: {X} Eremua= {US, ZS, WS, YS, H, RS}.


Definizio hauek islatzen duten formalizazio mailarengatik ere, ez da abiaburua ahaztu behar: ISek Mugimendu Laburren azaldu eratzeko bidezidor gurutzatuak, zeren Gutxieneren Eremuko α eta β , γ ren distantziakideak direnez, α β gurutza baitezake, γ jomuga iritsirik. Gutxieneren Eremua defini dezadan (34), azkenik, γ jomugaren segmentu distantziakideak identifikatzekotan.

- (34) Sren Gutxieneren Eremua: Sren K azpimultzorik txikiena, zeinetan Kren zenbait β bere burua ezeze, Sren γ oro ere menderatzen duen.

Sren Gutxieneren Eremuko β , orduan, bere burua ezeze, Sren γ oro menderatzen badu, Xren Gutxieneren Eremua {US, ZS, WS, YS, H}¹⁸ dateke (32) azpiatalean eta Hrena, berriz, {US, ZS, WS, YS}.

Baina gatozen berriro ISren mugimendura (35). Objektuak subjektua gurutza dezake [Espec, KMZ2]ra heltzekotan, zeren A KMZ2ri adjunktatuz gero eratu den kateak, hau da, $\{[_{kmz2} A_i KMZ2], t_i\}$ kateak duen Gutxieneren Eremua {Espec, Subjektua, Objektua} baita eta, beraz, [Espec, KMZ2] eta subjektu guneak objektuaren distantziakideak dira.


(35)



Izan ere, objektua [Espez, KMZ2] gunera mugi daiteke, [Espez, KMZ2] eta subjektu guneak, objektu gunearen distantziakideak diren heinean. Espez gune biok distantziakideak direnez, objektuak subjektua igaroz eratzen duen bidezidor gurutzatuak ez du Mugimendu Laburrena urratuko, beti ere objektua [Espez, AS] gunetik igaro eta [Espez, KMZ2]ra badoa, hau da, jarraian aurkitzen duen Espez gunera.


Subjektua, halaber, [Espez, KMZ2] igaro eta [Espez, D] gunera igo liteke, horixe balitz bi jomugetan lehena, (36)an bezala.

(36)



Baina, (37)an adierazten dudan erara, [Espez, KMZ1] gunea iritsiko du, hots, [Espez, KMZ2] igaro eta jarraian dagoen Espez gunea. [Espez, KMZ1]rako mugimenduak ez du, dena den, Mugimendu Laburrena urratuko, [Espez, D] artean sortu gabeko gunea baldin bada. (37) azpiatalean, (26) bera, D funtzio burua KMZ1i adjunktaturik osatutako [D KMZ1] buru anizkuna dugu. Subjektua, bere aldetik, [Espez, KMZ1] gunera igo da, [Espez, KMZ2] igaro ondoko lehen Espez gunera.

(37)




Demagun, alabaina, ASren barne subjektua [Espez, KMZ2]n kabiratu dela, [Espez, AS] gunean *t* aztarna utziz. A KMZ2ri adjunktatuz eratu den katearen Gutxieneko Eremua orduan {subjektua, *t*, objektua} dukegu eta subjektua eta *t* aztarna objektuaren distantziakideak dirateke. Objektua, horren ondotik, [Espez, KMZ2]ra igo liteke baina subjektuak gune hau beteko zukeen ordurako. [Espez, KMZ2] gunea igaro eta [Espez, D] edo [Espez, KMZ1] guneetara igotzea baino ez dauka, beraz, baina [A KMZ2 D] KMZ1i adjunktatutakoan, eratzen den katearen (KT') Gutxieneko Eremutik kanpo dukegu subjektuaren *t* aztarna. Objektuak, horregatik, ezin gurutza dezake *t* eta ezin irits dezake [Espez, KMZ2] baino.

(38)an ikus daiteke, subjektua [Espez, KMZ2]n kabiratu deneko balizko hipotesia. Objektuak [Espez, D] edo [Espez, KMZ1] guneak

iritsita, subjektuaren t_k aztarna eratu den KT'ren Gutxieneko Eremutik at egonik, Distantziakidetasuna urratu eta balizko eratorpenak huts egingo du.

(38)



Bada, predikatu iragankorreko perpausetan, ISeK jatorrizko guneetatik [Espec, KMZ] guneetara doazela, ezin dezakete bidezidor kabiraturik eratu, bidezidor gurutzatuak baino. Bidezidorrak, gainera, halabeharrez gurutzatuko dira, gurutzatzea baita, distantziakidetasuna urratu ezean, eman daitekeen mugimendu bakarra.

1.2.3 Tasunak eta hitz hurrenkera

I nahiz A-tasunak ezberdindu ditut (1.2.1) atalean, IS nahiz buruen mugimendua azaltzerakoan: ISk I-tasunak erkatzekotan mugitzen dira [Espez, KMZ] gunetara eta A ere, A-tasunak erkatzeko gutiziaz buruz buru mugitzen da.

IS nahiz buruen mugimendu gutziatsu honek hitzen hurrenkera jakina dakarkie perpausei eta, halaber, hitzen hurrenkera kanonikoa hizkuntzatik hizkuntzara aldakorra denez, bi eratako tasunak bereizi dira, hau da, tasun *ahulak* eta *sendoak*.

Tasun *sendoak ikusgarriak* dira FFn eta, hortaz, *agerian* erkatu behar dira, Ahoskatu aurretik, alegia: eratorpenak FFekin bat egingo badu, tasun *sendoak* ez du FFn *ikusgarria* izan behar, tasun *sendoak FFko sasiobjektuak* direlako. Tasun *ahulak*, berriz, ez dira *ikusgarriak* FFn eta halatan, *ezkutuan* erka daitezke, hau da, Ahoskatu ondoren. Tasun *ahulen* erkaketan, *Luzatu* hatsarreari lotuko zaio eratorpena: ahal dela, FLraino luzatuko da mugimendua, FLko mugimendua, hau da, ezkutuko mugimendua baita merkeena.

Ez dut hitz hurrenkeraz luzaz jarduteko asmorik, ezta euskararenaz behin betiko hipotesirik formulatzeko ere, baina tasunen sendotasunak hizkuntzatik hizkuntzara erator dezakeen hurrenkeraz zenbait gogoeta ekarri nahi dut lerro hauetara, euskaraz *sendo* ala *ahul* ote diren ebatzeko irizpide izan daitekeelakoan. Dena den, tasunak *sendo* ala *ahulak* ote diren ebatzi behar da, baldin eta Kayneri (1994) jarraitzen bazaio.

Gorago nioenez, (28)ko eratorpena predikatu iragankorreko edozein perpausi dagokio sistema ergatibo nahiz nom/akusatiboetan. Ez nioen, alabaina, eratorpen hark Subjektu (S), Aditz (A) Objektu (O) hitz hurrenkera ekar zezakeenik, hau da, frantsesez edota ingelesez

dagoen hurrenkera bera. Eratorpen hura nerabilen, gainera, euskararen (24.i) perpausa azaltzeko eta perpaus hartan, S, O eta A zetozkigun hurrenez hurren, euskara SOA hizkuntza baita (De Rijk, 1969). (28) eratorpenak, orduan, euskararen SOA nahiz frantses edota ingelesaren SAO hurrenkeren berri eman al dezakeen galde daiteke; eta baita frantses eta ingelesa SAO hizkuntzak izanik ere, ezin daitezkeen hitz hurrenkeraz bereiz. Dakusagun, bada, bi hizkuntza hauen arteko bereizkuntza.

Pollockek (1989) dakarkigu frantses eta ingelesa hitz hurrenkeraz bereizteko abiaburua¹⁹. Pollockek darabiltzan datuetatik gatozen lehenik (39), *not/pas* 'ez' ezezko perpausen sailera.

- (39) i. *John likes not Mary
John gustatu ez Mary
- ii. Jean n'aime pas Marie
Jean ez maite ez Marie
'Jonek ez du Miren maite'


Ingelesaren (39.i) perpausa ezgramatikala da, zeren ingelesez A ezin ager baitaiteke *not* ezeztapenaren aurretik. Frantsesaren (39.ii) perpausa, aldiz, gramatikala da, A *pas* ezeztapenaren aurretik badator ere. Eta ingelesez, perpaus gramatikalik eratzekotan, gainera, *not* eta A hurrenez hurren datoz (40) perpausean bezala.

- (40) John does not like Mary
John ez gustatu Mary
'Jonek ez du Miren maite'

Aren mugimenduak bereizten ditu, orduan, frantsesaren (39.ii) eta ingelesaren (40) perpausak. Baina gatozen urratsez urrats. Chomsky (1991, 1993) edota Bobaljik (1993), Pollocki lotu zaizkio INFLren

baitan KMZ eta D buruak bereizterakoan -ikus (20)-. Pollockek INFL eta KMZ bereizi, eta *not/pas* ezeztapen sintagma (EZ'') INFL'' eta KMZ''ren artean ezarri du²⁰. Adberbioa, gainera, Aren ezkerretara dago, Pollocki jarraiki, (41)era dakardan perpausaren egitura. Balia gaitzen, bada, (41) egituraz, (39.ii) eta (40) perpausen arteko bereizkuntza azaltzeko.

(41)



Frantsesaren (39.ii) perpausean Ak INFL iritsi du. eta horregatik, *pas* ezeztapenaren ezkerretara dago. Ingelesaren (40) perpausean, ordea, A ez da INFLra igo -ez agerian bederen- eta, hortaz, *not* ezeztapenaren eskumatara dago.

Emondsen (1978) iritziz, frantsesez Ak halabeharrez igo behar du INFLra eta ingelesez, ostera, *have* '*edun' edota *be* 'izan' Aek baino ez dute INFL iristerik. Alabaina, Chomskyren aburuz, Ak bere A-tasunak ezinbestez erkatu behar baditu, halabeharrez adjunktatuko zaio INFLri bi hizkuntzetan, adjunkzioa era ezberdinekoa izan arren: Ak agerian igo behar du frantsesez eta ezkutuan, ostera, ingelesez. Hona hemen, bada, bi hizkuntzen arteko bereizkuntza: INFLren A-


tasunak sendoak dira frantsesez -horregatik, agerian erkatu behar dira- eta ahulak ingelesez, adjunkzioa FLra arte luzatuz.

Gatozen bigarrenik, bai/ez erako bi galderetara (42). Bietan INFL Sren ezkerretara dago.

- (42) i. *Likes he Mary?
gustatu hura Mary
- ii. Aime-t-il Marie?
maite hura Marie
'Hark Miren maite al du?'

(42) perpausek INFLren ezkerretarako mugimendua islatzen dute, hots, INFLren Konplementatzailerako (KONP) mugimendua, (43)ra dakardan modura.

(43)



INFLren mugimendua ezkerretara erakusten duten bi perpausetatik, (42.ii) baino ez da perpaus gramatikala. Pollockek dioenez, *like* Ak, subjektuaren aurretik azalduko bada, hau da, KONP iritsiko badu, INFLra mugitu behar du lehenik baina ingelesez A

lexikoak ezin daitezke agerian INFLra mugi. Hortik, (42.i) perpausaren ezgramatikaltasuna.

Dakartzadan gogora azkenik (44), *often* edo *souvent* 'sarri' adberdiodun perpausak.

- (44) i. *John kisses often Mary
John musukartu sarri Mary
- ii. Jean embrasse souvent Marie
Jean musukartu sarri Marie
'Jeanek Marie sarri musukartzen du'


Adberbioa ezin mugi daiteke eskumatara eta horregatik, (44.i) perpausean *often* Aren eskumatara egotekotan, Ak agerian igo beharko zukeen INFLra, baina mugimendu hori ez da zilegi ingelesez. (44.ii) perpausean, ordea, *embrasse* 'musukartu' A INFLra mugitu da agerian eta *souvent* adberbioa, beraz, Aren eskumatara dator, ezgramatikaltasunik gabe. Areago, frantsesez perpaus ezgramatikalik eratu ezean (45.ii), Ak agerian igo behar du INFLra eta ingelesez, berriz, A agerian igo ez bada ere, perpaus gramatikala da (45.i).

- (45) i. John often kisses Mary
John sarri musukartu Mary
- ii. * Jean souvent embrasse Marie
Jean sarri musukartu Marie

Etzenpluok -(39), (42) eta (44)-, Pollockek (1989) berak nahiz Chomskyk (1991, 1993) azaldu dituzte, tasunen sendotasunaren araberrako bereizkuntza ezarriz ingeles eta frantsesaren artean: KMZren A-tasuna ahula da ingelesez eta sendoa frantsesez. KMZren A-tasunez, A KMZ2ri adjunktatuko zaio eta adjunkzio honen bidez


eratutako [_{KMZ2} A KMZ2] buru anizkuna, KMZ1i. Ingelesezt, bada, ezkutukoak dirateke buruz buruko bi mugimendu hauek; frantsesezt, aldiz, agerikoak, (46)ra dakardan bezala.

(46)



Gainerako tasunetan bi hizkuntzek bat egiten dute. Ingelesezt zein frantsesezt Dren A-tasuna sendoa da. D, bada, agerian adjunktatuko zaio KMZ1i, [_{KMZ1} D KMZ1] buru anizkuna sortuz. Ageriko adjunkzio honi lotuz, IS1 agerian igoko da buru anizkunaren Espez gunera eta bertan erkatuko du Dren A-tasuna ere, bi hizkuntzetan ere sendoa dena²¹. (47) azpiatalean ikus daitezke bi mugimendu hauek.

(47)



Izan ere, *Islapen Hatsarre Zabaldua* (48) azpiatalean zehazturik-Dren I-tasunaren arabera birformula daiteke (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993; Bobaljik & Carnie, 1992), perpaus orok subjektua izango badu, tasun hori erkatu behar baita.

(48) *Islapen Hatsarre Zabaldua*
Perpaus orok subjektua behar du

Ondora (49) dakartzat ingeles zein frantsesaren tasunak taularaturik.

(49)		ingeleza	frantsesa
KMZ	I-tasun	ahula	ahula
	A-tasun	ahula	sendoa
D	I-tasun	sendoa	sendoa
	A-tasun	sendoa	sendoa

Frantses eta ingeleza, bada, KMZren A-tasun soilaz bereiz daitezke baina euskara ere desberdin daiteke hizkuntza horietatik. Buruak *lehenik* edo *eskumatara* ezarriz gero (Kayne, 1994) -ikus (20)-, honelaxe tipifika litezke euskararen tasunak (50) taula-, frantsesaren

tasunen aldean. Baina KMZren A-tasunari sendo iritziz gero, SOA hurrenkera ezin erator daiteke. Horregatik, tasunak behin behinean tipifikaturik ere, euskaraz buruak *azkenean* edo *eskumatara* daudela ebatziko dut amaieran (Laka, 1989 a).

(50)		frantsesa	euskara
KMZ	I-tasun	ahula	sendoa ?
	A-tasun	sendoa	sendoa ²²
D	I-tasun	sendoa	sendoa
	A-tasun	sendoa	sendoa

Ingelesarekin alderatuz gero, bestalde, KMZren I-tasunak ezeze, KMZren A-tasunak ere ezberdin dezake euskara ingelesetik, euskaraz sendoa baita eta ingelesez, berriz, ahula, (51) azpiatalean dakardan bezala.

(51)		ingeleza	euskara
KMZ	I-tasun	ahula	sendoa ?
	A-tasun	ahula	sendoa
D	I-tasun	sendoa	sendoa
	A-tasun	sendoa	sendoa

Dakusagun, bada, euskararen tasunak honelaxe tipifikatzeak -(50) eta (51) taulak- euskal perpausetara dakarren hitz hurrenkera. (52) perpausak euskararen hitz hurrenkera ezmarkatua dakar (Euskaltzaindia, 1987 a).

(52)	Jonek	Miren	maite	du
	S	O	A	INFL

Abia gaitezen KMZren A-tasunetik. Tasun honi sendo deritzat euskaraz, frantsesez bezala, Ak agerian iristen duelako INFL. Begira diezalogun berriro (52) perpausari: A eta INFL hurrenez hurren datozkigu bertan eta hurrenkera irauliz gero, perpausa ezgramatikala da (53)²³.

(53) *Jonek Miren du maite

A, gainera, perpaus hastapenean azal daiteke bai/ez erako galderetan (54) -gonbaratu (42) perpausekin-.

(54) Maite du Jonek Miren?

Goiko perpausean INFLk KONP iritsi du buruz buru baina A bera ere INFLra igo da aurretik, eta hori ezin gerta daiteke KMZren A-tasuna sendoa ez bada. Ondoko perpausean (55) ere, A perpaus hastapenean ageri da, A bera galdegaia delarik²⁴.


(55) Maite du Jonek Miren

KMZren A-tasunaz, bada, ingelesetik bereiz daiteke euskara, eta frantsesarekin berdindu. Dren tasunei dagokienean, bestalde, *Islapen Hatsarre Zabaldua* euskaraz ere betetzekotan, sendo deritzet Dren I-tasunei, frantsesez edota ingelesez bezala. Eta Dren A-tasunak ere sendo diren heinean, [Espez, D] ezin sortuko da euskaraz -irlanderaz ez bezala (Bobaljik & Carnie, 1992)- eta Dren adjunkzioaz eratutako [kmz I D KMZ1] buru anizkunaren Espez gunea iritsiko du ISk, bertan I-tasunak erkatuz Drekin batera. Gogora bedi, [Espez, D] sorturik, AS hurrenkera erator daitekeela irlanderaz baina ez euskaraz ez frantsesez ez ingelesez ez da gun e hori sortu behar, hiru hizkuntzetan hurrenkera bera baita, SA alegia.

Hizpide izan ditudan tasunetan, orduan, ezin bereiz daiteke euskara frantsesetik eta bada bi hizkuntzetan berezitasunik, ordea, zeren euskarak OA hurrenkera duen bitartean, frantsesak AO hurrenkera baitu. ISen mugimendua KMZren I-tasunari dagokionez, gainera, tasun horren sendotasunak berak bereizi beharko lituzke bi hizkuntzak eta pentsa liteke frantsesez ahula bada, euskaraz, ordea, sendoa dela. Alabaina, KMZren A-tasunari sendo deritzadanez, alegia, Ak KMZ agerian iristen duenez, ISk [Espez, KMZ] agerian iritsirik ere, A nahitaez ageriko da Oren aurretik, eta hori ez da euskararen hurrenkera.

Ilido honetan, euskaraz buruak ezkerretara ezarririk, SOA hurrenkera ezin erator dezakedanez, eskumatara ezarriko ditut eta hurrenkera horrexerri lotuko natzaio aurrerantzean, hau da, burua azkenik dakarren hurrenkerari. (24.i) perpausari, beraz, (28) baino, (56) eratorpena egotziko diot -edonola ere, (56) eta (28) eratorpenak buruaren kokalekuak baino ez ditu bereizten-.

(56)



Aintzat izan, buruak eskumatara kokaturik ere, ezin daitekeela KMZren l-tasuna sendo ala ahula ote den ebatzi baina OA hurrenkera erator daitekeela, ostera. Bego honetan eztabaidagaia.

1.2.4 Nahitaezko Kasuaren Parametroa

Gatozen berriro kasu sistemetara. Predikatu iragankorreko perpausetan ez dut bereizkuntzarik ezarri sistema nom/akusatibo eta ergatiboen artean -ikus (1.2.1)-. Izan ere, bi KMZ buru indartuko da bi sistemetan: ERG edo NOM erkatuko da [Espez, KMZ1] gunean eta ABS edo AK, [Espez, KMZ2] gunean -ikus (28) azpiatala-. Bi sistemak, orduan, ezin bereiz daitezke predikatu iragankorreko perpausetan baina predikatu iragangaitzekoetan, aldiz, bereizi egiten dira.

Gorago (1.2.1) nioen, gainera, Kasu Iragazkiari jarraiki, argumentu orok kasua erkatu behar duela. Bada, predikatu iragangaitzeko perpausetan nahitaez erkatu beharreko kasuak bereizten ditu bi sistemak: *Nahitaezko Kasuaren Parametroari* lotuz (57), NOM dugu nahitaezko kasua (X kasua) sistema nom/akusatiboetan eta ABS, ordea, sistema ergatiboetan (Bobaljik, 1993).

(57) *Nahitaezko Kasuaren Parametroa*

- i. Sistema nominatibo/akusatiboetan X kasua NOM da
- ii. Sistema ergatiboetan, X kasua ABS da


Predikatu iragangaitzeko perpausetan, kasu bakarra erkatu behar denez, bi KMZ buruetatik bakarra dukegu indarrean eta bestea, indarge (Chomsky, 1993). Erkatu beharreko kasua NOM da sistema nom/akusatiboetan eta horregatik, KMZ1 dukegu indarrean eta KMZ2, indarge; ABS da, ostera, sistema ergatiboetan eskura dagoen kasua eta, hortaz, KMZ2 dukegu indarrean eta KMZ1, indarge²⁵.

Gorago sistema ergatiboa erakusteko euskaraz erabili ditudan (24) adibideetatik bigarrena (24.ii) predikatu irangaitzeko perpausa da. (58)ra dakart berriro.

(58) Izurdea joan da

Joan predikatu irangaitzeko perpausetan IS bakarra²⁶ dago, alegia, *izurdea*, eta ABSz markaturik dator; *joan* predikatuaren *izan* laguntzailea, gainera, berarekin komunztatu da ϕ 2-tasunez. (59)an dugu (58) perpausaren eratorpena. KMZ buruetatik KMZ2 dugu indarrean euskaraz eta horregatik, *izurdea* argumentuak, [Espec, KMZ2] gunean erkatzen ditu ABS nahiz ϕ 2-tasunak, alegia, A KMZ2ri adjunktatu ondoren erka daitezkeenak.

(59)




Sistema nom/akusatiboa deskribatzerakoan, bestalde, miskitoeraren adibideak nerabiltzan (5)ean. (5.ii) predikatu irangaitzeko perpausa dakart berriro (60)ra.

(60) Sula ba plap-an
 orein NOM korritu-irgg
 'Oreinak korritu zuen'

Predikatu iragangaitzeko perpausetan KMZ buruetatik bakarra jarriko da indarrean eta sistema nom/akusatiboan, ergatiboan ez bezala, KMZ1 izango da indarreko burua. *Sula ba 'oreina'* argumentuak, orduan, [Espez, KMZ1]an zilegiztatuko du NOM, D KMZ1i adjunktatu ondoren erka daitekeen kasua, alegia.

Ondora dakart (61) predikatu iragangaitzeko edozein perpausetik sistema nom/akusatiboan duen eratorpena. A D eta KMZ1i adjunktatuko zaie eta ISk, esan bezala, [Espez, KMZ1] iritsiko du, hau da, indarreko KMZ buru bakarraren Espez gunea.

(61)



Sistema ergatiboak, beraz, *Nahitaezko Kasuaren Parametroaz* bereiz daitezke sistema nom/akusatiboetatik: sistema ergatiboetan ABS da eskura dugun kasua, KMZ2 baita indarrean eta KMZ1, indarge; sistema nom/akusatiboetan, oster, NOM kasua dugu eskura, bi KMZ buruetatik, KMZ1 baita indarrean. Bi sistemek bat egiten dute, bestalde, predikatu iragankorreko perpausetan, ERG kasua NOM kasua bera delako eta ERG argumentua, subjektua. Beraz, kasuak kasu, subjektu/objektu simetrikotasun eza da ardatza predikatu iragankorreko perpausetan sistema ergatibo nahiz

nom/akusatiboan, anaforaren jokabideak ezeze (1.2.5), perpaus jokatugabeek ere (1.2.6) erakus dezaketen bezala²⁷.

1.2.5 Anafora, AG/S versus O

Sistema ergatibo nahiz nom/akusatiboek predikatu iragankorreko perpausetan bat egingo badute, subjektu eta objektuen arteko egitura harremanak bat izan behar du bi sistemetan. Anaforaren jokabidea da argumentuen egitura hierarkikoaren isla bi sistemetan. Izan ere, Uztardura Teoriaren *A Hatsarrea* betetzekotan, anaforak uztartua izan behar du eta aitzindariak uztartua, gainera. Gogora bitez Uztardura Teoriaren *A Hatsarrea* (62.i) eta Uztarduraren beraren definizioa (62.ii).

- (62) Uztardura Teoria
- i. *A Hatsarrea*: Anaforak uztartua izan behar du bere gobernu kategorian
 - ii. $\alpha k \beta$ uztartzen du baldin eta soilik baldin (bbaldin eta)
 - a. α eta β indizekideak badira
 - b. eta $\alpha k b$ *o-komandatzen* badu

Aitzindariak, orduan, uztartzen duen anafora *o-komandatu* behar du, ondora (63) dakardan erara.

- (63) $\alpha k \beta$ *o-komandatzen* du bbaldin eta
- i. α menderatzen duen lehenbiziko islapen nagusiak β ere menderatzen badu eta
 - ii. ez $\alpha k \beta$ ez $\beta k \alpha$ menderatzen ez badu

Bobaljikek (1993) ingelesaren *-self* 'bere burua' anafora darabil predikatu iragankorreko subjektu eta objektuaren arteko simetrikotasunik eza erakusteko. Dakusagun (64) perpausetan.

- (64) i. Mary_i saw herself_j / *_j
 Mary ikusi bere burua
 'Maryk bere burua ikusi zuen'
- ii. *Herself_i / *_i saw Mary_i
 bere burua ikusi Mary

Lehenik dugun perpausean (64.i), *Mary*-k, predikatu iragankorreko subjektuak, *herself* anafora, objektua dena, uztartu eta o-komandatzen du _j azpindizeaz aitzindari eta anaforaren arteko erreferentziakidetasuna adierazi da- eta horregatik, perpaus gramatikala da. Subjektuak anafora uztartu eta o-komandatu ezean -ikus, perpaus bereko _j azpindizea-, perpaus ezgramatikala da.

Bigarren perpausa (64.ii), bestalde, ezgramatikala da, zeren *Mary*-k ez baitu *herself* anafora o-komandatzen ezta, ondorioz, uztartzen ere. Predikatu iragankorreko subjektuak objektua uztartu ezik, ezin era daiteke perpaus gramatikalik, Uztardura Hatsarreen arabera, anafora ezin baitaiteke askea izan. Ingelesez, bada, bi argumentuen arteko egitura hierarkikoa ezar daiteke anaforaren bidez.

Demagun, bada, Chomsky (1993) eta Bobaljikekin (1992 b, 1993) bat etorririk, sistema nom/akusatibo eta ergatiboetan predikatu iragankorreko perpausak isomorfikoak izanik, ERG argumentua NOM argumentua bera dela. Predikatu iragankorreko perpausetako subjektua, orduan, ERG argumentua dateke sistema ergatiboetan eta berak anafora uztartu eta o-komandatu du. Anafora, bestalde, ez da predikatu iragankorreko objektua baino izango (Keenan, 1976; Anderson, 1976). Predikatu iragankorreko subjektu eta objektuaren

arteko simetrikotasunik eza sistema ergatiboetan ere erakus daiteke. Andersoni (1976) lotuko natzaio, abazera eta abkhazeraren²⁸ bihurkarien berri emateko.

Abazeraz *c-* komunztadura marka da anafora bihurkariaren adierazgarri eta aditzaren hastapenean ezartzen da (65.i). Bihurkarien markarik gabeko perpausetan, hirugarren pertsona [+biziduna] adierazteko erabiltzen den morfema *d-* da, ordea, (65.ii) perpausean ikus daitekeen bezala.

- (65) i. *c* *-l-* *ba* *-x-* *d*
 bihur *-3sf-* ikusi irgn
 'Hark (f) bere burua ikusi zuen'
- ii. *d* *-l-* *ba* *-x-* *d*
 3sbiz 3sf ikusi irgn
 'Hark (f) hura (m/f) ikusi zuen'

Anafora bihurkariak gainera, euskaraz bezalaxe era daitezke abkhazeraz, *xe* 'buru' iz. Aditzean hirugarren pertsona bizigabeaz komunztatzen da egitura hori. *Xe* I bihurkari egituran ageri da (66) perpausetan.

- (66) i. *l-xe* *y-l-ba-yt*
 3sf-buru 3s-3sf-ikusi-orain
 'Hark (f) bere burua ikusten du'
- ii. *s-xe* *y-z-ba-yt*
 1s-buru 3s-1s-ikusi-orain
 'Nik neure burua ikusten dut'

Euskaraz, bestalde, ez da anaforen jokabidean bereizkuntzarik, ez (*bere*) *burua* bihurkarian ez *elkar* anafora elkarkarian (Salaburu,

1986, Hualde 1986, Ortiz de Urbina, 1989). (67.i) perpausean *Jonek* aitzindariak *bere burua* anafora uztartzen du, biak erreferentziakideak baitira, batetik, eta aitzindariak anafora o-komandatzen baitu, bestetik. Salabururen (67.ii) perpausa, aldiz, ezgramatikala da²⁹, zeren anafora ez baitago uztarturik -anafora ezin daiteke ERG argumentua izan- eta, beraz, A Hatsarrea (62.i) urratzen baita.

- (67) i. *Jonek bere burua maite du*
 ii. * *Bere buruak ez du Jon maite*

Elkar anafora elkarkariak bihurkariaren jokabide bera du. Dakusagun (68) perpausetan.

- (68) i. *Umeek elkar maite dute*
 ii. * *Elkarrek maite dituzte umeak*
 iii. * *Elkar bizi dira*

Hiruretatik lehena baino ez da gramatikala, alegia, anafora aitzindariak uztarturik dakarrena, eta bertan ERG argumentua da ABS argumentua uztartzen duena. Gainerako biak ezgramatikalak dira: subjektu gunean ezin daiteke anaforarik azal, ez ERG (68.ii) ez ABS (68.iii), uztargabea baita eta askea, beraz, Uztardura Teoriaren A Hatsarrea urratuz. Kasuak kasu, sistema ergatiboa ere subjektu/objektu aurkakotasunean datza, sistema nom/akusatiboa bezalaxe.

1.2.6 *Perpaus jokatugabeak eta PRO*

Anaforaren jokabidea aztertutik, honakoa erakutsi dut, sistema ergatiboetan ere predikatu iragankorreko subjektu eta objektuen artean simetrikotasunik ez dagoela batetik eta bestetik, predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuek bat egiten dutela objektuetatik bereiziz. Perpaus jokatugabeak ere, abiaburu berbere azal daitezke, ene iritziz, atal honetan zehar erakutsiko dudana bezala.

Sistema nom/akusatiboetan perpaus jokatugabeak, hau da, [-denbora] perpauseko subjektuari, predikatu iragankorreko zein iragangaitzekoari, ezin ezar dakioke NOM kasurik eta ezin komunzta daiteke Arekin. [-denbora] perpauseko subjektua PRO dugu, orduan, kasu nulua duena eta gorago dagoen perpaus nagusiko subjektuaren erreferentziakidea dena. [-denbora] perpauseko Ori, aldiz, kasua ezar dakioke eta, subjektua ez bezala, Arekin komunzta daiteke. Perpaus jokatuetatik abiatuko naiz, perpaus jokatugabeekin gonbaratzeko ondoren. Eta Bobaljiki (1992 b, 1993) lotuko natzaio horretan.

Bobaljiken hipotesiari jarraiki, perpaus jokatuetan, alegia, [+denbora] perpausetan, subjektu eta objektuek kasua nahiz ϕ -tasunak erka ditzakete [Espec, KMZ] gunean. (69) taulara dakartzat sistema nom/akusatiboetako perpaus jokatuetarako formulatu duen hipotesiaren oinarriak.

- | | | | |
|------|------------------|-----------------------------|------------------|
| (69) | Perpaus jokatuak | [+denbora] | |
| | i. | NOM argumentua (AG nahiz S) | |
| | | Kasua | ϕ 1-tasunak |
| | ii. | Ak argumentua (O) | |
| | | Kasua | ϕ 2-tasunak |

[+denbora] perpausetan, subjektuak NOM erka badezake ere, [-denbora] perpausetan ezin dezake ez kasurik ezta komunztadurarik

ere zilegizta (70.i). Objektuak, bere aldetik, [+denbora] zein [-denbora] perpausetan erka ditzake kasua zein ϕ 2-tasunak (70.ii). (70) taulan ikus daitezke perpaus jokatugabeen gaineko hipotesiaren oinarriak sistema nom/akusatiboetan.

- (70) Perpaus jokatugabeak [-denbora]
- i. NOM argumentua (AG nahiz S)
* Kasua * ϕ 1-tasunak
 - ii. Ak argumentua (O)
Kasua ϕ 2-tasunak

Bobaljikek, subjektu eta objektu komunztadura duen miskitoeraren etsenpluak darabiltza (69) eta (70) hipotesiak erakusteko. Horia hemen, [+denbora] perpausak miskitoeraz. (71.i) mendeko perpausean *yang* 'ni' -predikatu iragankorreko subjektua- zein AK kasudun *mai* 'zu' -predikatu iragankorreko objektua- argumentuek beren tasunak zilegizta ditzakete, perpaus hori jokatua delako. (69.i) eta (69.ii) beteko dira orduan, zeren NOM argumentuak, AGk, zein AK argumentuak, Ok, tasunak erka baititzakete perpaus jokatuan.

- (71) i. Utilya luki-sa [yang mai kaik-ri]
Utilya uste izan-3s [ni 2s AK ikusi-1 irgn]
'Utilyak uste du nik zu ikusi zaitudala'
- ii. Utilya luki-sa [yang wa-ri]
Utilya uste izan-3s [ni joan-1 irgn]
'Utilyak uste du ni joan nintzela'

Ondokoak (72), berriz, perpaus jokatugabeak dira, hau da, [-denbora] perpausak miskitoeraz. Perpaus jokatugabeen *mai* objektuak AK kasua erka dezake (72.i) baina NOM argumentuak ezin erka dezake kasurik: ez predikatu iragankorreko subjektuak (72.i) ez predikatu iragangaitzekoak (72.ii).

- (72) i. Utilya [mai kaik-aia] want-sa
 Utilya [2s AK ikusi-infl] nahi izan-3s
 'Utiyak ikusi nahi zaitu'
- ii. Utilya [w-aia] want-sa
 Utilya [joan-infl] nahi izan-3s
 'Utiyak joan nahi du'

Bobaljikek, [+denbora] perpausen KMZ1 ez bezala, [-denbora] perpausen KMZ1 defektibotzat jotzen du. Ildo honetan, [-denbora] perpausetan NOM kasua eta NOM argumentuarekiko komunztadura ezin zilegizta daiteke [Espez, KMZ1] gunean, KMZ1 defektiboa delako.

Sistema nom/akusatiboetan, bestalde, [-denbora] perpausari dagokien KMZ1 defektiboa bada, sistema ergatiboetan ere defektiboa izan behar du, Bobaljiken ustez: [-denbora] perpausen subjektuari ezin ezar dakioke ERG kasurik ezta ϕ -1-tasunik ere, [-denbora]ri dagokion KMZ1ek ez baitu ez kasurik ez ϕ 1-tasunik egozterik. Predikatu iragankorreko objektuak, aldiz, ABS erka dezake eta ϕ 2-tasunak ere bai, zeren KMZ2k ez baitu murritzasunik jasaten [-denbora] perpausetan.

Honexetan bat nator Bobaljikekin baina ez, predikatu iragangaitzeko subjektuen gaineko hausnarketan. Bobaljiki jarraiki, sistema ergatiboetako predikatu iragangaitzeko subjektuak, sistema nom/akusatiboetakoari aitzia, ABS kasua zein ϕ 2-tasunak erka ditzake [Espez, KMZ2]n eta hori, geroago erakutsiko dudana bezala, ez da zilegi euskaraz. Ene aburuz, sistema nom/akusatibo eta ergatiboek ez dute perpaus jokatu gabeetan bat egiten bi sistemetan KMZ1 defektiboa delako soilik, bi sistemetan predikatu iragankor nahiz iragangaitzeko subjektuek kasu nulua besterik erka ezin dezaketelako

baizik. Jarraian dakartzat (73) sistema ergatiboetako perpaus jokatuetaarako darabilen hipotesiaren oinarriak.

- (73) Perpaus jokatuak [+denbora]
- i. ERG argumentua (AG)
Kasua ϕ 1-tasunak
 - ii. ABS argumentua (S nahiz O)
Kasua ϕ 2-tasunak

Perpaus jokatugabeetarako darabilena, aldiz, ondokoa (74) da. (74.ii) da eztabaidagaia.

- (74) Perpaus jokatugabeak [-denbora]
- i. ERG argumentua (AG)
* Kasua * ϕ 1-tasunak
 - ii. ABS argumentua (S nahiz O)
Kasua ϕ 2-tasunak

Bobaljikek, sistema ergatiboetako [-denbora] perpausen gaineko hipotesia erakustekotan, inuit zein yup'ik hizkuntzetako *-(l)u* modu morfemadun perpaus jokatugabea darabil, ISen kasua aintzat hartu gabe eta komunztadurari soilik behatuz. Dakusagun lehenik (75), mendeko perpausean ERG argumentuarekiko komunztadura zaindu ez eta objektuaren komunztadura zaintzen denekoa. Mendebal Groenlandiako inuiteraren perpausak ditugu (75) azpiatalekoak. *Niriursui* 'hitx eman' predikatu nagusiaren mendeko perpausean *Junna* ABS argumentua baino ez da komunztatzen aditzean *-gu* 3 pertsona singularreko A atzizkiaren bidez.

- (75) Mliqqat [Junna iku-ssa-llu-gu]
 ume-ABS [PRO Junna-ABS lagundu-gero-llu-3sA]
 niriursui-pput
 hitz eman-ind-3pA
 'Umeek Junnari lagunduko ziotela hitz eman zuten'

[-denbora] perpaus honetan (75), mendeko aditzak objektuarekiko komunztadura baino ez du zaintzen, hau da, ABS argumentuarekikoa eta ez, aldiz, predikatu iragankorreko subjektuarekikoa, berau PRO baita. *-llu* modu infinitiboan, bestalde, predikatu iragankorreko subjektua komunzta ezin badaiteke ere³⁰, predikatu iragangaitzeko subjektuak ϕ 2-tasunak erka ditzake [Espez, KMZ2] gunean, Ok bezala³¹. Hori dela eta, ABS komunztadura zilegiztaturik azal dakiguke mendeko perpausean. Bobaljik (1992 b)an aurki daiteke Bittnerren ondorengo etsenplua (76). *Niriursui* predikatu nagusia dugu berriro ere eta *-llu* mendeko perpausean, isilpeko argumentua komunztaturik dator aditzean.

- (76) [Aggi-sa-llu-tit] niriursui-vutit
 etorri-gero-llu-2sA hitz eman-ind-irgg-2A
 'Etorriko zinela hitz eman zenuen'

Diodan berriro, Bobaljikek sistema ergatiboko [-denbora] perpausetarako ezarri duen hipotesiaren arabera (74), predikatu iragangaitzeko subjektuak *kasua* nahiz ϕ -tasunak erka ditzakeela, baina datuokin (76) ϕ -tasunen berri baino ez digula ematen. Euskaraz, gainera, predikatu iragankorreko subjektuak ezin erka dezake ERG baina ezta predikatu iragangaitzeko subjektuak ABS ere: euskaraz perpaus jokatugabeetan, KMZ2 indarrean, Ok tasunak erka ditzake baina ez Sk, ordea. Ildo honetan, Bobaljikek perpaus jokatugabeez ezarritako hipotesia euskararako arbuaiatuz eta Chomsky & Lasnik (1991) eta Chomskyekin (1993) bat etorritik, D funtzio buruari

[-kasua]³² iritziko diot, alegia, kasu nulua duena eta [-kasua] duen argumentu ororekin batera, hots, PROrekin batera erka dezakeena.

1.2.6.1 [-denbora] NZ zehar galderak euskaraz

Ortiz de Urbinak (1989) kontrol egituratzat jo ditu NZ zehar galdera denboragabeak. NZ zehar galderak partizipioaz eratzen dira eta beraietan ezin ager daiteke kasuaz markaturiko subjekturik, partizipioak ez baitu kasua erkatzerik. Ortiz de Urbinaren adibideak dakartzat ondoren (77) eta (78).

(77) * Jonek badaki nik zer egin

Kasuaz markaturiko subjekturik ezin ager badaiteke, PRO dugu mendeko perpausaren subjektua, kasu nulua duena, alegia, [-kasua] den argumentua. PRO predikatu iragangaitzeko (78.ii) zein predikatu iragankorreko subjektua (78.i) izan daiteke euskaraz, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala.

(78)	i.	Nik _i ez dakit	[PRO _i	nori eman]
	ii.	Zuk _i ez dakizu	[PRO _i	nora joan]

Lehen perpausa (78.i) Bobaljiken hipotesiari lotzen zaio, NZ zehar galdera denboragabeetako predikatu iragankorreko subjektuak -ERG argumentuak- ezin baitezake ez ERG kasurik ez ϕ 1-tasunik erka eta PRO baita, beraz. (78.ii) perpausak, aldiz, hipotesia urratzen du, zeren mendeko perpausako predikatu iragangaitzeko subjektuak -ABS argumentuak- ere ezin baitezake ez ABS kasurik ez ϕ 2-tasunik zilegizta: predikatu iragangaitzeko subjektua ere PRO da NZ zehar galdera denboragabeetan. Aintzat izan, alabaina, predikatu iragankorreko

objektuak ABS kasua erka dezakeela, (79) perpauseko *txalupa* argumentuak bezala.

- (79) Jonek badaki txalupa nola konpondu
 Jonek_i badaki [PRO_i txalupa nola konpondu]

Euskaraz, beraz, PRO predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektua izan badaiteke, (78) perpausetan erakutsi dudan bezala, perpaus jokatu gabeen gaineko hipotesia (74.ii) halabeharrez berformulatuko da, zeren, KM22 indarrean egon arren, predikatu iragangaitzeko subjektuak ezin baitezake kasu nulua baino zilegizta -(80.i) versus (80.ii)-.

- (80) i. Jonek_i badaki [PRO_i noiz itsasoratu]
 ii. * Jonek badaki [Patakon noiz itsasoratu]

Horregatik, Bobaljik-ek sistema ergatiboetan perpaus jokatu gabeetarako darabilen (74) hipotesia (81)ra dakardan erara baino ezin onets daiteke euskaraz, non predikatu iragangaitzeko subjektuak ezin dezakeen ez kasurik ez ϕ 2-tasunik erka.

- (81) Perpaus jokatu gabeak [-denbora]
 i. ERG argumentua (AG)
 * Kasua * ϕ 1-tasunak
 ii. ABS argumentua (S)
 * Kasua * ϕ 2-tasunak
 iii. ABS argumentua (O)
 Kasua ϕ 2-tasunak

Laburbilduz, perpaus jokatu gabeetan objektuak ABS eta ϕ 2-tasunak zilegizta baditzake ere, predikatu iragangaitzeko subjektuak, predikatu iragankorrekoak bezala, kasu nulua erka dezake soilik. Eta auzia, finean, bi argumentuen subjektutasunean datza. Izan ere, Sk

eta AGk [Espez, KMZ] gune ezberdinetara jotzen badute, nekez azal daitezke biek amankomunean dituzten ezaugarriak, besteak beste, biak kontrolpeko argumentuak izatea perpaus jokatugabeetan.


1.2.6.2 NZ zehar galderak: [-kasua] D eta PRO

Bobaljiken hipotesia ezin onetsirik, demagun Chomsky & Lasnik (1991) eta Chomskyri (1993) jarraiki, PROk kasua duela, kasu nulua, hain zuzen. Euskaraz PRO predikatu iragankorreko zein iragangaitzeko subjektua izan daiteke NZ zehar galderetan, eta oro har, perpaus jokatugabeei eman dakiekeen azalpena [-denbora] perpausetan Dk kasu nulua du, hots, [-kasua] da, PRO bezalaxe. PROk, [-kasua] tasuna erkatzekotan, [Espez, D] iristen du eta [-kasua] Drekin batera zilegiztatzen du bere tasuna -ikus baita López (1995)³³.

Predikatu iragankorreko mendeko perpausetan, AGk, PROk, [-kasua] tasuna erkatzen du [Espez, D] gunean eta objektuak, bere aldetik, ABS [Espez, KMZ]n. Jarraian dakart berriro (79) perpausa eta dagokion eratorpena -(82.i) eta (82.ii)-. Predikatu iragankorreko perpaus jokatugabearen (82.ii) eratorpenean ez naiz Bobaljikengandik bereiziko.

- (82) i. Jonek badaki txalupa nola konpondu


ii.



Baina predikatu iragangaitzeko NZ zehar galderei dagokienean. Ene aburuz, Sk, PRO hauxe ere, [-kasua] tasuna erkatu behar du [Espez, D] gunean. (80) azpiataleko perpaus iragangaitza dakart ondoren (83.i), dagokion eratorpenarekin batera (83.ii).

(83) i. Jonek badaki noiz itsasoratu

ii.



Goiko eratorpena (83.ii) da Bobaljiken hipotesia urratzen duena. Izan ere, Sk [-kasua] erkatu behar du [Espez, D] gunean, predikatu

iragankorreko subjektuak bezalaxe. KMZ2 indarrean egonik, bestalde, Sk ABS kasua erka lezakeela pentsa liteke, Bobaljikek dioen erara, baina datuek bestelako joera erakusten dute euskaraz. Ene aburuz, sistema nom/akusatibo eta ergatiboetako perpaus jokatu gabeen jokaera bada, predikatu iragankor nahiz iragangaitzeko subjektuak, kasu nuluak erkatuz, bateratzen direlako.

Bada, halere, ene hipotesia onesteko arazorik: (83.ii) eratorpenean Sk [Espez, KMZ2] baino [Espez, D] iritsiz, ez dirudi Gutxieneko Ahaleginaz jokatu duenik. Eta Bobaljikek darabilen *-llu* egituraren berri eman behar bada, gainera, S komunzta daiteke perpaus jokatu gabeetan, hau da, ϕ 2-tasunak erka ditzake [Espez, KMZ2] gunean, ABS kasua ezin erka dezakeen arren. Hona hemen, bada, aterabidea: Sk [Espez, KMZ2] irits dezake ϕ 2-tasunak erkatuz bertan baina nahitaez igo behar du gero [Espez, D] gunera, beraren nahiz Dren kasu nuluak zilegiztatzekotan.

Euskaraz, beraz, predikatu iragankorreko zein iragangaitzeko subjektuak batera daitezke perpaus jokatu gabeetan, non PRO orok [Espez, D] iristen duen [-kasua] erkatzekotan.

1.3 BIDEZIDOR KABIRATUAK: ABS BERDIN NOM


Murasugik (1992) D eta iragankortasuna (IRGK) funtzio buruak bereizten ditu perpausetan (1.3.1). Dk kasu markatugabea darama eta IRGKk, kasu markatua. Lehen hipotesiari aitziz (1.2), predikatu iragankorreko perpausetan bereizten dira sistema nom/akusatiboak ergatiboetatik: sistema nom/akusatiboetan bidezidor gurutzatuak eratzen dira eta sistema ergatiboetan, aldiz, bidezidor kabiratuak (1.3.2). *Ergatibotasunaren Parametroan* datza sistema bien arteko bereizkuntza (1.3.3)

1.3.1 D eta IRGK

Orain arteko lerroetan lotu natzaion hipotesiari jarraiki (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993) bi KMZ buru bereizi dut eta KMZ buruon Espez guneei iritzi diet kasua nahiz ϕ -tasunak erkatzeko gune. Tasun sistemen gaineko hipotesietan bada, gainera, perpausa KMZ buruez baino, beste funtzio buruez eratu eta funtzio buruon Espez guneetan kasua zein ϕ -tasunak zilegizta daitezkeelako hipotesirik (Murasugi, 1992; Laka, 1995).

Murasugik bi funtzio burutan eratzen du perpausa, alegia, D eta IRGK buruetan (84). KMZ ez da funtzio buru berezitua: kasua nahiz ϕ -tasunak erkatzeko D eta IRGK buruen Espez guneak darabiltza.

(84)



Sistema nom/akusatiboetan, Dri NOM kasua dagokio eta NOMz markaturiko argumentuarekiko komunztadura; IRGKri, aldiz, AK

kasua eta AK argumentuarekiko komunztadura. Sistema ergatiboetan, bestalde, Dri ABS dagokio eta IRGKri, ERG. Hipotesi honi lotuz, beraz, Dri egokitzen zaion kasua kasu markatugabea da -NOM sistema nom/akusatiboetan eta ABS ergatiboetan- eta IRGKri, kasu markatua -AK sistema nom/akusatiboetan eta ERG ergatiboetan-.


Izan ere, Dk NOM/ABS kasuak daramatza eta, gainera, [+/- denbora] tasunak izan ditzake. IRGKk, bere aldetik, AK/ERG kasu tasunak zein [+/- iragankor] tasunak erakus ditzake. ISk kasu zein ϕ -tasunez markaturik datozkigu hiztegitik eta Ak [+/- denbora] eta [+/- iragankor] tasunez gain, ϕ -tasunak ere badaramatza bere baitan³⁴.

1.3.2 Bidezidor gurutzatuak versus kabiratuak

Sistema nom/akusatibo eta ergatiboen arteko bereizkuntza ISen mugimenduak zehazturiko bidezidorren arabera azal daiteke, Murasugiren aburuz: bidezidorrak gurutzatuak ala kabiratuak izan daitezke predikatu iragankorreko perpausetan.


Bidezidorrak gurutzatuak dira sistema nom/akusatiboetan: subjektua [Espez, D] gunera mugitzen da eta objektua, [Espez, IRGK]ra. Hona hemen (85), subjektu eta objektuaren mugimendua sistema nom/akusatiboetan. IS1ek [Espez, IRGK] gurutzatu eta [Espez, D] iristen du. IS2, bere aldetik, subjektu gunea gurutzatu eta [Espez, IRGK] gunera igotzen da. Eratorpenak elkarguneetan bat egitekotan, gurutzatzea da, Murasugiren iritziz, balizko mugimendu bakarra sistema nom/akusatiboetan.

(85) Bidezidor gurutzatuak sistema nom/akusatiboetan



Sistema ergatiboetan bidezidor gurutzatuak baino, bidezidor kabiratuak eratzen dituzte ISek: objektua [Espez, D]ra igotzen da eta subjektua, [Espez, IRGK]ra. (86)an ikus daitekeenez, IS1 [Espez, IRGK] gunean kabiratu da eta IS2, bere aldetik, [Espez, D] gunean. Murasugiren aburuz, kabiratzea baino ez da zilegi sistema ergatiboetan.

(86) Bidezidor kabiratuak sistema ergatiboetan



Murasugiren hipotesiaren baitan, beraz, gurutzatzea ezeze, kabiratzea ere zilegi da predikatu iragankorreko perpausetan eta honetan datza, hain zuzen ere, sistema nom/akusatibo eta ergatiboen arteko bereizkuntza. Alabaina, sistema ergatiboetan bidezidor kabiratuak eratuko badira, Mugimendu Laburrena ez da Distantziakidetasunaren arabera definitu behar. Ondoko atalera dakartzat *Ergatibotasunaren Parametroaren* berri eta Murasugiren hipotesiari loturiko Ekonomia Baldintzak.

1.3.3 Ergatibotasunaren Parametroa

Murasugik, dagoeneko esan dudan bezala (1.3.2), predikatu iragankorreko perpausetan bereizten ditu sistema nom/akusatiboak ergatiboetatik eta parametragarritasuna lSen mugimenduari lotzen dio Ergatibotasunaren Parametroa dela bide. Ergatibotasunaren

Parametroak (87), tasunen sendotasunean oinarritzen denak³⁵, eta ISen mugimendua zuzentzen duten Ekonomia Hatsarreek -Luzatu hatsarrea, besteren artean- bidezidor gurutzatu ala kabiratuak sortarazten dituzte hurrenez hurren sistema nom/akusatibo eta ergatiboetan.

- (87) *Ergatibotasunaren Parametroa*
Sistema nom/akusatiboetan, Dren kasu tasuna sendoa
Sistema ergatiboetan, IRGKren kasu tasuna sendoa³⁶


Chomsky eta Bobaljik aburuz -ikus (1.2.2)-, eta baita ene aburuz ere, predikatu iragankorreko perpausetan, Ekonomia Hatsarreak urratu ezik, ISek halabeharrez gurutzatu behar dute. Kabiratzetik ez da, baldin eta Mugimendu Laburrena Distantziakidetasunaren arabera definitzen bada. Baina Murasugik esplizitatzen dituen Ekonomia Hatsarreen artean ez da Mugimendu Laburrena aipatzen -halaxe balitz, ezin era liteke bidezidor kabiraturik sistema ergatiboetan-. Honako hauek dira Luzatu hatsarreak gain, ezartzen dituen hatsarreak (88).

- (88) i. *Eskuar dagoen jatorri hurbilena.* Eratorpenaren maila orotan jomuga iritsiko du eskuar dagoen jatorriko IS hurbilenak
- ii. *Tasunik duen jomuga hurbilena.* Eratorpenaren maila orotan jatorriko ISk tasunik duen jomuga hurbilena iritsiko du

Ekonomia Hatsarreok, Luzatu hatsarreak eta Ergatibotasunaren Parametroak bidezidor kabiratu ala gurutzatuak eratzen dituzte sistemen arabera. Miskitoeraren (5.i) predikatu iragankorreko perpaus bera dugu (89.i), Murasugiren azterbidearekin batera (89.ii).

- (89) i. Waitna ba sula ba-ra sab-an
 gizon-det (NOM) orein-det-AK tirokatu-irgn-3
 'Gizonak oreina tirokatu zuen'


ii.



Waitna ba 'gizonak' argumentua NOM kasuaz eta ϕ -tasunez markaturik dator; *sula ba-ra* 'oreina' argumentua, berriz, AK kasuaz eta ϕ 2-tasunez. *Sab-an* 'tirokatu zuen' Ak ϕ 1 eta ϕ 2-tasunez gain, [+iragankor] [+denbora] tasunak dakartza. D eta IRGK funtzio buruei dagokienean, halaber, NOM kasu tasunaz gain, [+iragankor] tasuna darama Dk eta Akz gain, [+denbora] tasuna IRGK buruak.

IS1ek NOM kasua zein ϕ 1-tasunak erkatzen ditu [Espez, D] gunean, zeren Dk NOM bera baitarama eta A buruz buruko adjunkzio bidez ϕ 1-tasunak helarazi baitizkio IS1i gun e horretara. IS2k, bestalde, AK kasua nahiz ϕ 2-tasunak zilegizatzen ditu [Espez, IRGK] iritsiz. IRGK buruak AK kasu tasuna darama eta adjunktatu zaion Ak, ϕ 1-tasunak, IS2k Espez gun e horretan erka ditzan. (90)an dugu (89) perpausaren eratorpena, azaldu den antzera.


(90)



Bada, miskitoera bezalako hizkuntzetan, ISeK bidezidor gurutzatuak eratzen dituzte predikatu iragankorreko perpausetan. Hizkuntza ergatiboa den inuiteraz, bestalde, bidezidorrak kabiratuak dira. Inuiteraren (3) perpausa dakart berriro (91.i)ra, alean aleko tasunak emanik (91.ii).


- (91) i. Anguti-p puisi aallaa-v-a-a
 gizon-ERG bale(ABS) tirokatu-ind-irgk-3 ϕ_1 -3 ϕ_2 ³⁷
 'Gizonak balea tirokatu zuen'

ii.



Anguti-p argumentuak 'gizonak' ERG kasua eta ϕ 1-tasunak dakartza; *puisi* 'balea' argumentuak, bere aldetik, ABS eta ϕ 2-tasunak. A predikatu iragankorra ϕ 1 eta ϕ 1-tasunez gain, [+iragankor] eta [+denbora] tasunez markaturik dator. IS1ek, ERG kasua nahiz ϕ 1-tasunak erkatzen ditu [Espec, IRGK] gunean. IRGK buruak ERG kasu tasuna dakar eta buruz buru iritsitako Ak, ϕ 1-tasunak. IS2k ABS kasua zein ϕ 2-tasunak erkatzen ditu [Espec, D] gunean, Drekin batera, Dk ABS kasu bera baitakar eta Ak D iritsi baitu azkenik, IS2ri ϕ 1-tasunak helarazirik. (92) dateke (91.i) perpausaren eratorpena, Murasugiren azterbidea erabiliz gero.

(92)



Murasugiren aburuz, inuliteraz eta, oro har, sistema ergatiboetan bidezidor kabiratuak eratzen dituzte ISe_k predikatu iragankorreko perpausetan. Euskaraz, alabaina, ezin onets daiteke bidezidor kabiraturik eratzen denik predikatu iragankorreko perpausetan, (1.2.1) eta (1.2.2) ataletan erakutsi cudan bezala. Areago, Distantziakidetasuna bada Mugimendu Laburrenaren ardatz, bidezidor gurutzaturik baino ezin era daiteke euskaraz eta Distantziakidetasuna ezin urra daiteke, ene aburuz, ezta hiru KMZ buru indartu denean ere. Beraz, Murasugik darabiltzan (88) Ekonomia Hatsarreak ez dira egokiak ezta, agian, Ergatibotasunaren Parametroa bera ere, euskarari dagokionean, bederen³⁸.

Egiturazko kasuaren erkaketa den bezain batean, KMZ burua bereizirik, subjektu, objektu nahiz zehar objektuen l-tasunen erkabidea batera daiteke, ene aburuz, kasua KMZri adjunktatzen zaion buruak dakarrelarik, Ak ala Dk. Murasugik (1994) berak ere erabili du KMZ burua, sistema nom/akusatibo eta ergatiboak bidezidorren arabera bereizi arren -bidezidor gurutzatuak versus kabiratuak, Murasugiren (1992) antzera³⁹.

Aintzat izan, gainera, lehen hipotesia onesteko anaforaren jokabidean (1.2.5) eta perpaus jokatugabeetan (1.2.6) oinarritu naizela, eta bada zeresanik Murasugik bi gai hauek darabiltzanean ere. Anafora den bezain batean, gorago (1.2.5) nioen bezala, aitzindariak anafora uztartuko badu, o-komandatu behar du eta, Murasugiren aburuz, hizkuntza ergatiboetan o-komandoa ezin eman daiteke *Azaleko egituran (A-egituran)* baino, Ahoskatu aurretik, alegia⁴⁰. FLn predikatu iragankorreko objektuak [Espec, D] iritsi du eta halatan, subjektuak ez du jada o-komandatuko. Chomskyri (1993) jarraituz, alabaina, Uztardura Hatsarreak FLn baino ez dira zilegi.

Bestalde, sistema ergatiboetarako darabilen bidezidor kabiratuaren hipotesiaz ezin erator daiteke predikatu iragankorreko infinitibo jokatugaberik. Maiar hizkuntzetan, esaterako, kontrol egituretan infinitibo iragangaitzik baino ezin ager daiteke eta predikatu iragankorra azalduko bada, gerundio egitura erabili behar da⁴¹. Ondoko atalean (1.3.4) berrikusiko dut Murasugik, maiar hizkuntzen datuez baliatuz, perpaus jokatugabeen gainean formulatu duen hipotesia.

1.3.4 *Perpaus jokatugabe iragankor versus iragangaitzak*

Craigi (1977) jarraiki, Jakaltekeraz subjektu nahiz objektuen kontrol egituretan, predikatu iragangaitzik baino ez da ageri. Ondokoak (93) subjektuaren kontrol egiturak dira Jakaltekeraz. Infinitibo iragangaitzeko perpaus jokatugabea (93.i) gramatikala da eta infinitibo iragankorrekoa (93.ii), aldiz, ezgramatikala.

- (93) i. choche naj [caNaIw-oj]
gustatu kl-hura m dantzatu-oj
Hari dantzatzea gustatzen zaio
- ii. * ch-in to [col-o' hach]
asp-1sA joan lagundu-gero 2sA
'Zuri laguntzera noa'


Objektuaren kontrol egituretan ere infinitibo iragangaitzik baino ez da (94).

- (94) i. xc-ach w-iptze [munlah-oj]
asp-2sA 1sE-behartu lan egin-oj
'Lan egitera behartu zintudan'
- ii. ch-on s-chej ya' [way-oj]
asp-1pA 3sE-agindu kl-hura m lo egin-oj
'Lo egiteko agindu zigun'

Jakaltekerako eta, oro har, maiar hizkuntzetako infinitibo iragankorrik eza, ezin azal daiteke Bobaljikék sistema ergatiboetan perpaus jokatugabeetarako darabilen hipotesiaz (74): [-denbora] Dri dagokion KMZ1 defektiboa denez, predikatu iragankorreko subjektuak ezin dezake kasu nulurik baino erka, baina objektuak ABS erka dezake,

ordea. Besterik da Murasugiren sistema eta maiar hizkuntzetan infinitibo iragankorrik eza azaltzeko darabilen hipotesia. Murasugiren iritziz, perpaus jokatugabeetan, [-denbora] Dk kasu nulua du, alegia, [-kasua] da. ABS argumentua den ISk, Dren Espez gunera igoko balitz, ezin lezake ABS kasua erka eta eratorpenak huts egingo luke (95).


(95)



Goiko eratorpenean (95), ISk ABS tasuna dakar eta [Espec, D] gunean erkatu behar du kasu tasun hori baina Dk ez du ABS tasunik, [-kasua] tasuna baino. ISk bere kasu tasuna erkatu ezinik, eratorpenak huts egingo du.


Murasugiren aburuz, PRO subjektua duen infinitibo iragankorrik ezin egon daiteke, bestalde, zeren IRGK, [+iragankor] bada, ERG kasua baitu eta ezin baitezake [-kasua] den PROrekin kasu tasunik erka, (96) eratorpenean ageri den bezala.

(96)



Predikatu iragankorrik egon ezin bada ere, predikatu iragangaitzeko infinitiboa bai egon daiteke: PRO subjektuak [Espez, D] gunea iritsi eta bai PROk bai Dk kasu nulua dutenez, eratorpenak bat egingo du elkarguneetan. D [-kasua] bada [Espez, D] gunean, orduan, ezin daiteke PRO baino ager, kasu nulua [-kasua] tasuna, duen IS, (97) eratorpenean ikus daitekeen bezala.

(97)



Murasugik perpaus jokatugabeen gainean ezarritako hipotesiak azal dezake zergaitik ezin egon daitekeen infinitibo iragankorrik maiar

hizkuntzetako kontrol egituretan⁴², baina hein batean baino ez ditu azaltzen euskaraz NZ zehar galderetan eman ditudan datuak (1.2.6).

Dagoeneko esan dudan bezala, Murasugiren iritziz, PRO subjektuak [Espez, D] gunea irits dezake infinitibo iragangaitzetan, zeren PRO [-kasua] denez, [-kasua] Drekin erka baitezake bere kasu tasuna. Hipotesi honek azal ditzake euskaraz ere predikatu iragangaitzeko subjektua PRO deneko perpaus jokatugabeak baina ezin azal ditzake predikatu iragankorreko subjektua PRO denekoak. Euskaraz Ag PRO izan badaiteke ere, Ag PRO den perpausa ezgramatikaltzat jotzen da Murasugiren sistemaren baitan - ikus (96) eratorpena-.

Bada, Murasugiren (1992) teoria orokorraz aipatu ditudan iritziez gain -ikus (1.3.3)- badira gaian gaiko arazoak, hala nola, perpaus jokatugabeen gaineko hipotesiak euskaraz sor ditzakeenak. Diodan, alabaina, Murasugiren teoriak euskara azal ezin dezakeen arren, agian euskara ez bezalako hizkuntza ergatiboak azal ditzakeela, batetik, eta bestetik, euskal aditzaren Pasibotasunaren Teoria (Schuchardt, 1893 edota Lafon, 1943, 1954, besteren artean)⁴³ berrinterpretatzen duela Egitarau Minimalistaren baitan.

1.4 ONDORIOAK

Sistema nom/akusatibo eta ergatiboak aztertzerakoan, beraz, bi hipotesi nagusi formulatu da Kasu Teoriaren baitan. Lehenak isomorfiko deritze predikatu iragankorreko perpausari sistema bietan, eta I Sen gurutzatzeari deritza balizko mugimendu bakarra; hipotesi honek, predikatu iragangaitzeko perpausetan bereizten ditu bi sistemak, Nahitaezko Kasuaren Parametroa ezarriz. Bigarrenak, aldiz, predikatu iragangaitzeko perpausari deritze isomorfiko eta predikatu

iragankorreko perpausetan ezberdintzen ditu sistema nom/akusatiboak ergatiboetatik, Ergatibotasunaren Parametroa dela bide.

Euskara lehen hipotesiari lotzen zaio: Isek bidezidor gurutzatuak eratzen dituzte predikatu iragankorreko perpausetan. Euskaraz anafora bihurkari eta elkarkariek sistema nom/akusatiboetan bezalaxe jotzen dute eta baita perpaus jotatugabeek ere, zeren euskaraz predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuek kasu nulua baino ezin erka baitezakete perpausotan. Hortaz, euskaraz ere, sistema nom/akusatiboen subjektu/objektu simetrikotasunik eza da ardatz.

OHARRAK

¹Adibideetako adizkien azpiko oharretan, lehen, bigarren eta hirugarren pertsona 1, 2, 3 zenbakiez adieraziko ditut eta jarraian $\phi 1$ eta $\phi 2$ laburdurak erabiliko ditu azpindizean argumentuak erkatu behar duen ϕ -tasunaren, hau da, komunztadura tasunaren berri emateko.

²Swahiliera, Niger-Congoko bantu azpitaldeko hizkuntza.

³Swahileraz pluraleko lehen pertsonako *-tu-* morfema bakarra dago predikatu iragankor eta iragangaitzeko subjektuetarako nahiz predikatu iragankorreko objektuetarako, alegia, subjektu nahiz objektuetarako. Sistema nom/akusatiboak subjektuak berdindu ezeze, objektutik ere bereizi behar baditu, *sistema neutroa* dateke bi subjektuak *-AG* eta *S-* nahiz objektua *-O-* bateratzen dituen sistema. Ene aburuz, euskara sistema ergatiboari loturik ere, sistema neutroari ere jarraitzen zaio kasu flexioan, laugarren kapituluan erakutsiko dudana bezala.

⁴*Wéen* 'lo egin' predikatua *ezerгатiboa* da eta horregatik, baita iragankorra ere aurkezpen mailaren batetan, alegia, *egitura lexiko erlaziozkoan* (Hale & Keyser, 1993). Predikatu ezerгатiboak aztergai izan arte *-bigarren kapitulua-*, iragangaitz iritziko diet ezerгатibo nahiz *ezakusatiboei* (Perlmutter, 1978; Burzio, 1981, 1986).

⁵Maiera yukatekoak eta, oro har, maiar hizkuntzek ASPren arabera erdibitzen dute komunztadura sistema: ASP ezburutua denean, [-burutu], alegia, sistema nom/akusatiboari lotzen zaizkio eta burutua denean, [+burutu], berriz, sistema ergatiboari. *Ergatibotasun erdibitua* (Silverstein, 1977; Dixon, 1979, 1994) laugarren kapituluan izango dut mintzagai.

⁶Euskaltzaindiaren (1987) aburuz, hirugarren pertsona morfema eza edo $\emptyset$ morfemaz ageri da adizkian. Euskaltzaindiak, beraz, ez deritze pertsona marka (Heath, 1976; Ortiz de Urbina, 1986; Albizu, 1994) adizki hastapeneko *d-*, *z-*, *h-*, *b-* morfemei, D marka baizik (Oregi, 1974; Trask, 1977; Gomez & Sainz, 1995). Neronek, Euskaltzaindiarekin bat etorritik, marka eza edo $\emptyset$ marka hirugarren pertsonaren adierazgarritzat ezeze, ϕ -tasuntzat ere joko dut, hau da, KMZren Espeze gunean erkatu beharreko tasuntzat.

⁷Isilpeko argumentua AG edota S izan daitekeenez, ez O, aldiz, aginte aditzen mendeko perpausok euskararen *akusatibotasun sintaktikoa* islatzen dutela pentsatu izan da (Levin, 1983). Izan ere, euskarari morfologikoki sistema ergatiboa iritzi bazaio ere, sintaktikoki sistema nom/akusatibotzat hartu izan da, kasu zein komunztadura sistemetan ezik, AG eta S batera baitaitezke euskaraz. Ortiz de Urbina (1986) aburuz, berriz, irizpide hau ezin erabil daiteke euskararen *ergatibotasun sintaktikoa* arbuiaitzekotan, zeren, Dixonek (1979) artean adierazi zuen bezala, era honetako predikatuak berdina baitarabiltzate sintaktikoki nom/akusatibo zein ergatibotzat hartu diren sistemek.

Aintzat izan kasu eta komunztadura erakusgarri dituen ergatibotasuna, ergatibotasun morfologikotzat hartu eta ergatibotasun sintaktikotik bereizi izan dela (Anderson, 1976, Comrie, 1978; Dixon, 1979, 1994). Autoreon iritziz, hizkuntzak morfologikoki ergatiboak izan badaitezke ere, sintaktikoki nom/akusatiboak ala ergatiboak izan daitezke. Akusatibotasun sintaktikoa deritzatenaz, AG eta S berdintzen dituzten egiturez dihardute, hau da, ERG argumentua eta predikatu iragangaitzeko ABS argumentua bateratzen dituzten egiturez eta ergatibotasun sintaktikoaz, aldiz, S eta O bateratzen dituztenez, ABS egotzirik NOMri.

Egungo Kasu Teoriak, alabaina, ez du ergatibotasun morfologikoa ergatibotasun sintaktikotik bereizten ezta akusatibotasun morfologikoa akusatibotasun sintaktikotik ere. Egun, morfologiari sintaxiaren isla iritzirik, ezin daiteke bata bestetik bereiz. Horregatik, sistema ergatiboa deritzadana, morfologian ezeze, sintaxian ere ergatiboa dateke.

⁸Nolanahi ere, ERG argumentua NOM bera dela erakutsiz, ez da nahitaez azaltzen AG eta S bateratu eta Oetatik bereizten direnik. Areago, Chomsky eta Bobaljikekin bat etorritik, AG eta S baino S eta O dira perpaus jokatueta kasua gune berean erkatzen dutenak -ikus (1.2) atala-. Subjektu/objektu aurkakotasuna, orduan, Murasugiren (1992) antzera azal nezake, subjektua, AG nahiz S, Aren Espez gunean sortzen dela proposatuz. Baina anaforaren jokabideaz gain (1.2.5), perpaus jokatugabeen gainera hipotesiaz (1.2.6) berdinduko ditut AG eta S argumentuak, biek Dren Espez gunea iristen dutela erakutsiz.

⁹D eta KMZ buruak ezeze, bestelako funtzio buruak ere bereizi dira INFLn. Murasugik (1992), kasurako, D eta IRGK buruak banatu ditu, Dri kasu subjektiboa egokituz eta IRGK buruari, berriz, kasu objektiboa. Lakak (1995), bestalde, D eta ASP buruak bereizi ditu INFLn.

¹⁰KMZ buruez dihardudanean, subjektu eta objektu komunztadura buruak bereizi arren, ez da bien artean inongo bereizkuntzarik, adjunktatzen zaizen buruaren arabera baina: D adjunktatzen zaion komunztadura burua da KMZ¹ eta A adjunktatzen zaiona, berriz, KMZ².

¹¹Egitarau Minimalista islatuz doan *Hatsarre eta Parametroen Teoriak* (Chomsky & Lasnik, 1991; Chomsky, 1992) hizkuntz gaitasuna du aztergai. Hizkuntz gaitasuna giza gogo/burmuinaren atala da. Hasierako egoeran, sistema amankomuna da gizakiontzat, hizkuntz jabekuntzaren bidez, bestalde, esperientziatik jasotako *lehen datu linguistikoei* egokitzen zaie, *barne sistema* inkorporatu eta aldaketa periferikoak baino jasan ezin ditzakeen egoera egonkorrera helduz. (Chomsky, 1986 b). Barne sistema, aldagaitz diren *hatsarre* unibertsalez ezeze, hizkuntzatik hizkuntzara aldakor diren *parametroen* balioez eratzen da.

¹²Barne hizkuntzak bi atal dauka: *hiztegia* eta giza lengoaiaren *konputazio sistema*. Hiztegiak barne hizkuntza jakin bateko ale lexikoak bilduko ditu hitzontasun idiosinkrasiko guztiekin batera, hau da, beraien adierazpen fonologiko, kategoria sintaktiko eta tasun semantikoekin azkenik. Konputazio sistemak, bestalde,

hiztegian bildutako aleez baliatuz *eratorpen* eta *egitura deskribapenak* (EDk) sortaraziko ditu

¹³Chomsky (1993) versus Chomsky (1994), non X-Teoria bera ere eredu sinpleago batez ordezkatzen den.

¹⁴Lengoaia eta bestelako sistema kognitiboen arteko *elkarguneak* bi *aurkezpen maila* baino ez dira, FF (Forma Fonetikoa) eta FL (Forma Logikoa). Konputazio sistema *Ahokatu* ondoren erdibituko da FF eta FL elkarguneetan, (2) azpiatalean erakusten den bezala.

ii.

Ahokatu

Forma Fonetikoa (FF)

Forma Logikoa (FL)

EDak mailan mailako *aurkezpen segidak* dira eta aurkezpen maila linguistikoak aipatu elkarguneak badira, EDak (ϕ , λ) dirateke, hau da, FF mailako ϕ zein FL mailako λ aurkezpenek osatutako bikoteak. EDren eratorpenak ezarriko ditu elkarguneetako aurkezpen bikoteok, behin hiztegiko aleak hautatutakoan.

Barne sistemak azkenik gabeko EDen saila ezarriko du eta EDek ezin hobeki beteko dituzte *elkargune baldintzak*, Kasu Teoriaren aurkezpen baldintzak kasurako. Eratorpenak zilegi diren EDei egotzi behar zaizkie, FF zein FLrekin bat egingo badute: eratorpenak *FFrekin bat egingo du*, baldin eta soilik baldin, ϕ zilegi bada eta FFn *huts egingo du*, baldin eta ϕ zilegi ez bada, eratorpenak FLrekin bat egingo du, baldin eta soilik baldin λ zilegi bada eta FLn huts egingo du, baldin eta λ zilegi ez bada (Chomsky, 1993).

¹⁵Chomsky (1995) darabiltzan *Ekonomia Hatsarretatik*, alegia, *Gutxieneko Ahalegin*, *Azken Baliabide* eta *Luzatu* hatsarreetatik, bigarrenari lot dakioko Gutizia. Lasnik (1995), bere aldetik, jomugaren beraren beharren arabera mugimendua onesten du *Enlightened self service* hatsarrea dela bide.

¹⁶Segmentu vs. kategoria aurkakotasunean, ikus May (1985) eta Chomsky (1986 a).

¹⁷ (a) Gorena: a burua bada, " α menderatzen duten islapen gorenetan bikiena". (H) Gorena=(X) Gorena=[XS1, XS2].

¹⁸Xren Gutxieneko Eremua, Xren Eremua bera dateke (Chomsky, 1993), baldin RS adjuntatzen ez bazaio YSri (Hizkuntzalaritza Mintegia, Gasteiz, 1995)

¹⁹Frantses eta ingelesaren arteko bereizkuntza aise ulertzeko, Marantz (1995) edota Haegeman (1994) irakur daiteke hastapenean.

²⁰Eren, alegia, Ezeztapen Sintagmaren jatorrizko guneari dagokionean, aintzat izan Pollockek INFLren osagarri baderitza ere -baita Ortiz de Urbin (1993) ere-, Lakak (1989 b, 1990) INFLren gainean ezarri duela euskaraz. Lakak, gainera,

ezkerretara dakar ez burua, gainerako buruak ez bezala eta Ortiz de Urbinak, berriz, eskumatara.

²¹Bobaljik & Carnie (1992) Dren A-tasunaz bereizten dituzte ingeles eta frantsesa ASO den irlandetatik. Dren A-tasunari ahula deritzate irlandera eta horregatik, D KMZri ezkutuan adjunktatzen zaio eta ISk, bere aldetik, [Espez, D] gunera jotzen du bere I-tasuna erkatzekotan. Izan ere, ISk bere jatorrizko gunetik mugitu eta [Espez, KMZ1] iritsi dezake, baldin eta D-ren A-tasuna sendoa bada baina ahula bada, ordea, ISk [Espez, KMZ1] iritsi barik, [Espez, D] gunera jotzen du. Beraz, [Espez, D] gunea da ISk, Drekin batera I-tasuna erkatzekotan, iritsi lezakeen balizko jomuga. Ondokoak dira hiru hizkuntzen tasunak.

iii.		ingelese	frantsesa	irlandera
KMZ	I-tasun	ahula	ahula	ahula
	A-tasun	ahula	sendoa	sendoa
D	I-tasun	sendoa	sendoa	sendoa
	A-tasun	sendoa	sendoa	ahula

Taulan ikus daitekeenez, irlandera, KMZren A-tasuna sendoa da frantsesez bezala baina frantses eta ingelesari aitz, Dren A-tasuna ahula. Dagoeneko esan dudan bezala, Bobaljik & Carnien aburuz, Dren A-tasuna sendoa bada, alegia, D KMZ1i agerian adjunktatzen bazaio, [Espez, D] gunea ezin sortuko da eta ISk ezin iritsiko du gunea hau I-tasunak erkatzekotan. Hori dela eta, D KMZ1i adjunktatutakoan, ISk_{KMZ1} [D KMZ1] buru anizkunaren Espez gunean erkatuko du bere I-tasuna.

Irlandera, orduan, Dren A-tasuna ahula da eta Dk ez du berez KMZ1 agerian iristerik -Aren buruz buruko mugimenduetan ez bada-. Alabaina, Dren I-tasuna sendoa denez, ISk Ahoskatu aurretik zilegiztatuko du [Espez, D] iritsiz. Bobaljik & Carnien hipotesia ezin uler daiteke, hauxe onesten ez bada, D KMZ1i adjunkta dakiokela, isola daitekeen adjunkzioa baillitza, alegia, Aren buruz buruko mugimenduetatik, A-KMZ2-D-KMZ1 mugimenduetatik at. Hipotesiak SAO eta ASO hurrenkerak bereiz baditzake ere, ulergaitz dirudi Dk KMZ1 ezkutuan iristea, Aren buruz buruko mugimenduetan agerian iristen badu. Zailtasunak zailtasun, euskaraz S Aren ezkerretara dagoenez, Dren A-tasunak ere sendo izan behar du eta ez da halabeharrez eztabaidatu behar D-KMZ1 adjunkzioa Aren gainerako mugimenduetatik bereiztea zilegi denentz.

²²Lakak (1993), Laka (1990) abiaburu harturik, ahul deritza KMZren A-tasunari, zeren, bere aburuz, A ez baita Ahoskatu aurretik igotzen. Alabaina, ohar bakarrera mugatzen da aipua -ikus 155 orrialdeko (7) oharra-.

²³Ekialdeko euskalkietan, halere, perpausaren osagaien bat galdegaia denean, honelaxe iraul daiteke hurrenkera, laguntzailea Aren ezkerretara azaldu eta galdegaiaren eskumatarako lehen gunea betez (Euskaltzaindia, 1987 a).

²⁴Ortiz de Urbinak (1993) *Aditza bigarrenik* fenomenoaren azpisail deritze A hastapenean erakusten duten (54) eta (55) perpausai: bien hastapenean

operatzaile ixila dukegu, orduan, bai/ez galdera operatzailea lehenean eta galdegai operatzaile nulua bigarrenean.

²⁵Nahitaezko Kasuaren Parametroa ñabardura batez bereiz daiteke Chomskyren formulaziotik Bobaljkenera. Lehenak, indarrean dagoen KMZ burua oinarri harturik ezarriko du nahitaezko kasua. Bigarrenak, berriz, nahitaezko kasuaz dihardu lehenik eta honexetik helduko da indarrean dagoen KMZ burura. Bobaljken formulazioak, orduan, *indarreko kasuetara* eraman gaitzake, Lakak (1995) bezala.

²⁶Predikatu iragangaitzeko adierazpenetan -(59) eta (61)- IS Aren Espez gunean ezarriko dut, (58) eta (60) perpausetako predikatuak ezergatiboak direlako. ASren osagarrian ezar nitzakeen, halaber, predikatuak ezakusatiboak izan balira (Perlmutter, 1978; Burzio, 1981, 986). Alabaina, predikatu ezakusatibo eta ezergatiboak bereizi ezean (Borer, 1993), Aren Espez gunean ezarri behar da IS, bi predikatueta. Chomskyri (1994) jarraiki ere, bi predikatuak ezin bereiz daitezke oinarrian.

²⁷Juntadura erabili izan da literaturan, hizkuntza ergatiboetan predikatu iragangaitzeko subjektu eta predikatu iragankorreko objektuak, alegia, ABS argumentuak batera daitezkeela erakusteko. Djirbaieraz, kasurako, juntatutako argumentuak S eta O dira (Dixon, 1972, 1994, Comrie, 1978, 1981); euskaraz, berriz, AG eta S (Kotatxe, 1978, 1979, Hualde, 1986, Ortiz de Urbina, 1989). Ez dut irizpide hau erabiliko lerrootan.

²⁸Abkhaziar hizkuntzak (Ipar Mendebaldeko kaukasiar hizkuntzak).

²⁹Aditz psikologikoetan ezik (Belletti & Rizzi, 1986).

³⁰Murasugik (1992) dio, ordea, *ilu* egituretan predikatu iragankorreko subjektua ere komunzta daitekeela. Ez da hau, alabaina, aipatu egituretan espero daitekeena. Edonola ere, honakoa da eztabaidagaia, predikatu iragangaitzeko subjektuak ABS kasua edota f2-tasunak erka ditzakeen ala kasu nulua baino ez.

³¹Bobaljkek (1993) 65 orrialdean darabilen etsenpluari (36.i) ez dagokio daraman itzulpena.

³²Perpaus jokatugabeetako Dri [-kasua] tasuna egotziz, Dk kasu nulua duela adierazi nahi dut, ez Dk kasurik ez duela.

³³Lópezen (1995) aburuz, subjektuak [Espez, D] iritsi behar du halabeharrez, Dk duen kasu tasuna zilegiztatu behar delako (*Kasu Abstraktuaren Hondarria*) López (1995) versus Laka (1993): predikatu iragangaitzak ez du kasurik, Lópezen ustez. Horregatik, sistema nom/akusatiboetan, subjektua [Espez, D] gunera igotzen da lehenik, bertan kasu abstraktua zilegiztatuz eta [Espez, KMZ1] gunera gero, ϕ -tasunak erkatuz -kasu morfologikoa ϕ -tasunetatik bat da, Lópezenentzat-. Sistema ergatiboetan, berriz, subjektuak [Espez, KMZ2] iristen du lehenik, ϕ -tasunak erkatzeko eta [Espez, D] ondoren, kasu abstraktua zilegiztatzeko. Lópezi jarraiki, horixe dukegu euskararen NZ zehar galderetan, zeinetan subjektuaren NZ

aztarnarik ezin ager daitekeen -(iv.i) eta (iv.ii) versus (iv.iii)-eta subjektuak Dri loturiko subjektu baldintzak bete behar dituen.

- iv. i. * Jonek badaki nor itsasoratu
- ii. * Jonek badaki marrazoa nork harrapatu
- iii. Jonek badaki zer harrapatu

Lópezekin bat nator, NZ zehar galderetan subjektuaren NZ aztarnak, [Espez, D] iristen duela dioenean baina ez dut uste kasu morfologikoa kasu abstraktutik bereizi behar denik ezta [Espez, KMZ] eta [Espez, D] guneeetan hurrenez hurren erkatzen direnik ere. Areago, kasu morfologikoa ezin daiteke ϕ -tasuntzat hartu, ene iritziz: kasua KMZri adjuntatutako buruaren araberakoa da eta ϕ -tasunak KMZ buruari dagozkio. Lópezen hipotesiak [Espez, D] gunea erabiltzeari deritzat interesgarri, ez hipotesiaren beraren garapenari.

³⁴ eta A-tasunak lehen hipotesian bezala zilegiztatzen dira bigarren hipotesi honetan ere. I-tasunak funtzio buruen Espez guneeetan zilegiztatzen dira, hau da, D eta IRGK funtzio buruen eta ISen kasu tasunak batetik eta Aren eta ISen ϕ -tasunak bestetik [Espez, D] edota [Espez, IRGK] guneeetan erkatzen dira. A-tasunak, bestalde, adjunkzio bidez zilegiztatzen dira. A, IRGK zein D buruei adjuntatuz.

³⁵Murasugik, Chomsky (1993) edota Bobaljik (1992 b, 1993) bezala, tasun sendo eta ahulak bereizten ditu -ikus (1.2.3)-tasun sendoak FFko sasiobjektutzat direnez, Ahoskatu aurretik erkatzen dira eta tasun ahulak, aldiz, FLn zilegiztatzen dira, FLra arte luza baitaiteke eratorpena.

³⁶Predikatu iragangaitzeko perpausetan, zeinetan IRGKk [-irgk] tasuna duen, [Espez, D] gunea baino ez da kasua erkatzeko gunea eta bertara igotzen da IS sistema nom/akusatibo zein ergatiboetan. Igoera, alabaina, ez da aurkezpen maila berean ematen, zeren sistema nom/akusatiboetan Ahoskatu aurretik gertatzen baita eta sistema ergatiboetan, ostera, FLan.

³⁷Adibideetako adizkien azpiko oharretan, lehen, bigarren eta hirugarren pertsona 1, 2, 3 zenbakiez adieraziko ditut eta jarraian ϕ 1 eta ϕ 2 laburdurak erabiliko ditu azpindizean argumentuak erkatu behar duen ϕ -tasunaren, hau da komunztadura tasunaren berri emateko.

³⁸Aintzat izan, euskara predikatu iragankorreko perpausetan ERG-ABS-A hurrenkerari jarraitzen bazaio ere, ABS-ERG-A hurrenkera ere izan dezakeela beste zenbait hizkuntza ergatibok. Ergatibotasunaren Parametroak, bada, euskararen hurrenkera azal ezin dezakeen arren, egokiro azal dezake aipatu beste hurrenkera.

³⁹Sistema nom/akusatiboetan NOM [Espez, KMZ1] gunean erkatzen da eta AK, [Espez, KMZ2]n; sistema ergatiboetan, berriz, ABS erkatzen da [Espez, KMZ1] gunean eta ERG, [Espez, KMZ2]n.

⁴⁰Murasugik anafora A-egituran uztartzen dela dioenean, Ahoskatu aurretik uztartzen dela adierazi nahi du. A-egitura terminua badarabil ere, ez ditu Sakoneko egitura (S-egitura) eta A-egitura aurkezpen mailak bereizten.

⁴¹Jakaltekeraz, predikatu iragankorreko infinitibo jokatugaberik ez badago ere, aspektu gabeko mendeko perpausetan azal daiteke predikatu iragankorra. Era honetako perpausetan -ikus (v.)- ABS eta ERG komunztatzen da aditzean.

v.	x-ø-(y)iptze	naj	ix
	asp-3sA-3sE-behartu	kl-hura m	kl-hura f
hin	s-coho'		
1sA	3sE-lagundu-gero		
'Hark hura behartu zuen ni laguntzera'			

Predikatu iragangaitza ere azal daiteke aspektu gabeko mendeko perpausotan. Begira dakion komunztadurari. Mendeko predikatua iragangaitza bada ere, ERGz komunztatzen da argumentua (vi.). Maiar hizkuntzek mendeko perpausetan erakusten duten ergatibotasun erdibitua da aipatutakoa: -ikus laugarren kapitulua-.

vi.	xc-ach	w-iptze	ha-munlayi
	asp-2sA	1sE-behartu	2sE-lan egin
'Nik zu lan egitera behartu zintudan'			

⁴²Murasugiren aburuz, hizkuntza ergatiboetan -abkhazera, djirbalera edota inuiteraz esaterako- kasu markadun argumentu lexikoak edota komunztadura erakus dezaketen predikatu iragankorreko mendeko perpaus jokatuak daude: *Kasu Markatze Bereziko* perpausak deritze hauei.

Murasugiren hipotesiari lotuz, hizkuntza nom/akusatiboetako infinitibo jokatueta, KONPk [+jokatu] tasuna ezeze, NOM kasu tasuna ere badu. NOM argumentuak, [-denbora] Drekin tasunik erka ezin dezakeena, KONPkin batera erka dezake kasua. Kasu Markatze Bereziaz infinitibo jokatuaren AG zein Sek NOM erka dezakete hizkuntza nom/akusatiboetan, NOM argumentua baita [Espec, D] gunea iristen duena. Hizkuntza ergatiboetan, bestalde, [-jokatu] KONPkin batera kasua erka dezakeen IS ABS argumentua da, zeren [Espec, D] irits dezakeen argumentua S zein O izan baitaiteke. Sistema ergatiboetan, beraz, Kasu Markatze Bereziaz erka daitekeen kasua ABS da. Infinitibo iragankorrik eman daiteke, beraz, baldin eta Kasu Markatze Berezirik badago. Murasugik, honelaxe azaltzen du inuiteraren -llu egituran, kasurako.

Murasugik Bobaljikengandik bereiziz, PRO egituratzat baino, nahitaezko *pro* uztarduratzat jotzen du -llu egitura: mendeko subjektuak perpaus nagusiko subjektuaren erreferentziakidea izan behar du halaberharrez -nahitaezko *pro* uztarduratzat jotzen du, halaber, djirbaleraren *mintzagai kateatzea* (Dixon, 1972 eta 1994)-. Areago, bata zein besteak darabiltzaten datuetan ez datoz bat: Bobaljiken aburuz, -llu egituran ezin daiteke ABS baino aurki -autoreak komunztaduraz dihardu- baina Murasugiren aburuz, -llu modu egiturak ABS argumentuak ezeze, ERG argumentuak ere erakus dezake. Autore biek

darabiltzaten etsenpluak Bittnerri dagozkio. Murasugik darkartzan adibideetan, Bobaljiki aitz, ERG argumentua aurki daiteke *-llu* gerundio egituretan, nahiz eta objektua soilik komuntzatzen den.

- vii. i. {ilinniartitsisug qunguju-llu-ni ; miiqqat
irakasle-ABS barre egin-llu-4sA umeak-ABS

qiviar-p-a-i
itzuli-ind-irgk-3sE-3pA
Irakasleak barre eginez, ikasleengana itzuli zen'

- ii. [Juuna-p miiqqat taku-llu-git]
Juuna-ERG umeak-ABS ikusi-llu-3pA

qungujup-p-u-q
barre egin-ind-irgg-3sA
'Juunak umeak ikusiz, barre egin zuen'

Infiniitibo jokatueta, orduan, Kasu Markatze Berezia dukegu, Murasugiren iritziz: KONPk [+jokatu] tasunaz gain, ABS kasu tasuna ere badu sistema ergatiboetan. ABS argumentuak, [-denbora] Drekin kasu tasunik erka ezin dezakeena, [+jokatu] KONPkin batera erkatuko du ABS. Kasu Markatze Bereziak, infinitibo iragankorrak ere zilegi dira hizkuntza ergatiboetan.

⁴³Euskal Aditzaren Pasibotasunaren Teoriaren historia kritikorako, ikus Sarasola (1977).

2. Ezergatiboak, inkorporazioa eta buruz buruko kasua

2.0 ATARIAN

Predikatu iragangaitzen artean, bi sail bereizi izan da, predikatu ezakusatiboa eta ezergatiboa, alegia (Perlmutter, 1978; Burzio, 1981, 1986). Badira, alabaina, ezakusatibo nahiz ezergatibo erara ager daitezkeen predikatuak, Borerek (1993) eratorpenean zehar bereizten dituenak, ezakusatiboei *interpretapen teliko* eta *egilegabea* egokituz eta ezergatiboei, berriz, *interpretapen ezeliko* eta *egileduna*. Boreren azterbidea errefusatu arren, telikotasun eta ezelikotasunaz bereiz daitezke euskal predikatuak, *borrokatu* eta *I + egin* ezergatiboei interpretapen ezeliko eta egileduna dagokielarik.

Hale & Keyserren aburuz (1993), bestalde, ezergatiboak predikatu iragankorrek dira *egitura lexiko erlaziozkoa* deritzatenean eta objektu inkorporazioa jasan dezakete sistema ergatiboetan. Autore hauei jarraituko natzaie, predikatu ezergatiboak iragankortzat hartuz,

baina beraiek, Bobaljikek (1993) edota Lakak (1993) ez bezala, objektuaren inkorporazioari halabeharrezko iritziko diot baita *I + egin* ezergatiboetan ere, Uribetxebarriak (1989 a), López & Austinek (1995) edota Martinezek (1996) iritzi dieten bezala. Eta halabeharrezko adjunkzioa diot, objektuak zein predikatuak berak l-tasun bana erkatu behar baitute buruz buru, inkorporazioa dela bide (Fernández, 1995).

Euskal ezergatibo sailek, alabaina, ez dute objektua aurkezpen maila berean inkorporatzen. Ene aburuz, *mintzatu* sailak egitura lexiko erlaziozkoan inkorporatzen duen bitartean, *borrokatu* zein *I + egin* erakoek konputazio sisteman inkorporatzen dute objektua. Ondorioz, *mintzatu* erako ezergatiboa sintaktikoki iragangaitza da, ezakusatiboen antzera, eta *borrokatu* nahiz *I + egin* erako ezergatiboak, ordea, iragankorrak dira egitura lexiko erlaziozkoan ezeze, konputazio sisteman ere.

Kapituluan zehar, predikatu ezergatiboak aztertu eta tipifikatzea dut xede. Perlmutterri (1978) eta Burziori (1981, 1986) lotuko natzaie lehenik eta Boreri (1993) ondoren, ezakusatibo eta ezergatiboen arteko bereizkuntza eztabaidatuz (2.1.1). Hale & Keyserrengana (1993) joko dut hurrengo atalean (2.1.2), predikatu ezergatiboak iragankorrak direla eta objektua inkorpora dezaketela erakustekotan. Buruz buruko erkaketa (2.1.3) atalean izango dut mintzagai.

Euskal ezergatiboak sailez sail aztertuko ditut gero (2.2), *I + egin* erakoei erreparatuz bereziki (2.2.3). Borerekin (1993) bat etorriko naiz, *I + egin* predikatuetakoa *I* zehaztugabeak inkorporatu behar duelako ustean eta Lakari (1993) jarraituko natzaio ezergatiboetakoa objektuak l-tzat jotz (2.2.2.2). Ezergatiboetakoa *egin arina* ohiko predikatu iragankorretako *egin astunetik* bereiziko dut azkenik (2.2.2.4), Grimshaw & Mesterren (1988) ildoan, Uribetxebarriak

(1989 b) edota Fernándezek (1994) egin duten bezala. Euskal ezergatiboen inkorporazioari buruzko atal orokorrak (2.3) amaituko dut kapitulua.

2.1 EZERGATIBOAK, INKORPORAZIOA ETA BURUZ BURUKO ERKAKETA

Atarian esan dudan modura, ezakusatibo eta ezergatiboak aztertuko ditut atal honetan zehar, horretarako bi ardatz nagusi erabiliz, alegia, Borer (1993) eta Hale & Keyser (1993). Era berean, l-tasunak [Espez, KMZ] gunean ezeze, buru buru ere zilegizta daitezkeela erakutsiko dut, inkorporazioari l-tasunen erkabide iritzi eta gero.

2.1.1 Ezakusatiboak vs. ezergatiboak

Bi eratako predikatuak bereizi ditut lehen kapituluan zehar: predikatu iragankorrak eta iragangaitzak, baina predikatu iragangaitzen artean ere, beste bi predikatu sail bereizi izan da, hau da, ezakusatibo eta ezergatiboak (Perlmutter, 1978).

Predikatu ezakusatibo eta ezergatiboen arteko bereizkuntzak oinarri semantikoa du, Perlmutterren aburuz, eta ondoko (1) sailetan bana daitezke.

- (1) i. Borondatezko ekintzak deskribatzen dituzten predikatuak: *lan egin, jolastu, hitz egin, irribarre egin, igeri egin, dantzatu, borrokatu...*

Komunikatzeko erak adierazten dituztenak,
hala nola, *xuxurlatu, oihu egin, marmar egin*,
eta azkenik, animaliek ateratzen dituzten
zaratak, *zaunka egin, kro-kro egin...*

ii. Borondaterik gabeko prozesu fisiologikoak
adierazten dituztenak: *korroskada egin, lo egin*,
txiza egin, negar egin, zurrunga egin...

Predikatu ezakusatiboak, halaber, honelaxe (2) sailka daitezke.

(2) i. *Jasale* θ -errola daramaten predikatuak:
erori, labandu, hondoratu eta *izoztu, lurrundu...*

ii. Izate edo gertaera adierazten duten
predikatuak: *izan* edota *gertatu*.

iii. Borondaterik gabeko estimulu isurtzea
adierazten duten predikatuak¹: *dirdiratu*,
izarniatu, izeki, usaindu...

Errol tematiko edo *θ -errolari* dagokionean, ISk *egile* errola ekarri ohi du predikatu ezergatiboetan, baina ñabardura askorekin (Levin & Rapaport, 1995). Eta ASPz ere banatu izan dira bi predikatuak, ezakusatiboari telikotasun eta ezegiletasuna egotziz eta ezergatiboari, berriz, ezelikotasun eta egiletasuna (Van Valin, 1990).

Bestalde, predikatu ezakusatibo eta ezergatiboei *θ -errola* bana egotzirik ere, irizpide sintaktikoez bereizi dira bi predikatu sailak, Perlmutterren beraren *Ezakusatibotasunaren Hipotesiaz* ², eta Burzioren *Orokorpenaz* (1981, 1986)³, *Gobernu eta Uztardura Teoriaren* (Chomsky, 1986) baitan. Aurkezpen mailetan S-egitura eta A-egitura banatuz gero, predikatu ezakusatiboak objektua izango du

S-egituran eta predikatu ezergatiboak, berriz, subjektua aurkezpen maila berean. Edo bestela esanda, predikatu ezakusatiboak *barne argumentua* izango du eta ezergatiboak, bere aldetik, *kanpo argumentua*. Burziok predikatu iragangaitzen sailkapenerako erabilitako bi irizpideak dakartzat ondoren.

Italieraren *arrivare* 'heldu' eta *telefonare* 'telefonoz deitu' predikatu iragangaitzak dira ondoko etsenpluetakoak (3). *Arrivare*, (2.1) perpauseko predikatua ezakusatiboa da; *telefonare*, (2.2) perpausean dena, berriz, ezergatiboa. Predikatu iragangaitzeko bi perpausetan, *Giovanni* argumentuari NOM egotzi zaio.

- (3) i. Giovanni arriva
'Giovanni heltzen da'
- ii. Giovanni telefona
'Giovannik telefonoz deitzen du'

Predikatu iragangaitzen arteko homogeneousutasunik eza, bi predikatuotako perpausak erakusten dituzten ondoko bereizkuntza sintaktikoei behatuz antzeman daiteke. Bereizkuntza sintaktikoetan lehena, *ne*-klitikoaren erabilerari dagokio. *Arrivare* predikatu ezakusatiboko perpausa (4.i) gramatikala da; *telefonare* predikatu ezergatiboak, ordea, ez du *ne*-klitikoa onesten eta horregatik, (4.ii) ezgramatikala da.

- (4) i. Ne arrivano molti
beraiaietatik heldu asko
'Beraiaietatik asko heltzen da'
- ii. *Ne telefonano molti
Beraiaietatik telefonoz deitzen du askok
'Beraiaietatik askok deitzen du'

Ne- klitkoa sakoneko objektuei soilik atxiki dakieke eta ez sakoneko subjektuei. *Arrivare* erako predikatuen argumentua objektua da S-egituran; hortik (4.i) perpausean *ne* -klitkoa onetsi izana. *Telefonare* predikatuaren argumentua, aldiz, subjektua da eta, ezgramatikaltasunik sortu ezik (4.ii), ezin dakioke *ne-* klitkoa ezar. *Ne-* klitkoaren erabilerari dagokionean, beraz, *arrivare* ezakusatiboaren argumentuak predikatu iragankorreko subjektuaren antzera jotzen du eta *telefonare* ezergatiboarenak, berriz, objektuaren antzera.

Predikatu iragangaitzak bereizten dituen bigarren irizpidea *essere* 'izan' ala *avere* 'edun' laguntzaileei dagokie. *Arrivare* predikatu ezakusatiboa *essere* laguntzaileaz jotzen da italieraz (5.i) eta *telefonare* predikatu ezergatiboa, aldiz, *avere* laguntzaileaz (5.ii).

- (5) i. Giovanni è arrivato
 'Giovanni heldu da'
- ii. Giovanni ha telefonato
 'Giovannik telefonoz deitu du'

Iragangaitz sailak, bada, *essere/avere* laguntzaileez banatzen dira italieraz, ezakusatiboak batetik, *essere* laguntzaileaz jotzen direnak eta ezergatiboak bestetik, *avere* laguntzailea darabiltenak⁴.

Burziok darabiltzan bi irizpideengatik ere, predikatu ezakusatibo eta ezergatibo sailen arteko bereizkuntza ez da dirudien bezain gardena, Boreren (1993) aburuz. Dakusagun ondoko perpausetan (6) eta (7). Italieraren *correre* 'korritu' predikatua ezergatiboa da; horregatik, *avere* laguntzaileaz jotzen da (6.i) eta ezin onets dezake *ne-* klitikorik (6.ii).

- (6) i. Gianni ha corso
 Gianni avere korritu
 'Giannik korritu du'
- ii. *Ne hanno corso/i due
 beraietatik korritu dute bik

Goiko perpausetako (6) datuak dira, espero bezala, *correre* predikatua *telefonare* predikatu ezergatiboarekin bateratzen dutenak. Baina begiratu (7) perpausei. *Correre* predikatua bera bada ere, *essere* laguntzaileaz jokaturik dator ezakusatiboa baillitzan (7.i) eta ezakusatiboko perpausetan soilik ezar daitekeen *ne*-klitikoaz ageri da (7.ii) perpausean, ezgramatikaltasunik gabe⁵.

- (7) i. Gianni e corso a casa
 Gianni essere korritu etxera
 'Giannik etxera korritu du'
- ii. Ne sono corsi due a casa
 beraietatik korritu dute bik etxera
 'Beraietatik bik etxera korritu dute'

Borerek dioenez, *correre* bezalako predikatuak ezergatibo nahiz ezakusatibo erara ageri badaitezke, ezin pentsa daiteke predikatu iragangaitzak sail batean ala bestean banatzen direnik hiztegi sarreratik bertatik. Edo bestela esanda, argumentuen islapen sintaktikoa predikatuaren hiztegi sarreran zehazturik baletor, eta bertan predikatu ezakusatibo eta ezergatiboen argumentuak gune ezberdinetan islatuko balira-objektu gunean eta Aren Espez gunean hurrenez hurren-, ezin azal liteke *correre* predikatuaren jokabide aldakorra (6) eta (7) perpausetan.

Honenbestez, predikatu ezakusatibo eta ezergatiboen arteko bereizkuntza beste irizpideez azaldu behar da. Boreren azterbideak, halaber, ondorio semantikoak dakartza. Izan ere, gorago aipatu dudana Van Valinen (1990) ildoan, telikotasun/eztelikotasun⁶ aurkariei loturik dator iragangaitzen bereizkuntza: ezakusatiboa, telikotasun eta ezegiletasunari eta ezergatiboa, berriz, ezelikotasun eta egiletasunari⁷, (8) azpiatalean dakardan erara (Dowty, 1991).

- (8) i. Egiledun, ezelikoa: ezergatiboa
- ii. Egilegabe, telikoa: ezakusatiboa

Correre predikatu iragangaitzeko (7) perpausak diren bezain batean, *a casa* 'etxera' Preposizio Sintagma (PS) teliko bihurtu du predikatua, sintagma honen bitartez jomuga zehazten baita, eta prozesuaren jomuga zehaztuz, *ekintza* litekeena *burutzapena* bihurtzen baita. Horregatik, ezakusatiboen *essere* laguntzaileaz joka (7.i) eta *ne-* klitikoaz ager daiteke, *burutzapena* adieraziz (7.ii). Bestalde, (6) perpausetan PSrik ageri ez denez, ezelikoa da predikatua, ezergatiboa, beraz, eta ASP *ekintza*, (7) perpausetan ez bezala

Telikotasuna dagokio, orduan, jomuga jakina duen prozesuari, jomuga bera gaintitu eta luza ezin daitekeena; ezelikotasuna, aldiz, azkenik ez duen prozesuari, luzatu ezeze, bertan behera utzi arren, bete egiten dena. Gogoan izan, egoera telikoa *burutzapena* dela finean, alegia, *Aktionsart* deritzanaren arabera, *egoera*, *ekintza* eta *lorpenetik* bereizi dena (Vendler, 1967; Dowty, 1979). Eta aintzat izan, halaber, perpausaren *Aktionsarti* dagokionez, Ak beste garrantzi duela objektuak berak (Tenny, 1992, 1994; Borer, 1993), Comrieren (1986) ondoko adibideetan (9) ikus daitekeen bezala.


- (9) i. John is singing
 John izan kantatu
 'John kantatzen ari da'
- ii. John is singing the song
 John izan kantatu det kantua
 'John kantua kantatzen ari da'

Goiko perpausetan (9), zeinetan *sing* 'kantatu' A ageri den, (9.i) eztelikoa da baina (9.ii) telikoa, zeren lehenak azkenik edo jomugarik ez duen bitartean, bigarrenak azkena baitu objektuan bertan. (9.ii) perpausoko objektua, gainera, zehaztua da, zehaztasun horri dagokiolarik telikotasuna⁸.

Baina gatozen, laburki baino ez bada, predikatu iragangaitzak Boreren azterbideaz bereiztera. Boreren aburuz, argumentuen hierarkia buru funtzioen Espez gune bat ala beste iristean datza, baina horretarako ez darabil KMZ bururik, Chomskyri (1993) jarraiki onetsi dudan bezala, D eta ASP buruak baino⁹. AK kasua ASP buruari lotzen dio eta NOM kasua, Dri. AK kasua aukerakoa da eta baita ASPren Espez ere; NOM, aldiz, nahitaezkoa.


Jo dezagun, Borerekin bat etorririk, ASPren Espez isla daitekeela eta islatuz gero, ISk nahitaez iritsi behar duela. ISk, alabaina, ez du AK kasurik erkatuko bertan¹⁰. Borerek, Tennyri (1992, 1994) jarraiki dioenez, IS, *gertaera neurketarako* ASP (ASP_{GN})¹¹ buruaren Espez iritsiz, gertaeraren neurtzaile bihurtuko da -objektu honi *Neurria* deritza Borerek-, eta interpretapen telikoa eratorriko da, hau da, ezakusatiboei lotzen zaiena. Dakusagun (10) eratorpenean. Gogoan izan, ISk ASPren Espez gunea iritsirik ere, definizioz ez duela kasurik erkatzen bertan eta, hortaz, Dren Espez gunera igo behar duela ondoren NOM erkatzekotan.

(10) Interpretapen telikoa: ezakusatiboa



ASPren Espez islatu ezik, ISk [Espez, D] iristen du, NOM erkatuz. Borerek dioenez, Espez islatu gabe, ASP_{GN} buruaren ASP tasunak ez dira indartzen eta eratorpenak, orduan, interpretapen eztelikoa du, hots, gertaera neurtzen ez duena, ezergatiboei dagokiena, hain zuzen -(11) eratorpena-.


(11) Interpretapen eztelikoa: ezergatiboa



Borerek, bada, honeiaxe azaltzen du iragangaitzen arteko bereizkuntza: ezakusatiboetan, ASP_{GN} buruaren Espez gunea islaturik, ISk iristen du, bertan kasua erka ezin badezake ere; ezergatiboetan, Espez gunea islatzen ez denez, ISk ezin zilegizta dezake ASP tasunik. Baina begira dakion kasu erkaketari. Boreren hipotesiarekin bat etorririk, ezakusatibo nahiz ezergatiboaren argumentuak NOM kasua, alegia, Dren kasua erkatzen du [Espez, D] gunean: predikatu ezakusatiboko perpausean, ASP_{GN} buruaren Espez islatzen bada ere, ISk bertan kasurik erka ezin dezakeelako, eta predikatu ezergatibokoan, berriz, aipatu gunea islatu ez, eta ISk [Espez, D] iritsi behar duelako nahitaez.

Alabaina, Burziok edota Borerek diotenaren kontra, predikatu ezakusatiboak kasua erka dezake [Espez, ASP] gunean -ikus (Laka, 1995)-. Eta Boreren hipotesia onetsi arren, gainera, ezin azal daiteke predikatu ezakusatiboek ABS erkatzea sistema ergatiboetan. ISk predikatu ezakusatibo nahiz ezergatiboko perpausetan [Espez, D] iristen badu, ERG da bertan erka dezakeen kasua, ez ABS, zeren ABS [Espez, ASP] gunean erkatzen baita¹². Sistema ergatiboetan, orduan, predikatu ezakusatiboko perpausetan ASP_{GN} buruaren Espez islatu eta bertan ABS erkatu behar luke ISk -Borerek definizioz diotenaren kontra¹³. (12) azpiatalera dakart eratorpena.

(12)



Predikatu ezergatiboko perpausetan, bestalde, ISk ABS erkatu behar balu ere, ezin iritsi lezake predikatu ezakusatiboko ISk iristen duen ASP_{GN} buruaren Espez, zeren orduan, interpretapen telikoa eratorriko baillizateke -ezakusatiboei dagokiena-, (12) eratorpenean bezala. Ildo honetan, ezergatiboen jokabidea ikusirik, ez dirudi sistema ergatiboetan ASP_{GN} buruaren Espez ABS kasuaren erkagunetzat har daitekeenik, eta ziur aski, kasua ASP_{GN} buruari baino, ASP buru soilari egotzi behar zaio -Laka (1995) besteak beste-

Boreren hipotesiak sistema ergatiboez hausnartzen dugunoi erantzun gabeko galderak formula arazten dizkigun arren, euskali ezakusatibo eta ezergatiboen arteko bereizkuntza jorrazteko abagunea¹⁴ dakarkigu. Dena den, ASP_{GN} burua bera errefusatzuz gero, ezin eratorriko da perpausen telikotasun edota eztelikotasuna Borerek bezala.

Borerek, gainera, ezakusatibo nahiz ezergatiboei iragangaitz iritzi badie ere, neronek iragankortzat joko ditut ezergatiboak egitura lexiko erlaziozkoa deritzanean (Hale & Keyser, 1993), eta objektua

inkorporatzen dutela proposatuko dut, Hale & Keyserrekin ezeze, Bobaljik (1993) edota Lakarekin (1993) bat etorritz. Baina bada besterik. Gorago nioen antzera, Borerek, Tennyren (1992, 1994) ildoan, objektuari berari egotzi dio gertaeraren neurketa. Dena den, objektuaren zehaztasunaz telikotasuna eratortzen den bitartean, (9.ii) perpausean bezala, objektuaren zehaztugabetasunaz ezelikotasuna da eratortzen dena.

Honelaxe, bada, ASPren arabera bereiz daitezke predikatu iragankor soilak *alde egin* ezergatiboetatik, objektuaren zehaztasunaz interpretapen telikoa eman dakiokete eta perpausari, baina *I + egin* ezergatiboen objektuaren zehaztugabetasunaz, perpausaren interpretapena ezelikoa baita halabeharrez. *Borrokatu* erako ezergatiboei dagokienean, objektu *kognatua* (Bobaljik, 1993; Laka, 1993) onesten dutenek interpretapen telikoa dute, objektua ageriz gero, eta objektua ageri ezik, ezelikoa, geroago erakutsiko dudan erara.


2.1.2 Ezergatiboak eta inkorporazioa

Hale & Keyserren (1993) aburuz, predikatu ezergatiboak predikatu iragankorrak dira beren egitura lexiko erlaziozkoan. Edozein buru lexiko mailaz maila isla daiteke islapen gorenera heldu arte: buruak eta beronek izan ditzakeen argumentuek, osagarri zein espezifikatzaileek, bere egitura lexiko erlaziozkoa osatzen dute. Bobaljik (1992 a, 1993) edota Laka (1993), Hale & Keyserri lotu zaizkie, ezergatiboak egitura lexiko erlaziozkoan iragankortzat hartuz, neronek egingo dudan bezala.

Dakusagun etsenpluen bidez. Ingelesaren *laugh* 'barre egin' edota *dance* 'dantzatu' erako predikatuak predikatu iragankorrak

dira beren egitura lexiko erlaziozkoan, hau da, A' adabegiak A eta IS2 osagarria besarkatzen ditu, (13)an ikus daitekeen bezala.

(13)



Hale & Keyserrek adierazten dutenez, *laugh* edota *dance* ezerгатiboak, letatik eratorritako Ak dira, eta horixe bera antzeman daiteke euskal ezerгатiboetan. Dakusagun zenbait euskal ezerгатibo (14) azpiatalean.


(14)	barre egin	lan egin
	berba egin	lo egin
	borrokatu	mintzatu
	distiratu	solastatu
	hitz egin	zintz egin

letatik eratorritako predikatuak dira (14)koak -(2.2) atalean sailez sail aztertuko ditut-, eta Ik I + *egin* erako ezerгатiboetan ezeze, *borrokatu* edo *mintzatu* erakoetan ere ageri zaizkigu hastapenean, *barre*, *berba*, *hitz*, *lo*, *borroka*, *distira*, *mintzo* edota *solas*, besteak beste.

I + *egin* ezerгатiboek iragankor iritzi zaie euskaraz (Levin, 1983; Ortiz de Urbina, 1986), eta (14)ko predikatuak, oro har, iragankortzat har daitezke, *laugh* edota *dance* bezalaxe: I + *egin* erako sailean, *egin* da hastapenean dagoen A eta *mintzatu* edota *borrokatu* sailean, A nulua da, $\emptyset$ A, alegia.


Predikatu ezergatiboak, orduan, iragankorrek dira baina predikatu iragankorrek ez bezala, objektua inkorporatzen dute. Inkorporazioari esker IS2ren burua I, Ari adjunktatzen zaio, buruz buruko mugimenduaz (Baker, 1988). (15) eratorpenean, I, IS2ren burua dena, Ari adjunktatu zaio, inkorporazioaren bidez.

(15)




Ingelesaren *dance* eta *laugh* ezergatiboetan, esaterako, IS2ren buru den *dance* edota *laugh* I, $\emptyset$ Ari inkorporatu zaio buruz buru, eta, ene iritziz, (14) azpiataleko ezergatiboek ere, objektu inkorporazioa jasan dute, *dance* edota *laugh* ezergatiboen antzera. *Mintzatu* edota *barre egin* ezergatiboetara jo dezagun kasurako. *Mintzo* I, $\emptyset$ Ari adjunktatu zaio *mintzatu* ezergatiboan, (16) eratorpenean ikus daitekeen bezala.

(16)



Eta *barre* *I egin* Ari inkorporatu zaio *barre egin* ezergatiboan
 -(17) eratorpena-

(17)



Predikatu ezergatiboak, beraz, Perlmutter (1978) edota Burziori (1981, 1986) jarraiki, argumentu bakarreko predikatutzat hartu eta iragangaitzen artean sailkatu badira ere, -ikus (2.1.1) atala-, neronek predikatu iragankor deritzet, Hale & Keyserrek (1993) iritzi dieten bezala. Dena den, autore hauek diotenez, predikatu ezergatiboek ez dute sistema ergatibo orotan objektua inkorporatzen, eta *I + egin* erako ezergatiboak inkorporazio gabeko predikatuak dira beraientzat. Bobaljik (1992 a, 1993), Laka (1993) edota (Bittner & Hale (1996) ere bat datoz horretan. Neronek, berriz, inkorporazioa jasan duten predikatutzat jotzen ditut *I + egin* ezergatiboak, Uribechebarria (1989), López & Austin (1995) edota

Martinezekin (1996) bat etorririk, eta *mintzatu* eta *borrokatu* ezergatiboetan ere, halabeharrezkoa deritzat inkorporazioari.

Bobaljikek dioenez, gainera, ezergatiboak objektua inkorporatu duen sistema ergatiboetan, egiturazko ABS erkatzen du ISK -inuiterraz, kasurako-, eta objektua inkorporatu ez dutenetan, aldiz, ERG -hindieraz, besteak beste-. Dakargun gogora Nahitaezko Kasuaren Parametroak (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1992 b, 1993) sistema nom/akusatibo eta ergatiboen artera dakarren bereizkuntza, eta dakusagun ezergatiboek sistema ergatiboetan duten kasu aldakortasuna.

Predikatu iragangaitzeko perpausetan KMZ buru bat baino ez dela indartzen nioen gorago -(1.2.4) atala- : KMZ1, sistema nom/akusatiboetan eta KMZ2, ergatiboetan. KMZ1 indarturik, predikatu iragangaitzeko argumentu orok NOM erkatzen du, orduan, sistema nom/akusatiboetan -ikus italieraren (3) azpiataleko adibideak-. Eta KMZ2 indarturik, ABS erkatu behar du predikatu iragangaitzeko argumentu orok sistema ergatiboetan.

Sistema ergatiboetan, alabaina, bi eredu aurki daiteke: batean predikatu iragangaitz ororen argumentua egiturazko ABSz markatzen da, inuiterraz esaterako, eta bestean, ABS ezeze, ERG ere egozten zaio argumentuari (Bobaljik, 1993; Laka, 1993), georgieraz bezalaxe. Dixonen (1979, 1994) aburuz, sistema ergatiboa *predikatuaren izaera semantikoaren arabera* erdibitu eta *Sistema Ergatibo Hedatuari* lotzen zaizkion hizkuntzak lirateke georgiera bezalakoak, Ortiz de Urbinak (1986) euskarari iritzi dion bezala. Dixonek dioenez, predikatu iragangaitzeko subjektuak, predikatu iragankorreko objektuak bezala markatzen dira sistema ergatiboetan, baina baita predikatu iragankorreko subjektuak bezala ere, ERG kasua predikatu iragangaitzetara hedatzen delarik. Hizkuntza ergatiboetan aurki daitekeen bigarren eredua, beraz,

Ergatibotasun Erdibituari (Silverstein, 1977; Comrie, 1978, 1981 a; Dixon, 1979, 1994) lot lekiok¹⁵.

Dakartzagun bi ereduak adibideetara. Inuiteraren (18.i) eta (18.ii) perpausek predikatu ezakusatiboa eta ezergatiboa dute hurrenez hurren, eta bietan ABS erkatu du ISk.

- (18) i. Inuk tikit-tuq
pertsone-ABS heldu
'Pertsona heldu zen'
- ii. ilinniaqtitsiji uqaq-tuq
irakasle-ABS hitz egin
'Irakasleak hitz egin zuen'

Gatozen orain georgieraren adibideetara (19). Georgieraz¹⁶ (Harris, 1982) predikatu iragankorreko subjektuari (19.i) ezeze, predikatu ezergatibokoari (19.ii) ere ERG ezartzen zaio, ezgramatikaltasunik gabe; predikatu ezakusatibokoari, berriz, ABS (19.iii).

- (19) i. Vano-m gamozarda dzma
Vano-ERG 3sA-altxatu-3sE anaia ABS
'Vanok anaia altxatu zuen'
- ii. Bavsv-ma itira
ume-ERG negar egin-3sE
'Umeak negar egin zuen'
- iii. Rezo gamoizarda
Rezo-ABS hazi-3sA
'Rezo hazi zen'

Euskaraz, halaber, predikatu ezergatiboko ISek egiturazko ABS nahiz ERG erka dezakete¹⁷. Ikus (20) adibideak. Adibideotan, *mintzatu*, *borrokatu* eta *alde egin* ezergatiboak darabiltzat, ezergatiboen artean bereiziko ditudan hiru sailen eredu izan daitezkeenak. *Mintzatu* predikatuko perpausean (20.i), ABS erkatu du ISk; *borrokatu* eta *alde egin* predikatuko (20.ii) eta (20.iii) perpausetan, berriz, ERG. Begiratu laguntzaileei: *izan* darabilgu (20.i) perpausean, ezakusatiboak jokatzeko darabilgun bera, hain zuzen, eta **edun*, berriz, (20.ii) eta (20.ii) perpausetan, hau da, predikatu iragankorren laguntzailea.

(20)	i.	Iñaut euskaraz	mintzatu	da	
		Iñaut euskaraz	mintzatu	$3_{\phi 2}/D$ -izan	,
	ii.	Herriak	borrokatu	du	
		herri-ERG	borrokatu	$3_{\phi 2}/D$ -edun- $3_{\phi 1}$	
	iii.	Gazteak	alde egin	du	
		gazte-ERG	alde egin	$3_{\phi 2}/D$ -edun- $3_{\phi 1}$	

Izan ere, *mintzatu*, *borrokatu* eta *alde egin* ezergatibo sailak ISk erkatzen duen egiturazko kasuaren arabera bereizi ditut, lehen saillean ABS erkatzen duten ezergatiboak sailkatuz eta bigarren eta hirugarrenean, ERG zilegiztatzen dutenak. Azken bi sailok, gainera, hastapeneko Aren arabera ezberdindu ditut, *borrokatu* saillean, A hastapenean nulua -ø A- den ezergatibo oro ezarritik eta *alde egin* saillean, berriz, *egin* Az eraturikoak sailkatuz.

Baina gatozen ildora. Sistema ergatiboetan KMZ2 indarturik, predikatu iragangaitz ororen argumentuak egiturazko ABS erkatu behar badu, haxe pentsa daiteke, ezergatiboak iragankor direla eta ez iragangaitz, eta zenbait sistematan objektua inkorpora dezaketen bitartean, bestetan ezin inkorpora dezaketela. Bobaljik

(1992 a, 1993) edota Lakaren (1993) aburuz, ezergatiboak objektua inkorporatu badu, ISk egiturazko ABS erkatuko du eta objektua inkorporatu ez badu, berriz, ERG. Edo bestela esanda, objektua inkorporatuz gero, kasuari dagokionean, bederen, ezergatiboak ezakusatiboaren jokabide bera du konputazio sisteman, eta inkorporatu ezik, iragankorrarena. Autoreontzat, hortaz, euskararen I + *egin* erako ezergatiboak inkorporaziogabeko predikatuak dira.

Neronek ere iragankor deritzet ezergatiboei, baina Bobaljik (1992 a, 1993) eta Lakari (1993) aitzia, objektua inkorporatu duten predikatutzat jotzen ditut I + *egin* erako predikatuak -(2.2.3) atalean aztergai-. Areago, predikatu hauek halabeharrez inkorporatu dute objektua. Gutizia hatsarreak ezeze, aztarna enpirikoek ere eman diezagukete objektu inkorporazioaren berri predikatuotan. Halere, I + *egin* predikatuko ISk egiturazko ABS baino, ERG erkatzen du, predikatuok konputazio sisteman ere iragankor direlako.

Borrokatu saileko ezergatiboek, halaber, I + *egin* sailekoen antzera, objektua inkorporatzen dute, egiturazko ERG erkatzen duten arren. Eta azkenik, *mintzatu* sailekoak diren bezainbatean, inuiteraren ezergatiboek bezala inkorporatu dute objektua -ikus (18.ii) perpausa-, egiturazko ABS zilegiztatzen baitute, ezakusatiboak bailiran.

Hale & Kayser (1992) abiaburu izan duen atala amaitu aurretik, egitura lexiko erlaziozkoa aipatu nahi dut, esparru teorikoa definitzerakoan -ikus lehen kapitulua-, Ahoskatu ondoko FF eta FL elkarguneak baino bereizi ez ditudalako, eta predikatu ezergatiboak iragankortzat joko badira, egitura lexiko erlaziozkoa onetsi behar delako. Neronek printzipioz onesten dudan arren -darabildan ikergaiarengatik, ziurrenik-, Teoria Linguistikoak FF eta FL ez beste

aurkezpen mailarik behar ote duen hausnartu behar du eta ahal dela, definitu. Eta ahal dela, diot, zeren ez baitirudi aise defini daitekeenik, Hale & Keyserrengan (1993) beraiengan suma daitekeen bezala¹⁸.

Argumentu egitura sintaxia dela diote autoreok baina konputazio sistematik bereizi dute egitura lexiko erlaziozkoa. Alearen hiztegi sarrera, halaber, harreman lexiko-gramatikalak adierazten dituen egitura sintaktikoa da, beraien ustez. Gatozen bat honetan, baina, demagun, esan bezala, ezergatiboak iragankorrak direla eta objektua inkorporatzen dutela buruz buru; inkorporazioa, orduan, egitura lexiko erlazioazkoan ala konputazio sisteman ematen al den argitu behar da.

Hale & Keyserren aburuz, ezergatiboek hiztegian inkorporatzen dute objektua, egitura lexiko erlaziozkoan bertan. Alabaina, inkorporazio lexikoa dirudienak azalean baino ez da lexikoa autoreontzat, finean predikatuon inkorporazioa buruz buruko mugimendua delako. Nolanahi ere, bada *dance* edota *laugh* ezergatiboen inkorporazioa konputazio sistematik bereizteko irizpiderik: objektua inkorporatzen denean, ez da funtzio buruen tartekaritzarik.

Ene iritziz, ezergatiboek egitura lexiko erlaziozkoan ezeze, konputazio sisteman ere inkorpora dezakete objektua, eta konputazio sisteman inkorporatuz gero, ageriko sintaxian nahiz ezkutukoan. Honelaxe bereiz daitezke, bada, hiru ezergatibo sailak: *mintzatu* ezergatiboak egitura lexiko erlaziozkoan inkorporatzen du objektua, eta gainerako biek konputazio sisteman: *borrokatu* sailak. Ahoskatu aurretik eta *alde egin* sailak, berriz, Ahoskatu ondoren¹⁹.

Bestalde, *mintzatu* ezergatiboa egitura lexiko erlaziozkoan iragankortzat harturik ere, iragangaitza da konputazio sistemaren

baitan: KMZ buru bakarra indartzen da *mintzatu* erako ezergatiboak daramaten perpausetan²⁰. *Alde egin* sailean, berriz, objektua inkorporaturik ere, egiturazko ERG erkatzen da, eta ERG ezin erka daiteke bi KMZ buruak indartu ez badira. *I + egin* ezergatiboak, hortaz, iragankorrak dira baita konputazio sisteman ere.

Laburbilduz, euskal ezergatiboak aztergai, egitura lexiko erlaziozkoa ere banatuko dut, bestela ezin bailirateke *mintzatu* eta *borrokatu* sailak tipifika eta bereiz. Alabaina, Ahoskatu aurretik, honelakoxe aurkezpen mailarik ezarriko bada, hiztegi eta sintaxiaren arteko harremanak era gardenago batez definitu behar ditu Teoria Linguistikoak.

2.1.3 Inkorporazioa, kasuaren erkabide

Ezergatiboek objektua inkorporatuz gero, objektuaren mugimenduak gutziatsua izan behar du, Teoria Linguistikoaren baitan (Chomsky, 1993, 1995) Gutziak eragiten baitu edozein ale lexikoren mugimendua. Halatan, objektua betebeharrak morfologikoak asetzekotan adjunktatu behar zaio Ari. Ene aburuz, bada ezergatiboetan ik nahiz Ak erkatu beharreko I-tasunik, egiturazko kasua edota ϕ -tasunik ez bezala, buruz buru zilegiztatzen dena, eta I-tasun hori erkatzearen adjunktatzen zaio I Ari.

Inkorporazioa dateke, bada, ale lexikoak bere betebeharrak morfologikoetarako zehazten duen buruz buruko mugimendua. Areago, kasua erkatu beharrak mugiaraziko du I, Ari adjunktatuz: berez dakarren kasu tasuna asetu nahiaz mugituko da I eta Ari inkorporatuko, Arekin erkatu behar baitu azken batean kasu tasun

hura. Ik adjunkzio bidez erkatzen duen l-tasun honi buruz buruko kasua deritzat, eta adjunkzioari, beraz, buruz buruko erkabide.

Inkorporazioari, bestalde, kasuaren erkabide iritz dakioke objektua konputazio sisteman inkorporatu denean soilik, hau da, *borrokatu* nahiz *alde egin* erako ezergatiboetan. Bi sail hauetako ezergatiboetan -konputazio sisteman iragankor-, IS1k egiturazko ERG erkatzen du, baina ABS erkatuko zukeen, aldezturik zilegiztatu ez balu. Horregatik pentsa daiteke objektuak ABS erkatu duela, baina ez Espezt/buru harremanean, buruz buru baino, alegia, KMZren tartekaritzarik gabe.

Alabaina, kasua asetu beharrak ez du l mugiarazten, objektua egitura lexiko erlaziozkoan inkorporatu duten ezergatiboetan. *Mintzatu* erako ezergatiboetan ISk egiturazko ABS erkatzen du, eta ez dirudi egiturazko ABS zilegizta daitekeenik, behin buruz buru zilegiztatu ondoren. Agian, egitura lexiko erlaziozkoa ezin lot dakioke kasu erkaketari²¹.

Gobernu eta Uztardura Teoriak (Chomsky, 1981, 1986) bi kasu mota ezberdinez baliatu zen eta berezko kasuak bereizi zituen egiturazkoetatik. NOM/ERG eta AK/ABS kasuak, alegia, egiturazkoak, A-egituran ezartzen ziren; berezko kasuak, ordea, S-egituran. A eta INFL ziren egiturazko kasuak ezar zitzaketen buruak; berezko kasuen artean, aldiz, PEk ezar zitzaketen *zihar kasuak* eta l edota ADJek, genitiboa. Azkenik, berezko kasuek errol tematiko bana zeramaten eta egiturazkoek, bestalde, *itsu-itsuan* hartzen zuten kasua, A edota INFLren arabera izan zezaketen errol tematikoa aintzat hartu gabe.

Dena den, ez dirudi berezko eta egiturazko kasuak bereizi behar direnik Minimalismoaren baitan ere, buruz buru zilegiztatzen den kasu honi berezko kasua iritziz (Fernández, 1995). Lehenik eta behin,

A-egitura S-egituratik ezberdindu beharrik ez dagoelako; bigarrenik, buruz buruko kasu honek zerikusirik ez duelako zehar kasu edota genitiboarekin, eta hirugarrenik, teorikoki, bederen, kasuari errol tematikorik egotzi behar ez zaiolako.

Nolanahi ere, bada, ene aburuz, ohiko egiturazkoa ez den kasua, Ik, Ari buruz buru adjunktatuz, erka dezakeena, eta predikatu ezergatiboetan, kasurako, objektu inkorporazioaren bidez zilegiztatzen dena. Objektuak, bestalde, kasua buruz buru erkatuz gero, ez du Espez/buru harremanean erkatuko: Ak dakarren kasua kasu bakarra dela esan liteke, kasu hori bi eratara erka daitekeen arren, inkorporazioa dela bide batetik ala KMZren bitartez bestetik. ABS kasuari, hortaz, buruz burukoa ala egiturazkoa iritziko diot, erkabidea zein den aintzat harturik.

Buruz buruko kasuak, halaber, KMZ buruez hausnartzera narama. Egiturazko kasua definitzerakoan nioenez, KMZren bitartez erka daiteke kasua (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993). ISek egiturazko kasua zilegiztatuko badute, eratorpenean zehar bat egin behar dute Ak nahiz Dk dakarten kasu banarekin, baina kasua ezin erka daiteke, A zein D buruak, KMZ buruei adjunktatu eta ISek [Espez, KMZ] gunea iritsi gabe. Kasua buruz buru ezartzeko, berriz, ez da KMZren tartekaritzarik, I Ari adjunktatuz soilik ezar baitaiteke, eta I Ari inkorporatu eta ABS erkatu ondoren, goiko KMZ burua baino ez da islatu behar²².

Ilido honetan, hauxe galde daiteke, ea zerk bereizten dituen predikatu ezergatiboa eta predikatu iragankor soila, alegia, objektua inkorporatzen ez duena, edota zerk inkorporarazten duen I ezergatiboetan eta zerk iritsi arazten dion ISri [Espez, KMZ] gainerako iragankorretan. Ene aburuz, ezergatibo eta gainontzeko iragankorren arteko bereizkuntza objektuaren izaeran datza: ezergatiboak objektu zehaztugabea du, horregatik inkorporatu

behar du ezinbestez, eta iragankor soilak, aldiz, objektu zehaztua, [Espez, KMZ] gunera igo arazten duena.

Dakusagun adibideetan. (20.i) perpausean *lan egin* ezergatiboa dugu; objektua zehaztugabea da eta ez darama Determinatzailerik (DET). (20.ii) perpausean, bestalde, *egin* predikatu iragankorra dugu, baina *lan* l zehaztua da eta -a DET darama²³.

- (20) i. Nik lan egin dut
- ii. Nik lana egin dut

Lakak (1993) IS eta Determinatzaile Sintagma (DETS)²⁴ bereizkuntzaz ezberdindu ditu ezergatibo eta iragankor soilak, objektua IS baita predikatu ezergatiboetan (20.i) eta DETS, berriz, iragankorretan (20.ii) -ikus (2.2.2.2) atala-. Lakarekin, oro har, bat eginik, Boreren (1993) ildoan ere bereiz daitezke (20) perpausak.

Gorago (2.1.1) erakutsi dudan bezala, Borerek predikatuari ezeze, objektuari berari egozten dizkio ASP tasunak, Tennyrekin (1992, 1994) bat etorritz, eta objektuaren zehaztasun edota zehaztugabetasunak ere predikatuaren ASP bera aldaraz dezake: objektu zehaztuko perpausaren ASP burutzapena da eta objektu zehaztugabekoa, berriz, ekintza²⁵. Objektu zehaztugabeak, gainera, halabeharrez inkorporatu behar du. Horregatik, objektu zehaztugabeko perpausak ezin izan dezake interpretapen eztelikoa baino. I + *egin* erako ezergatiboek, orduan, halabeharrez objektu zehaztugabea dutenak, interpretapen eztelikoa dute, objektu zehaztuko iragankor soilak ez bezala, eta ASPri dagokienean, ekintza adierazten dute. Goiko perpausei (20) dagokienean, (20.i) ekintza da eta (20.ii), aldiz, burutzapena.

Beraz, objektu zehaztugabea Ari inkorporatu behar zaio, eta adjunkzio bidez erkatuko du kasua; objektu zehaztua, bere aldetik,

[Espez, KMZ] igoko da, kasua Espez/buru harremanean zilegiztatuz. Buruz buru erkatzen den kasuari buruz burukoa deritzat eta [Espez, KMZ] gunean zilegiztatzen denari, aldiz, egiturazkoa.

2.2 EZERGATIBOAK EUSKARAZ

Euskaraz hiru ezergatibo sail bereiz daiteke, *mintzatu* (2.2.1), *borrokatu* (2.2.2) eta *alde egin* saila (2.2.3). Lehen sailean argumentua egiturazko ABSz markatu eta *izan*/**edin* laguntzaileez jokatzeko da predikatua; bigarren eta hirugarren sailetan, ERGz markatzen da subjektua eta predikatu iragankorren laguntzaile berberetzat jokatzeko da predikatua, **edun*/**ezan* laguntzaileez, alegia. Euskaraz, hortaz, predikatu ezakusatiboak egiturazko ABS erkatzen duen bitartean, ezergatiboak bai egiturazko ABS bai ERG erka dezake. Sailez sail aztertuko ditut atal honetan zehar.


2.2.1 *Mintzatu* erako ezergatiboak

Gorago nioenez (1.2.4) eta (2.1.2) atalak, Nahitaezko Kasuaren Parametroari (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993) jarraiki, predikatu iragangaitz ororen argumentuak egiturazko ABS erkatzen du sistema ergatiboetan. Euskaraz, nioen halaber, ezakusatibo eta ezergatiboetatik, lehenak bakarrik lotzen zaizkio kasu markapen honi. Ezergatiboetatik bada, halere, subjektuari ABS ezar diezaiokeen sailik, hots, *mintzatu* erako saila. (19.i) perpausa dakart berriro (21) azpiatalera.

(21)	lñaut	euskaraz	mintzatu	da
	lñaut-ABS	euskaraz	mintzatu	3 _φ 2/D-izan

Goiko perpausean (21) *lñaut* argumentuak egiturazko ABS eta f2-tasuna erkatu du [Espez, KMZ2] gunean, eta argumentuak ABS erkatuko badu, KMZ2 indartu behar da, alegia, sistema ergatiboek predikatu iragangaitzeko perpausetan indartzen duten KMZ burua. (21) perpausari (22) eratorpena dagokio.

(22)



KMZ2 indarturik, ABS da ISk eskura duen kasua, hau da, A KMZ2ri adjunktatu ondoren, [Espez, KMZ2] gunean erka daitekeena. *Mintzatu* sailleko ezergatiboak deritzet, beraz, ezakusatiboak bezalaxe, egiturazko ABS erkatu eta *izan/*edin* laguntzaileez jotatzen direnei. Predikatuok iragangaitzak dira konputazio sisteman, baina benetan ezergatiboak al diren galde daiteke. Darabilgun galdera hau ardatz.

Predikatu ezakusatibo eta ezergatiboei θ -errol bana egotzi die Perlmutterrek (1978) -ikus (1)-, eta Levinek (1983) *ABS Predikatuen Hipotesiaz* adierazi duenez, predikatu iragangaitzak *jasale* argumenturik badu, orduan ABS predikatua da euskaraz. Hona hemen (23) Levinen hipotesia.

(23) *ABS Predikatuen Hipotesia*

ABS predikatuak, jasale argumentu bakarreko

predikatuak baino ez dira

Gainerako predikatuak ez dira ABS predikatuak

Edo Levinek berak emaniko beste era batez adierazirik, *egile* argumentu bakarreko predikatua ez da ABS predikatua. Komunikatzeko erak adierazten dituzten iragangaitzak -ikus (4) azpiatala-, bada, ez dira ABS predikatuak, bere ustez. Levinek salbuespen bakarra dakar, *mintzatu* predikatua, hain zuzen ere.

Baina Oyharçabalek (1992, 1994) dioenez, ez da *mintzatu* ABS erako ezergatibo bakarra euskaraz. Oyharçabalen aburuz, ondoko predikatuak ere (24), ABS saileko ezergatiboak dira, ekialdeko euskalkietan, bederen.

(24)	afaldu	gosaldu
	askaldu	gudukatu
	bazkaldu	hizkatu
	dostatu	hizketatu
	elekatu	jostatu
	elestatu	solastatu

Komunikatze predikatuak dira *solastatu*, *elekatu*, *elestatu*, *hizkatu* edota *hizketatu*; otordu predikatuak *afaldu*, *askaldu*, *bazkaldu*, *gosaldu*; *egile* argumentua dute, *dostatu*, *jostatu* edota *gudukatu* predikatuak eta baita honako hauek ere, *borrokatu*, *mendekatu*, *oldartu*, *trabailatu* edota *jokatu* predikatuak. *Mintzatu* erako saila, hortaz, ez da Levinek zeritzan bezain urria euskaraz. Dakusagun (24) ezergatiboetatik zenbait ondoko etsenpluetan (25).

- (25)
- i. Gaitezen joka, gaitezen dantza eta dosta
 - ii. Euskaraz gaitezen elesta
 - iii. Hamar aldiz gudukatu naiz zuen alde

Levinek nahiz Oyharçabalek θ -errolei erreparatu diete, predikatu ezakusatiboak ezergatiboetatik bereizterakoan, eta *mintzatu* saila, irizpide honi dagokionean, egileduna den heinean, ezergatiboa da autoreontzat.

Oyharçabalek dioenez, gainera, *mintzatu* erako predikatuok, ERG predikatu erara ager daitezke, beti ere Perlmutterrek ezarritako ezergatibo sailetakoa bada²⁶ -ikus (4) azpiatala. Honelaxe, kasurako, *solastatu/solas egin* pareak aurki daiteke, non *solastatu*, *mintzatu* erakoa den, hau da, egiturazko ABS erkatu eta *izan/*edin* laguntzaileez jotatzen dena eta *solas egin*, berriz, *alde egin* erakoa, alegia, ERG erkatu eta **edun/*ezan* laguntzaileak darabiltzana. (26) adibideetara dakartzat bi predikatuak.

- (26)
- i. Sainduetz solastatu ziren luzaz
 - ii. Laborantzaz egin du gehienik solas

Baina *solastatu/solas egin* pareak pentsaraz diezaguke badela *mintzatu* eta I + *egin* erako predikatuen artean ASP bereizkuntzarik. Diodan hau behin behinean, batetik, informatzaile izan ditudan hiztunengan²⁷ *mintzatu* saileko ezergatibo bakarra izan baitut, *berbatu*, alegia, eta bestetik, sail honetako ezergatiboen ASP ezaugarriak ezakusatiboek egotz badakizkieke, ezakusatiboak beraiek ere zehatz-mehatz tipifikatu eta aztertu behar baitira euskaraz, gaztelaniaz, kasurako, egin den antzera (De Miguel, 1992).

Dena den, behin-behinean baino ez bada, hauxe pentsa daiteke, *mintzatu* saileko predikatuak (24) interpretapen telikoa dutela eta gainerako ezergatiboek, aldiz, interpretapen eztelikoa²⁸. Edo bestela

esanik, *mintzatu* saileko predikatuetan ASP burutzapena dela eta gainontzekoetan, ekintza. Hori horrela balitz, predikatu ezakusatibo eta ezergatiboko perpausak bana ditzaketen eratorpenez bereiz liteke lehen saila beste bietatik, baina irizpideak zehaztu beharko lirateke. Dakusagun Dowtyk (1979), kasurako, burutzapena ekintzatik bereizteko darabilen irizpideetarik zenbait, non ϕ predikatua bera den.

(27)	Irizpidea	Ekintza	Burutzapena
i.	ϕ in an hour, take an hour to ϕ	gaizki	ongi
ii.	ϕ for an hour entails ϕ at all times in the hour	bai	ez
iii.	x is ϕ ing entails ϕ has fed	bai	ez

Baina bi saileko predikatuak bereizteko irizpideek sintaktikoak izan behar lukete. *Berbatu/berba egin* predikatuei dagokienean, esaterako, (28.i) eta (28.ii) vs. (28.iii) eta (28.iv) perpausak ditugu, zeinetan *berba egin* predikatua *denbora luzien* edota *luzero* iraupen PSekin azal daitekeen bitartean, *berbatu* predikatua ezin ager daitekeen.

(28)	i.	Denbora luzien berba egin dogu	.
	ii.	Luzero berba egin dogu	.
	iii.	*Denbora luzien berbatu naiz	.
	iv.	*Luzero berbatu naiz ²⁹	.

Denbora luzien edota *luzero* PSek iraupena adierazten dutenez, ezin ager daitezke, gertaera burutua bada *-berbatu* predikatuko

(28.iii) eta (28.iv) perpausak-; gertaera ezburutua bada, aldiz, bai *-berba egin* predikatuko (28.i) eta (28.ii) perpausak-.

Berriro ere diot *mintzatu* saileko ezergatiboez ezin dezakedala hipotesia aurrean baino. Nolanahi ere, (24)ko beste zenbait predikatutan ere aurkako bi era aurki daiteke, hala nola, otordu predikatutan *-afaldu*, *bazkaldu...*-, *mintzatu* erakoak direnak ekialdeko euskalkietan eta *borrokatu* erakoak, berriz, mendebaldekoetan. Eta *borrokatu* erakoak diot, zeren ERG erka baitezakete eta **edun/*ezan* laguntzaileez joko, *alde egin* erakoak ez badira ere. *Afaldu* predikatuaren bi erak ditugu (29) perpausetan.

- (29) i. Afaldu zenean etzan zen
- ii. Bapo afaldu zuen

Borrokatu bera edota *jokatu* predikatuak ere euskalkien arabera banatzen dira, otordu predikatuaren antzera. Gainontzekoak, ekialdean baino ezin aurki daitezke *-gudukatu*, *trabailatu*-, edo ekialdean ageri dira batez ere *-oldartu*, *dostatu*-. Predikatuok, beraz, euskalkian euskalkiko bi erak dituzte, baina, beharbada, (28) perpausetako *berbatu/berba egin* predikatuak bezala bereiz litezke, telikotasun/eztelikotasunaren arabera edota burutzapen/ekintzaren arabera. Borrekin (1993) bat bagentoz, eta predikatu ezergatiboak ere iragangaitzat harturik, perpausei interpretapen teliko/eztelikoa emango bagenie eratorpenez, orduan, *mintzatu* saila ezakusatiboa litzateke.

Nolanahi ere, ezergatiboen artera ekarri dut *mintzatu* saila. Lehenik eta behin, Borrek ez bezala, predikatu iragankortzat hartu dudalako egitura lexiko erlaziozkoan, eta bigarrenik, konputazio sisteman iragangaitz iritzi badiot ere, egitura lexiko erlaziozkoan objektua inkorporatu duelako, ene aburuz. *Mintzatu* saileko

predikatuak, bada, ezin sailka daitezke ohiko ezakusatiboen artean, konputazio sisteman eratorpen bera -ikus (22)- dagokien arren.

Honenbestez, erabaki behar da zer irizpide erabili, predikatu jakin bat ezakusatibo ala ezergatibotzat hartzerakoan. Eratorpenez dagokion interpretapena bada predikatua ezaugarritzatzen duena, *mintzatu* saila ezakusatibotzat har daiteke; iragankor baderitzagu egitura lexiko erlaziozkoan, eta aurkezpen maila honetan bertan objektua inkorporatzen duelakoan bagaude, ezergatibo iritz diezaiokegu³⁰. Neronek bigarren irizpidea darabildanez, ezergatibo deritzat *mintzatu* sailari.

2.2.2 *Borrokatu* erako ezergatiboak

Gainontzeko bi ezergatibo sailek, *borrokatu* eta *alde egin* erakoek, ez diote Nahitaezko Kasuaren Parametroari (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1992 b, 1993; Laka, 1993) jarraitzen, IS ERGz markatzen baita predikatuotan. Ene iritziz, *borrokatu* nahiz *alde egin* erako ezergatiboak, *mintzatu* erakoak ez bezala, predikatu iragankorrek dira baita konputazio sisteman ere, eta horregatik erkatzen dute ERG kasua euskaraz³¹.

Zenbait autoreren ustez -Hale & Keyser (1993), Bobaljik (1993) edota Laka (1993)-, ERG erkatuz gero, ezergatiboak ez du objektua inkorporatu. Autore hauei aitziz, diodan, kasuak kasu, bi sail hauetako ezergatiboek ere objektua inkorporatu dutela, eta sintaktikoki inkorporatu ere, (2.3) atalean erakutsiko dudana bezala. Ondoko etsenpluetan (30), *borrokatu* eta *borroka egin* ezergatiboak ditugu; bietan *herriak* argumentuak ERG erkatu du eta bietan **edun/*ezan* da laguntzailea, alegia, predikatu iragankorrek darabilten bera.

- (30) i. Herriak borrokatu du
 herri-ERG borrokatu $3_{\phi 2}/D\text{-edun-}3_{\phi 1}$
- ii. Herriak borroka egin du
 herri-ERG borroka egin $3_{\phi 2}/D\text{-edun-}3_{\phi 1}$

Goiko adibideei (30), (31) gainera dakieke, zeinetan, *borrokatu* ezergatiboa bera dugun, baina *mintzatu* erako predikatua bailitzan: ABSz markaturik subjektua eta *izan/*edin* laguntzaileaz jokaturik.

- (31) i. Borrokatu naiz, preso ere bai
 ii. Batzu borrokatu ziren Aurkitzeko ordokian

Baina begiratu kasuari: euskaraz predikatua ezergatiboa denean, egiturazko ABS ezeze (31), ERG ere ezar dakioke subjektuari (30), perpaus ezgramatikalik sortu gabe. Areago, euskaraz ERG erkatu oni du predikatu ezergatiboaren subjektuak. Ildo honetan, Dixonekin (1979, 1994) bat etorri gero, predikatuaren izaera semantikoaren arabera, Ergatibotasun Erdibitua Comrie, 1978, 1981 a; Dixon, 1979, 1994) sortaraz dezakeen hizkuntza litzateke euskara, Sistema Ergatibo Hedatua, hain zuzen (Ortiz de Urbina, 1986) -ikus (2.1.2) atala-.

Lakak (1993) *borrokatu* erako ezergatiboak darabiltzanean, objektua inkorporatu ez eta objektu gunean *pro* duten predikatutzat hartu ditu. Lakak Uribetxebarriarengana (1989) joz dioenez *borrokatu* erako ezergatiboek ageriko objektua erakus dezakete; *alde egin* erakoek, aldiz, ez.

Lakak darabilen ezergatiboa *dantzatu* da. *Borrokatu* ezergatiboarekin gertatu bezala -ikus (30) eta (31)-, *dantzatu*

predikatuak ere, subjektuari ABS ezarri eta *izan/*edin* laguntzaileez joka daiteke (32.i) -ekialdeko euskalkietan, bederen-, edo subjektuari ERG ezarri eta **edun/*ezan* laguntzaileez joka daiteke, *egin* predikatuaz (32.iii) zein ez (32.ii). Euskalkian euskalkiko banaketa dugu berriro ere.

- (32) i. Emakumea dantzatu da
 ii. Emakumeak dantzatu du
 iii. Emakumeak dantza egin du

Hiruretatik (32.ii) da Lakaren ustez objektu gunean *pro* dakarren ezergatiboa. Gonbara dezagun ageriko objektua duen perpausarekin (33.i). Bata zein bestea gramatikalak dira. Baina *dantza egin* ezergatiboak (32.iii), perpaus ezgramatikalik eratu ezik, ez du ageriko objektua erakutsiko (33.ii). Nolanahi ere, ageriko objektua objektu kognatua da, Bobaljikek (1993) dioen bezala.

- (33) i. Emakumeak dantza hau dantzatu du
 ii. * Emakumeak dantza hau dantza egin du

Alabaina, ez dirudi *borrokatu* erako ezergatibo guztiek ageriko objektua onets dezaketenik. Gatozen Lafittek (1980) deponentetzat jotzen dituen predikatuetatik (34), *borrokatu* erako predikatueta.

- | | | |
|------|-----------|---------------------|
| (34) | argitu | erreustu |
| | beilatu | iharduki |
| | dirdiratu | irakin |
| | distiratu | iraun ³² |
| | dudatu | laboratu |
| | erauntsi | kurritu |

Hauetarik zenbait *-argitu*, *distiratu* eta *dirdiratu*, besteak beste-estimulu isurtze predikatuak dira, euskaraz ezergatiboen artean

sailka daitezkeenak, Levin (1983), Eguzkitza (1986) edota Ortiz de Urbinak (1988) adierazi duten bezala. Eta hauekin batera sailka genitzake, era berean, mailegatu berri den beste zenbait predikatu, hala nola, *dimititu*, *existitu* edota *funtzionatu* (Euskaltzaindia, 1987 b). Baina, dagoeneko esan dudana bezala, predikatu hauek ezin eraman dezakete ageriko objekturik. Dakusagun (35) perpausetan (Addis, 1989) non *distiratu* predikatuak ageriko objektu kognaturik ezin eraman dezakeen (35.ii).

- (35) i. Izarrak distiratu du
 ii. *Izarrak distira distiratu du

Beraz, *dantzatu* predikatuak objektu gunean *pro* duela pentsaturik ere, ez dirudi *erreustu*, *ihardoki*, *iraun*, *korritu*, *laboratu* predikatuak ageriko objekturik erakus dezaketarik. Ene aburuz, Laka edota Bobaljiki aitzi, ezergatibook ere, egitura lexiko erlaziozkoan nahiz konputazio sisteman iragankor, objektua inkorporatu egin dute, baina, lexikoki barik *-mintzatu* erako ezergatiboen antzera-, sintaktikoki inkorporatu dute objektua.

Bestalde, *borrokatu* erako ezergatibook ezeliko dirudite I + *egin* erakoen antzera³³, baina ageriko objekturik erakutsiz gero, perpausak interpretapen telikoa dute. Gonbara daiteke (36.i) perpausa, (33.i) bezalako (36.ii) perpausarekin.

- (36) i. Mitxelek dantzatu du
 ii. Mitxelek tangoa dantzatu du

Bi perpausetan *dantzatu* A dugu. Lehenean ez da objekturik ageri; bigarrenean, berriz, *tangoa* objektua ageri da. Lehen perpausak interpretapen ezelikoa du, prozesuak azkenik ez duelako; bigarrenak, aldiz, interpretapen telikoa, objektu zehaztuko predikatu iragankorra duen zeinahi perpausak bezala, objektuak gertaera

neurtzen duelako (Tenny, 1992, 1994; Borer, 1993), hain zuzen. Dakusagun baita (37) perpausa ere.

(37) Norbait jo, borrokatu eta arramaskatu dezu?

Goiko (37) perpause elkartuan ere, *norbait* objektuak neurtu du gertaera, horretatik interpretapen telikoa eratorri delarik *borrokatu* predikatuko perpausean. (37) perpausaren ASP, beraz, ez da ekintza, burutzapena baizik -baita (33.i) eta (36.ii) perpausena ere-. Dena den, (37)an, (33.i) perpausean ez bezala, objektua ez da kognatua, eta badirudi *borrokatu* aditzaren esanahia ez dela bera (37) eta (30.i) perpausean.

Gonbara daitezen, azkenik, (38) perpausak (De Miguel, 1992), zeinetan *correr* 'korritu' predikatua ageri den.

- (38)
- i. Corrí durante horas
 - ii. Corrí los cien metros durante horas
 - iii. Corrí los cien metros en una hora
 - iv. *Corrí en una hora

De Miguelek Vendler (1967) eta Dowtyren (1979) ildoan dioenez, *correr* predikatua -baita *korritu* bera ere-, ekintza da, azkenik edo jomugarik ez duelako -(38.i) eta (38.ii) perpausak-, baina *correr los cien metros* 'ehun metroak korritu' burutzapena da -(38.iii) eta (38.iv) perpausak-, ehun metroak korritzen amaitzen denean burutzen baita prozesua. Behatu (38.ii) perpausari, objektua ageri denez, gertaera burutua da, eta *durante horas* iraupen sintagmak ASP ezburutua behar duenez, gertaerak iteratiboa izan behar du. Horregatik, hauxe interpretatu behar da (38.ii) perpausean, ordutan zehar behin eta berriro korritu nituela ehun metroak.

Ondorioz, *borrokatu* saileko ezergatiboek ekintza adierazten dutela esan daiteke, objektua ageri ezik, interpretapen eztelikoa dagokielarik, *I + egin* ezergatiboei bezalaxe. Objektua azalduz gero, objektu kognatua nahiz bestelakoa, gertaera neurtu edo burutu egiten da, eta interpretapen telikoa eratortzen da, objektu zehaztuko gainerako iragankorretan bezala.

2.2.3 Alde egin erako ezergatiboak

I + egin (2.2.3.1) erako ezergatiboei inkorporazio gabeko ezergatibo deritzete Hale & Keyser (1993) Bobaljik (1993) edota Lakak (1993), baina, ene aburuz, ezergatibo hauek ere objektu inkorporazioa jasaten dute -baita Uribetxebarria (1989 a), López & Austin (1995) edota Martinezen (1996) aburuz ere-.

Inkorporazioa errefusatzeko erabili diren irizpideak eztabaidatuko ditut (2.2.3.3) atalean, eta Grimshaw & Mesterri (1988) jarraituko natzaie, ezergatiboetan aurkitzen den *egin* predikatua predikatu *arintzat* hartzerakoan (2.2.3.4), Uribetxebarriak (1986 b) edota Fernándezek (1994) egin duten antzera.

2.2.3.1 *I + egin* erako ezergatiboak

Euskaraz *alde egin*, hau da, *I + egin* erako ezergatiboak dira sail guztietan ugariak. Sail honetako predikatuak, dagoeneko esan dudan bezala, ERG ezartzen diote subjektuari eta **edun/*ezan* laguntzaileez jokatzeko dira. Ondoren (39) dakart sail honen erakusgarria.

(39)	aharrausi egin	gernu egin
	alde egin	kale egin
	barre egin	lan egin
	berba egin	lo egin
	doministiku egin	negar egin
	eztul egin	txiza egin
	hitz egin	zintz egin
	hots egin	zirri egin

Goiko azpiataleko (39) ezergatiboek, ERG ezartzen diote subjektuari eta ABS objektuari, ABS Espez/buru harremanean barik, buruz buru erkatzen den arren. Ezergatibo hauetako zenbaitek, gainera, ABSz ezeze, inesiboaz (INES)³⁴ ere marka dezakete objektua. Dakusagun ondoren, (40) adibideetan. INES erkatzen deneko I + *egin* ezergatiboetan, objektua ebentiboa da.

(40)	i.	Gazteak	ihes	egin du
		Gazte-ERG	ihes-ABS	egin $3_{\phi 2}/D\text{-edun-}3_{\phi 1}$
	ii.	Gazteak	ihesean	egin du
		Gazte-ERG	ihes-INES	egin $3_{\phi 2}/D\text{-edun-}3_{\phi 1}$

Eta (40.ii) bezalako kasuak maiz ageri dira jatorrizko hitzunengan, hala nola, *auskan egin*, *borrokan egin*, *dantzan egin*, *narrotan egin* edota *olgetan egin* predikatuetan.

I + *egin* ezergatiboak beste bi eratako ezergatiboekin gonbaratuz gero, badute zertan bereizi. *Mintzatu* edota *borrokatu* erako ezergatiboek ageriko argumentu bakarra erakusten dute, nahiz eta egitura lexiko erlaziozkoan lehena, eta aurkezpen maila berean nahiz konputazio sisteman bestea predikatu iragankortzat jotzen ditudan. *Alde egin* erakoek, aldiz, agerian dute objektua, *egin* Arekin batera datorren I, hain zuzen ere.

Ageriko objektu honi erreparatuz, inkorporazio gabeko iragankortzat jo izan dira, *alde egin* erako ezergatiboak euskaraz (Hale & Keyser, 1993; Bobaljik, 1992 b, 1993; Laka, 1993). Autore hauei aitziz, diodan *alde egin* erako ezergatiboak ere, inkorporazio bidez eratu direla euskaraz (Uribechebarria, 1989; Fernández, 1993; López & Austin, 1995; Martínez, 1996), eta inkorporatutako objektua IS dela, hau da, zehaztugabeko objektua.

2.2.3.2 IS vs. DETS

I + *egin* erako ezergatiboetako objektuak ez du DETrik onartzen. DET gabeko objektuko perpausa gramatikala da, baina objektuari DET ezarriz gero, perpaus ezgramatikalak eratzen dira. Ondoren (41), mugatzaile gabeko objektua duen perpausa dugu perpaus gramatikal bakarra (41.i); gainerako biak, (41.ii) eta (41.iii) perpausak, zeinetan objektuak mugatzailea daraman, ezgramatikalak dira.

- (41)
- | | | | | |
|------|-------------|----------|------|------|
| i. | Xabierrek | negar | egin | du |
| ii. | * Xabierrek | negarra | egin | du |
| iii. | * Xabierrek | negarrak | egin | ditu |

Era berean, perpaus ezgramatikalik eratu ezean, Iri ezin dakioker erakuslerik ezar. (42.ii) eta (42.iii), hortaz, ezgramatikalak dira.

- (42)
- | | | | | |
|------|----------|------|-------|-----------|
| i. | Ibonek | hitz | egin | du |
| ii. | * Ibonek | hitz | hau | egin du |
| iii. | *Ibonek | hitz | hauek | egin ditu |

I + *egin* erako ezergatiboak inkorporazio gabeko predikatutzat harturik ere, *egin* Arekin batera doan objektuari IS deritza Lakak (1993), DETStik bereiziz. Lakaren aburuz, DETSak ASren barnetik [Espez, KMZ]ra mugitzen dira, Espez gunean DET tasunak erkatuz, eta ISk, aldiz, ASren baitan iraun eta KMZri lotu gabeko kasua jaso dezakete bertan.

Ilido honetan, [Espez, KMZ] gunea iritsiz erka daitekeen kasuari egiturazko kasua deritzadan modura, buruz buruko kasua deritzat, KMZren tartekaritzarik gabe eta Ari adjunktatuz erka daitekeenari. Eta lk dira kasua buruz buru erkatzen duten horiek.

I + *egin* erako ezergatiboen objektua, gainera, zehaztugabea da halabeharrez, eta zehaztugabea den heinean, interpretapen etzelikoa dagokie (41.i) eta (42.i) perpausei, objektu zehaztuko predikatu iragankorrei ez bezala. Objektuak ez du [Espez, KMZ] iristerik, I zehaztugabea delako³⁵. Kasua, hortaz, ASren baitan baino ezin erka daiteke, I Ari adjunktatuz, hain zuzen (Borer, 1993).

Lakarekin bat etorririk, ezergatiboen objektuari IS baderitzat ere eta predikatu iragankorren objektuari, berriz, DETS, I + *egin* erako ezergatiboek objektua inkorporatzen dutelakoan nago, I zehaztugabea halabeharrez adjunktatu behar zaiolako Ari.

2.2.3.3 Inkorporazio gabeko ezergatiboak?

Aide egin erako ezergatiboek objektua inkorporatzen ez dutelako adierazgarritzat jo izan da, *egin* Arekin batera datorren Iri partitiboa (PART) ezarri ahal izatea (Levin, 1983; Ortiz de Urbina, 1986; Bobaljik, 1992a, 1993; Laka, 1993). Ondoko etsenpluetan (43), baiezkotako perpausean objektuak ABS darama (43.i); baina ezezkotako

perpausetan ABS (43.ii) zein PART (43.iii) egotzi zaio objektuari ezgramatikaltasunik sortu gabe.

- (43) i. Garazik hitz egin du
- ii. Garazik ez du hitz egin
- iii. Garazik ez du hitzik egin

Autore hauentzat, objektua inkorporatu balitz, ezin ezar zekioken PARTrik (43.iii) perpausean. Alabaina, predikatu ezergatibo guztion objektuei ezin ezar dakieke PARTrik, perpaus ezgramatikalik sortu gabe, (44.iii) perpausak erakusten duen bezala (Fernández, 1994).

- (44) i. Ene lagunak alde egin du
- ii. Ene lagunak ez du alde egin
- iii. * Ene lagunak ez du alderik egin

Eta hona (45) dakartzadan ezezko perpausak ere ezgramatikaltzat jo daitezke.

- (45) i. * Ez du hotsik egin
- ii. * Ez du zinik egin
- ii. * Ez du zintzik egin

Dena den, objektuari PART egotz dakioken ezezko perpausa, *egin* predikatu *astuneko* (2.2.2.4) baiezko perpausari dagokio eta ez, predikatu ezergatibokoari (Fernández, 1994). Dakusagun (46) perpausetan. (46.i) perpauseko predikatua ez da *lan egin* ezergatiboa, *egin* predikatu astuna baino, eta (46.ii) perpausa, objektuak PART dakarrena, (46.i) *egin* predikatu astuneko perpausaren ezezko perpausa dela pentsa daiteke, predikatu ezergatiboarena baino.

- (46) i. Amak lana egin du
 ii. Amak ez du lanik egin

Lan egin ezergatiboa da, ordea, (47.i) perpausera dakardana. (47.ii) predikatu ezergatiboko ezezko perpausean, ABS erkatu du objektuak.

- (47) i. Amak lan egin du
 ii. Amak ez du lan egin

Goiko (43.iii) eta (44.iii) adibideetan, bestalde, *I + egin* erako sailean aurki daitekeen *hitz egin* vs. *alde egin*. simetrikotasun eza isla daiteke. Lehenean, PART ezar dakioke objektuari eta bigarrenean, aldiz, ez. *Hitz egin* ezergatiboaren objektuari PART ezar badakioke ere, *egin* ezin har daiteke predikatu astuntzat, (46) perpausetan bezala. Neronek, halere, ezin azal dezaket aipatu simetrikotasun eza eta *alde egin* erako sailean ez dut azpisailik bereiziko: objektua FLn inkorporatzen dute *hitz egin* nahiz *alde egin* predikatuek³⁶.

Inkorporazio gabeko predikatuaren erakusgarri iritzi zaio, halaber, *alde egin* erako ezergatiboak *izan/*edin* laguntzaileez barik, **edun/*ezan* laguntzaileez jokatzeari (Levin, 1983; Ortiz de Urbina, 1986). Baina *borrokatu* erako ezergatiboen jokaerarako ere, **edun/*ezan* laguntzaileak darabiltzagu, ageriko objekturik, ABS argumenturik, ezin aurki daitekeen arren.

Galdegaia, gainera, eta baita NZ hitzak ere, *egin* predikatuaren aurrean ezar daitekeenez (Ortiz de Urbina, 1986), inkorporaziorik ez dagoela pentsa daiteke, baina *I + egin* predikatu anizkunaren aurrean ere ezarri ohi da. (48) perpausetan NZ hitza (48.i) *-nork-* zein galdegaia *-lñautek-* (48.ii) *egin* predikatuaren aurrean ezarri diren arren, (48.iii) eta (48.iv) perpausetan predikatu anizkunaren aurrean kokatu dira biak.

- (48)
- i. Nork egin zuen negar?
 - ii. IÑAUTEK egin zuen negar
 - iii. Nork negar egin zuen?
 - iv. IÑAUTEK negar egin zuen

Gainera, badira (48.i) eta (48.ii) perpausen antzera eratu ezin daitezkeen ezergatiboak, *alde egin* edota *zin egin* esaterako. *Alde egin* predikatuko (4.i) eta (49.ii) perpausak, (48) perpausak ez bezala, ezgramatikalak dira.

- (49)
- i. * Nork egin zuen alde?
 - ii. * ENE LAGUNAK egin zuen alde
 - iii. Nork alde egin zuen?
 - iv. ENE LAGUNAK alde egin zuen

Ortiz de Urbinak (1986) dioenez, azkenik, I + *egin* ezergatiboek objektua inkorporatuko balute, ezergatiboaren subjektuak ABS kasua erkatuko luke perpaus kausatiboetan, eta ez DAT kasua³⁷ predikatu iragankor soileko subjektuak bezala. Izan ere, bere iritziz, inkorporaturiko objektuak kasurik behar ez duenez, benetan inkorporaziorik balego, ABS erkatuko luke, baina ABS erkatuz gero, perpausa ezgramatikala da (50.ii). Dena den, Ortiz de Urbinak ez bezala, inkorporazioari buruz buruko kasuaren erkabide iritzirik, (50.i) perpausa aise azal daiteke: ABS buruz buru erkatu da inkorporazio bidez, eta ondorioz, DAT dagokio *lñaut* argumentuari.

- (50)
- i. Trumoiek lñauti negar egin erazi diote
 - ii. * Trumoiek lñaut negar egin erazi dute

Ez dirudi, gainera, inkorporazio ukatzeko erabat irizpide irmoa denik, zeren ezakusatiboak nahiz *mintzatu* erako ezergatiboen subjektuak ere, ABS (51.i) nahiz DAT erka baitezake (51.ii).

- | | | | | |
|------|-----|--------|------------|-------|
| (51) | i. | lñaut | mintzarazi | dute |
| | ii. | lñauti | mintzarazi | diote |

I + *egin* erako ezergatiboak inkorporazio gabeko predikatutzat hartzeko erabili diren irizpide guzti hauek, hortaz, eztabaidagarri³⁸ dira, bederen, baina bada, gorago (2.1.3) esan dudan modura, objektua inkorporatu dela erakusteko irizpide aski irmorik: I zehaztugabea Ari adjunktatu behar zaio kasua erkatzekotan. (3.3) atalean garatuko dut azterbidea. Horretara heldu aurretik, halere, *egin* arin eta astunaren arteko aurkakotasuna izango dut mintzagai, ondoko atalean (2.2.3.4).

2.2.3.4 Egin arina vs. egin astuna

Alde egin erako ezergatiboetako *egin* predikatua, Japonieraren *suru* Aren antzekotzat jo daiteke: *egin*, *suru* bezalaxe, predikatu arina da ezergatiboetan, bestelako iragankor soila izan badaiteke ere, predikatu astuna, alegia (Grimshaw & Mester, 1988; Uribechebarria, 1989 b; Fernández, 1994).

Suru tematikoki arina da, zeren, IS azpikategorizatu eta kasua ezar diezaiokeen arren, ez baitio errol tematikorik ezartzen. *Suru*, hortaz, *hezurrutseko* predikatua da eta ISren burua den I dugu benetan predikatu: argumentuak dakartzana I bera dugu, eta *Argumentu Lekualdaketa*z beregana ditzake Ak, errol markatzaille bihurtuz. *Suru* Aren argumentu egitura, orduan, Iren arabera da da.

Japonieraren (52) perpausetan *suru* predikatu arina dugu. *Suru* -ren osagarri diren ISk, *hanashi* 'hitz' eta *shuppatsu* 'irteera' AKz, -o morfemaz, markaturik datozkigu. Perpaus bietan *suru* predikatua badugu ere, argumentu egitura ezberdineko perpausak eratu dira ISen arabera.

- (52) i. John-wa Mary-ni hanashi-o shita
John-Top Mary-DAT hitz-AK suru
'Johne Maryri hitz egin zion'
- ii. John-wa Tookuyoo-kara shuppatsu-o shita
John-Top Tokyo-ADL alde-AK suru
'Johne Tokyotik alde egin zuen'

Suru arinarekin batera doan IS tematikoki *gardena* da eta *suru* astuna laguntzen duena *opakua*. IS gardenak ezin daiteke topikaliza, ezin daiteke erlatibiza, ez du kuantifikatzailerik onartzen eta ez du erreferentziatasunik. *Suru* astunarekin batera doan IS opakua, alderantzizko joera du. *Egin* arineko IS eta *egin* astunakoa *suru*-ren IS garden eta opakuen antzera darabiltzagu euskaraz.

Egin arineko IS gardenak da ondoko adibideetakoa (53). *Egin* predikatu arineko *alde egin* ezergatiboaren IS ezin daiteke topikaliza, perpaus ezgramatikarik sortu gabe (53.i). IS garden hori gainera, ezin daiteke erlatibiza (53.ii) perpausak dakarren modura, eta (53.ii) perpausaren IS gardenak, azkenik, ezin erakuts dezake kuantifikatzailerik.

- (53) i. * Alde, ez du euskaldunak egin
ii. * Egin duen aldea...
ii. * Alde bat egin du

Dakartzadan hauetan (54), ordea, *egin* astuneko IS opakua da, alegia, murriztasun sintaktikorik ez duena. IS topikalizatu deneko perpausa (54.i) gramatikala da. IS opakua bada, erlatibiza daiteke, (54.ii) perpausean bezala. (54.iii) perpausean objektuak kuantifikatzailea darama, perpaus ezgramatikalik sortu gabe. Aintzat izan, azkenik, (54) perpausetako ISk erreferentziatasuna duela, (50) perpausek ez bezala.


- (54)
- i. Erretratua, Josebak egin du
 - ii. Egin duen erretratua zuri-beltzean dago
 - iii. Josebak Xabierri erretratu bat egin dio

Era berean, *egin* astuntzat jo daiteke (55) perpausekoa, zeinetan I /Adjektibo (ADJ) sekuentzia ageri den. Honelakoxe perpausetan ez nuke esango predikatua *deiadar egin (diar egin)* ezergatiboa denik, *egin* astuna baizik.

- (55) Jonek diar haundixak eitxuz


Predikatu arineko perpausetan, hortaz, *egin* predikatuak kasua badu ere, hots, [+K] bada ere, egitura tematikorik gabeko predikatua da, edo bestela esanda, ez du errol tematikorik [-q] ezartzeko gaitasunik, (56) adierazpenean ikus daitekeen bezala.

(56)



Argumentu Lekualdaketa, Ak argumentuak beregana ditzake, errol markatzaile bihurtuz. ISk, bere aldetik, kasua erkatuko du Arekin batera, (57)ra dakardan antzera.

(57)



Grimshaw & Mesterrek diotenez, halere, *suru* predikatua inkorporazio egituretan ere azal daiteke. Edo bestela esanda, *suru* predikatuak ez du nahitaez inkorporazio egituretan azaldu behar *Shooshin* 'promozio' ISk ez du kasurik inkorporazio egituretan (58.i) eta ISk -o, alegia, AK morfema, dakarren perpausa (58.ii) onets daiteke zein ez.

- (58) i. John-wa buchoo-ni shooshin shita
 John-top sail-buru promozio suru
 'Johne sailburua izatea lortu zuen'
- ii. ?? John-wa buchoo-ni shooshin-o shita
 John-top sail-buru promozio suru

Dakardan gogora, Bakerri jarraiki (1988), inkorporazioa jasaten duten objektuek ez dutela kasurik -hortik, Grimshaw & Mesterrek (58.i) soilik inkorporaziotzat hartu izana-. Neronek, Bakerrek ez bezala, I + *egin* ezergatiboen objektu inkorporazioari kasu erkaide deritzat, predikatuotan adjunkzioa FLra arte luzatzen den arren.


Bestalde, *egin* arin vs. astun pareaz I + *egin* ezergatiboen eztezikotasuna proba daiteke *egin* astunaren telikotasunarekin aurkakotasunean. I + *egin* ezergatiboen objektua zehaztugabea da, gertaera neurtzen ez duena, eta ASP, hortaz, ekintza. Baina *egin* astunak bestelako predikatu iragankorren antzera, objektu zehaztua du, DETS, hain zuzen, kasua Espez/buru harremanean zilegiztatu behar duena. Objektu honen bitartez, orduan, gertaera neurtu egiten da *egin* astuneko perpausetan, eta eratortzen den ASP, burutzapena.

2.3 Inkorporazioa euskal ezergatiboetan

Ezergatiboak aztergai, iragankortzat jo ditut egitura lexiko erlaziozkoan eta objektua inkorporatzen dutela proposatu dut -ikus (2.1.2) atala-. Era berean, hiru ezergatibo sail bereizi dut, *mintzatu*, *borrokatu* eta *alde egin* sailak, eta hirurek objektua inkorporatzen badute ere, ez dirudi aurkezpen maila berean inkorporatzen dutenik³⁹, ezta inkorporazioak ondorio berberak dakartzkienik.


Mintzatu erako ezergatiboak diren bezain batean, Nahitaezko Kasuaren Parametroari (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993) lotzen zaizkio, argumentuak egiturazko ABS erkatzen baitu ezergatibo hauetan. Bobaljiken iritziz, egiturazko ABS erkatzen duten ezergatiboetan inkorporazioa Ahoskatu aurretik gertatuko zen, besterik zehaztu gabe. Ene aburuz, inkorporazio lexikoak eratu du *mintzatu* ezergatiboa: objektua hiztegian inkorporatu da, egitura lexiko erlaziozkoan bertan, agian. (15) eratorpen bera dakart (59) azpiatalera.

(59)



Objektua egitura lexiko erlaziozkoan inkorporaturik, predikatu ezakusatiboen eratorpen berbera du *mintzatu* ezergatiboak, finean, konputazio sisteman iragangaitz iritz baitakioke: argumentua KMZ2ren Espez gunera igoko da, eta bertan erkatuko du egiturazko ABS. *Mintzatu* predikatu ezergatiboko perpausaren eratorpena dateke (60), (22) bera. Gogoan izan, *mintzatu* erako predikatuetan, objektua Ari adjunktatu zaiola aldeaz aurretik, ezakusatiboetan ez bezala.

(60)




Eta goiko eratorpenaz (60), gainera, *mintzatu* predikatuari egotz dakioke predikatu ezakusatiboaren interpretapen bera, alegia, interpretapen telikoa. Izan ere, ezergatiboetarik sailen batek interpretapen telikorik izatekotan, objektua egitura lexiko erlaziozkoan inkorporatu duten ezergatiboek dukete soilik⁴⁰.

Borrokatu eta *alde egin* erako ezergatiboek, bestalde, inkorporaziodun predikatutzat baderitzet ere, objektua ez dute egitura lexiko erlaziozkoan inkorporatzen, konputazio sisteman baizik⁴¹. Bi ezergatiboek egitura lexiko erlaziozkoan jasan balute inkorporazioa, egiturazko ABS erkatuko zuketen eta interpretapen telikoa egokituko zitzaiekeen, baina ERG erkatzen dute eta interpretapen eztelikoa dagokie. Inkorporazioak, beraz, sintaktikoa izan behar du predikatu hauetan.

Gutizia hatsarrea (Chomsky, 1993; 1995) erabiliz gero, gainera, mugimendua ezin uler daiteke betebeharrak morfologikoengaitik ez bada. Ildo honetan, I Ari adjunktatuko zaio buruz buru erkatu behar duelako kasua. Baina kasua buruz buru erkatzen duten objektuak zehaztugabeak dira halabeharrez: objektua ezinbestez inkorporatu behar zaio Ari.

Bi sail hauetarako, halaber, *mintzatu* sailerako ez bezala, KMZ buru biak indartzen direla pentsa daiteke -azken batean, predikatu iragankorrak dira baita konputazio sisteman ere-, baina IS2k [Espez, KMZ2] iristerik ez duenez, I, zehaztugabea dena, halabeharrez inkorporatzen zaio Ari buruz buru, ABS ASren baitan zilegiztatuz. IS1ek, bere aldetik, ERG erkatzen du [Espez, KMZ1] gunean. (61)ra dakart ezergatiboan eratorpena.

(61)



Inkorporazioa, bada, ez da Gutizia bete asmoz, Ik jatorrizko gunetik Ari adjuntatzeko betetzen duen buruz buruko mugimendua baino (Fernández, 1995). Eta objektua kasua erkatzekotan inkorporatzen bazaio predikatuari, mailan mailako inkorporazioa dugu *borrokatu* eta I + *egin* ezergatiboetan. Agian, *borrokatu* ezergatiboak Ahoskatu aurretik erkatzen du kasua eta *alde egin* ezergatiboak, FLn -baita López & Austin (1995)-.

Izan ere, *borrokatu* ezergatiboak ez du ageriko objekturik, baina egitura lexiko erlaziozkoan inkorporatu balu, lehen esan dudan bezala, egiturazko ABS zilegiztatuko zukeen, ezakusatiboen antzera. Horrek pentsatzera narama, ezergatibo hauetan Ahoskatu aurretik eman dela adjunkzioa, ez egitura lexiko erlaziozkoan, konputazio sisteman baino. I + *egin* ezergatiboak, bere aldetik, objektua erakusten du ageriko syntaxian, horregatik, inkorporazioa ez da ematen Ahoskatu aurretik, Ahoskatu ondoren baizik, alegia, FLn.

2.4 ONDORIOAK

Kapitulu honetan zehar bi predikatu sail bereizi dut iragangaitzetan, hau da, ezakusatiboa eta ezergatiboa. Nahitazeko Kasuaren Parametroari jarraiki, predikatu iragangaitz ororen argumentuak ABS erkatzen du sistema ergatiboetan. Baina badira predikatu iragangaitzen markapena erdibitzen duten hizkuntzak, georgiera edota euskara, kasurako, zeinetan ezakusatiboak bakarrik lotzen zaizkion parametro honi, ezergatiboek, egiturazko ABSz ezeze, ERGz ere marka baitezakete subjektua.

Predikatu ezergatiboak iragankorrak dira egitura lexiko-erlaziozkoan, baina iragankor soilak ez bezala, objektua inkorporatzen dute, maila horretan bertan. Ale lexikoen mugimendua Gutiziari zor bazaio, inkorporazioa erkabidetzat har daiteke: I Ari inkorporatzen zaio, kasua erkatu behar duelako. Inkorporazio bidez erkatu beharreko kasu honi buruz buruko kasua deritzat, objektu zehaztugabeak erkatu behar duena, hain zuzen.

Euskaraz hiru ezergatibo sail dugu eta hiruretarik, lehena *mintzatu* erakoa, alegia, ABS sailekoa da; gainerako biak, *borrokatu* eta *alde egin*, ABS-ERG sailekoak ditugu. Inkorporazioa, maila

ezberdinengatik ere, ezergatibo sail guztietan ematen da: *mintzatu* sailak egitura lexiko erlaziozkoan inkorporatzen du objektua, gainerako biek, konputazio sisteman, I + *egin* ezergatiboetan inkorporazioa FLra arte luzatzen delarik.

Bestalde, borrokatu eta I + *egin* erako ezergatiboen ASP ekintza da eta interpretapen eztelikoa eman dakieke. *Alde egin* erako ezergatiboko perpausak, esaterako, *egin* astuneko perpausetatik bereiz daitezke, batzuk, objektu zehaztugabea duten heinean, eztelikoak baitira, eta besteak, zeinahi predikatu iragankor soilak bezala, objektu zehaztua dutenez, telikoak baitira.

OHARRAK

¹Borondaterik gabeko estimulu isurtze predikatuok ezergatibotzat hartu dituzte euskal gramatikalariek (Levin, 1983; Eguzkitza, 1986; Ortiz de Urbina, 1988).

²*Ezakusatibotasunaren Hipotesiari* jarraiki (Perlmutter, 1978), perpaus iragangaitzek 2-arkua dute hastapenean, objektua, alegia, baina ez dute, ordea, 1-arkurik: subjektugabeko perpausak dira hastapenean. 1-arkurik ez duten perpausak, hastapenean *estratu ezakusatiboak* duten perpausak dira. Perpaus ezergatiboek, aldiz, hastapenean *estratu ezergatiboa* dute, hau da, 1-arkua, eta ez 2-arkurik, ordea. *Erlaziozko Gramatikaren* terminologia argitzearren, diogun predikatu ezakusatiboko perpausak objektua baino ez dutela erakusten hastapenean, alegia, subjekturik ez dutela hastapenean; predikatu ezergatiboek, subjektua dute eta ez objekturik, ordea.

Hizkuntza guztietako perpaus ongi eratuek, bestalde, subjektua dute halabeharrez. Horregatik, *estratu ezakusatiboa* duen perpausa ezgramatikala da, baldin eta *1-Azken Legeari* jarraitzen ez bazaio: 1-Azken Legeaz, hastapenaren *estratu ezakusatiboa* duen perpausak 1-era bultzatzen du eratorritako subjektua sortaraziz. Edo bestela esanda, perpaus gramatikal orok subjektua behar badu halabeharrez, hastapenetik subjektua erakusten duen predikatu ezergatiboko perpausa gramatikala dateke; eta hastapenean objektua duenak, alegia, predikatu ezakusatibokoak subjektu gunera bultzatu beharko du objektua, 1-Azken Legea betez.

³Predikatu iragangaitzen arteko bereizkuntza Burzioren Orokorpenaz formula daiteke ondora dakardan erara (i.). Kasugabeko objekturik bada, alegia, [-K] den objektua, errol tematikorik (θ) ez zaio ezarriko subjektu guneari, hau da, [-θ] subjektu gunea dukegu.

i. [-θ] / [-K]

Aintzat izan, Kasu Iragazkia urratu ezik, argumentu orok kasua behar duela. Predikatu ezakusatiboak ez du kasua ezartzeko gaitasunik, Burzioren ustez, eta objektuak, hortaz, ezin dezake predikatutik kasurik jaso. Objektuak S-egituran duen jatorrian kasua ezin jasorik, gune horretatik mugitu eta kasua bereganatzekotan, subjektu gunea iritsiko du A-egituran. Aurkezpen maila honetan, S-egituran ez bezala, INFLk ezar diezaiokete kasua, horrela Kasu Iragazkia betez.

Objektuak S-egituran kasurik jaso ezin badu ere, errol tematikoa jaso dezake predikatutik. *Teoria Tematikoaren* baitan ezarritako *θ-irizpideari* jarraiki, argumentuei errol tematiko bana eta errol tematikoei argumentu bana egokitu behar zaie. Objektuak, hortaz, predikatutik jasotako errol tematikoaz gain, ezin jasoko du beste errolrik subjektu gunean. Horregatik, subjektu gunea [-θ] dateke.

Levinen aburuz (1983), bestalde, sistema nom/akusatiboetan predikatu ezakusatiboek objektuari kasu objektiborik, hots, AK kasurik ezarri ezin badiote ere, besterik da kasu ezarketa sistema ergatiboetan: predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzek ABS ezar diezaiokete objektuei sistema ergatiboetan. Levinek adierazitakoaren arabera, predikatu ezakusatiboak objektuari kasua ezarri ahal izateak

bereiziko du euskara sistema nom/akusatiboetatik. Objektuak, beraz, S-egituran jaso dezakeenez ABS, ez du subjektu gunera mugitu beharrik kasua jasotzera: Burzioren Orokorpena hizkuntza nom/akusatiboetan baino ez da zilegi.

⁴Ikus Kayne (1993) edota Nash (1994) *essere/avere* laguntzaileen hautapenerako.

⁵Borerek dakartzan italiarren adibideak Hoekstra & Mülderrengan (1990) aurki daitezke. Ezergatiboek ezakusatiboak bailiran jokatzin dute adibideotan. Holanderaz ere bada egitura pasibo ezpertsonean ager daitekeen ezakusatiborik, alpatu egituran ohiko iragangaitzak ezergatiboak badira ere (Perlmutter, 1978). Ikusildo berean, iragangaitzek hebraieraz duten jokabide aldakorra (Borer, 1993).

⁶Telikotasun/eztelikotasunaren hastapenatarako ikus Comrie (1976).

⁷Dena den, ez dirudi banan banako harremana dagoenik egiletasun eta etzelikotasunaren artean, ezta egilegabetasun eta telikotasunaren artean ere (Levin & Rappaport, 1995).

⁸Gonbaratu (9.ii) ondoko perpausarekin (ii). Objektua zehaztugabea denez, perpausa etzelikoa da berriro ere.

ii. John is singing songs
 John izan kantatu kantua-pl
 'John kantuak kantatzen ari da'

Ikus baita (25) oharra.

⁹Nolanahi ere, Boreren ASP'' Chomskyren KMZ2''ri dagokio.

¹⁰Lakak dioten bezala (1995), Burzioren Orokorpenak dakartzan ondorio enpirikoak Kasu Teoriak berak azal ditzake errol tematikoetara jo gabe eta horregatik, *theta-itsua* (θ -itsua) deritza kasuari.

Burzioren Orokorpenak dioenez, Ak ISri errol tematikorik ezarriko badio, ISK subjektu gunea iritsi behar du bertan NOM kasua jasotzera. Egungo Kasu Teoriaren baitan kasua indarreko KMZ buruaren arabera erkatzen da, errol tematikoa aintzat hartu gabe. Areago, predikatu ezakusatiboak kasua erka dezake eta KMZ buruaren tartekaritzaz erkatuko du.

Lakaren aburuz (1993, 1995), bestalde, KMZ burua barik, kasua bera indartzen da. Predikatu iragankorreko perpausetan ez da hizkuntzen artean bereizkuntzarik, Dren kasua (K_D) nahiz ASPren kasua (K_{ASP}) indartzen baitira. Predikatu iragangaitzeko perpausetan, alabaina, K_D indartzen da sistema nom/akusatiboetan, NOM zilegiztatzin delarik, eta K_{ASP} , berriz, sistema ergatiboetan, ABS zilegiztatuz. Nolanahi ere, indarreko kasuaz nahiz indarreko KMZ buruaz mintzatuz, Burzioren Orokorpena berez datorkigu Kasu Teoriatik, errol tematikoei erreparatu gabe.

¹¹Boreren (1993) ASP burua, Lakarena (1995) edota Lylereana (1996) ez bezala, Aktionsarti lotu behar zaio.

¹²Chomsky (1993) eta Bobaljik (1993) onetsiz gero, KMZ burua tartekari dela, [Espez, D] gunean baino, [Espez, KMZ] gunean zilegiztatzen da kasua, baina Borerekin bat etorritz, KMZ bururik ez darabilena, [Espez, D] gunea da kasua erkatzeko gunea.

Sistema nom/akusatiboetan, bestalde, [Espez, D] gunean NOM erkatzen den bitartean, sistema ergatiboetan ERG erkatzen da. Ikus, besteak beste, Laka (1995), non D eta ASP buruak bereiziz, NOM/ERG [Espez, D] gunean zilegiztatzen den eta AK/ABS, berriz, [Espez, ASP] gunean.

¹³Izan ere, Borerek darabiltzan bi irizpideez, hau da, [Espez, ASP] islatu ala islatu ez eta islatuz gero, AK gunea izan ala izan ez, hiru eratorpen sor daiteke:

- iii. i. Espez islatu, kasurik erkatu ez
- ii Espez islatu, kasua erkatu
- iii Espez islatu ez, kasua erkagaitz

Lehen eratorpena ezakusatiboetara dagokie (10) azpiatalean erakutsi dudan bezala eta hirugarrena, ezergatiboetara (11) azpiatalean ikusgai. Bigarren eratorpena da, azkenik, Borerek errefusatzen duena baina eratorpen hori da, hain zuzen, ezakusatiboek sistema ergatiboetan behar luketena -ikus (12) azpiatala.

¹⁴Aintzat izan euskal gramatikalariek predikatu iragangaitzen gainean egindako hausnarketa Perimutter (1978) eta Burziori (1981, 1986) jarraitu zaiela. Ikus, besteak beste, Levin (1983), Eguzkitza (1986), Ortiz de Urbina (1986) edota Rebuschi (1986).

¹⁵Ikus baita laugarren kapituluko (2) oharra-.

¹⁶Bittner & Halek (1996) diotenez, georgiera nahiz euskara *hizkuntza ergatibo aktiboak* dira, predikatu ezergatiboaren argumentua, egilea dena, predikatu iragankorreko subjektu/egilea bezalaxe markatzen baita eta predikatu ezakusatiboaren argumentua, jasalea dena, berriz, predikatu iragankorreko objektu/jasalea bezalaxe. Harrisen (1981) ildotik, euskarari hizkuntza aktiboa iritzi diote baita Levinek (1983), Ortiz de Urbinak (1987) edota Rebuschik (1986) ere.

¹⁷Mahajanek (1995) dioenez, zenbait indieuropear hizkuntzatan, predikatu ezergatiboek, ABS ezeze, ERG ere ezar diezaiekete subjektuei. Hindieraz predikatua ezergatiboa bada, subjektuari ERG (iv.i) nahiz ABS ezar dakioke (iv.ii); baina predikatua ezakusatiboa bada (iv.iii), ABS baino ez.

- iv. i. Kuttō-ne bhōkaa
 txakur-ERG zaunka egin-perf-mask-s
 'Txakurrek zaunka egin zuten'
- ii. Kutte bhōkee
 txakur zaunka egin-perf-mask-s
 'Txakurrek zaunka egin zuten'

-
- iii. Raam (*-ne) gir g yaa
 Ram (*-ne) erori
 'Ram erori zen'

Dena den, ez dirudi ERG euskaraz edota georgieraz beste hedatzen denik hindieraren ezergatiboetan.

¹⁸Eztabaida honetarako, ikus *Lexical versus Syntactic* atala, 94-103 orrialdeetan.

¹⁹Ido honetan, esparru murriztagoa du inkorporazioak Hale & Keyserrentzat, niretzat baino, eta I + *egin* sailari esplizituki inkorporazio gabeko ezergatiboa baderitzate, pentsa daiteke *mintzatu* sailean bakarrik onetsiko luketela inkorporazioa.

²⁰Bobaljik (1992 a, 1993) edota Lak (1993), iragangaitz direla esplizituki ez badiote ere, iragangaitz modura darabiltzate konputazio sistemaren barnean, *mintzatu* erakoen jokabidea duten beste hizkuntzetako ezergatiboak.

²¹Honelaxe, jakina, ezin azal daiteke *mintzatu* erako ezergatiboen inkorporazioa, gainerako sailetan bezala, baina buruz buruko kasuaz ezin azaldu ere, *mintzatu* eta *borrokatu* erako ezergatiboak bereizi behar dira, ene ustez. Izan ere, predikatuotan erkatzen diren egiturazko kasuez -ABS eta ERG kasuak, hurrenez hurren- banatzen dira bi sailak eta horrek adieraz diezaguke konputazio sisteman ezberdin direla biak iragangaitza bata eta iragankorra bestea-. Bada, *mintzatu* erako ezergatiboen inkorporazioa kasuaz azaldu ezin dudan arren, ez dut ukatuko inkorporazioa egitura lexiko erlaziozkoan ematen denik ezta gainerako ezergatiboen inkorporazioa buruz buruko kasua erkatu beharrak dakarrenik.

²²Dena den, gorago (2.1.2) nioen bezala, kasua buruz buru erka dezaketen ezergatiboak iragankorrak dira baita konputazio sisteman ere eta, orduan, bi KMZ buruak indartzen dira. Baina bi KMZ buruak indarrean, bi ISeK [Espez, KMZ] gune bana iritsi behar balute ere, bietarik batek baino ez du iritsiko, besteak ASren baitan erkatuko baitu kasua, I Ari inkorporatuz. Horregatik, *alde egin* edota *borrokatu* erako ezergatiboek objektua inkorporatzen dutela proposaturik ere, ezin erantzungo dut zergatik indartzen den bi KMZ buru eta ez buru bakarra, bietarik bat ez badarabilgu kasua erkatzeko.

²³Lak (1993) dagoeneko adierazi duen bezala, (20.ii) perpauseko DETS zehaztua da nahitaez baina, oro har, DETSk interpretapen zehaztu nahiz zehaztugabea izan dezake, Lakaren ondoko adibideko (v.) *artoa* DETSk bezala.

v. Emakumeak artoa erein du

Eta -a DET ageri ezik, gainera, perpausa ezgramatikala da (vi.).

vi. * Emakumeak arto erein du

²⁴Orain arte ISez baino ez naiz *mintzatu*, oro har, argumentuez ihardun dudanean baina IS eta DETSk bereiziko ditut, ezergatiboak darabiltzadanean, ezergatiboen objektua IS baita *stricto sensu*.

²⁵Boreren adibideak dira ondokoak. Objektuari behatu: zehaztua da lehen perpausetan (vii.i) eta zehaztugabea, bigarrenetan (vii.ii).

vii. i.	Kim	built	the	houses
	Kim	eraiki	det	etxe-pl
	'Kimek etxeak eraiki zituen'			
ii.	Kim	built	houses	
	Kim	eraiki	etxe-pl	
	'Kimek etxeak eraiki zituen'			

Bi perpausetan predikatu bera, *build* 'eraiki', dagoen arren, objektuak bereizten du bien ASP: lehen perpausa (vii.i), objektu zehaztua dakarrena, burutzapena da eta bigarrena (vii.ii), objektu zehaztugabekoa, berriz, ekintza. Objektu zehaztuko perpausak *interpretapen holistikoa* du eta objektu zehaztugabekoak, berriz, *interpretapen ez-holistikoa*. Predikatuaren ASP, beraz, objektuaren izaera semantikotik erator daiteke.

²⁶Mugimendu predikatuetan, bestalde, ABS ezeze ERG predikatuak ere izan daitezkeen *irristatu/irrist egin*, *igo/igan* predikatuak ere aipagai ditu Oyarçabalek. Beraiei *labandu/labau egin* pareta gainera dakieke.

²⁷Eskerri beroenak eman nahi dizkiet Lucia Izunza, Trino Azkoiti, Dorita Otxoantezana eta Jon Akarregiri ezergatiboen inguruan eman dizkidaten datuengatik. Baita Luismari Larringani ere zenbait ezergatiboez egindako iruzkinengatik.

²⁸Javier Ormazabali eta *Ezergatiboak, inkorporazioa eta berezko kasua* izeneko mintegiko lagunei (Hizkuntzalaritza Mintegia, Gasteiz, 1996-3-22) zor diet bereizkuntza honetaz ohartu izana.

²⁹Aintzat izan baita ondoko perpausa (viii.) ere, zeinetan *berbatu* predikatua darabilgun eta burutzapena adierazten dela dirudien.

viii. Berbatu gintunazan eta harrez gero, kitto

³⁰Ortiz de Urbinak diostanez, gainera, *mintzatu* saila ezergatibotzat jo daiteke, aintzat hartzen bada gainerako ezergatiboen antzera eta ezakusatiboak ez bezala, egitura ezpertsonalean ager daitekeela. Gonbara daitezten (ix.i) eta (ix.ii), egitura ezpertsonalean ezin ager daitezkeen predikatu ezakusatiboko (ix.iii) perpausarekin. Aintzat izan (ix.iii) perpausaz *jaio* predikatu ezakusatiboko egitura ezpertsonala adierazi nahi dudala.

- ix. i. Asko mintzatu da horretaz
- ii. Asko hitz egin da horretaz
- iii. *Asko jaio da

Egitura ezpertsonalei begira, beraz, *mintzatu* ezergatiboa da.

³¹*Borrokatu* erako ezergatiboen azterbiderako ikus baita López & Austin (1995) ere -hirugarren kapituluko (11) oharra-.

³²*Iraun* predikatua (x.i) edota Laffitek aipagai ez duen *sufritu* (x.ii) ere, argumentuari ERG ezartzen dioten ezakusatiboak dira, Levenen (1983) aburuz.

- x. i. Herriak iraun du
- ii. Herriak sufritu du

Agian, ERG erkatzen duen ezakusatibotzat jo beharko genuke *irakin* bera ere, egoera fisikoaren aldaketa adierazten duten predikatuak ezakusatibotzat hartzen baitira.

³³Lafittek (1980) dioenez, gainera, era honetako ezergatiboek nolabaiteko jarraikortasuna adierazten dute ('Ces verbes marquent en général une certaine continuité, une certaine insistance', 189 orr.), eztekitotasunaz azal daitekeena.

³⁴Inesiboa diot, terminua egokia den deliberatu gabe. INES deritzadana objektu ebentiboek buruz buru erkatzen duten kasuaren azpisailtzat har daiteke ziurrenik, eta *hasi* edota predikatueta ere aurki daiteke.

³⁵I zehaztugabea diot, zeren besterik baita, jakina, DETS zehaztugabeak kasua nola erkatzen duen azaltzea. Ez naiz ni honetaz arituko.

³⁶Martinezek (1996), neronek ez bezala, *alde egin/ negar egin* azpisailak banatzen ditu I + *egin* erako ezergatiboetan. Martinezen iritziz, lehen azpisalean, I ez dago sintaktikoki indarturik eta bigarrenean, ordea, bai, eta bi azpisailak inkorporazioaz eratzen badira ere, lehenak hiztegia jasaten du inkorporazioa eta bigarrenean, FLn.

Hitz egin predikatuari *alde egin* azpisailekoa iritzirik, ezgramatikaltzat jotzen du (40.iii) perpausa, zeren, bere ustez, azpisail honetako perpausetan, *negar egin* erakoetan ez bezala, objektuak ezin erakutsi baitezake PARTrik.

Printzipioz I + *egin* ezergatiboetan bi azpisail bereiztea komeni den arren, Martinezek egin duen bezala, ondokoa erantzuteke dago. *Alde egin* azpisailean, objektua lexikoki inkorporatu bada, *mintzatu* predikatuak bezalaxe inkorporatu al du objektua?, zergatik ez da, orduan, egiturazko ABS erkatu? Ene aburuz, I + *egin* ezergatiboen artean aurki daitekeen simetrikotasun ezarengatik ere, ezin pentsa daiteke *alde egin* azpisailean objektua lexikoki inkorporatu denik. Ezberdintasunak ezberdintasun, FLn inkorporatzen da objektua bi azpisailetan.

³⁷Perpaus kausatiboetan, jakina, DAT argumentua da *negar egin* ezergatiboaren subjektua. Perpaus kausatibo ditransitiboetan, bestalde, komunztadurarik ez duen DATri *berezko kasua* iritzi diote euskalariek (Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia, 1989).

³⁸Irizpidez irizpide eman ditudan datuez pentsa daiteke badela inkorporazioa bera justifikatzeko, inkorporazio gabeko predikatutzat hartzeko beste ebidentzia.

³⁹Koldo Sainzek diostanez, Chomsky (1995) abiaburu harturik, hauxe pentsa daiteke, *mintzatu* erako ezergatiboetan objektua bera adjunktatzen zaiola Ari, tasunen bat erkatzekotan eta *borrokatu* eta *l + egin* ezergatiboetan, ostera, tasuna bera dela Ari adjunktatzen zaiona, objektuak *in situ* dirauen bitartean.

Chomskyri (1993) lotu natzaionez, ez dut tasunen mugimendua aintzakotzat hartu baina Sainzen hipotesia onets daiteke, ene iritziz. Nolanahi ere, ez dut uste euskal ezergatiboak bestela sailkatzera eramango nindukeenik.

⁴⁰Kontraesan terminologikoarengatik ere, ezergatiboak definizioz eztelikoak baitira, ezergatibo deritzet *mintzatu* erako predikatuei, gorago (3.1.2) esan dudan antzera.

⁴¹Gogoan izan, Bobaljken (1992a, 1993) aburuz, inkorporazioa gertatu deneko hizkuntzetan, subjektuak egiturazko ABS erkatzen duela, alegia, Ak dakarren kasua eta ERG erkatzen duela, ordea, predikatuak objektua inkorporatu ez duen hizkuntzetan.

3. Egiturazko DAT, AS azala eta KMZ3

3.0 ATARIAN

INFLren eraketan bi KMZ buru baino ez dut bereizi perpausaren egituran, bata KMZ1, zeinen Espez gunea iritsirik ERG eta ϕ 1-tasunak zilegizta ditzakeen predikatu iragankorreko subjektuak, eta KMZ2 bestea, zeinen Espez gunean ABS eta ϕ 2-tasunak erka ditzakeen predikatu iragankorreko objektuak ezeze, predikatu iragangaitzeko subjektuak ere (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993). Baina, ene aburuz, zehar objektuak DAT kasua eta ϕ 3-tasunak erkatuko baditu, KMZren Espez gunea iritsi behar du. Horregatik, perpausean zehar argumenturik ageriz gero, KMZ1 eta KMZ2 buruak ezeze, KMZ3 burua ere indartuko da INFLren baitan (Hualde, 1986; Cheng & Demirdache, 1990, Collins & Thráinsson, 1993; López & Austin, 1995).

KMZ3 indarturik, bi hipotesi teoriko ezberdin proposa daiteke KMZ2ren kokalekua aintzat harturik. Lehenean, ASTik at ezar daiteke (Cheng & Demirdache, 1990), KMZ2'' KMZ3ren osagarri gunean kokatuz; bigarreanean, berriz, AS azalaren¹ (Larson, 1988) baitan,

KMZ2'' A1en² osagarri gunean egotziz, hain zuzen (Collins & Thráinsson, 1993; Koizumi, 1993; López & Austin, 1995). Dena den, bi hipotesietatik, bigarrena baino ez da zilegi, Mugimendu Laburrena Distantziakidetasunaren arabera definituz gero (Chomsky, 1993). Izan ere, ene aburuz, Distantziakidetasuna bete behar da baita KMZ3 indartzen denean ere, zehar objektudun predikatu iragankorreko perpausetan nahiz predikatu ezakusatibokoetan.

Aintzat izan, Distantziakidetasunak berak dakartzala bidezidor gurutzatuak predikatu iragankorreko perpausetara bai sistema nom/akusatiboetan bai sistema ergatiboetan, *subjektua* Ekonomia Hatsarre honezaz eratortzen delarik. Gogoan izan, halaber, KMZ buruei KMZ1, KMZ3 eta KMZ2 iritzirik ere, ez dela bereizkuntzarik beraien artean, adjunktatzen zaizkien D, A1 edota A2 buruen arabera baino.

Bestalde, zehar objektua komunztatuz gero, objektu zuzenak hirugarren pertsona izan behar duela eta, predikatu iragankorreko perpausetan KMZ buruak *Tasun Zehaztapenaren Mugari* (Murasugi, 1994) edota *Pertsona-Kasuaren Mugari* (Bonet, 1991, 1994) lotzen zaizkiola esan daiteke baita euskaraz ere.

Hitz hurrenkerari dagokionean, Subjektua-Zehar objektua-Objektu Zuzena-Aditza hurrenkera ezmarkatua eratorriko dut zehar objektudun predikatu iragankorreko perpausetan (de Rijk, 1969), eta predikatu iragangaitzetan bi hurrenkera ezberdinduko dut, bata, Zehar Objektua-Subjektua-Aditza eta bestea, Subjektua-Zehar Objektua-Aditza. Bigarren honetan, subjektuak [Espez, KMZ2] gunera igo eta gero, [Espez, D] gunera igo behar duela suposatuz (Zabala, 1995).

DATri egiturazko kasua baderitzat ere, Hualdek (1986), Cheng & Demirdachek (1990) edota López & Austinek (1995) bezalaxe, eta

[Espez, KMZ] gunean erkatu behar dela badiot ere, ez dirudi DAT guztiak egiturazkoak direnik. Areago, DAT ezkanonikotzat (Hualde & Ortiz de Urbina, 1987; Ortiz de Urbina, 1995) hartu direnak ASren baitan ere erka daitezkeela esango nuke.

Kapitulu honetan zehar, egiturazko kasutzat hartuko dut DAT bera ere, eta ϕ 3-tasunekin batera [Espez, KMZ] gunean erkatzen dela proposatuko dut (3.1) atalean. Horretarako, *Aukerako Kasuaren Parametroa* formulatuko dut, DAT aukerako kasutzat joz, aukeran indar daitekeen KMZ buruari esker zilegiztatzen den kasua delako. (3.2) atalean KMZ3 indartuz gero, KMZ2 buruaren kokalekuaz eman daitezkeen bi hipotesiak aztertuko ditut predikatu iragankorreko perpausetan Distantziakidetasunaz baliatuz. (3.3) atalean, zehar objektudun predikatu iragangaitzak izango ditut aztergai, eta azken atalean (3.4) DAT ezkanonikoez ihardungo dut laburki.

3.1 EGITURAZKO DAT EUSKARAZ

Kasu Teoriaren baitan, Chomsky (1993) eta Bobaljik (1993) lotu natzaie, kasua nahiz ϕ -tasunak [Espez, KMZ] gunean erkatzen direla diotenean. Autore hauen aburuz, alabaina, egiturazko bi kasu soilik erka daiteke KMZren Espez gunean, alegia, ERG eta ABS kasuak; ene iritziz, aldiz, DAT ere gunea horretan bertan zilegizta daiteke. Ildo honetan, DATri egiturazko kasua deritzat, Hualdek (1986), Cheng & Demirdachek (1990) edota López & Austinek (1995) bezalaxe.

Atal honetan, zehar objektuarekiko komunztadurak eratzen dituen predikatu azpisaillez arituko naiz lehenik (3.1.1), eta bigarrenik (3.1.2), DAT egiturazko kasutzat harturik, *Aukerako Kasuaren Parametroa* formulatuko dut.

3.1.1 DAT, ϕ 3-tasunak eta predikatu azpisailak

Euskaraz predikatu iragankorreko subjektuak ERG eta ϕ 1-tasunak erkatzen ditu [Espez, KMZ1] gunean eta predikatu iragangaitzekoak nahiz predikatu iragankorreko objektuak ABS eta ϕ 2-tasunak [Espez, KMZ2]n. Baina euskaraz bada beste egiturazko kasurik, alegia, DAT kasua, zehar objektuak [Espez, KMZ3] gunean erkatu behar duena ϕ 3-tasunekin batera (Hualde, 1986; Cheng & Demirdach, 1990; López & Austin, 1995).

Predikatuak, halaber, ezinbestez hautatzen dituzten argumentuen arabera banatu ditut iragangaitz eta iragankorren artean. ABS sailekoak ditugu iragangaitzak eta ABS-ERG sailekoak, iragankorrak, eta euskaraz A zehar objektuekin ere komunzta daitekeela aintzat harturik, beste bi azpisail gainera dakieke oinarrizko bi sailei, alegia, ABS-DAT eta ABS-DAT-ERG azpisailak³.

Euskaltzaindiak (1987 b) ABS saileko aditz oinetan ondoko hiru azpisailak bereizi ditu, alegia, zehar objektua aukeran dutenak, zehar objektua nahitaez daramatenak eta zehar objekturik ezin eraman dezaketenak. Dakusagun (1) azpiatalean.

- (1) ABS saila
- i. ABS{DAT}: zehar objektua aukeran
 - ii. ABS-DAT: zehar objektua ezinbestez
 - iii. ABS: zehar objekturik ezin eraman

Eta ABS-ERG saileko aditz oinetan ere, beste hiru azpisail ezberdindu du, hots, zehar objektua aukeran dutenak, ezinbestez

daramatenak eta zehar objekturik onartzen ez dutenak, (2)an ikus daitekeen antzera.

- (2) ABS-ERG saila
- i. ABS-(DAT)-ERG: zehar objektua aukeran
 - ii. ABS-DAT-ERG: zehar objektua ezinbestez
 - iii. ABS-ERG: zehar objekturik ezin eraman

Halere, zehar objektua aukerakoa izan ohi da eta, ondorioz, guztietarik ABS-(DAT) eta ABS-(DAT)-ERG azpisailei egokitzen zaizkie aditz oin gehienak, Euskaltzaindiak berak dioen bezala. Baina bi azpisaill hauetako zehar objektua perpausean ageriz gero, A berarekin komunztatu behar da nahitaez⁴.

Gatozen, bada, zehar objektua aukeran ageri den adibideetara (3). Dakartzagun ABS sailekoak lehenik.

- (3)
- i. Ni joan naiz
Ni-ABS joan 1_{ϕ2}-izan
 - ii. Ni Joni joan natzaio
Ni-ABS Joni-DAT joan 1_{ϕ2}-izan3_{ϕ3}

Bi perpausetan *joan* predikatu ezakusatiboa dugu. (3.1) perpausean *izan* laguntzailea *ni* predikatu iragangaitzeko subjektuarekin komunztatu da ϕ_2 -tasunak adierazten dituen *n*-morfemaren bidez. (3.ii) perpausean, predikatu iragangaitzeko subjektuaz gain, *ni*, zehar objektua ere badugu, *Joni*, DATz markaturik, eta argumentu honekin ere komunztatu da *izan* laguntzailea ϕ_3 -tasunak islatzen dituen -o morfemaren bidez.

Dakusagun orain ABS-ERG saila (4). Adibide hauetan, *idatzi* predikatu iragankorra dugu, zehar objektua aukeran izan

dezakeena. Lehen perpausean (4.i) bi argumentu baino ez da ageri, subjektua, *nik*, eta objektu zuzena, *gutuna*, baina bigarren perpausean (4.ii), subjektu eta objektu zuzenari, *Joni*, zehar objektua gaineratu zaie. *Edun* laguntzailea, bestalde, hiru argumentuekin komunztatu da (4.ii) perpausean.

- (4) i. Nik gutuna idatzi dut
 Ni-ERG gutun-ABS idatzi $3_{\phi 2}/D\text{-}edun\text{-}1_{\phi 1}$
- ii. Nik Joni gutuna idatzi diot
 Ni-ERGJon-DATgut-ABS A $3_{\phi 2}/D\text{-}edun\text{-}3_{\phi 3}\text{-}1_{\phi 3}$

Nolanahi ere, badira zehar objektua halabeharrez duten aditz oinak. ABS-DAT azpisailekoak dakartzat ondoren (5).

- (5) atxiki erion
 begitandu iruditu
 bururatu jarraiki
 damutu laket
 ekin gustatu

Aditz oin hauetarik zenbait ondoko adibideetan (6) ikus daitezke, non DATz markaturiko zehar objektuaz gain, berarekin $\phi 3$ -tasunen bitartez komunztatutako A dugun.

- (6) i. Homari atxikitzen zaion huntza bezala
 ii. Ala damutu ote zaizu enekin esposatzea
 iii. Euskara garbi eta zalu hori zaidala niri laket

Eta DAT halabeharrez darabilten ABS-DAT-ERG azpisaileko aditz oinak ditugu (7)an.

- | | | |
|-----|--------|--------|
| (7) | ekin | eragin |
| | eritzi | eutsi |

Ondoko adibideetara (8) dakartzadanak. Ohar bedi, perpaus hauetan ez dela ABSz markaturiko argumenturik, edo bestela esanik, ERG eta DATdun argumentuak baino ezin ager daitezkeela perpausotan.

- | | | |
|-----|------|--|
| (8) | i. | Ekin, bada, euskarari |
| | ii. | Eragiok, mutil, aurreko danbolinari |
| | iii. | Euskarak eutsi behar dio Euskal Herriari |

Bestalde, zehar objektua halabeharrez duten (7) azpiataleko aditz oinekin batera (9)koak ere sailka genitzake, mendebaldean, bederen, DATdun zehar objektuez baitarabiltzagu.

- | | | |
|-----|----------|----------|
| (9) | begiratu | jarraitu |
| | deitu | lagundu |
| | itxaron | |

Euskaltzaindiak (1987 b) *nor (ABS) izuna* duten aditz ointzat hartu ditu hauek, perpausean ERGz eta DATz hurrenez hurren markaturiko subjektua eta zehar objektua baino ez baitira ageri, hau da, ez dago ABSdun argumenturik. Ondora dakartzat Euskaltzaindiaren bi adibideak (10).

- | | | |
|------|-----|--------------------------|
| (10) | i. | Etxera lagundu dizut |
| | ii. | Jakinminez begiratu dizu |

Laburbilduz, predikatu iragangaitz nahiz iragankorren artean, beste bina azpisail bereiz daiteke zehar objektua aukerakoa den ala ez aintzat harturik. Hala eta guztiz ere, aukerako zehar objektua duten predikatuak dira ugarienak, iragangaitz nahiz iragankorrak, eta,

gainera, zehar objektua ezinbestez duten predikatu iragankorretan ez dirudi, errol tematikoari begira, DAT kanonikoak direnik (Hualde & Ortiz de Urbina, 1987; Ortiz de Urbina, 1995). Horregatik, aukerako kasua iritziko diot DATri (3.1.2), eta aukerakotasunaren arabera azalduko dut predikatu iragankor nahiz iragangaitzetan.

3.1.2 Egiturazko DAT eta Aukerako Kasuaren Parametroa

Kasu Teoriaren baitan, egiturazko kasua iritzi diot A eta D KMZri adjunktatutakoan, [Espez, KMZ] gunean erka daitekeenari: predikatu iragankorreko perpausetan bi KMZ buruak indarturik, A KMZ2ri adjunktatu eta ABS edo AK erkatuko da [Espez, KMZ2]n eta D KMZ1 adjunktatu ondoren, ERG edo NOM [Espez, KMZ1]n. Izan ere, ISek Kasu Iragazkia bete ezik, eratorpenak huts egingo du elkarguneetan. Dakusagun Kasu Iragazkia berriro (11), subjektu eta objektu zuzenak ezeze, zehar objektuek ere bete behar dutena.

- (11) Kasu Iragazkia
Argumentu orok X kasua erkatuko du nahitaez

Ene aburuz, euskaraz bada, ABS eta ERG kasuez gain, beste egiturazko kasurik, DAT kasua, hain zuzen ere (Hualde, 1986; Cheng & Demirdache, 1990, López & Austin, 1995). DAT kasua zehar objektuak ezeze, Ak berak ere izan dezake bere l-tasunen artean, eta izanez gero, batak zein besteak erkatuko dute eratorpenean zehar. Areago, perpausa gramatikala izatekotan, halabeharrez erkatuko da DAT, eta egiturazko kasua deritzadan heinean, [Espez, KMZ] gunean zilegiztatuko da, ERG eta ABS kasuak bezalaxe. Jarraian dakartzat ene hipotesiaren oinarriak (12).

- (12)
- i. DAT ere egiturazko kasua
 - ii. DAT kasua, IS3ren zein Aren l-tasuna
 - iii. DAT [Espez, KMZ] harremanean erkatu

Bada, alabaina, DAT kasua egiturazko beste bi kasuetatik bereiz dezakeenik, hau da, DAT aukeran azal dakiguke predikatu iragangaitz zein iragankorretan eta, hortaz, aukerako kasua da, nahitaezko ABS ez bezala. Eta aukerakoa deritzat, zehar objektua bera ere hautazkoa delako. Aintzat izan, gainera, ϕ 3-tasunak ere hautazkoak direla, edo bestela esanik, Ak ez duela beti zehar objektuarekiko komunztadura zaintzen.

Nolanahi ere, aukerako zehar objektudun predikatu iragangaitzetan, alegia, ABS-(DAT) azpisaileko predikatuetan, nahitaezko kasurako KMZ buruaz gain -euskaraz KMZ2 burua-, DAT erkatzeko beste KMZ buru bat indartuko da, alegia, KMZ3. DAT erkatzekotan, beraz, bi KMZ buru indarrean dagoke ABS-(DAT) azpisaileko predikatuetan, (13)an azaltzen den erara.

- (13)
- i. Nahitaezko kasua: ABS
KMZ2 indarrean
 - ii. Aukerako kasua: DAT
KMZ3 indarrean/indarge

Eta aukerako zehar objektudun predikatu iragankorretan, hau da, ABS-(DAT)-ERG azpisaileko predikatuetan, bi KMZ buru barik, hiru dukegu indarrean -KMZ1, KMZ2 eta KMZ3 buruak-, KMZ3 zehar objektuari dagokiolarik. Dakargun (14) azpiatalera.

- {14} i. Nahitaezko kasua: ABS/ERG
 KMZ2 indarrean/KMZ1 indarrean
- ii. Aukerako kasua: DAT
 KMZ3 indarrean/indarge

Demagun, bada, DAT egiturazko kasua dela, eta zehar objektuak [Espez, KMZ3] iritsirik erka dezakeela Arekin batera. Horretarako, Ak ABS kasuaz gain, beste kasu bat izan behar du, hau da, DAT. Baina, Ak egiturazko kasu bakar bat ez ote duen galde daiteke, edota bi baldin badu, bietarik zein kasu eta zein [Espez, KMZ] gunetan erkatu behar duen. Ene aburuz, Ak egiturazko bi kasu ezar dezake, ABS nahiz DAT, baina ABS erkatu ezik, ezin erka dezake DAT. Edo bestela esanik, A KMZ2ri adjunktatu behar zaio lehenik, [Espez, KMZ2] gunean ABS zilegizta daitekeelarik, eta KMZ3ri adjunkta dakioke ondoren, DAT [Espez, KMZ3]ri helaraziz.

Bestalde, DAT aukerako kasutzat hartu eta ABSri nahitaezkoa baderitzat predikatu iragangaitz nahiz iragankorretan, ez dirudi teorikoki, bederen, ABS gabeko predikaturik aurki daitekeenik, bera ezinbestez azaldu behar baitzaigu sail zein azpisail bakoitzean. Baina, arestian (3.1.1) esan dudan antzera, euskaraz badago ABS izuna duen ABS-DAT-ERG azpisaileko aditz oinik -ikus (7) eta (9)-, non ABSren ordezt, DAT ageri den. Dena den, geroago (3.4) azalduko dudan bezala, aditz oin hauetako zehar objektuaren DAT ez da ohikoa, ezkanonikoa baino.

Gatozen orain parametroetara. Chomskyri jarraiki (1993), predikatu iragangaitzetan bakar-bakarrik bereiz daitezke hizkuntza nom/akusatiboak ergatiboetatik, eta Bobaljiken Nahitaezko Kasuaren Parametroaz (1992 b, 1993) bereizi ere (15): hizkuntza nom/akusatiboetan nahitaez erkatu beharreko kasua NOM da eta ergatiboetan, aldiz, ABS.

- (15) Nahitaezko Kasuaren Parametroa
- i. Hizkuntza nom/akusatiboetan X kasua NOM da
 - ii. Hizkuntza ergatiboetan X kasua ABS da

DATren gaineko parametroaz, *Aukerako Kasuaren Parametroa* deritzadanaz, zehar objektuaren egiturazko DAT eta berarekiko komuntadura, hau da, ϕ 3-tasunak [Espec, KMZ] gunean erkatu ahal eta erkatu ezin duten hizkuntzak bereiziko ditut, hau da, zehar objektudun komuntadura izan dezaketen hizkuntzak eta izan ezin dezaketenak. Egiturazko DAT dukegu aukerako KMZ3 burua indar dezaketen hizkuntzetan soilik, eta KMZ3k ezinbestez indartu behar ez duenez, aukerako kasutzat hartuko dut DAT. Dakusagun (16) azpiatalean Aukerako Kasuaren Parametroa, X aukerako kasua delarik.

- (16) *Aukerako Kasuaren Parametroa*
X kasua DAT, bbaldin eta KMZ3 indartzen bada⁵.

Euskaraz KMZ3 indartzen bada, beraz, zehar objektuak DAT erkatuko du [Espec, KMZ3] gunean. Horretarako, Ak ABS kasu tasuna ezeze, DAT kasu tasuna ere ekarri behar du bere l-tasunen artean, eta behin ABS erkatutakoan, DAT zilegiztatuko du: A KMZ3ri adjunktatu ondoren, zehar objektua Espez gunera mugituko da, bertan DAT kasua zein ϕ 3-tasunak erkatuz.

3.2 KMZ3, AS AZALA ETA DISTANTZIAKIDETASUNA

DAT egiturazko kasua den heinean, [Espec, KMZ] gunean erkatuko bada, KMZ1 eta KMZ2 funtzio buruez gain, KMZ3 burua ere indartu behar da predikatu iragankorreko perpausetan (Hualde, 1986;

Cheng & Demirdache, 1990), eta KMZ3 indar daitekeela onetsirik, balizko bi hipotesi teoriko formula daiteke KMZ2''ren kokalekuaz. Lehenean, KMZ2 funtzio burua AStik at koka daiteke (Cheng & Demirdache, 1990), eta bigarrenean, AS azalaren (Larson, 1988) baitan (Collins & Thráinsson, 1993; Koizumi, 1993; López & Austin, 1995). Baina Distantziakidetasuna (Chomsky, 1993) hiru KMZ buru indartzen denean ere ezin urratuko denez, bigarren hipotesia baino ez da zilegi, (3.2.1) atalean erakutsiko dudana bezala.

Hiru KMZ burutako perpausetan, halaber, zehar objektua komunztatuz gero, objektu zuzenak hirugarren pertsona izan behar du ezinbestez. Ildo honetan, Boneten (1991, 1994) *Pertsona-Kasuaren Muga* ezeze, Murasugiren (1994) *Tásun Zehaztapenaren Muga* ere izango dut mintzagai (3.2.2) atalean.

3.2.1 AS azala, Gutxieneko Eremua eta Distantziakidetasuna


Chomsky (1993) eta Bobaljiki (1993) lotu natzaie -(1.2.2) atala-, predikatu iragankorreko perpausetan sistema nom/akusatibo nahiz ergatiboen artean bereizkuntzarik ez dagoela erakusteko: Mugimendu Laburrena Distantziakidetasunaren arabera definituz gero, ISk gurutzatu egiten dira bi sistemetan. (17)ra dakart berriro Mugimendu Laburrenaren definizioa.

- (17) *Mugimendu Laburrena*
 α eta β *Gutxieneko Eremu* berean badaude, γ ren
distantziakideak dira

Mugimendu Laburrena predikatu iragankorreko perpausetan soilik definitu behar da, zeren predikatu iragangaitzeko perpausetan indarrean dagoen buruak berak zehazten baitu ISren jomuga, bai

KMZ1 sistema nom/akusatiboetan bai KMZ2 sistema ergatiboetan. Dakusagun *idatzi* predikatu iragankorreko goiko perpausetan (4). Jarraian dakart berriro (18.i) bietatik lehena, dagokion eratorpenarekin batera (18.ii).

- (18) i. Nik gutuna idatzi dut
 Ni-ERG gutun-ABS idatzi $3_{\phi 2}/D$ -edun- $1_{\phi 1}$
- ii.



Goiko eratorpenean, A KMZ2ri adjunktatu zaio (I_{kmz2} A_i KMZ2), t_i) katea osatuz, eta *gutuna* IS2k subjektu gunea gurutzatu ahal izan du [Espez, KMZ2] iritsi eta Mugimendu Laburrena betez: Aren buruz buruko mugimenduak sortutako kateak duen Gutxieneko Eremua {[Espez, KMZ2], Subjektua, Objektua} denez, objektuaren jomuga, alegia, [Espez, KMZ2] eta subjektu guneak objektuaren distantziakideak dira; objektuak, beraz, [Espez, KMZ2] irits dezake, jomuga bera eta gurutzatzen duen subjektu gunea, jatorrizko objektu gunearen distantziakideak direlako.

Baina predikatu iragankorreko perpausak zehar objektua ere izan dezake aukeran, (4.ii) perpausak bezalaxe. (19)ra dakart berriro perpaus hura.

- (19) Nik Joni gutuna idatzi diot
 Ni-ERG Jon-DAT gut-ABS A 3₂/D-edun-3₃-1₁

Begiratu argumentuen hurrenkerari. (19) perpausean, zehar argumentudun predikatu iragankorreko perpausetan bezala, ERG-DAT-ABS da argumentuen hurrenkera ezmarkatua (de Rijk, 1969), eta '3₂-D-erroa-3₃-1₁', berriz, laguntzailearen morfema hurrenkera.

Goiko perpausa ezin erator daiteke Chomsky/Bobaljik hipotesiaz, KMZ1 eta KMZ2 buruak indarrean, *Joni* zehar objektuak ezin erka dezakeelako ez DATrik ezta 3₃-tasunik ere: *nik* predikatu iragankorreko subjektuak ERG zein 1₁-tasunik zilegizta ditzake [Espez, KMZ1] gunean, eta *gutuna* objektu zuzenak, bere aldetik, ABS nahiz 2₂-tasunik [Espez, KMZ2]n, baina zehar objektuak ez du irits dezakeen Espez gunerik eta, ondorioz, ezin zilegizta dezake 1₁-tasunik. Hori dela eta, (19) perpausa eratortzekotan, KMZ1 eta KMZ2 buruez gain, KMZ3 ere indartu behar da, zehar objektua [Espez, KMZ3]ra igo eta DAT nahiz 3₃-tasunik zilegiztatzeko bertan.


Funtzio buruak, bada, D, KMZ1, KMZ2 eta KMZ3 dirateke perpausean⁶, eta beheko burua KMZ2 delarik, bi hipotesi teoriko planteatu daiteke KMZ2'ren kokalekuaz. Batean, KMZ2 ASTik at ezar daiteke, gainerako KMZ buruak bezalaxe, eta bestean, AS azalaren (Larson, 1988) mendean. Bi hipotesiak proposatu dira dagoeneko eta Cheng & Demirdache (1990) lehenari lotu zaizkion bitartean, Collins & Thráinsson (1993), Koizumi (1993) eta López & Austin (1995) bigarrenari jarraitu zaizkio. Ondoko (20) azpiatalera dakartzat bi hipotesiak.

- (20)
- i. KMZ2'', KMZ3ren osagarri⁷
 - ii. KMZ2'', A1en osagarri

Lehenean KMZ2'', KMZ3ren osagarri gunean dukegu, hau da, AStik kanpo, eta bigarreanean, aldiz, AS azalaren barneko A1en osagarri gunean. Bietan, alabaina, KMZ2 da beheko KMZ burua.


AS azalean (Larson, 1988), bestalde, AS1ek A1 ixila du buru -e-, AS2, osagarri eta subjektua, Espez. AS2k, bere aldetik, A2 du buru, objektu zuzena osagarri eta zehar objektua, Espez. (21) azpiatalean ageri da AS azalaren egitura⁸.

(21)



Baina, ene aburuz, Larsonen AS azalaren baitan KMZ2 funtzio burua ere ezar daiteke, (22)an ikus daitekeen modura.


(22)



Goiko AS azalean (22) A1en osagarri gunean, AS2 barik (21), KMZ2'' ageri da, beheko KMZ buruaren islapen nagusia, alegia. Eta bada, ene antzera, AS azalaren barnean funtzio buruak ezarri dituen hizkuntzalaririk, Koizumi (1993) edota Travis (1991, 1992) besteak beste. Collins & Thráinssonek (1933), halaber, DS ezeze, KMZ2'' ere bereizi dute AS azalaren mendean, eta beraien ildoan, baita López & Austinek (1995)⁹ ere. Neronek KMZ2 burua baino ez dut ezarri AS azalaren baitan, D bereizi gabe.


Funtzio buruak AS azalaren baitan ere ezar daitezkeela onetsitakoan, gatozen berriro (20) hipotesietara. Hipotesietarik lehena, alegia, KMZ2'' KMZ3ren osagarri delako hipotesia (20.i), ondoren (23) ikus daiteke zuhaitz bidez. Adierazpen honetan, D'' KMZ1en osagarri dugu; KMZ3'', Drena; KMZ2'', KMZ3rena eta AS azala, azkenik, KMZ2rena.

(23)



Eta jarraian dakart (24) bigarren hipotesia, hau da, KMZ2'' A1en osagarri delakoa (20.ii). KMZ2 funtzio burua AS azalaren mendean ezarri dut, (22)an bezala, gainerako funtzio buruak AStik at utziz. Hipotesi honetan, (23)ri aitziz, AS1 da KMZ3ren osagarri eta KMZ2'', A1ena.


(22)



Goiko AS azalean (22) A1en osagarri gunean, AS2 barik (21), KMZ2'' ageri da, beheko KMZ buruaren islapen nagusia, alegia. Eta bada, ene antzera, AS azalaren barnean funtzio buruak ezarri dituen hizkuntzalaririk, Koizumi (1993) edota Travis (1991, 1992) besteak beste. Collins & Thráinssonek (1933), halaber, DS ezeze, KMZ2'' ere bereizi dute AS azalaren mendean, eta beraien ildoan, baita López & Austinek (1995)⁹ ere. Neronek KMZ2 burua baino ez dut ezarri AS azalaren baitan, D bereizi gabe.


Funtzio buruak AS azalaren baitan ere ezar daitezkeela onetsitakoan, gatozen berriro (20) hipotesietara. Hipotesietarik lehena, alegia, KMZ2'' KMZ3ren osagarri delako hipotesia (20.i), ondoren (23) ikus daiteke zuhaitz bidez. Adierazpen honetan, D'' KMZ1en osagarri dugu; KMZ3'', Drena; KMZ2'', KMZ3rena eta AS azala, azkenik, KMZ2rena.

(23)



Eta jarraian dakart (24) bigarren hipotesia, hau da, KMZ2'' A1en osagarri delakoa (20.ii). KMZ2 funtzio burua AS azalaren mendean ezarri dut, (22)an bezala, gainerako funtzio buruak AStik at utziz. Hipotesi honetan, (23)ri aitziz, AS1 da KMZ3ren osagarri eta KMZ2'', A1ena.


(24)



Bada, KMZ3 indarturik, bi hipotesi proposatu dut KMZ2''ren kokalekuaz, baina Mugimendu Laburrena Distantziakidetasunaren arabera definituz gero, bietarik (20.ii) baino ez da zilegi. Izan ere, zehar objektuak [Espez, KMZ3] gunea iritsiko badu, zehar objektuaren jatorriak, gurutzatzen duen gunek eta jomugak berak distantziakideak izan behar dute, eta (20.i) hipotesiaz ezin izan daitezke distantziakideak.


Dakusagun lehenik (20.i) hipotesia, KMZ2'' KMZ3ren osagarri dena, eta (23) adierazpenetik sortaraz daitekeen eratorpena (25). Eratorpen honetan, zehar objektuak ezin erka dezake DAT, iritsi behar duen jomuga, bere jatorriaren distantziakidea ez delako.

(25)




Dakargun goiko eratorpena atalez atal. Lehenik (1 mugimendua) A2k A1 iritsi du buruz buru, eta A1 e kategoria ixila denez, A2k e iritsirik, A2 bera dukegu A1 gunean. Ondoren A2 KMZ2ri adjunktatu zaio (2 mugimendua), $([_{kmz2} A2; KMZ2], t_i)$ katea eratuz, eta katea honen Gutxieneko Eremua $\{[Espez, KMZ2], [Espez, A1], [Espez, A2] \text{ eta } IS2\}$ denez, objektu zuzena $[Espez, KMZ2]$ ra igo daiteke hirugarrenik (3 mugimendua) Distantziakidetasuna urratu gabe. (26)an hiru mugimenduak ditugu ikusgai.

(26)



Hiru mugimenduen bidez, objektu zuzenak nahiz Ak ABS kasua erkatu dute. Gatozen orain DAT zilegiztatzeko bai zehar objektuak bai Ak berak bete behar duten mugimenduetara. A2 KMZ2ri adjuntatuz sorturiko [A2 KMZ2] buruak KMZ3 iritsiko du ondoren (4 mugimendua), baina zehar objektuak ezin irits dezake [Espez, KMZ3] gunea (*5 mugimendua), zeren eratu berri den katearen Gutxieneko Eremitik kanpo baitukegu [Espez, A2], hau da, zehar objektuaren jatorria bera, eta Distantziakidetasuna urratu ezik, zehar objektua ezin egon daiteke Gutxieneko Eremitik at. (27)ra dakartzat mugimendu hauek, azken bi mugimenduok, (26) eratorpeneko hirurekin batera.


(27)



Beraz, Distantziakidetasuna baldin bada Ekonomia Baldintza, KMZ2'' KMZ3ren osagarri deneko hipotesia ezin erabil daiteke, zehar objektuak [Espez, KMZ3] gunea iristerik ez duelako bera urratu gabe.

Gatozen orain (20.ii) hipotesira -KMZ2'' A1en osagarri-, Distantziakidetasuna urratu ezik, erabiliko dena. Ondora dakart mugimenduz mugimendu, (24) adierazpena abiaburu harturik, subjektuak, objektu zuzenak eta zehar objektuak, alde batetik, eta Ak zein funtzio buruek, bestetik, eratzen duten eratorpena (28). Eratorpen hau, (25) azpiatalekoari aitziz, zilegi da erkaketarako ematen den mugimendu bakoitzean.

(28)




A2 KMZ2ri adjunktatuko zaio lehenik (1 mugimendua), ($I_{kmz2} A2_i$ KMZ2], t_i) katea osatuz, eta katea honen Gutxieneko Eremua {[Espez, KMZ2], [Espez, A2], IS2} denez, IS2 [Espez, KMZ2] gunera igo daiteke IS3 gurutzatuz (2 mugimendua), bera, [Espez, KMZ] eta IS3 distantziakideak direlako.

[A2 KMZ2] buruak A1 iritsiko du ondoren (3 mugimendua), baina A1 kategoria ixila denez, [A2 KMZ2] burua bera dukegu e kategoria ixilaren ordeiz. Horregatik, [A2 KMZ2] burua KMZ3ri adjunktatzen zaionean (4 mugimendua), zehar objektua [Espez, KMZ3] gunera igo daiteke (5 mugimendua), Distantziakidetasuna urratu gabe¹⁰.

Izan ere, buruz buruko mugimenduak sortzen duen ($\{_{kmz3}$ KMZ2_i KMZ3], t_i) katearen Gutxieneko Eremuan hauexek dirateke, zehar objektuaren jatorria, alegia, [Espez, A2], gurutzatu behar duen [Espez, KMZ2] ezeze, [Espez, A1] ere, eta baita iritsi behar duen jomuga ere, hau da, [Espez, KMZ3]. Eta laurak Gutxieneko Eremuan dauden heinean, zehar objektuaren jatorria beste hiru Espez guneen distantziakidea da. (29)an ikus daitezke bost mugimenduak. Begira dakien (1) eta (3) mugimenduei: [A2 KMZ2] buru anizkuna bi gune ezberdinetan ageri da.

(29)



Horregatik, [A2 KMZ2] burua KMZ3ri adjunktatzen zaionean, ohikoa dena baino Espez gune bat gehiago du katearen Gutxieneko Eremuak. Halatan, zehar objektua [Espez KMZ3] gunera igo daiteke Mugimendu Laburrena betez.

(28) eratorpenean, azkenik, KMZ3, D eta KMZ1 buruei adjunktatutakoan (6 eta 7 mugimenduak), subjektua [Espez, KMZ1] gunera igoko da (8 mugimendua) bertan ERG nahiz ϕ 1-tasunak erkatuz.

Laburbilduz, KMZ3 indarrean zehar objektuak Mugimendu Laburrenaz erkatu behar badu l-tasunik, KMZ2'' AS azalean baino ezin ezar daiteke, AS azalaz katearen Gutxieneko Eremua ohiko hiru gunetatik lau gunetara hedatzen delako, zehar objektuaren igoera zilegiztatuz.

3.2.2 Pertsona-Kasuaren Muga

Aukerako zehar objektua eraman dezaketen predikatu iragankorrak izan ditut mintzagai goiko atalean, eta arestian erakutsi dudana bezala, KMZ3 indartuz gero, AS azalean ezarri behar da KMZ buruetarik bat, KMZ2, alegia. Baina mendeko KMZ2 buruak, gainontzeko bi buruek ez bezala, badu bete beharreko muga: bere Espez gunea iristen duen objektu zuzena ezin izan daiteke hirugarren pertsona baino. Edo bestela esanik, predikatu iragankorra zehar objektuarekin komunztatuz gero, objektu zuzenak hirugarren pertsona izan behar du halabeharrez. Boneten (1994) adibidea dugu (30) perpausa.

(30) *Lapurrek zuri ni saldu naizute

Predikatu iragankorreko perpaus honetan, zeinetan zehar objektua ere komunztatu den, objektu zuzenak duen pertsona ez da hirugarrena, lehena baizik. Hortik datorkio ezgramatikaltasuna perpausari. Eta euskaraz bezalakoxe kasuak aurki daitezke, esaterako, katalanez ere, Boneten beraren adibideak (31) erakusten

duen erara. Aintzat izan katalanez izenordain klitikoez adierazten dela komunztadura.

- (31) *Me li ha recomanat la senyora Bofill
 AK-1 DAT-3 gomendatu DET andre Bofill
 'Bofill andreak ni gomendatu nau berari'

lido honetan, Bonetek (1994) *Pertsona-Kasuaren Mugaz* (32) dioenez, A zehar objektuarekin komunztatuz gero, objektu zuzenak hirugarren pertsona izan behar du ezinbestez, hau da, ezin izan daiteke ez lehen pertsona ez bigarrena¹¹.

- (32) *Pertsona-Kasuaren Muga*
 Baldin DAT, orduan AK/ABS-3 pertsona¹²

Dakardan Boneten *Muga*, ñabardura batez adierazirik (33).

- (33) *Pertsona-Kasuaren Muga*
 Baldin ϕ 3-tasunik, orduan ϕ 2-tasuna-3 pertsona

Mugaren (33) formulazioaz zera adierazi nahi dut, zehar objektudun argumentua komunztatuz gero, objektu zuzenak hirugarren pertsona izan behar duela. Boneten formulazioko DAT eta AK/ABS kasuen ordeaz, ϕ 3 eta ϕ 2-tasunak darabiltzat (33)an, Muga, batez ere, komunztadurak berak jasaten duelako, ez zehar objektuek edota dagozkien kasuek. Gonbaratu (34) perpausa (30) perpausarekin.

- (34) ?Lapurrek ni saldu naute zuri

Goiko perpausean (34) A zehar objektuarekin komunztatu ez bada ere, edo bestela esanik, ϕ 3-tasunik erkatu ez badu ere, DATdun zehar objektua ageri da, eta ez dirudi (30) bezain ezgramatikala denik.

Agian Pertsona-Kasuaren Mugaz ezeze, zehar objektuak jasan dezakeen ϕ 3-komunztadura galeraz azal liteke (34). Nolanahi ere, (33) ez da funtsezko formulazioa.

Badirudi, beraz, zehar objektua komunztatuz gero, objektu zuzenak hirugarren pertsona izan behar duela, baina bada salbuespenik, Leizarragarengan, hain zuzen, eta Azkuek (1969) dakar etsenpluetarik zenbait (35) bere itzulpenarekin batera. Adizkiotan hiru argumentuak komunztaturik ere, objektu zuzena bigarren pertsona da (35.i) perpausean eta lehena (35.ii) perpausean.

- (35) i. Redimitu garauzkak Jainkoari eure odolaz
'nos has redimido a Dios con tu sangre'
- ii. Ni hiri libratu naraunak
'el que me ha entregado a ti'

Salbuespenak salbuespen, ezin uka daiteke euskaraz predikatu iragankorreko perpausetan Muga betetzen denik. Predikatu ezakusatibokoetan, alabaina, ez dirudi Muga indarrean dagoenik. Dakusagun (36) perpausean.

- (36) Hi niri etorri hatzait
 hi-ABS ni-DAT etorri $2_{\phi 2}$ -izan- $1_{\phi 3}$

Goiko perpausean (36) *niri* zehar objektua ϕ 3-tasunez komunztatu bada ere, *izan* laguntzailea *hi* ABSz markaturiko argumentuarekin ere komunztatu da ϕ 2-tasunen bidez. Baina badira Muga predikatu iragankor nahiz iragangaitzetan jasaten duten hizkuntza ergatiboak, hegoaldeko tiwera (Rosen, 1990), kasurako. Begiratu (37) perpausari.

- (37) *...wan-ban
 2 ϕ 2 1 ϕ 3-etorri-irag
 'Zu niri etorri zintzaizkidan'

Predikatu ezakusatiboko perpaus honetan (37), (36)an ez bezala, zehar objektua komunztatu denez, ϕ 2 komunztadura eragotzi da, ezgramatikaltasuna sortuz.

Boneten Muga, bestalde, INFLrekin harremanetan dauden elementuek jasaten dutenez (Bonet, 1991, 1994), Murasugik (1994) *Tasun Zehaztapenaren Mugaren* azpisailtza hartu du. (38)ra dakart Murasugiren Muga.

- (38) *Tasun Zehaztapenaren Muga*
 Goiko KMZ buruaren tasunak beheko KMZ
 buruarenak baino zehaztuagoak izan behar dute ala
 beraiek bezain zehaztuak¹³


Izan ere, hizkuntza askotan hirugarren pertsona ez da lehen edota bigarren pertsona bezain zehaztua morfologikoki -ezta KMZ buru bakarra indartzen denean ere-, eta hirugarren pertsonak batzutan ez du adierazpen morfologikorik -marikopaz (Gordon, 1986) edota lummieraz (Jelinek, 1993), besteak beste-. Beraz, KMZ3 eta KMZ2 buruetan zehaztugabeena behekoa denez, badirudi Boneten Muga Murasugirenaren arabera interpreta daitekeela¹⁴. Eta euskaraz ere, hirugarren pertsonak adierazpen morfologikorik ez duenez (Oregi, 1974; Trask, 1977; Euskaltzaindia, 1987 b; Laka, 1988; Gomez & Sainz, 1995), Pertsona-kasuaren Muga ezeze, Tasun Zehaztapenarena ere betetzen dela esan daiteke.

3.3 EZAKUSATIBOAK, AS AZALA ETA KMZ3

Euskaraz ezakusatiboak edota *mintzatu* erako ezergatiboak -ikus (2.2.1)- dira ABS saileko predikatuak, eta gorago (3.1.1) esan dudan bezala, beraiek ere izan dezakete aukerako zehar objektua. KMZ3 burua neritzan DAT nahiz ϕ 3-tasunak erkatzeko KMZri eta buru hori ABS saileko predikatuetan ere indar daiteke aukeran. Indartu ezik, KMZ2 soilik dukegu indarrean eta ABS nahiz ϕ 2-tasunak egotziko dira, baina indartuz gero, DAT zein ϕ 3-tasunak ere erkatuko dira.

Gatozen adibideetara. (3) predikatu ezakusatiboko perpausa genuen. Dakusagun berriro (39.i), dagokion eratorpenarekin batera (39.ii).

- (39) i. Ni joan naiz
 Ni-ABS joan $1_{\phi 2}$ -izan
 ii.



Goiko eratorpenean (39.ii), zeinetan KMZ2 burua soilik indartu den, A KMZ2 buruari adjunktatu zaio eta horren ondotik, subjektuak [Espez, KMZ2] iritsi du, bertan ABS nahiz ϕ 2-tasunak zilegiztatuz. A, bere aldetik, Dri adjunktatu zaio azkenean¹⁵.

Joan ezakusatiboak, halaber, zehar objektua izan dezake aukeran, eta izanez gero, bi KMZ buru indartu behar da, KMZ2 eta

KMZ3, subjektuak eta zehar objektuak Espez gunen bana iristeko. Gatozen orain (40) perpausera -(3.ii) bera- eta beha diezaiogun argumentuen hurrenkerari: Subjektua-Zehar Objektua, hau da, ABS-DAT hurrenkerari lotu zaizkio bi argumentuak.

(40)	Ni	Joni	joan	natzaio
	Ni-ABS	Joni-DAT	joan	1 _{φ2} -izan-3 _{φ3}

Baita *mintzatu* ezergatiboko (41) perpausean ere.

(41)	Ni	Joni	mintzatu	natzaio
	Ni-ABS	Joni-DAT	mintzatu	1 _{φ2} -izan-3 _{φ3}


Baina bi perpausetan A KMZ2ri adjunktatu behar bazaio lehenik eta KMZ3ri ondoren, zehar objektua subjektua bera baino gorago helduko da eta DAT-ABS hurrenkeraz eratorriko dira bi perpausak (42), alegia, zehar objektudun predikatu iragankorreko perpausetan aurkitzen den hurrenkera ezmarkatua bera.

(42)	i.	* Joni ni joan natzaio
	ii.	* Joni ni mintzatu natzaio

Goiko bi perpausak (42), hurrenkera ezmarkatuari dagokionean, ezgramatikalak direnez, subjektuak [Espez, KMZ2] gunera igo eta gero, zehar objektua baino gorago dagoen beste Espez iritsi behar du bi perpausen ABS-DAT hurrenkera eratortzeko. Ildo honetan, bat nator Zabalaekin (1995), predikatuotan, subjektuak [Espez, KMZ2] gunera iritsi eta gero, [Espez, D] iritsi behar duela dioenean. Zabalaen iritziz, subjektuak [Espez, D] gunean erkatzen duen l-tasuna [+kontrolatzaile] tasuna da, egiletasun edota hierarkia tematikoarekin zerikusia izan dezakeena¹⁶. Oro har, bada, argumentuaren subjektutasunari egotz dakioke [Espez, D] gunerako igoera (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993; Bobaljik & Carnie, 1992).

Bestalde, aukerako KMZ3 indarrean, KMZ2 burua AStik at nahiz AS azalaren barnean ezar daiteke, predikatu iragankorretan bezala. Bada, bi hipotesietatik lehenari lotuko natzaio, (40) eta (41) perpausei dagokien (43) eratorpenean KMZ2'' KMZ3ren osagarri gunean ezarriz.

(43)



Goiko eratorpenean (43), A KMZ2ri adjunktatu zaio eta IS2 [Espez, KMZ2]ra igo da, bertan ABS nahiz ϕ 2-tasunak zilegiztatuz. A KMZ3ri adjunktatu zaio ondoren eta zehar objektuak DAT zein ϕ 3-tasunak erkatuko ditu [Espez, KMZ3]n. Baina, A Dri adjunktatutakoan, subjektuak [Espez, D] iritsi du azkenean.


Dena den, badira DAT-ABS hurrenkera ezmarkatuari jarraitzen zaizkion predikatu iragangaitzak¹⁷. Dakusagun Zabalaren (44)

perpauza, (40) edota (41) perpausak ez bezala, DAT-ABS hurrenkeraz eratu dena.

- (44) Mireni haurra erori zaio
 Miren-DAT haur-ABS mintzatu 3_{ϕ2}-izan-3_{ϕ3}

Goiko perpausean, *haurra* argumentuak [Espez, KMZ2] gunea iritsiz ase dezake bere l-tasun oro, jarraian (45) ikus daitekeen erara. (45)an KMZ2'' KMZ3ren osagarri gunean ageri da berriro ere.

(45)




Mireni zehar objektua, bere aldetik, [Espez, KMZ3]ra igoko da, *haurra* bera baino gorago kokatuz eta DAT-ABS hurrenkera duen perpauz gramatikala eratorriz. Dena den, aintzat izan, argumentuak DAT-ABS hurrenkerari loturik ere, adizkian 'ϕ2-erroa-ϕ3' morfema hurrenkera dugula (40) nahiz (44) perpausetan, hau da, ϕ2-tasunak erkatzen direla lehenik eta ϕ3-tasunak ondoren.

Bestalde, KMZ2'' KMZ3 buruaren osagarri gunean ezarri arren, ez da Distantziakidetasuna (Chomsky, 1993) urratzen ez (45) ezta (43) eratorpenean ere. IS2 KMZ2ren Espez gunera igo daiteke, A KMZ2 buruari adjunktatu eta gero osatzen den katearen Gutxieneko Eremu berean daudelako IS2ren jatorria, gurutzatzen duen Espez gunea eta baita iristen duen [Espez, KMZ2] gunea ere. IS3k, bere aldetik, [Espez, KMZ3] gunea irits dezake, [Espez, KMZ2] gunea gurutzatuz, IS3 bera, gurutzatzen duen Espez gunea eta iristen duena ere, KMZ2 KMZ3ri adjuntatu ondoko katearen Gutxieneko Eremu berekoak direlako. Izan ere, predikatu iragankorreko perpausen antzera, bi KMZ buru indarrean dagoelarik, bidezidorrak gurutzatu egiten dira.

Baina KMZ3 indarrean, KMZ2 Astik at ezeze, AS azalaren baitan ere ezar daiteke predikatu iragankorretan bezala. Ildo honetan, (46) eratorpena ere egoki dakioke (40) perpausari. (46)an, (43)an ez bezala, A1 en osagarri gunean ageri da KMZ2''.

(46)




Begiratu subjektuaren eta zehar objektuaren jatorriari AS azalean. Predikatu ezakusatiboko subjektua beheko A2ren osagarri gunean sortu da, predikatu iragankorreko objektuen antzera, eta zehar objektua, beheko Aren Espez gunean¹⁸.

Goiko eratorpenean (46), halaber, subjektuak [Espez, KMZ2] gunean ABS nahiz ϕ 2-tasunak erkatu eta gero, [Espez, D] iritsi du, zehar objektua igo den [Espez, KMZ3] gunea bera baino gorago kokatuz eta ABS-DAT hurrenkera sortaraziz.

Eta (44) perpausari (47) eratorpena eman dakioke, non subjektuak AS azalean dirauen bere mendeko KMZ2ren Espez

gunean, eta zehar objektuak, bere aldetik, AS azala baino gorago dagoen [Espez, KMZ3] iristen duen, DAT-ABS hurrenkera eratorriz¹⁹.

(47)




Bada, predikatu ezakusatiboko perpausetan, predikatu iragankorrekoetan ez bezala, KMZ3 indartuz gero, KMZ2 burua AStik kanpo kokatzea zilegi da zeren, bi buru, alegia, KMZ2 eta KMZ3 buruak indartzen badira, ezin urra baitaiteke Distantziakidetasuna. Horregatik, ez dirudi Ekonomia Hatsarreez balia daitekeenik hipotesi hau arbuiatzeko. Baina bada, ene aburuz, KMZ2 burua AS azalaren baitan ezartzeko irizpiderik. Lehenik eta behin, zehar objektua izan dezaketen predikatu iragankor nahiz iragangaitzen gaineko hipotesiak batera daitezke, eta bigarrenik, AS azalaren bitartez aise azal daiteke zergatik duen Ak egiturazko bi kasu.

Izan ere, Collins & Thrainssonek (1993) Objektu Bikoitzeko Egiturak darabiltzatenean, *give* 'eman' bezalako predikatu ditransitiboak bi burutan bereizten dute, *kausatiboa* (KAUS) burua (A1) eta *have* 'edun'/be 'izan' (A2), eta *have*/be A2 buruen arabera bi egitura ezberdin egozten diete oinarrian. Bata, mendeko *have* A2 duena, Objektu Bikoitzeko Egiturretan aurki daiteke, eta bestea, mendeko *be* A2 duena, berriz, Preposizio Sintagma (PS) duten ditransitiboetan. Dakusagun Objektu Bikoitzeko Egitura (48.i) perpausean eta *give* predikatu ditransitiboak oinarrian duen egitura (48.ii) perpaus honetan.

- (48) i. John gave Mary a letter
 John-NOM eman Mary-DAT gutun-AK
 'Jonek Maryri gutuna eman zion'


ii.



Goiko egituran, *have* A2k egiturazko kasuetarik bat ezar dezakeenez, mendeko KMZ2 indartzen da, objektu zuzenak [Espez, KMZ2]n AK zilegizta dezakeelarik. Eta PSdun ditransitiboa dugu (49.i) perpausa, (49.ii) egiturari dagokiona.

- (49) i. John gave a letter to Mary
 John-NOM eman gutun-AK P-Mary
 'Jonesek Maryri gutuna eman zion'

ii.



Baina egitura honen (49.ii) oinarrian *be* ageri denez eta *be* A2k egiturazko kasurik ezar ezin dezakeenez, zehar objektuak ezin erkatuko du kasurik mendeko KMZ2 buruarekin batera, eta horregatik, gorago dagoen KMZ burua iritsi beharko du ondoren.

Collins & Thráinssonen ildoan, aukerako zehar argumentua izan dezaketen predikatuei, *idatzi* predikatuari, kasurako, bi buru egotz lekieke a burua (A1) batetik eta *idatzi*₁ edota *idatzi*₂ buruak (A2) bestetik. *Idatzi*₁ A2 burua oinarrian izanez gero, mendeko KMZ2 indartu eta objektu zuzenak bertan erkatuko luke ABS, ondoren zehar objektuak goiko KMZ buruarekin batera DAT erka lezakeelarik, baina *idatzi*₂ A2 burua balu oinarrian, mendeko KMZ2 indarge geldituko litzateke eta objektu zuzenak gorago dagoen KMZ burua iritsiko luke.

Aintzat izan Collins & Thráinssonen hipotesiarekin bat etorritz haxe azal daitekeela, batetik, Ak zergatik ezar dezakeen egiturazko

bi kasu, eta bestetik, noiz indar eta noiz indarge daitekeen mendeko KMZ2 burua. Guzti honengatik, ene aburuz, ABS saileko predikatueta KMZ3 indartuz gero, KMZ2 burua ezin ezar daiteke AS azalaren mendean baino.

Laburbilduz, predikatu ezakusatibo nahiz *mintzatu* erako ezerगतiboetan, zehar objekturik egonik, KMZ2 ezeze, KMZ3 burua ere indartuko bada, KMZ2 burua AS azalaren A1en osagarri gunean ezarri behar da predikatu iragankorreko perpausetan bezalaxe. Predikatu hauek, bestalde, ABS-DAT nahiz DAT-ABS hurrenkera ezmarkatuei lotzen zaizkienez, ABSz markaturiko argumentuak [Espez, KMZ2] ezeze, [Espez, D] ere iritsiko du lehenean, eta bigarreanean, [Espez, KMZ2] baino ez.

3.4 ϕ 3-KOMUNZTADURARIK EZA ETA DAT EZKANONIKOEZ

Ez nuke DATren inguruko hausnarketa amaitu nahi, ϕ 3-komunztadurarik eza aipatu gabe. Kapituluari zehar, DAT egiturazko kasutzat hartu dut, [Espez, KMZ3] gunean zilegiztatu behar dela proposatuz, zehar objektua ere adizkian komunztatzen delako ϕ 3-tasunen bitartez. Baina bada euskaraz zehar objektua, subjektu eta objektu zuzenetik bereizten duenik, alegia, ϕ 3-komunztadura urratzeko joera dago, ϕ 1 zein ϕ 2-komunztadura sekulan urra ezin daitekeen bitartean.

Euskaltzaindiak (1985) dioenez, *-i* DAT kasudun IS agerian ez dagoenean, nekez galduko da zehar objektuaren komunztadura, baina errazago gal daiteke IS agerian egonez gero, (50) perpausuan kasurako *-ikus* baita Salaburu (1984)-.

(50) Beste herrialdekoer eskatzen zuen orduan

Ortiz de Urbinaren (1995) aburuz, bestalde, maizago urratzen da f3-komunztadura ekialdeko euskalkietan, mendebaldekoetan baino²⁰. Eta komunztatzen ez diren zehar objektuak, gainera, ezkanonikoak izan ohi dira, baldin eta errol tematiko prototipikoa helburua edota jasalea bada (Hualde & Ortiz de Urbina, 1987). Ortiz de Urbinak ondoko hiru azpisailak (51) bereizi ditu DAT ezkanonikoetan.

- (51)
- i. Ekintza DAT (*bermatu, ausartu, jo, lothu*)
 - ii. Zehar DAT (*ohartu*)
 - iii. Kasu bitxia (*jarraiki, jarraitu eta begiratu*)

Ekintza DAT, lehenik, ekintza adierazten dutenak; zehar DAT, bigarrenik, zehar kasuen ordeztarabiltzen dena, Instrumentalaren ordeztara, esaterako; eta kasu bitxia, hirugarrenik, *gaia* den zehar objektua markatzen duena. Ondora (52) dakart bina adibide.

- (52)
- i. Ni ez naiz ausartzen lan horri
 - ii. Lot zaitez lanari lehen bai lehen
 - iii. Ez da horri ohartu
 - iv. Sinesten dut Jainko bati
 - v. Ongi begiratzen badugu gure bizi moldeari
 - vi. Ene solasari jarraik zaite

Ez dut DAT hauezaz behin behineko hipotesia aipatzeko asmoa baino, egiturazko DATtzat jo ez daitezen. Ene aburuz, DAT hauek ez dira KMZren Espez gunean zilegiztatzen, PSren baitan baino. Hualdek (1986) ere, postposiziotzat hartu ditu DATok, beraien gobernupeko lSei zehar kasua ezartzeko gai direnak. Esateke dago kasu hori buruz buru zilegiztatzen den ala ez.

3.5 ONDORIOAK

Kapitulu honetan zehar, egiturazko kasua iritzi diot DATri. Predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko perpausetan aukerako zehar objektua ere ager daitekeenez, KMZ3 burua ere indar daitekeela erakutsi dut, DAT eta ϕ 3-tasunak [Espez, KMZ3] gunean zilegiztatzen direlarik. Nolanahi ere, DAT ez da nahitaezko kasua, aukerakoa baino, zehar objektua bera ere aukeran azal daitekeelako perpausetan.

Bestalde, predikatu iragankorreko perpausetan hiru KMZ buruak indarrean, buruetarik bat, alegia, KMZ2 AS azalaren mendean ezarri behar da, Mugimendu Laburren Distantziakidetasunaz definiturik, bederen. Distantziakidetasunaz baliatu ezik, KMZ2 burua ere, ASTik at ezar liteke. Predikatu ezakusatiboetan ez da Distantziakidetasuna urratzen, ezta KMZ2 burua ASTik kanpo ezarririk ere, azken batean, bi KMZ buru baino ez ez baita indartu behar.

Zehar objektudun predikatu ezakusatiboetan, halaber, bi hurrenkera ezberdin daiteke, bata DAT-ABS, predikatu iragankorreko perpausari dagokien bera, eta ABS-DAT bestea, bigarren honetan, IS2 [Espez, KMZ2] gunera igo ondoren, [Espez, D] gunera jotzen duena.

Badirudi, azkenik, [Espez, KMZ3] gunean ezeze, PSren baitan ere zilegizta daitekeela DAT, zehar kasua bailitzan, honelaxe azaltzen delarik zehar objektuen komunztadura galera.

OHARRAK

¹ AS *azalaz* (Larson, 1988) nahiz AS *erdibituaz -split VP-* (Koizumi, 1993; Murusugi, 1994) mintza badaiteke ere, Larsonen esapidea baino ez dut erabiliko tesian zehar.

² A1 'lehen aditza' irakur daiteke eta A2, berriz, 'bigarren aditza'.

³ ABS, ABS-DAT eta ABS-DAT-ERG darabiltzat, oro har, euskalariak hurrenez hurren darabiltzaten NOR, NOR-NORI edota NOR-NORI-NORK deituren ordeez.

⁴ Badira, alabaina, zehar objektua azalduz ere, ϕ 3-tasunak komunizatzen ez diren perpaus gramatikalak ikus (3.4) atala-.

⁵ Aukerako Kasuaren Parametroak ez ditu hizkuntza nom/akusatiboak ergatiboetatik bereizten: hizkuntza nom/akusatiboetan KMZ3 indartzen bada, DAT erkatuko da hizkuntza ergatiboetan bezalaxe. Baina Aukerako Kasuaren Parametroa, Nahitaezko Kasuaren Parametroari (Bobaljik, 1992b, 1993) lotu dakioke, zeren aukerako KMZ3 indartu eta DAT [Espez, KMZ3] gunean zilegiztatuko bada, nahitaezko kasua erkatu behar baita sistema batean nahiz bestean, alegia, NOM sistema nom/akusatiboan eta ABS ergatiboan.

⁶ Euskalarien artean ez dut uste inork INFLn hiru KMZ buru bereizi duenik, Hualdek (1986) berak baino lehenago.

⁷ López & Austinek (1995), neuk ez bezala, KMZ3 deritzate AS azalaren mendeko KMZ buruari eta KMZ2, AS tik at dagoenari, baina [Espez, KMZ3] gunean ABS erkatzen da eta [Espez, KMZ2]n, berriz, DAT. Hortaz, deitura ezberdinarengatik ere, behean dagoen KMZren Espez gunea da objektu zuzenak l-tasunak erkatzeko iristen duena beraien proposamenean nahiz nirean. Gogoan izan, KMZ buruak ezin bereiz daitezkeela adjunktatzen zaizkien buruen arabera baino.

⁸ Larsonen (1988) AS azala ñabardura batez bereiz daiteke egitura honetatik: Larsonek A2ren osagarri gunean dakar zehar objektua eta Espez gunean, berriz, objektu zuzena.

⁹ López & Austinek (1995), predikatu ezergatiboko subjektuei ERG ezar diezaiaketen sistema ergatiboak dituzte mintzagai, euskara edota georgiera, besteak beste. Bobaljiken (1993) Nahitaezko Kasuaren Parametroa arbuiaitu eta *Komunztadura Ezmarkatuaren Parametroa* proposatu dute, f-tasunak nahitaez erkatu behar direlako hatsarretik abiatuz. Aintzat izan bedi bi autore hauentzat kasua f-tasunetarik bat dela, Lópezentzat (1995) bezala. Dakusagun jarraian beraien parametroa.

- i. *Komunztadura Ezmarkatuaren Parametroa*
KMZ buruetarik bat ezmarkatua da

Parametro honen bitartez, predikatu iragangaitz ororen subjektuak KMZ ezmarkatuaren Espez iritsi behar du egiturazko kasua erkatzekotan, baina iritsi ezin balu, eratorpenak ez luke huts egingo, beste Espez gune batetara igo bailiteke.

Honelaxe, bada, hiru eratako hizkuntzak bereizi dituzte, Collins & Thráinssonen (1993) perpaus egitura unibertsaltzat harturik, alegia, KMZ1, KMZ2 eta KMZ3 hizkuntzak. KMZ1 hizkuntzetan, alegia, nom/akusatiboetan, KMZ1 da buru ezmarkatua, eta horregatik, NOM kasua erkatzen du predikatu iragangaitzeko subjektuak; KMZ2 hizkuntzetan, hots, hizkuntza ergatibo kanonikoetan -inuitera kasurako- KMZ2 da buru ezmarkatua, ABS delarik zilegiztatzen den kasua, azkenik, KMZ3 hizkuntzetan, hau da, euskara bezalako hizkuntza ergatiboetan KMZ3 da buru ezmarkatua, predikatu iragangaitzeko subjektuak NOM ezeze, ERG ere zilegizta dezakeelarik.

Pentsa bedi AS azala erabiliz, bi subjektu gune bereiz dezaketela oinarrian, alegia, A1 eta A2ren Espez guneak. Beheren dagoen Aren Espez gunean izango dute jatorria predikatu iragankorreko objektuek nahiz predikatu ezakusatiboko subjektuek, eta KMZ3ren Espez intirik, ABS erkatuko dute; eta goren dagoen Aren Espez gunean sortuko dira, aldiz, predikatu iragankorreko eta ezergatiboko subjektuek, gorago dagoen KMZ1 gunera igo eta ERG zilegiztatuko dutenak.

López & Austinen (1995) hipotesiari benetan interesgarri deritzat bere osotasunean, zehar argumentuak egiturazko DAT [Espez, KMZ] gunean erkatu eta horren arabera bereizkuntzak azal ditzakeelako hizkuntzen artean, baina, ene aburuz, ERG erka dezaketen predikatu ezergatiboen gaineko hipotesiak, ezberdintasunengatik ere, nirearekin bat egin dezake Hale & Keyser (1993), Bobaljik (1993) edota Lakaren (1993) ildoan, Collins & Thráinsson (1993) unibertsaltzat hartu gabe. Azken batean, López & Austinentzat ere, I + *egin* ezergatiboek objektua inkorporatzen dute, ingelesez ematen den aurkezpen maila berean inkorporatzen ez duten arren: bi autoreek diotenez, I + *egin* ezergatiboak *geroago* inkorporatzen dute objektua, ingelesez baino. Nolanahi ere, Chomsky/Bobaljiken hipotesiaren alternatiba egoki eta osoa da, ene iritziz, López & Austinena.

¹⁰Rikardo Gomezek ohartarazi ninduen honetaz, *Datiboaz* izeneko mintegian (Hizkuntzalaritza Mintegia, Deustu, 1995-2-24). Eskerrik asko, bada, berari eta baita gainerako mintegikideei ere.

¹¹Bonetek (1994) dioenez, Pertsona-Kasuaren Muga euskaraz edota katalanez ezeze, georgieraz, italieraz, gazteleraz, frantsesez, ingelesez, grekera modernoaz, arabieraz, warlpirieraz eta hegoaldeko tiweraz ere ageri da.

¹²Bonetek (1994) Pertsona-Kasuaren Muga (32), Boneten (1991) **Me lúi/hl Muga* deritzanaren bertsio *sendoa* da. Jarraian (i.) dakart (1991)koa, biak gonbara daitezten.

i. *Me lui/Hi Muga

Objektu zuzena eta zehar objektua elkarturik (klitiko nahiz komuntadura), bietarik bat hirugarren pertsona bada, objektu zuzena izan behar du

¹³Murasugik (1994) honelaxe (ii.) dakarkigu hitzez hitz Tasun Zehaztapenaren Muga.

ii. *Feature Specification Constraint (FSC)*

The features of a lower Agreement (Agr) must be less specified than, or as equally specified as, the features of a higher Agr

Begira bekio *'lower Agr must be less specified than...'* dioen gonbaraziozko perpausari. Itzulpenean, *lower Agr* 'beheko KMZ' gonbaragaia *higher Agr* 'goiko KMZ'z aldatu eta honelaxe itzuli dut gainerakoa, *beheko KMZ buruarenak baino zehaztuagoak izan behar dute*. Aintzat izan, beraz, jatorrizko testuaren formulazioa.

Murasugiren Mugarako, ikus baita laugarren kapituluko (14) oharra, goiko KMZ buruez, hau da, KMZ1 eta KMZ2 buruez diharduena..

¹⁴Eta Murasugik (1994) dioenez, Collins & Thráinssonek (1993) l-tasunen sendotasunaz formulatutako *I/II Muga* ere, bere Mugaren arabera interpreta daiteke. Jarraian (iv.) ikus daiteke bi autoreena.

iii. *I/II Muga*

A-egituran, KMZ3k KMZ2 bezain zehaztua izan behar du, bederen, pertsona eta tasunen sendotasunean

Izan ere, tasun sendoei zehaztu baderitzegu eta tasun ahulei, berriz, zehaztugabe, Collins & Thráinssonek beraiek iritzi dieten bezala, beheko KMZ buruarenak dirateke zehaztugabeenak.

Gogan izan, Collins & Thráinssonek islandieraren Objektuaren Destokitzea dutela aztergai, eta islandieraz objektu zuzenak destokitzea jasaten duen bitartean, zehar objektuak *in situ* badirau, perpaus ezgramatikala eratzen dela. Eta Objektuaren Destokitzea Ahoskatu aurretik gerta dadin, KMZ buruaren l-tasunek sendoak izan behar dutela aintzat hartzen bada, KMZ2 buruaren tasunek KMZ3 buruarenek baino ahulago izan behar dute ezinbestez. Ildo honetan, beraz, l-tasunen sendotasuna ere azal daiteke Murasugiren Mugaz.

¹⁵Hauxe pentsa liteke, halaber, IS [Espez, KMZ2] gunera igo ondoren, [Espez, D] gunera mugitzen dela predikatu ezakusatiboko perpausetan, Islapen Hatsarre Zabaldia betez (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993; Bobaljik & Carnie, 1992) -ikus (1.2.3) atala-.

¹⁶Zabalak (1995) dioenez, Uztarduraren datuak erabil daitezke subjektuak ABS-DAT hurrenkerako perpausetan [Espez, D] gunea iristen duela erakusteko.

Oyarçabalek (1990) ere antzeko datuak darabiltza ABS-DAT hurrenkerako ezakusatiboez diharduenean. Gonbaratu (iv.) perpausak.

- iv. i. Haurrak elkarri hurbildu zaizkio
- ii.*Elkar haurrei mintzatu zaie

Goiko (iv.i) perpauseko ABS argumentuak DAT anafora uztartzen du baina (iv.ii) perpauseko DAT argumentuak, aldiz, ezin uztar dezake ABS anafora.

Zabalak dioenez, gainera, kontrol infinitiboa deritzenetan, [+kontrolatzaile] tasuna izanik, [Espez, D] gunea irits dezaketen argumentuak bakarrik izan daitezke kontrolatuak, ondoko (v.) perpausetan ikus daitekeen bezala.

- v. i. *Semeari ahaztu zaio [e; Mireni Ameriketara joatea]
- ii.*Haurrari ahaztu zaio [Mireni e; erortzea]
- iii. Mireni ahaztu zaio [e; haurrari mintzatzea]

Goiko perpausetatik (v.iii) baino ez da zilegi, DAT baino gorago dagoen ABS bakarrik izan daitekeelako kontrolatua.

¹⁷Igone Zabalak eta Juan Karlos Odriozolak ohartarazi ninduten honetaz. Eskerrik asko, beraz, biei.

¹⁸*Mintzatu* ezergatiboko perpausari (41), alabaina, (46) eratorpena egotz lekiok e soilik, subjektua, predikatu ezakusatibokoaren antzera, beheko A2ren Espez gunean sortuko balitz, zeren A1en Espez gunean sor tuko balitz, ezin zilegizta bailezake ABS, beheago dagoen KMZ2ren Espez gunean.

¹⁹Aukerako zehar objektudun predikatu iragangaitzei emandako (46) edota (47) eratorpenez, halabeharrezko zehar objektudun perpausak ere azal litezke, nahiz eta, orduan, azaltzeke geldituko litzatekeen zehar objektuaren ezinbestekotasuna.

²⁰Nolanahi ere, zehar objektuaren komunztadura galera zehatz-mehatz deskribatu behar da, mendealdeko euskalkietan duen hedapenaren berri izateko (ikus Amundarain (1991), alokutiboetarako-).

4. Ergatibotasun Erdibitua, I-tasunen Erkabide Erdibitua

4.0 ATARIAN

Kasu Teoriari (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993) jarraiki, argumentuek [Espez, KMZ] gunea iristen dute I-tasunak erkatzeko, eta Espez gunen horretan bertan erka ditzakete kasua nahiz ϕ -tasunak. Ildo honetan, euskara sistema ergatiboari lotzen zaio, predikatu iragangaitzeko perpausetan KMZ2 indarturik, bai ABS bai ϕ 2-tasunak erkatzen direlako [Espez, KMZ2] gunean. Predikatu iragankorreko perpausetan, bestalde, ERG nahiz ϕ 1-tasunak zilegiztatzen dira [Espez, KMZ1] gunean eta ABS zein ϕ 2-tasunak, [Espez, KMZ2]_n, sistema nom/akusatiboetan bezalaxe.

Baina I-tasunak ezin erka daitezke beti Espez gunen berean eta orduan, argumentuak bi Espez gunetara jotzen du, ϕ -tasunak zilegiztatuz batetik eta kasua bestetik -baita King (1994), López (1995) edota Lyle (1996) ere-. Deritzagun honi *I-tasunen Erkabide Erdibitua*, euskaraz subjektuak jasaten duena predikatu

iragankorreko perpausetan, baldin eta D iragan nahiz Alegiazkoa bada, alegia, D [+iragan] bada, eta subjektua lehen edo bigarren pertsona den bitartean, objektua hirugarren pertsona bada. Edo bestela esanik, [+iragan] Dko aurkako [+/-pertsona] tasunetan datza I-tasunen erkaketaren erdibiketa. Erkabide erdibituko perpausak dira, esaterako, *nik hura gogoratu nuen*, non *gogoratu* predikatu iragankorraren D iragana izateaz gain, subjektua lehen pertsona den eta objektua, berriz, hirugarrena.

Erkabide Erdibitua jasaten duten adizkiak era ezberdinetara azaldu dituzte euskal gramatikariek. Antipasibatzea iritzi zaio (Heath, 1976), eta sistema ergatiboek erakusten duten *Ergatibotasun Erdibituarekin* (Silverstein, 1977; Dixon, 1979, 1994) ere lotu izan da (Trask, 1977; Ortiz de Urbina, 1986), ohiko erdibiketa ez badirudi ere (Trask, 1979; Ortiz de Urbina, 1986). *Ergatiboaren Lekualdaketa* (Laka, 1988) eman da, azkenik, datuon inguruko azalpenik garatuena, baina Lakak (1988) ez bezala, tasun morfologikoez sortarazten dituzten eratorpen sintaktiko berezituak erreparatuko diet Erkabide Erdibituaz, adizkien baitako morfemen eraketa eta hurrenkera bera ere, syntaxian isla eta azal daitekeela erakutsiz. Era berean, *erdibiketa uztartu* vs. *askeari* (Dixon, 1994) loturik dator I-tasunen ezohiko erkabide hau.

I-tasunen erkaketa erdibitzen da, halaber, ϕ 2-tasunak nahitaez erkatu behar direlako sistema ergatiboetan, baina predikatu iragangaitzetan ezeze, predikatu iragankorretan ere -baita Lyle (1996)-, eta Erkabide Erdibituko perpausetan predikatu iragankorreko objektuak, ezinbestez hirugarren pertsona denak, ABS erka badezake ere, ϕ 2-pertsona tasunik erkatu ezin duelako [Espez, KMZ] guanean.

Izan ere, hirugarren pertsona, morfema ezaz edo $\emptyset$ morfemaz adierazten den arren (Oregi, 1974; Trask, 1977; Euskaltzaindia, 1987 b; Laka, 1988; Gomez & Sainz, 1995), ϕ 2-tasunak zilegiztatzen ditu ohiko erkabideko perpausetan, *nik hura gogoratzen dut* perpausetan, kasurako, baina ezin zilegizta ditzake Erkabide Erdibitukoetan. Eta badirudi hirugarren pertsonak ϕ 2-tasunak erka ditzakeela ageriko D morfemarik badago soilik, hau da, *d*, *z*-, *l*-, *b*- D morfemarik ageri bada; D azaldu ezik, Erkabide Erdibituko perpausetan bezala, hirugarren pertsonak ez du ϕ 2-tasunik erkatzen *-dut* vs. *nuen* adizkiak-. Horregatik pentsa daiteke, hirugarren pertsonak, [-pertsona] denak, ϕ 2-tasunak erkatu behar dituela D ezmarkatua denean, alegia, [-iragan] denean soilik, baina D markatua bada, hots, [+iragan] bada, hirugarren pertsonak ez du ϕ 2-tasunik erkatu behar, areago ezin erka dezake.

Erkabide Erdibituko perpausetarako, ohiko egitura baino (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993), KMZ buruetarik bat AS azalaren (Larson, 1988) mendean ezarriko dut, zehar objektudun predikatu iragankor nahiz iragangaitzetarako egin dudan bezala (Collins & Thrainsson, 1993; López & Austin, 1995). Baina objektuak, hirugarren pertsona denak, ezin erkatuko du ABS baino mendeko KMZ2 buruarekin batera. Objektuak, beraz, f-pertsona tasunik zilegiztatu ezin duenez, subjektuak berak erkatuko du ϕ 2-pertsona tasuna. Horretarako, AS azala baino gorago indartuko den KMZ buruaren Espez gunea iritsiko du lehenik, ϕ 2-tasuna erkatuz bertan, eta Dren Espez gunea bigarrenik, ERG kasua zilegiztatzekotan -Erkabide Erdibituko perpausetan [Espez, D] gunea iritsiz beteko da Islapen Hatsarre Zabaldia (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993; Bobaljik & Carnie, 1992)-. Honelaxe, bada, subjektuaren I-tasunen ohiko erkabidea urratuko da, bi Espez gunetan erdibituz, [Espez, KMZ] batetik eta [Espez, D] bestetik.

Ondokoak dira kapitulu honetan zehar erabiliko ditudan aztergaiak eta atalez ataleko eraketa. Lehenik (4.1), Ergatibotasun Erdibitua sortaraz dezaketen irizpideak aipatu eta adibideez erakutsiko ditut, tipologiaren ekarriari lotuz (Silverstein, 1977; Comrie, 1978, 1981 a; Dixon, 1979, 1994). Bigarrenik (4.2.1), euskararen kasu sistema izango dut aztergai, sistema ergatiboa ezeze, zenbakiaren arabera (Dixon, 1994), *sistema neutroa* (Comrie, 1981 a) ere badela erakusteko. Komuntaduraren berri emango dut ondoren (4.2.2), eta aurkako [+/-pertsona] tasunetan (Benveniste, 1971) oinarrituz, sistema ergatiboa urratu eta nom/akusatiboa baino (Trask, 1977; Ortiz de Urbina, 1986), sistema neutroa eratzen dela erakutsiko dut. Amaieran (4.3), sistema ergatiboa urratzen duten adizkien gainean bereziki, Erkabide Erdibituaren hipotesia ezarriko dut.

Hipotesiaren atalkako garapenean, argumentuak kasua eta ϕ -tasunak beti gune berean ezin erka ditzakeela erakutsiko dut lehenik (4.3.1); objektuak AS azalaren mendean ABS erka badezake ere, ϕ 2-tasunik erka ezin dezakeela erakutsiko dut bigarrenik, zilegiztatu gabeko ϕ 2-tasuna subjektuak berak erkatzen duela proposatuz (4.3.2). Eta hirugarrenik (4.3.3) azalduko dudanez, subjektuak AS azala baino gorago indarturiko KMZren Espez gunea iritsiko du bertan ϕ 2-tasunak erkatuz batetik eta [Espec, D] ondoren, ERG zilegiztatuz azkenean.

4.1 SISTEMA ERGATIBOAK, SISTEMA ERDIBITUAK

Hizkuntza ergatiboak, sistema ergatiboari erabat lotu beharrean, sistema nom/akusatiboari ere lotzen zaizkio, *Ergatibotasun Erdibitua* erakutsiz (Silverstein, 1977; Comrie, 1978, 1981 a; Dixon, 1979, 1994). Horregatik, *sistema erdibituak* iritz dakieke hizkuntza

ergatiboeti, euskarari deritzadan bezala -baita Trask (1977); Ortiz de Urbina (1986)-.

Euskaraz zenbakiak erdibitzen du kasu markapena sistema ergatibo eta *sistema neutroen* artean (Comrie, 1981 a), eta komunztadura, deskribapen soilean, bederen, sistema ergatiboari ezeze, sistema neutroari ere jarraitzen zaio aurkako [+/-pertsona] tasunetan oinarriturik. Sistema neutroa deritzat S, AG eta O berdintzen dituenari, sistema nom/akusatibo edota ergatiboen azpisistematzat hartuko dudana.

Azalpen mailan, bestalde, Ergatibotasun Erdibituaz ez, I-tasunen erkaketa erdibitzen duten adizkiez mintzatu behar da¹, alegia, Erkabide Erdibituaz, euskararen *erdibiketa uztartu vs. askea* (Dixon, 1994) darabilgunean. Nolanahi ere, Ergatibotasun Erdibitua iritzi izan dena zenbait irizpideri egotzi zaio, hala nola, *ISen izaera semantikoari*, *Denbora edota Aspektuari* eta *Perpaus nagusi vs. mendeko perpausei*. Dakusagun irizpidez irizpidez².

4.1.1 ISen izaera semantikoa

Hizkuntza ergatiboek ISen izaera semantikoaren arabera erdibi dezakete kasu nahiz komunztadura sistema. Silversteinen (1977) aburuz -baita Dixon (1979, 1994)-, (1) azpiatalera dakardan *Egiletasun Hierarkian* lehen pertsonako izenordaina (I) da *egileena*, bigarren eta hirugarren pertsonako izenordainek jarraiturik. *Jasaleenak* dira, bestalde, eskuinetatik hasiz gero, I arrunt bizigabeak, beraien ondotik I arrunt bizidunak eta hurrengoek ondoren.



Erdibiketa I Sen arabera jasaten duten hizkuntzetan, ezkerretako I Sei sistema nom/akusatiboa ezarri ohi zaie eta eskuinetakoei, aldiz, ergatiboa, eta djirbalera da honen erakusgarri (Dixon, 1979, 1994). Djirbalera, sistema nom/akusatiboari lotzen zaio lehen eta bigarren pertsona izenordainetan, hau da, $-\emptyset$ morfema predikatu iragankorreko zein iragangaitzeko subjektuetarako vs. $-na$ morfema predikatu iragankorreko objekturako; gainerakoetan sistema ergatiboa da, alegia, $-ngu$ morfema predikatu iragankorreko subjekturako vs. $-\emptyset$ morfema, predikatu iragangaitzeko subjekturako nahiz predikatu iragangaitzeko objekturako. Dakusagun (2) azpitalean.

(2)	i.	AG	$-\emptyset$	$-ngu$	$-ngu$	$-ngu$
	ii.	S	$-\emptyset$	$-\emptyset$	$-\emptyset$	$-\emptyset$
	iii.	O	$-na$	$-\emptyset$	$-\emptyset$	$-\emptyset$
			1/2 lord	3 lord	1 Berezi	1 Arrunt

Euskal komunztadura sistemaren eraketa ere irizpide honi lotu diote Trask (1977) nahiz Ortiz de Urbinak (1986), erdibiketa lehen eta bigarren vs. hirugarren pertsonen aurkakotasunean oinarritzen delako. Izan ere, lehen eta bigarren pertsonen [+pertsona] iritzirik, eta hirugarren pertsonari, berriz, [-pertsona] (Benveniste, 1971), lehen/hirugarren eta bigarren/hirugarren, hau da, aurkako [+/-pertsona] tasunetan datza komunztaduraren erdibiketa predikatu iragankorreko perpausetan: sistema ez da pertsona tasun bereko I Setan erdibitzen, ez lehen/bigarren ezta hirugarren/hirugarren aurkarietan ere³, (4.4.2) atalean erakutsiko dudan bezala. Nolanahi

ere, Ortiz de Urbinak (1986) dioenez, Egiletasun Hierarkiaren arabeko erdibiketa argumentuetan beraietan ageri ohi da, ez komunztadura sisteman bertan.

Era berean, erdibiketa uztartu vs. askea ere jasaten du euskarak, Dixonek (1994) ISren arabeko erdibiketaren azpisailtzat hartzen duena, zeren argumentu *askeen* markapena sistema ergatiboari jarraitzen zaion bitartean, argumentuok komunztatzen dituzten morfema *uztartuak* ergatiboa ez den sistema batez eratzen baitira. Edo bestela esanda, kasu sistemak S eta O berdindu eta AGtik bereizten dituen arren, komunztadura sistemak S eta AG bateratzen ditu. Georgierak, halaber, era honetako erdibiketa jasaten du Aoristo Sailean (King, 1994; Lyle, 1996).

Zenbakiak ere erdibi dezake sistema. Kalaw lagaw yaeraz⁴, kasurako, (3) taulara dakardan bezala eratzen da zenbakiaren arabera (Comrie, 1981 a, 1981 b; Dixon, 1994).

(3)	lord	I	I Arrunt
singularra	AG vs. S vs. O		
		} S=AG vs. O	} S=O vs. AG
duala			
	} AG=S=O		
plurala		AG=S=O	AG=S=O

Taulan ikus daitekeenez, singularrean pluralean baino bereizgarritasun haundiagoa dago kalaw lagaw yaeraz, eta Dixonek dioenez (1994), oro har, bereizgarritasun gorena erakusteko joera dute singularreko izenordainek. Arabanerak (Hego-Australia), esaterako, hiru forma ezberdin darabil singularreko izenordainetan S, AG eta Orako, baina pluraleko izenordainetan S eta AG berdintzen

dira, Otik bereizirik -ikus baita Dixon (1980), proto-australierarako-. Nedjalkovek (1979) dioenez, bestalde, txuktxieraz⁵ ergatibotasuna iraunkor edo erregularragoa da pluralean singularrean baino.

Euskaraz ere zenbakiaren arabera bi sistema bereiz daiteke, ergatiboa bata, singularrean ematen dena, S eta AG berdindu eta Otik bereizten dituen, eta neutroa bestea, pluralean eratzen dena, S, AG eta O berdinduz (Comrie, 1981 a). Ildo honetan, euskaraz ere, aldakortasun haundiagoa dago singularrean pluralean baino, (4.4.1) atalean erakutsiko dudana bezala.

4.1.2 D edota ASP

Hizkuntza ergatiboak, halaber, D edota ASPren arabera bana daitezke sistema ezberdinetan, eta D/ASPren araberrako erdibiketan, iraganekoak ez diren adizkiei edota ASP ezburutukoei sistema nom/akusatiboa dagokien bitartean, iraganekoei edota ASP burutukoei sistema ergatiboa ezarri ohi zaie (Dixon, 1979, 1994).

Maiera Yukatekoak (Reifler Bricker, 1977), eta, oro har, maiar hizkuntzek ASPren arabera erdibitzen dute komunztadura sistema: predikatu iragangaitzeko subjektuak A saileko izenordainak darabiltzate ASP ezburuturako, hau da, predikatu iragankorreko subjektuetarako erabiltzen diren berberak, eta B sailekoak darabiltzate, berriz, ASP buruturako, predikatu iragankorreko objektuak komunztatze izenordainak, alegia. Honelaxe, bada, sistema nom/akusatiboa eratzen da ASP ezburutuan eta ergatiboa, berriz, ASP burutuan. Gorago -(1.1.2) atala- esan dudana bezala, A Saileko morfemak dira maiar hizkuntzetan ϕ 1-tasunak islatzen dituztenak eta B Sailekoak, aldiz, ϕ 2-tasunen isla.

Ondora (4) dakart maiera yukatekoaren *taal* 'etorri' predikatua ASP ezburutuan jokaturik, singularreko lehen, bigarren eta hirugarren pertsonetarako. A Saileko morfemak dira predikatu iragangaitzeko subjektua komunztatzen dutenak ASP ezburutuan. ASP ezburutuari dagokion sistema, beraz, nom/akusatiboa da.

(4) A Saila (ϕ 1): ASP [-burutu]

- i. k in *tàal*
k-1s ϕ ₁-*tàal*
'Ni nator'
- ii. k a *tàal*
k-2s ϕ ₁-*tàal*
'Zu zatoz'
- iii. k u *tàal*
k-3s ϕ ₁-*tàal*
'Hura dator'

Tàal 'etorri' predikatua bera dakart berriro (5) adizkietara, ASP burutuaz jokaturik *-h* morfemak adierazten du ASP burutua predikatu iragangaitzetan-. Adizki hauetan (5), A Sailekoak baino, B Saileko morfemak dira predikatu iragangaitzeko subjektua komunztatzen dutenak⁶. Eta predikatu iragankorreko subjektuak A saileko morfemez adierazten direnez, sistema ergatiboa eratzen da ASP burutuan.

(5) B Salla ($\phi 2$): ASP [+burutu]

- i. h *t*aal-en
h-taal-1s $\phi 2$
'Ni etorri nintzen'
- ii. h *t*aal-eċ
h-taal-2s $\phi 2$
'Zu etorri zinen'
- iii. h *t*aal-
h-taal-3s $\phi 2$
'Hura etorri zen'

Lakak (1995) aise azaltzen ditu D eta ASPren araberako erdibiketak kasu sistemetan. Gogan izan, lehenik eta behin, Lakaren (1995) aburuz, hizkuntzak indarreko kasuaren arabera bereizten direla, ez indarreko KMZ buruaren arabera (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993). Nolanahi ere, predikatu iragangaitzeko perpausetan banatzen dira bi sistemak: batetik hizkuntza nom/akusatiboak, Dren kasua (K_D /NOM) indartzen dutenak, eta bestetik, hizkuntza ergatiboak, ASPren kasua (K_{ASP} /ABS) indartzen dutenak⁷.

Aintzat izan, bigarrenik, D eta ASPren araberako erdibiketa jasaten duten hizkuntzetan kasuaren zehaztapen ezberdinez azaltzen dela erdibiketa, hau da, indarreko kasuaz edo *kasu tasun ahulaz*, Lakaren beraren hitzetan. Ildo honetan, hindieraz, kasurako, non ASP ezburutuko kasu sistema nom/akusatiboa den eta ASP burutukoa, berriz, ergatiboa (Mahajan, 1995), ASP buruaren kasu tasunaren zehaztapenaz bereiz daitezke hizkuntza beraren bi sistemak.

Lakaren iritziz, ASP ezburutuak ez du indarreko kasu tasunik, kasu tasun ahula baino, eta horregatik, sistema nom/akusatibo da eratortzen dena. ASP burutuak, bere aldetik, indarreko kasua du, eta kasu hori da predikatu iragangaitzeko perpausetan erkatzen dena, sistema ergatiboa eratuz⁸. Autoreak dioenez, georgieraz⁹ ere Aoristo Sailak ASP burutua duela pentsatuz gero (Holisky, 1981; King, 1994), indarreko kasu tasuna egotz dakioke ASPri, horrexetik eratorriz sail hartako kasu sistema ergatiboa.

Bestalde, kasua eta ϕ -tasunak berdinduko bagenitu, Lakaren ildo berean azal genezake, agian, baita komunztadura sistemaren erdibiketa ere, maiera yukatekoaren ASP ezburutuko (4) adizkietan ASPk kasu tasun edota ϕ 2-tasun ahula duela proposatuz eta ASP burutuko (5) adizkietan, berriz, indarreko kasua edota ϕ 2-tasuna. Ondorioz, sistema nom/akusatiboa eratuko litzateke ASP ezburutuan (4) eta ergatiboa, aldiz, ASP burutuan (5).

Baina ez dirudi kasu eta ϕ -tasunak batera daitezkeenik beti. Georgieraz (King, 1994; Lyle, 1996), kasurako, Aoristo Sailean kasu sistema ergatiboa den arren, komunztadura sistema nom/akusatiboa da, hau da, kasuak S eta O berdintzen dituen bitartean, komunztadurak S eta AG bateratzen ditu, erdibiketa uztartu vs. askeari (Dixon, 1994) lotuz. Eta euskaraz ere komunztadura sistemak erdibiketa jasaten duen adizkietan, kasu sistema ez da erdibitzen eta ergatiboa izaten jarraitzen du. Beraz, kasua eta ϕ -tasunak ezin batera badaitezke, Lakaren hipotesiak D edota ASPren araberako erdibiketa azal dezake baina ezin erator dezake georgieraren erdibiketa uztartu vs. askea.

Ildo honetan, Lakak (1995) ez bezala, nahitaezkoa deritzat KMZ buruak bereizteari, kasua eta ϕ -tasunak ezin erka baitaitezke beti Espez gunee berean. Horixe da, hain zuzen, Erkabide Erdibitua

deritzadanaren abiaburua, Lylek (1996) -eta baita, hein batean, Kingek (1994) ere- georgierarako darabilen bera: argumentuek beraien l-tasunen erkabidea erdibi dezakete, kasua zilegiztatuz batetik eta ϕ -tasunak bestetik.

Orain arte D edota ASPren erdibiketa izan dut mintzagai, eta euskararen erdibiketa Dk eragiten ote duen galde daiteke. Izan ere, komunztadura sistemaren erdibiketa aurkako [+/-pertsona] tasunei ezeze, Dri ere egotzi zaio, sistema ez baita erdibitzen iraganean nahiz Alegiazkoan baino, hau da, [+iragan] Dn baino. Dena den, Traskek (1979) dioenez, ez dirudi hizkuntza ergatiboek bi irizpideen arabera erdibiketarik jasaten dutenik. Eta gainera, euskaraz D balitz komunztadura erdibituko lukeena, ez luke ohi bezala erdibituko, iragana edota ASP burutua sistema ergatiboari egokitzen zaiolako eta iraganeakoak ez diren adizkiak edota ASP ezburutukoak, berriz, sistema nom/akusatiboari -horra hor, maiar hizkuntzak-. Baina euskaraz sistema ergatiboa iraganean bete baino, bertan urratzen da (Ortiz de Urbina, 1986, Laka, 1988).

Horregatik, ez diot Dri berari erdibiketa egotziko, baina Dk badu Erkabide Erdibituarekiko harremana, edo hobe esanda, badu nolabaiteko lokarria hirugarren pertsonako objektuaren ϕ 2-tasunen zilegiztapenarekin. Hirugarren pertsonak, beste bi pertsonak ez bezala, ϕ 2-tasunak erkatu behar ditu nahitaez, D ezmarkatua bada, hau da, predikatu iragankorreko objektua [-pertsona] izanik, D [-iragan] bada, baina D [+iragan] bada, aldiz, objektuak ez du ϕ 2-tasunik erkatzen, erdibiketa eraginez. Dena den, aintzat izan, objektuaren [-pertsona] tasuna subjektuaren [+pertsona] tasunaren aurkari izan behar duela erdibiketa gerta dadin. Geroago {4.2.2} eta {4.3.3} atalak- itzuliko naiz honetara.

4.1.3 Perpaus nagusiak vs. mendekoak

Maiar hizkuntzetan, azkenik, dagoeneko aipaturiko ASPren araberako erdibiketaz gain, perpaus nagusi eta mendekoen artean ere erdibitzen da markapen sistema. Englandek (1983) dioenez, mamera sistema ergatiboari loturik ere, denborazko mendeko perpausetako argumentu guztiak f1-tasunak islatzen dituzten A saileko morfemez komunztatzen dira. (6.i) mendeko perpausaren *poon* 'heldu' predikatua iragangaitza bada ere, *t-* hirugarren pertsonako A saileko morfemak komunztatzen du subjektua; (6.ii) predikatu iragankorreko mendeko perpausaren, predikatu iragankorreko subjektua nahiz objektua A morfemez komunztatzen dira: objektua, *t-* morfemaz eta subjektua, berriz, *-q-* morfemaz.

- (6) i. n-chi ooq' t-poon ky-txuu7
 prog-3pl_{φ2} negar 3s_{φ1}-heldu 3pl-ama
 'Haiek negarrez zeuden, beren ama heldu zenean'
- ii. ok qo tzaalaj-al ok
 gero 1pl_{φ2} pozik egon-ahal -ean
 t-q-il u7j t-e yool t-e l7tzaI
 3s_{φ1}-1pl_{φ1}-ikus liburu 3s-ed hitz 3s-edlxtahuakan
 'Gu pozik egongo gara, lxtahuakaneraren hiztegia
 ikusten dugunean'

Ondoko taulara dakartzat perpaus nagusi eta mendekoen azpistema biak (7). Perpaus nagusiko adizkien komunztadura sistema ergatiboari lotzen bazaio ere, mendeko perpausetako adizkiak ez da, Englanden aburuz, sistema nom/akusatiboa, sistema neutroa baino, hau da, predikatu iragankorreko subjektu eta objektua nahiz

predikatu iragangaitzeko subjektua berdintzen dituen, ϕ 1-tasunak islatzen dituzten A morfemez.

(7)	AG	O	S
Perpaus nagusia	ϕ 1	ϕ 2	ϕ 2
Mendeko perpausa	ϕ 1	ϕ 1	ϕ 1

Mendeko perpausetako sistema nom/akusatiboa balitz, predikatu iragankorreko objektua, subjektuak ez bezala komunztatuko litzateke. Sistema neutroa da (Comrie, 1981 a), hain zuzen ere, sistema ergatiboarekin batera aurkitzen dena euskararen kasu flexioan, eta baita, hein batean, komunztaduran ere, predikatu iragankor eta iragangaitzeko subjektuak nahiz predikatu iragankorreko objektua biltzen ditu-eta. Euskaraz, beraz, sistema ergatiboa ez dena, neutroa da, sistema ergatibo edota nom/akusatiboaren (Trask 1977; Ortiz de Urbina, 1986) azpisistematzat har daitekeen arren. Euskararen kasu nahiz komunztadura sistemak ondoko atalean (4.2) izango ditut aztergai.

4.2 EUSKARA, SISTEMA ERDIBITUA

Euskara hizkuntza ergatiboa da kasu flexioan nahiz komunztadura sisteman: predikatu iragangaitzeko perpausetan ISK [Espez, KM22] gunea iritsi eta bertan erkatzen ditu bere I-tasunak, hau da, ϕ 2-tasunak eta Ak dakarren kasua, ABS kasua, hain zuzen. Halere, sistema ergatiboa den heinean, sistema erdibitua ere bada (Silverstein, 1977; Comrie, 1978, 1981 a; Dixon, 1979, 1994).

Euskarak zenbakiari loturiko erdibiketa jasaten du kasu flexioan (4.2.1) eta bi komunztadura sistema ere bereizten du aurkako

pertsona tasunen arabera, sistema ergatiboa batetik eta sistema neutroa (Comrie, 1981 a) bestetik. Zenbakiari loturiko sistema neutroa sistema ergatiboaren azpisistematzat har daiteke eta komunztadura sisteman eratzen dena, berriz, sistema nom/akusatiboaren azpisailtzat (Trask, 1977; Ortiz de Urbina, 1986) (4.2.2). Datuen deskribapenari lotuko natzaio atal honetan zehar.

4.2.1 Kasu flexioa euskaraz

Euskaraz, Ergatibotasun Erdibituaz hausnartu duten autoreek (Heath, 1976; Trask, 1977, 1979; Ortiz de Urbina, 1986; Laka, 1988) komunztadura sistema izan dute mintzagai, baina ez diote behatu, ordea, kasu flexioan ematen den erdibiketari. Izan ere, zenbakiaren araberako erdibiketa (Dixon, 1979, 1994) aurki daiteke euskaraz, zeren sistema ergatiboari erabat lotu beharrean, sistema neutroari ere jarraitzen baitzaio pluralean, alegia, predikatu iragankor eta iragangaitzeko subjektuak nahiz predikatu iragankorreko objektua bateratzen dituenari (Comrie, 1981 a).

lak ezeze, izenordainak ere sistema ergatiboari lotzen zaizkio euskaraz. Ondoko perpausetan (8), kasurako, *ni* izenordaina dugu *etorri* predikatu iragangaitzeko subjektua (8.i) eta (8.ii) perpausoko objektua bera. (8.ii) perpausuan, bestalde, *zuk* izenordaina ageri da, predikatu iragankorreko subjektua, alegia.

(8)	i.	Ni	etorri	naiz
		S-ABS	etorri	$1_{\phi 2}$ -izan
	ii.	Zuk	ni	ikusi nauzu
		AG-ERG	O-ABS	ikusi $1_{\phi 2}$ -edun- $2_{\phi 1}$

Ondokoak dira (9) singularreko lehen, bigarren eta hirugarren pertsona izenordainak predikatu iragankorreko subjektu, predikatu iragangaitzeko subjektu eta, azkenik, predikatu iragankorreko objektuetarako. Hiru pertsona izenordainak sistema ergatiboaren arabera eraturik daude.

(9)	i.	AG	Nik	Zuk	Hark
	ii.	S			
			} Ni	} Zu	} Hura
	iii.	O			
			1 lord	2 lord	3 lord

Zenbakia plurala bada, oster, besterik da aurkitzen den azpisistema. Gatozen ondoko adibideetara (10). *Haiek* dugu pluraleko hirugarren pertsona, predikatu iragangaitz eta iragankorreko subjektuetan zein predikatu iragankorreko objektuan.

(10)	i.	Haiek	etorri dira
		S-ABS etorri	$3_{\phi 2}$ /D-izan
	ii.	Haiek	haiek egin dituzte
		AG-ERG O-ABS egin	$3_{\phi 2}$ /D-pl-edun-pl- $3_{\phi 1}$

(10.i) predikatu iragangaitzeko subjektua nahiz (10.ii) predikatu iragankorreko subjektu eta objektua *haiek* izenordainaz adierazirik datoz eta *hauek* eta *horiek* lehen eta bigarren graduko erakusleetan ere, forma berberaz adierazten dira hiru argumentuak. Zenbakia plurala denean, hortaz, ezin bereiz daitezke hiru argumentuak eta singularreko sistema ergatiboaren arabera baino (9), sistema neutroaren arabera eratzen dira (11).

- (11) i. AG
- ii. S } Hauek } Horiek } Haiek
- iii. O

Pluraleko bigarren pertsonan, halaber, ez da forma bakar bat baino hiru argumentuetarako, pluraleko lehen pertsonarako sistema ergatiboa den arren, (12) taulan ikus daitekeen bezala.

- (12) i. AG Guk
- ii. S } Zuek } Haiek
- } Gu
- iii. O
- 1 lord pl 2 lord pl 3 lord pl

Badirudi, orduan, euskaraz kasu sistema ergatiboa nagusitzen bada ere, zenbakiari loturiko sistema neutroa aurki daitekeela pluraleko bigarren eta hirugarren pertsona izenordainetan, eta sistema neutroa deritzat, predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuak ezeze, predikatu iragankorreko objektua ere berdintzen dituelako.

Era berean, pluraleko len flexioari dagokionean, ez dago predikatu iragangaitz eta iragankorreko subjektuen artean bereizkuntzarik ez bizkaieraz ez gipuzkeraz. Honetan ere, pluralaren arabera sistema neutroa eratu da, (13) perpausetan bezala.

- (13) i. Alabak etorri dira
S-ABS etorri $3\phi_2/D$ -izan
- ii. Alabak baserria erosi dabe
AG-ERG O-ABS erosi $3\phi_2/D$ -edun-pl- $3\phi_1$

Euskaraz, beraz, zenbakiak sistema ergatibotik bereiz daitekeen sistema neutroa dakar pluraleko ISetara. Honaino datuen deskribapen soila, baina datuok azaldu ere azalduko badira, honako galderari erantzun behar zaio, alegia, zenbakiaren araberrako azpisistema neutroko argumentuek, sistema ergatibokoek ez bezala erkatzen duten kasua, edo bestela esanik, datuen deskribapen soilean, sistema neutroa, sistema ergatibo nahiz nom/akusatibotik bereiz daitekeen arren, estatus teorikorik baduen azalpenean.

Bada, ez dirudi sistema neutroak gainerako bi sistemen estatusa duenik Kasu Teorian, hau da, pluraleko hiru argumentuak isomorfikoak izanik ere, ez dirudi Espez gune berean erkatzen direnik -intuizioz sistema neutroari iritz bailekioke hiru argumentuek kasua Espez gune berean erkatzen dutenari-. Ene iritziz, sistema neutroa sistema ergatibo edo nom/akusatiboaren azpisistema da: pluraleko sistema neutroa sistema ergatiboaren azpisaila da eta komunztadura sistemak eratzen duena, berriz, nom/akusatiboarena. Bestalde, subjektu eta objektuen arteko aurkakotasuna ere ematen da azpisistema honetan, komunztadura aintzat hartuz erakus daitekeen bezala.

Izan ere, predikatu iragankorreko subjektu eta objektuak isomorfikoak diren arren, era ezberdinez komunztatzen dira aditzean. Dakusagun (14) perpausetan.

- (14) i. Zuek etorri zarete
S-ABS etorri $2\phi_2$ -izan-pl
- ii. Nik zuek ikusi zaituztet
AG-ERG O-ABS ikusi $2\phi_2$ -pl-edun-pl-1 ϕ_1
- iii. Zuek baserria erosi duzue
AG-ERG O-ABS erosi $3\phi_2$ /D-edun-pl-3 ϕ_1

Zuek, pluraleko bigarren pertsona izenordaina ϕ_2 -tasunak islatzen dituen z- pertsona morfemaz komunztatzen da aditzean predikatu iragangaitzeko subjektua (19.i) nahiz predikatu iragankorreko objektua denean (14.ii), baina predikatu iragankorreko subjektua denean (14.iii), ϕ_1 -tasunak erkatzen ditu -zu(e) atzizkia dela bide.

Kasua eta ϕ -tasunak Espez gunean bakarrean zilegiztatuko badira, *zuek* pertsona izenordain bakarra egonik ere, [Espez, KMZ1] gunean erkatu behar ditu kasua zein ϕ_1 -tasunak predikatu iragankorreko subjektua denean eta [Espez, KMZ2] gunean, berriz, predikatu iragankorreko objektua denean; eta *zuek* predikatu iragangaitzeko subjektuak ere, z- aurritziaz komunztatzen denak, [Espez, KMZ2] gunean erkatu behar ditu kasua nahiz ϕ_2 -tasunak, predikatu iragankorreko objektuak bezalaxe.

Dena den, I-tasunak beti Espez gunean berean erka ezin badaitezke, agian ez da irizpide aski sendoa, sistema neutroko argumentuen kasua komunztaduraren bidez azaltzea. Sintaxia morfologiaren isla bada, gainera, eta euskaraz ezeze, beste sistema ergatiboetan ere honelakoxe azpisistemak eratzen badira pluralean, Kasu Teoriak zenbaki tasunen arabera ere eratorpen berezituak ez ote dauden hausnartu behar du, eta, agian, KMZ bera zenbaki eta pertsona komunztadurarako buruetan bereizi ere (Rigau, 1991,

1995). Ildo honetan, zenbaki tasunen arabera erdibiketa azalduko ez badut ere, ene iritziz, aurkako [+/-pertsona] tasunek Erkabide Erdibitua sortarazten dute euskaraz, datuak deskribatutakoan, (4.3) atalean erakutsiko dudan bezala.

4.2.2 Aditz komunztadura euskaraz

Euskara sistema ergatiboa da baita aditz komunztaduran ere: predikatu iragankorreko subjektuak ϕ 1-tasunak erkatzen ditu [Espez, KMZ1] gunean eta objektuak, bere aldetik, ϕ 2-tasunak [Espez, KMZ2] gunean, baina predikatu iragangaitzeko perpausetan, KMZ2 indarrean dagoela, ϕ 2-tasunak dira argumentuak erkatzen dituenak (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993). Euskaraz bi pertsona morfema sailek islatzen dituzte ϕ 1 eta ϕ 2-tasunak, (15) taulara dakardan bezala¹⁰.

(15)	ϕ 2-tasunak	ϕ 1-tasunak
ni	n-	-t
hi	h-	-k/-n
gu	g-	-gu
zu/zuek	z-	-zu

Pertsona morfema hauetaz gain, pluralgileak ere darabiltzagu bai pluraleko lehen pertsona morfemarekin batera *-goaz*, esaterako, non *g-* pertsona morfemaz gain, *-z* pluralgilea ere darabilgun- bai singularreko eta pluraleko bigarren eta hirugarren pertsonak bereizteko ere.

Bigarren pertsonari dagokionean, esaterako, *zara* vs. *zarete* edo *zoaz* vs. *zoazte* pareak ditugu, non pluraleko bigarren pertsona -te pluralgileaz bereizten den singularretik, edota *dakarzu* vs. *dakarzue* bikotea, -e pluralgileaz bereizten dena. Gogoan izan, dena den, *zoaz* aditzia singularreko bigarren pertsonari badagokio ere, berez plurala dela, eta horregatik ageri dela -z pluralgileaz. Singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonak ere -tza, -z, -it-, -zki- pluralgileez banatzen ditugu, ondoko bikoteetan bezala, *doa* vs. *doaz*; *dabil* vs. *dabiltza*; *dut* vs. *ditut*; *diot* vs. *dizkiot*; edota *dabil* vs. *dabilz*; *dot* vs. *dodaz*; *deutso* vs. *deutsoz*, bizkaieraz -ikus, Euskaltzaindia (1987, b).

Pertsona morfemek, halaber, predikatu iragankorreko adizkietan erakusten duten hurrenkera kanonikoa honako hau da (16), euskaltitik euskalkira aldatzen ez dena.

(16) ϕ 2-erroa- ϕ 1¹¹

Predikatu iragangaitzekoetan ϕ 2-tasunak islatzen dituzten morfemak ageri zaizkigu soil-soilik, predikatu iragangaitzetan ϕ 2-tasunak baino erka ezin baitaitezke: Nahitaezko Kasuaren Parametroari jarraiki (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993), ABS da sistema ergatiboetan nahitaez erkatu beharreko kasua eta ϕ 2-tasunak dira, hain zuzen ere, ABS zilegiztatzten den Espez gune berean erkatzen diren I-tasunak. Ondora dakart morfema hurrenkera predikatu iragangaitzetan (17).

(17) ϕ 2-erroa

Izan ere, ϕ 2-tasunen erkatzeak berebiziko garrantzia du euskararen komuntzadura sistemaren eraketan: euskaraz, gainerako sistema ergatiboetan bezalaxe, ϕ 2-tasunak *nahitaezkoak* dira predikatu

iragangaitzeko perpausetan eta, ene aburuz, ϕ 2-tasunak predikatu iragankorreko perpausetan ere nahitaez zilegiztatu behar dira.

Lylek (1996) ere, georgieraren erdibiketa uztartu vs. askeaz (Dixon, 1994) diharduenean, nahitaezkoa deritza ϕ -tasun sailatarik bati, edo hobe esanik, KMZ buruetarik bati predikatu iragangaitz nahiz iragankorreko perpausetan. Nolanahi ere, neu ez bezala, Murasugiri (1992) lotzen zaionez, NOM eta ABS berdinduz batetik eta ERG eta AK bestetik, eta ABS [Espez, KMZ1] zilegiztatzen dela uste duenez, KMZ1 da, bere ustez, bi KMZ buruetarik nahitaezkoa dena georgieraz eta ϕ 1-tasunak, hortaz, ezinbestez zilegiztatzen direnak.

Abiaburu teoriko ezberdinengatik ere, Lylarentzat nahiz niretzat, ABS kasuarekin batera erkatu ohi diren ϕ -tasunak dira nahitaezkoak predikatu iragangaitz zein iragankorreko perpausetan, hau da, ϕ 2-tasunak deritzedanak. Horixe da, gainera, *Erkabide Erdibitua* hipotesiaren gakoa, zeren ϕ 2-tasunak erkatu ezik, ezin erkatuko baita ϕ 1-tasunik.

- (18) i. ϕ 2-tasunak nahitaezkoak sistema ergatiboetan
- ii. ϕ 2-tasunak erkatu ezik, ezin ϕ 1-tasunik zilegizta

Areago, predikatu iragankorreko objektuak ϕ 2-tasunik zilegizta ezin badezake, subjektuak berak erkatuko du ϕ 2-tasuna¹².

- (19) Ok ϕ 2-tasunik erkatu ezik, AGk berak erkatuko

Eta hirugarren pertsona da, hain zuzen ere, ϕ 2-tasunik zilegizta ezin dezakeena Erkabide Erdibituko perpausetan, (4.3) atalean erakutsiko dudana bezala. Hirugarren pertsonak, bestalde, ez du ageriko marka morfologikorik, hau da morfemarik ezaz - $\emptyset$ morfemaz-adierazten da, lehen edota bigarren pertsona ez bezala -ikus (15)

azpiatala-. Hortaz, perpaus jokatuko adizkien hastapenean ageri diren *d-*, *z*, *b*- zein *l*-morfemak ez dira pertsona markak, zenbait euskalarik iritzi dieten modura (Heath, 1976; Ortiz de Urbina, 1986; Albizu, 1994), *D* markak baizik (Oregi, 1974; Trask, 1977; Euskaltzaindia, 1987 b; Laka, 1988; Gomez & Sainz, 1995).

Euskararen komunztadura, bestalde, [+/-iragan] *D* tasunen (Albizu, 1994) arabera eratzen da¹³, Orainean, alegia, *D* [-iragan] tasunaz zehazten denean sistema ergatiboa baita, baina Iragan eta Alegiazkoan, hots, *Dk* [+iragan] tasuna duenean, sistema ergatiboa urratzen da. Orainean sistema ergatiboari lotuagatik ere, Iragan nahiz Alegiazkoan, predikatu iragankorreko subjektua lehen edo bigarren pertsona bada eta objektua, berriz, hirugarren pertsona, sistema neutroa da eratzen da, hau da, predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuak eta predikatu iragankorreko objektua berdin komunztatzen dituenak. Euskaraz, bada, *Dren* [+iragan] tasunaz baino ezin aurki daiteke sistema neutrorik, baina sistemaren erdibiketa aurkako [+/-pertsona] tasunetan datza, ene ustez, (20) azpiatalean ikus daitekeen erara.

- | | |
|------|--|
| (20) | Sistema neutroa |
| i. | <i>D</i> [+iragan]:
Iragan nahiz Alegiazkoa |
| ii. | Aurkako [+/-pertsona] tasunak:
Lehen/bigarren vs. hirugarrena |

Euskara sistema ergatiboari jarraitzen zaio, orduan, predikatu iragankorreko subjektua eta objektua [+/-pertsona] tasunaz ezin bereiz daitezkeenean, hau da, zeinahi dela subjektuaren pertsona tasuna, [+pertsona] edo [-pertsona] tasuna, objektuak ere pertsona tasun bera badu, ez da urratuko sistema ergatiboa. (21) azpiataleko

predikatu iragankorreko perpausetan, (21.ii) eta (21.iii), perpausetan subjektuak nahiz objektuak [+pertsona] dute. D Oraina dugu perpaus hauetan baina Iragan nahiz Alegiazkoan sistema berari jarraitzen zaio.

- (21)
- | | | | | |
|------|--------|-------------------|----------|----------------------------------|
| i. | Ni | Euskal Herritik | joan | naiz |
| | ni-ABS | Euskal Herri-ABLT | joan | $1_{\phi 2}$ -izan |
| ii. | Zuk | ni | gogoratu | nauzu |
| | zu-ERG | ni-ABS | gogoratu | $1_{\phi 2}$ -edun- $2_{\phi 1}$ |
| iii. | Nik | zu | gogoratu | zaitut |
| | ni-ERG | zu-ABS | gogoratu | $2_{\phi 2}$ -edun- $1_{\phi 1}$ |

Singularreko lehen pertsona dugun perpausotan (21), *n*-morfemak, $\phi 2$ tasuna adierazten duenak, predikatu iragangaitzeko subjektua (21.i) zein predikatu iragankorreko objektua (21.ii) komunztatzen du, eta *-t* morfemak, $\phi 1$ -tasunari dagokionak, bere aldetik, predikatu iragankorreko subjektua (21.iii). (22) taulara dakartzat hiru argumentuak -ezkerretara- dagozkien morfema eta ϕ -tasunekin batera -eskuinetara-.

- (22)
- | | |
|------|---------------------------------|
| | AG [+pertsona]/O [+pertsona] |
| i. | S (ABS) <i>n</i> -($\phi 2$) |
| ii. | O (ABS) <i>n</i> -($\phi 2$) |
| iii. | AG (ERG) <i>-t</i> ($\phi 1$) |

Goiko azpiataleko (22) taulak sistema ergatiboa adierazten du, predikatu iragangaitzeko subjektua nahiz predikatu iragankorreko

objektua berdindu eta predikatu iragankorreko subjektutik bereizten dituelako. Baina predikatu iragankorreko subjektuaren pertsona tasuna [+pertsona] bada eta objektuarena, berriz, [-pertsona], sistema ergatiboa urratzen da Iragan zein Alegiazkoan, hau da, [+iragan] Dko adizkietan. Dakusagun (23) perpausetan.

- (23)
- i. Ni Euskal Herritik joan nintzen
ni-ABS Euskal Herri-ABLT joan $1_{\phi 2}$ -izan
 - ii. Hark ni gogoratu ninduen
hura-ERG ni-ABS gogoratu $1_{\phi 2}$ -edun-3 $\phi 1$
 - iii. Nik hura gogoratu nuen
ni-ERG hura-ABS gogoratu $1_{\phi 2}$ -edun

Goiko (23.iii) perpausean, zeinetan subjektua [+pertsona] den eta objektua, bere aldetik, [-pertsona], predikatu iragankorreko subjektua izanik ere, *n-* morfemaz komunztatu da singularreko lehen pertsona, eta bai predikatu iragangaitzeko subjektua (23.i) bai predikatu iragankorreko objektua (23.ii) denean, *n-* morfema berberaz komunztatu da aditzean Ondora (24) dakartzat datuok taulaturaturik.

(24) AG [+pertsona]/O [-pertsona]

- i. S (ABS) $n-(\phi 2)$
- ii. O (ABS) $n-(\phi 2)$
- iii. AG (ERG) $n-(\phi 2)$

Dagoeneko esan dudan bezala (4.1), sistema nom/akusatiboa iritzi zaio goikoari (Trask, 1977; Ortiz de Urbina, 1986), predikatu iragangaitzeko subjektua (24.i) eta predikatu iragankorreko subjektua (24.iii) bateratzen dituelako, baina sistema nom/akusatiboak bi argumentu horiek berdindu ezeze, predikatu iragankorreko objektutik bereizi behar ditu. Horregatik deritzat sistema neutroa, hiru argumentuak berdintzen dituen, alegia. Nolanahi ere, sistema nom/akusatiboaren azpisistematzat har daiteke¹⁴, predikatu iragangaitzeko nahiz iragankorreko subjektuak bateratzen dituelako, baina ezohiko erkabideaz eratorri behar da (23.iii) perpausa.

Laburbilduz, pertsona tasun bereko subjektu eta objektuek sistema ergatiboa eratzen duten arren, predikatu iragankorreko subjektua [+pertsona] bada eta predikatu iragankorreko objektua, aldiz, [-pertsona], sistema ergatiboa urratu eta sistema neutroari lotzen zaio komunztadura iragan nahiz Alegiazkoan, (25) azpiatalean ikus daitekeen erara.

- (25) i. AG [+pertsona]/ O [+pertsona]
Sistema ergatiboa (AG vs. S = O)
- ii. AG [+pertsona]/ O [-pertsona]
Sistema neutroa (AG = S = O)

Eta deskribapen soilean sistema neutroa deritzadan horretan, (23.iii) erako perpausak dira eztabaidagai, Antipasibatzeaz¹⁵ (Heath, 1976) edota *Ergatiboaren Lekualdaketa*z (Laka, 1988) aztertu direnak, eta Ergatibotasun Erdibituaren ildoan (Trask, 1977; Ortiz de Urbina, 1986), l-tasunen Erkabide Erdibituaz azalduko ditudanak.

Amaitu aurretik, gatozen, laburki baino ez bada, Lakaren (1988) *Ergatiboaren Lekualdaketa* iruzkintzera. Lakak dioenez, adizkiak

ondoko hiru baldintzak betez gero, alegia, ezkutuko ABS - $\emptyset$ ABS-izanez gero, lehenik, ageriko ERG bigarrenik, eta ageriko funtzio burua, hirugarrenik, ERG komunztadura, ABS gunean azaltzen da. Ergatiboaren Lekualdaketa, beraz, morfema bat gune hutsera mugitzea da, mugimendu hori ageriko funtzio buruek, hau da, *-n* eta *-ke* buruek zilegiztatzen dutelarik.

Ergatiboaren Lekualdaketa, bada, *nuen* (23.iii) adizkia azal daiteke, *dut* adizkian ez bezala, *-n* ageriko funtzio buruak ERG morfema lekuz aldarazi duelako, baina Gomez & Sainzek (1995) dagoeneko ohartarazi duten bezala, *dezaket* erako adizkietako *-ke* funtzio buruak ERG lekuz aldarazi behar lukeen arren, ez du *nezakeen* adizkiaren antzera mugiarazten. Horregatik, ez dirudi ERGren lekualdaketa Moduari egotz dakiokeenik, Dri baino. Ergatiboaren Lekualdaketa, halaber, ezin azal ditzake *banu* erako adizkiak, non ageriko funtzio bururik ez badago ere, ERG lekuz aldatzen den.

Lakaren iritziz, bestalde, Ergatiboaren Lekualdaketa ez da mugimendu sintaktikoa; areago, buru mugimendua, fonologikoki eratorri -ERG, iritsi behar duen gunea hutsik badago bakarrik mugitzen da, funtzio burua agerian delarik- eta A-egituratik FFra bitartean kokatzen da. Baina, ene aburuz, Lakak ERGren mugimendua deritzana KMZri berari eta Dren [+Iragan] tasunari zor zaio, eta konputazio sisteman bertan gertatzen da adjunkzioa. Nolanahi ere, ez nuke esango ERG lekuz mugitzen denik, Erkabide Erdibituaren esparruan, predikatu iragankorreko subjektuak ϕ 2-tasunak erkatzen dituela baizik, hau da, objektuak ohiko erkabidean zilegiztatuko lituzkeen berberak. Dakusagun, bada, ene hipotesia.

4.3 ERKABIDE ERDIBITUA ETA AS AZALAREN MENDEKO KMZ

Orain arte euskararen kasu eta komunztadura sistema izan dut aztergai. Euskaraz, erakutsi dudana bezala, iragan nahiz Alegiazkoan subjektua lehen edota bigarren pertsona bada, hirugarren pertsonako objektuak ez du ϕ 2-tasunik erkatzen, eta subjektuak, beraz, ohikoak zaizkion ϕ 1-tasunak baino, ϕ 2-tasunak zilegiztatzen ditu.

Ohikoa ez den erkabide hau ezin erator daiteke Chomsky (1993) eta Bobaljiken (1993) hipotesiaz, lehenik eta behin, objektuak ABS kasua erkatzen badu ere, ϕ 2-pertsona tasunik zilegiztatzen ez duelako, eta bigarrenik, subjektuak, ERG zilegiztaturik ere, objektuari egotzi gabeko ϕ 2-pertsona tasuna erkatzen duelako. Subjektuak, bestalde, bi Espez gunen iritsi behar du, [Espez, KMZ] gunea ϕ 2-tasunak erkatzeko eta [Espez, D] ERG zilegiztatzekotan. Subjektuaren l-tasunen erkabidea, beraz, erdibitu egiten da bi Espez gunetan (King, 1994; Lyle, 1996).

Erkabide Erdibituko perpausetarako, bi KMZ buruko egitura proposatuko dut, baina bietarik bat AS azalaren (Larson, 1988) mendean ezarriko dut (Collins & Thrainsson, 1993; López & Austin, 1995), beste funtzio buruak ezarri diren bezala (Travis, 1991, 1992). Mendeko KMZ buru honen Espez gunea da objektuak iritsiko duena, bertan ABS kasua erkatuz soilik. Subjektuak, bere aldetik, objektuak zilegiztatu gabeko ϕ 2-pertsona tasuna jasoko du AS azala baino gorago indartuko den bigarren KMZ buruaren Espez gunean. Eta Dren Espez gunera joko du azkenik, bertan ERG kasua zilegiztatu eta Islapen Hatsarre Zabaldia betetz (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993; Bobaljik & Carnie, 1992).


Atal honetan zehar, ϕ 2-tasunak eta ERG Espez gunen berean ezin erka daitezkeela erakutsiko dut lehenik (4.3.1). Ondoren (4.3.2),

hirugarren pertsonaren [-pertsona] eta Dren [+/-iragan] tasunen arteko harremanaz hausnartu eta Erkabide Erdibituko perpausen egitura emango dut. Amaieran (4.3.3) subjektuari dagokionean aztertuko dut D, [Espez, D] ere ERG kasua zilegiztatzeko gunetzat hartuz.

4.3.1 [Espez, KMZ] eta I-tasunen erkaketa

Kasu Teoriak (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993) dioenez -ikus (1.2) atala-, argumentuek [Espez, KMZ] gunea iristen dute I-tasunak erkatzeko eta Espez gunea horretantxe erkatzen dituzte kasua nahiz ϕ -tasunak, (26) azpiatalean ikus daitekeen erara.

(26)




Kasua A edota D buruei dagokienez eta ϕ -tasunak, berriz, KMZ buruari, A edota D KMZ buru banari adjunktatuz zilegizta daitezke I-tasunok KMZren Espez gunean.

Euskara, bestalde, sistema ergatiboa da, predikatu iragangaitzeko perpausetan KMZ2 indarturik, argumentuak [Espez, KMZ2] gunea iritsi behar duelako halabeharrez. Honelaxe, bada, argumentuak ABS zilegiztatzen du, hau da, A KMZ2ri adjunktaturik zilegizta daitekeen kasua. Baina argumentuak kasua ezeze, gunean guneko ϕ -tasunak ere erkatu behar ditu mugimendu gutziatsu bakoitzean: sistema

ergatiboetan ABS nahitaezko kasua den bezalaxe, ϕ 2-tasunak dira predikatu iragangaitzeko perpausetan nahitaez erkatzen direnak¹⁶ eta sistema nom/akusatiboetan, aldiz, ϕ 1-tasunak.


Era berean, predikatu iragankorreko perpausetan, zeinetan sistema nom/akusatiboa eta ergatiboa ezin bereiz daitezkeen, bi KMZ buruak indarrean daudelarik, subjektuak ERG/NOM zein ϕ 1-tasunak erkatzen ditu [Espez, KMZ1] gunean eta objektuak, bere aldetik, ABS/AK zein ϕ 2-tasunak [Espez, KMZ2]n. Dakusagun (27) eta (28) azpiataletan. A KMZ2ri adjunktatu ondoren, ABS nahiz ϕ 2-tasunak zilegiztatuko dira KMZ2ren Espez gunean. Dakusagun (27)an.

(27)



Eta D KMZ1i adjunktaturik, ERG eta ϕ 1-tasunak KMZ1en Espez gunean (28).

(28)



Euskaraz, gorago (4.2) nioen bezala, bi komunztadura morfemetatik lehenak ϕ 2-tasuna islatzen du eta bigarrenak, ϕ 1-tasuna, eta predikatu iragankorreko perpausetan bi morfemek komunztatzen dituzte subjektua eta objektua. Areago, bi argumentuak adizkian komunztatu ezik, perpausa ezgramatikala da. Gatozen, bada, (29) perpausetara (21) azpiataleko berberetara.

- | | | | | | |
|------|------|--------|-------------------|----------|----------------------------------|
| (29) | i. | Ni | Euskal Herritik | joan | naiz |
| | | ni-ABS | Euskal Herri-ABLT | joan | $1_{\phi 2}$ -izan |
| | ii. | Zuk | ni | gogoratu | nauzu |
| | | zu-ERG | ni-ABS | gogoratu | $1_{\phi 2}$ -edun- $2_{\phi 1}$ |
| | iii. | Nik | zu | gogoratu | zaitut |
| | | ni-ERG | zu-ABS | gogoratu | $2_{\phi 2}$ -edun- $1_{\phi 1}$ |

Perpausotan bi morfemek adierazten dute singularreko lehen pertsona, *n-* eta *-t* morfemek. Demagun *n-* morfema, ϕ 2-tasunari dagokiona, [Espez, KMZ2] gunean erkatzen dela ABSrekin batera, predikatu iragangaitzeko subjektua (29.i) nahiz predikatu iragankorreko objektua (29.ii) denean. Demagun, halaber, *-t* morfema, alegia, ϕ 1-tasunaren adierazgarri morfologikoa nahiz ERG [Espez, KMZ1] gunean erkatzen direla, singularreko lehen pertsona predikatu iragankorreko subjektua denean (29.iii). Espez gune bera da, diodan berriro, kasua zein ϕ -tasuna zilegiztatzen diren gunea. Datu hauek (30) azpiatalera dakartzat taulatururik.

- | | | | | | |
|------|-----|-----|-----|------------------|---------------|
| (30) | i. | S/O | ABS | ϕ 2-tasunak | [Espez, KMZ2] |
| | ii. | AG | ERG | ϕ 1-tasunak | [Espez, KMZ1] |

Ez dirudi, alabaina, kasua nahiz ϕ -tasunak beti gunee berean erka daitezkeenik -ikus baita Lyle (1996), eta hein batean, King (1994) eta López (1995)¹⁷ ere-. Jo dezagun orain (23) perpausetara, (31)an berriro emanik.


- | | | | | | |
|------|------|----------|-------------------|----------|---|
| (31) | i. | Ni | Euskal Herri | joan | nintzen |
| | | ni-ABS | Euskal Herri-ABLT | joan | 1 ϕ ₂ -izan |
| | ii. | Hark | ni | gogoratu | ninduen |
| | | hura-ERG | ni-ABS | gogoratu | 1 ϕ ₂ -edun-3 ϕ ₁ |
| | iii. | Nik | hura | gogoratu | nuen |
| | | ni-ERG | hura-ABS | gogoratu | 1 ϕ ₂ -edun |

Adibide hauek erakusten dutenez, singularreko lehen pertsona, predikatu iragangaitzeko subjektua (31.i) zein predikatu iragankorreko objektua denean (31.ii), ABSz markatu eta *n*-morfemaz komunztatzen da aditzean, baina predikatu iragankorreko subjektua denean (31.iii), ERG ezarririk ere, *n*- morfema berberaz komunztatzen da aditzian. Eta ez dirudi ERG eta ϕ ₂-tasuna adierazten duen *n*- morfema gunee berean erka daitezkeenik. Edo bestela esanda, ABS kasua nahiz *n*- morfemak islatzen duen ϕ ₂-tasuna [Espez, KMZ2] gunean erkatzen bada eta ERG kasua nahiz -*t* morfemak adierazten duen ϕ ₁-tasuna [Espez, KMZ1] gunean (32.i), orduan, *n*- morfemaz komunztatzen den ERG argumentuak ezin erka ditzake kasua eta ϕ ₂-tasunak gunee berean (32.ii). Dakusagun (32)an formulaturik.

- | | | | | | |
|------|-----|------|-----|------------------------------|---------------|
| (32) | i. | AG | ERG | ϕ ₁ -tasunak | [Espez, KMZ1] |
| | ii. | * AG | ERG | ϕ ₂ -tasunak | [Espez, KMZ1] |

Edo (33)an zuhaitzaren bidez.

(33)



Bada, predikatu iragankorreko subjektuak gunee berean ezin erka baditzake ERG kasua eta ϕ 2-tasuna, bi Espez gunetan erdibituko du I-tasunen erkaketa, ϕ 2-tasuna zilegiztatuz batetik eta ERG bestetik, (33.iii) perpausetan bezalaxe. Erkabide Erdibitua deritzat honi.

4.3.2 AS azala, mendeko KMZ eta ϕ -tasun gabeko objektua

Erkabide Erdibituko perpausetan predikatu iragankorreko subjektuak kasua eta ϕ -tasuna gunee berean erka ezin ditzakeela erakutsi dut dagoeneko¹⁸. Argumentu horrek, gainera, ohikoak zaizkion ϕ 1-tasunak baino, sistema ergatiboetan nahitaez erkatu beharreko ϕ 2-tasunak zilegiztatzen ditu. Ildo honetan, honakoa galde daiteke, ea zergaitik erkatzen duen predikatu iragankorreko subjektuak, objektuak ordurako erkatu beharko zukeen ϕ -tasuna. Bada, ene aburuz, Erkabide Erdibituko perpausetan objektuak ϕ 2-pertsona tasunik erkatzen ez duelako.

Izan ere, predikatu iragankorreko objektuak, ohiko erkabideko perpausetan (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993), [Espez, KMZ2]n erkatzen ditu ABS nahiz ϕ 2-tasunak, eta ϕ 2-tasunak zilegiztaturik, subjektuak ϕ 1-tasunak erka ditzake. Baina Erkabide Erdibituko

perpausetan objektuak ϕ 2-tasunik erkatzen ez duela¹⁹ pentsa daiteke, batetik, ϕ 2-tasunak islatzen dituzten morfemak subjektuari dagozkiolako, ez objektuari, eta bestetik, objektuak berak erkatu balitu, subjektuak erkatuko ez zituzkeelako. Aintzat izan, tasun berberak, ϕ 2-tasunak kasu honetan, birritan ezin erka daitezkeela, KMZren Espez bera ezin irits baitezakete bi argumentu ezberdinek. (34)ra dakart ϕ -tasunen erkaketarako bi baldintzak.

- (34) i. Objektuak ϕ 2-tasunak erkatuz gero,
 subjektuak ϕ 1-tasunak erkatzen ditu
- ii. Objektuak ϕ 2-tasunik erkatu ezik,
 subjektuak ϕ 2-tasunak erkatzen ditu

Lehen baldintza (34.i) betetzekotan, ohiko erkabideari lotzen zaizkio predikatu iragankorreko perpausak, baina objektuak ϕ 2-tasunik erkatu ezik (34.ii), subjektuaren l-tasunen erkaketa erdibitu egiten da. Dena den, objektuak ϕ -tasunik erkatu duen ala ez bakarrik jakin daiteke subjektuaren tasunei behatuz, hirugarren pertsonak marka morfologikorik ez duelako ezta ϕ 2-tasunak erkatzen dituenen ere.

Jo dezagun, beraz, Erkabide Erdibituko perpausetan objektuak ϕ 2-tasunik erkatzen ez duela. Horretarako, batetik subjektua eta objektua aurkako [+/-pertsona] tasunaz bereizi behar dira, eta bestetik objektua eta D ere aurkako balioez zehaztu behar dira. Dakusagun irizpidez irizpide.

Erkabide Erdibituko perpausetan, predikatu iragankorreko subjektuak lehen edo bigarren pertsona izan behar du eta objektuak, bere aldetik, hirugarren pertsona, alegia, subjektua eta objektua aurkako [+/-pertsona] tasunez (Benveniste, 1971) bereizi behar dira, subjektuak l-tasunak erdibi ditzan. Ildo honetan, Erkabide Erdibituak

Ergatibotasun Erdibituan (Silverstein, 1977; Comrie, 1978, 1981 a; Dixon, 1979, 1994) du euskarri, argumentuen beraien aurkako tasunek sortarazten dutelako, eta Erdibiketa uztartu vs. askeari (Dixon, 1994) lotu dakioke, perpaus berberetan kasu sistema ergatiboa den arren, komunztadura sistema neutroa delako.

- (35) *Erkabide Erdibitua/Ergatibotasun Erdibitua*
 Lehen edo bigarren pertsona [+pertsona]
 vs. hirugarren pertsona [-pertsona]

Baina subjektu eta objektuen arteko aurkakotasun honetaz gain, Dk [+iragan] tasuna izan behar du, erdibiketa Iragan nahiz Alegiazkoan baino ez baita gertatzen, eta objektuak, dagoeneko esan dudan bezala, [-pertsona], hau da, hirugarren pertsona. Gogoan izan hirugarren pertsona morfema ezaz edo $\emptyset$ morfemaz adierazten dela euskaraz (Oregi, 1974; Trask, 1977; Euskaltzaindia, 1987 b; Laka, 1988; Gomez & Sainz, 1995). Baina morfema ezaz adierazten den arren, hirugarren pertsonak ϕ 2-tasunak erka ditzake, hala nola, (36.i) perpausean.

- (36) i. Nik hura gogoratu dut
 ni-ERG hura-ABS gogoratu $3_{\phi 2}/D$ -edun- $1_{\phi 2}$
- ii. Nik hura gogoratu nuen
 ni-ERG hura-ABS gogoratu $1_{\phi 2}$ -edun

Lehen perpausean (36.i), *hura* objektuak, $\emptyset$ morfemaz adierazi denak **edun* laguntzailearen hastapenean, ϕ 2-tasuna erkatu du, bestela, *nik* subjektuak ezin zilegiztatuko baitzukeen -*t* morfemak adierazten duen ϕ 1-tasuna. Bigarren perpausean (36.ii), berriz, **edun* laguntzailea bera badarabilgu ere, argumentu bakarrarekin komunztatu da, subjektuarekin, alegia, eta ϕ 2-tasuna erkatu du *n-*

morfemaz. Alabaina, subjektuak ϕ 1-tasuna zilegiztatuko zukeen, *-t* morfemaz, objektuak ordurako ϕ 2-tasunik erkatu balu. Bigarren perpausean, beraz, objektuak ABS kasua zilegiztatu badu ere, ez du ϕ -tasunik erkatu. Ildo honetan, (36.i) perpausa Chomsky/Bobaljik hipotesiaz erator daitekeen bitartean, (36.ii) perpausa ez zaio erkabide horri egokitzen, eta Erkabide Erdibituaren hipotesiaz eratorri behar da.

Bestalde, morfemarik eza edo $\emptyset$ morfema bada hirugarren pertsonaren adierazgarri morfologikoa, inoiz ϕ -tasunik erkatzen ez duela pentsa liteke, baina, orduan, ezin azal liteke (36.i) eta (36.ii) perpausen arteko bereizkuntza. Ene aburuz, bi perpaus horien bereizkuntza ϕ 2-tasunen zilegiztapenean datza: lehenean objektuak erkatu ditu, subjektuak bere aldetik, ϕ 1-tasunak zilegiztatu dituelarik; bigarrenean, aldiz, objektuak erkatu ez dituenenez, eta sistema ergatiboan ϕ 2-tasun saila nahitaezkoa denez, subjektuak berak zilegiztatu ditu.

Hortaz, Erkabide Erdibituko perpausetan subjektua eta objektua aurkako [+/-pertsona] tasunaz bereizirik, objektuak ez du ϕ 2-tasunik erkatzen. Baina bada besterik, objektua eta D ere aurkako balioez zehaztu behar dira. Izan ere, hirugarren pertsonak ϕ 2-tasunik erkatzekotan, D ageriko *d-*, *z-*, *b-* zein *l-* morfemez (Oregi, 1974; Trask, 1977; Euskaltzaindia, 1987 b; Laka, 1988; Gomez & Sainz, 1995) adierazi behar da adizkian. Dakusagun hirugarren pertsona [+/-iragan] eta [+/-alegia] tasunen (Albizu, 1994) arabera ondoko adizkietan (37). Euskara batuaz eta bizkaieraz eman dira adizkiak. Dena den, f-pertsona tasunen zilegiztapenari dagokionean, ez da bereizkuntza nabarmenik euskalkitik euskalkira, ez morfemetan beraietan, ezta morfema hurrenkeran ere (Mitxelena, 1981; Laka, 1988).

- (37) i. ORAINA [-iragan]
dut/dot; du/dau
- ii. IRAGANA [+iragan, -alegia]
nuen/neban; zuen/eban
- iii. ALEGIAZKOA [+iragan, +alegia]
banu/baneu; balu/baleu

Goiko azpiataleko Orain, Iragan eta Alegiazkoan hurrenez hurren ageri diren *dut/dau*, *zuen/eban*, *balu/baleu* pareetan hirugarren vs. hirugarren pertsonak ditugu. Adizki hauetan [+/-pertsona] aurkakotasunik ez dagoenez, ohiko erkabideaz erator daitezke guztiak. Beraietan objektuak ϕ 2-tasunak erkatu eta D *d*- morfemaz adierazi da Orainean, *z*- morfemaz Iraganean eta *l*- morfemaz Alegiazkoan. *Eban* dugu salbuespen bakarra, non D morfemarik ageri ez den arren, objektuak ϕ 2-tasunak erkatu dituela pentsa daitekeen.

Era berean, lehen vs. hirugarren pertsona aurkakotasunaz eratu diren adizkietan, *dut/dot* bikotea dugu Orainean, ohiko erkabideaz erator daitekeena hau ere, [+/-pertsona] aurkakotasunarengatik ere, D [-iragan] delako. Baina Iraganeko *nuen/neban* eta Alegiazko *banu/baneu* pareetan, aurkako [+/-pertsona] tasunez gain, D [+iragan] ere bada, eta beraietan ez dirudi objektuak ϕ 2-tasunik erkatu duenik, subjektua *n*- morfemaz ageri baita adizkien hastapenean -datuok erakusten dutenez bizkaieraz ere ematen da *l*-tasunen erdibiketa-. Adizki hauetan objektuak ϕ 2-tasunik erkatu ez eta D morfemarik ez da ageri adizkiaren hastapenean.

Gonbara daitezke orain (36) perpausak. Lehenean (36.i), zeinetan hirugarren pertsonako objektuak ϕ 2-tasunak erkatu dituen, D *d*- morfemaz ageri da adizkiaren hastapenean, baina bigarrenean

(36.ii), objektuak ez du ϕ 2-tasunik erkatu eta hastapenean *d*- D morfema ere ez da azaltzen adizkian²⁰. Orduan, lehen/bigarren vs. hirugarren pertsonen aurkakotasunaz gain, Dren beraren [+/-iragan] tasunak ere eragiten du erdibiketa -(38) taulan ikus daitezke tasunok-.


- (38) i. AG [+pertsona] vs. O [-pertsona] eta
ORAINA [-iragan]
- ii. AG [+pertsona] vs. O [-pertsona] eta
IRAGANA/ALEGIAZKOA [+iragan]

Zeren Dren tasunari zor baitzaio hirugarren pertsonaren ϕ 2-tasunen erkaketa: D [+iragan] izanez gero, hirugarren pertsonako objektuak ez du ϕ 2-tasunik erkatu behar; D [-iragan] izanez gero, berriz, ϕ 2-tasunak erkatu behar ditu. Dren [iragan] tasunak [-] balioa badu, D ezmarkatua dela esan daiteke eta baita objektua bera ere, [pertsona] tasunean [-] balioa duelako. Lehen/bigarren vs. hirugarren pertsonen aurkakotasunean, objektuak nahitaez erkatu behar ditu ϕ 2-tasunak D ezmarkatuan, alegia, Orainean, objektuak ϕ 2-tasunik erkatuko ez balu, Dk ezin adieraz baitezake hirugarren pertsonarik. Baina D markatua denean, hau da, Iragan nahiz Alegiazkoan, objektuak ez du ϕ 2-tasuna nahitaez erkatu behar, D markatuak berez dakarrelako hirugarren pertsonaren berri. Edo bestela esanda, baldin eta subjektua lehen/bigarren pertsona bada, berez datorrigu hirugarren pertsona D markatutik²¹.

Laburbilduz, euskarak Iragan nahiz Alegiazkoan jasaten duen erdibiketa uztartu vs. askea eta honi dagokion subjektuaren l-tasunen Erkabide Erdibitua, lehen/bigarren vs. hirugarren pertsonen tasunen aurkakotasunari zor zaio batetik, eta hirugarren pertsonaren eta

Dren tasunen balioei bestetik. Eta Erdibiketa ohikoa ez den ondoko (39) perpaus egituraz erator daiteke.

(39)



Goiko perpaus egituran (39), bi KMZ buru bereizi dut eta D burua bera ere, baina KMZ buruetarik bat, AS azalaren (Larson, 1988) mendean ezarri dut (Collins & Thrainsson, 1993; López & Austin, 1995)²². Honelaxe, bada, Dren osagarri gunean dugu KMZ'', A1en osagarri gunean KMZ2'' eta KMZ2renean, AS2. Bi KMZ buru ezberdindu dut, batetik, Erkabide Erdibituko perpausak iragankorrak direlako eta, hortaz, [Espez, KMZ] gune bana eskura behar dutelako subjektuak eta objektuak; eta bestetik, objektuak pertsona komunztadurarik ez badu ere, hau da, ϕ 2-pertsona tasunik


zilegiztatzen ez badu ere, zenbaki komunztadura izan dezakeelako: objektua pluraleko hirugarren pertsona bada, zenbaki bidez komunztatzen da adizkian. Dakusagun ondoko adibidean (40).

(40)	Nik	haiek	ahaztu	nituen
	ni-ERG	haiek-ABS	ahaztu	1 ϕ 2-3pl1-edun

Goiko adibidean (40), objektua *-it-* pluralgileaz komunztatu da adizkian, horregatik, pertsona tasunik erkatzen ez badu ere, ϕ 2-zenbaki tasunak erkatu behar ditu [Espez, KMZ] guneren batetan. Dena den, zenbaki morfemek, gainerako flexio morfemek ez bezala, euskalkian euskalkiko hurrenkera ezberdina dela eta -gonbara daitezen, kasurako, *nituen/nebazan* adizkiak, hauxe pentsa daiteke, ϕ -tasunak beraiek ere pertsona eta zenbaki tasunetan banatu eta KMZ buru ezberdinei esker zilegiztatzen direla (Rigau, 1991, 1995).

Bi KMZ buru ezberdindurik ere, biak dira A adjunktatutako buruak, KMZ2 lehena A1 adjunktatu zaiona eta KMZ deritzadana bigarrena, A2k iritsi duena. Eta ez dago D adjunktatzen zaion KMZ1 bururik, zeren ϕ 1-tasunik ez baita erkatzen Erkabide Erdibituko perpausetan. Subjektuak ϕ 2-pertsona tasunak erkatzen dituzenez, eta objektuak, bere aldetik, ϕ 2-zenbaki tasunak, bi KMZ buruek D bera baino beherago egon behar dute oinarrizko egituran. Bi buruetarik bat, gainera, AS azalaren mendean egotzi dut, (41) azpiatalean ikus daitekeen bezala.


(41)



Egitura bera nerabilen zehar objektudun perpausetan KMZ3 burua indarturik, KMZ2 burua ezartzeko -ikus hirugarren kapitulua-, zeren Distantziakidetasuna (Chomsky, 1993) dela eta, ez baineritzan zilegi KMZ2 burua AS azaletik kanpo ezartzeari.

Gatozen, bada, eratorpena bera ikustera. Gogoan izan erdibiketaren funtsa [+/-pertsona] aurkakotasuna dela, baina D markatuari dagokiola, objektuak AS azalaren mendeko KMZ buruarekin batera ϕ 2-pertsona tasunik erkatu beharrik ez izatea.

(42)



Goiko eratorpenean, objektuak AS azalaren mendeko KMZ2ren Espez gunea iritsirik, ABS erka dezake baina ez du ϕ 2-pertsona tasunik erkatzen D markatua delako. Objektuak zilegiztatu gabeko ϕ 2-pertsona tasuna subjektuak berak erkatu du ondoren AS azala bera baino gorago indarturiko KMZren Espez gunean. Subjektuak, bestalde, badu artean zilegiztatu gabeko tasunik, kasua, alegia, eta honetan datza, hain zuzen ere, I-tasunen Erkabide Erdibitua, zeren subjektuak [Espez, KMZ] iritsi eta ϕ 2-tasunak erkatu ondoren, [Espez, D] gunea iritsi baitu ERG zilegiztatzekotan.

Ezohiko eratorpen honetan, A bi KMZ bururi adjunktatu zaio, ϕ 2-pertsona tasunak nahitaezkoak direnez, objektuak erkatu ezik,


subjektuak berak erkatu behar dituelako Arekin batera. Horregatik, bada, objektuak eta subjektuak bi [Espez, KMZ] gunetan dituzte eskura ϕ 2-pertsona tasunak, batak nahiz besteak zilegiztatzeko. Dakusagun azken urratsa, subjektuak ϕ 2-pertsona tasunak zilegiztatu ondoren, [Espez, D] gunera ematen duena.

4.3.4 D, [Espez, D] eta ERGren erkaketa

Goiko atalean ϕ 2-pertsona tasunez ihardun dut, objektuak zilegiztatu gabeko tasuna subjektuak berak erka dezakeela erakutsiz. Horretarako AS azalaren gaineko KMZ buruaren Espez iritsi du (42) eratorpenean. Baina f2-tasunak erkatu ondoren, subjektuak badu bestelako I-tasunik, ERG kasua, alegia, Drekin batera erkatu behar duena. Aintzat izan, objektuak AS azalaren baitan ABS kasua erkatzen duela, hots, Aren kasua, baina ez ϕ 2-tasunik, eta subjektuak, beraz, [Espez, KMZ] gunean ezin erka dezakeela ϕ 2-tasunik baino.

Subjektuak, orduan, kasua behar du, [Espez, KMZ] iritsirik ere, ezin ase baititzake bere I-tasun guztiak. Horregatik, hain zuzen, erdibitzen du erkaketa, eta [Espez, KMZ]ra igo ondoren, [Espez, D] iristen du, bertan Dren kasua, alegia, ERG zilegiztatuz. (43) azpiatalera dakart subjektuari dagokion erkabidea, bi Espez gunetan erdibitu dena.

(43)



Goiko eratorpenean subjektua, AS1en Espez gunean sortu denak, KMZren Espez iritsi eta bertan zilegiztatu du ϕ 2-pertsona tasuna. Baina Dren Espez gunera igo da ondoren, ERG erkatuz bertan. Izan ere, subjektuak Dren l-tasuna erkatu behar du, *Islapen Hatsarre Zabaldua* betez (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993; Bobaljik & Carnie, 1992). (43) azpiatalera dakart berriro aipatu hatsarrea.

(43) *Islapen Hatsarre Zabaldua*
Perpauk orok subjektua behar du

Subjektua [Espez, D] gunera igoko ez balitz Dren l-tasuna, sendoa dena, zilegiztatu gabe geldituko litzateke eta eratorpenak huts egingo luke. l-tasunen erdibiketak, beraz, hauxe erakus dezake, ERG kasua KMZ buruaren Espez gunean ezeze, Dren Espez gunean ere erka daitekeela.

Laburbilduz, sistema ergatiboa urratzen duten perpausetan, hau da Erkabide Erdibituko perpausetan ezin pentsa daiteke argumentuen kasua eta ϕ -tasunak gunee berean erkatzen direnik: subjektuak bi Espez gunetara jo beharra du I-tasunak erkatzera, lehenik ϕ -tasuna erka ditzakeen gunera eta bigarrenik, ERG kasua zilegizta dezakeenera.

4.4 ONDORIOAK

Euskara sistema erdibitua da. Bi eratako erdibiketak jasan ditzake, bata kasu sisteman zenbakiari dagokiona eta bestea komunztadura sisteman pertsona tasunen aurkakotasunean oinarritzen dena. Pertsona tasun aurkariei zor zaien erdibiketa uztartu vs. askea erakoa da, zeren komunztadurak berak baino ez baitu jasaten, kasu sistemak ergatiboa izaten dirauelarik. Sistema ergatiboarekin batera azaltzen den azpisistema neutroa da, predikatu iragankorreko nahiz iragangaitzeko subjektuak ezeze, predikatu iragankorreko objektua ere berdintzen dituelako.

Erdibiketa uztartu vs. askea, I-tasunen Erkabide Erdibituaz azal daiteke, non predikatu iragankorreko subjektuak bi Espez gunetan erdibitzen dituen I-tasunak, batetik [Espez, KMZ] eta bestetik [Espez, D] gunean. Subjektuak ez luke erkabidea erdibituko, objektuak ϕ 2-pertsona tasuna zilegiztatu balu, baina D markatutik berez datorrenez hirugarren pertsona, beronek ez ohi du erkatu ϕ 2-pertsona tasunik Iragan zein Alegiazkoan. Eta ϕ 2-tasun saila nahitaezkoa denez sistema ergatiboetan, subjektuak berak bereganatzen du objektuak zilegiztatu ez duen tasuna. [Espez, D] gunea iritsirik, azkenik, Dren I-tasun sendoa zilegiztatzen du subjektuak.

OHARRAK

¹Ez dirudi, oro har, Ergatibotasun Erdibituaz mintzatzea zilegi denik, aurreteorikoki ez bada -ikus baita (2) oharra-. Izan ere, euskal komunztadura sisteman, ISen izaera semantikoari egotzi zaion erdibiketa, ene ustez, ISk kasua eta Φ -tasunak Espez gune berean zilegiztatu ezinik, bi Espez gune ezberdinetan erkatzea baino ez da. Dena den, Ergatibotasun Erdibituaz dihardute egun baita Minimalismoaren esparruko gramatikalariek ere.

²Hauetaz gain, predikatuaren izaera semantikoa ere aipatu izan da Ergatibotasun Erdibitua sortaraz dezaketen irizpideen artean -ikus baita bigarren kapitulua-. Predikatu iragangaitzeko subjektua predikatu iragankorreko subjektua bezala markatzen duenari *Sistema Ergatibo Hedatua* deritza Dixonek, eta honelaxe iritzi dio Ortiz de Urbinak (1986) euskarari.

Ortiz de Urbinarekin bat etor ninteke, baldin eta predikatu ezergatibo oro iragangaitzat joko banu (Perlmutter, 1978; Burzio, 1981, 1986), ezen euskaraz zenbait ezergatibok -I + *egin* erakoek, kasurako-, ezakusatiboek ez bezala, ERG erka baitezakete. Baina, ene aburuz, ERG erkatzen duten ezergatiboak ez dira iragangaitz konputazio sisteman, iragankor baino, edo bestela esanda, ABS erkatzen duten ezergatiboak baizik ez dira iragangaitz konputazio sisteman -*mintzatu* erakoak-. Horregatik, ez dirudi sistema ergatibo hedatuez mintza daitekeenik ezta esan ere predikatuaren izaera semantikoak Ergatibotasun Erdibitua erakar dezakeenik. Ene iritziz, ezergatiboak konputazio sistemaren baitan iragangaitz ala iragankor izatean datza kasu bereizkuntza, bigarren kapituluan erakutsi dudan bezala.

Nolanahi ere, ikus Dixon (1994), sistema erdibitua -lakotera, dakoteraren dialektoa, sioux hizkuntza familia- *sistema isurkorra* deritzanetik -tsova tushera, ipar-ekialdeko kaukasiar hizkuntza (Holisky, 1987)- banatzeko.

³Ikus Jelinek (1993), irizpide honen araberrako erdibiketarako lummieraz (Straits Salish).

⁴Kalaw lagaw yaera, Australia eta Ginea Berria arteko Torres Itsasarteko mendealdeko hizkuntza.

⁵Txuktxiera, Siberiako ipar-ekialdeko hizkuntza.

⁶Maiar SAO hizkuntzetatik tzeltalera, tojolabalera eta ixilera -dira D edota ASPren araberrako bikoiztasunik erakusten ez dutenak. Predikatu iragangaitzek B saileko izenordainak darabiltzate zeinahi dela D edota ASP.

⁷Ikus lehen kapituluko (24) oharra eta bigarren kapituluko (7)a eta (8)a.

⁸Nolanahi ere, Lakarengan (1995) ASP ezburutuak indarreko kasu tasunik ez badu, ezin uler daiteke zein den ASP ezburutuko perpausetan predikatu iragankorreko objektuari egotzen zaion kasua. Bestalde, ASP ezburutuak kasu

tasun *ahula* duela dioenean, badirudi haxe esan nahi duela, kasu tasuna *indarge* dagoela, neu lotu natzaion hipotesian (Chomsky, 1993; Bobaljik, 1993) KMZ burua egon daitekeen bezala. Baina kasua *indarge* badago, orduan, predikatu iragankorreko objektuak ezin erka dezake kasurik ASP ez burutuko perpausetan.

Gogoan izan, halaber, tasun *ahul* edota sendoak erabili ditudanean -ikus (1.2.3) atala-, hitz hurrenkera nuela aztergai, eta agerian -Ahoskatu aurretik- eta ezkutuan -FLn- hurrenez hurren erkatu beharreko tasunez niharduela Pollock (1989) edota Chomskyren (1993) ildoan. Hortaz, ez dakit zilegi den *ahul* hitza erabiltzea hitz hurrenkeraren esparrutik kanpo; zilegi bada, argitu behar da bigarren esanahia, Lakaren azalpenean, kasurako, ea tasun *ahula* *indarge* dagoen tasuna den ala ez.

⁹Georgieraz (Harris, 1981) eta, oro har, kartveliar hizkuntzetan (Vamling, Tchantouria & Lomtadze, 1994), D/ASP Sailen araberrako sistemak daude, eta Aoristo Saila da sistema ergatiboari lotzen zaiona.

¹⁰Euskaraz ϕ 3-tasunak islatzen dituen morfema saila ere badugu erroari itsatsirik - ϕ 3-tasunen erkaketarako, ikus hirugarren kapitulua-. ϕ 1-tasunak islatzen dituen sail bera da, singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonarako $\emptyset$ barik, -o morfema eta -e pluralilea baditu ere.

¹¹Aintzat izan adizkiaren morfemen hurrenkera ere tasunen gunean guneako erkaketari loturik datorrela, eta horregatik, ϕ 2-erroa- ϕ 1 hurrenkera bada predikatu iragankorreko erakusten dutena, ϕ 2-tasunak, ϕ 1-tasunak baino lehen erkatuko dira, beheko KMZ buruaren Espez gunean, alegia. Zehar argumentuarekin komunztatzen diren adizkien morfema hurrenkeraz ikus (3.2.1) eta (3.3) atalak.

¹²Predikatu iragankorreko subjektuak ϕ 2-tasunak erkaturik ere, objektuak ϕ -tasunik zilegiztatzen ez duenez, ez da Murasugiren (1994) *Tasun Zehaztapenaren Muga* urratuko. Murasugik Tasun Zehaztapenaren Mugaz dioenez goiko KMZ buruaren tasunak beheko KMZ buruaren tasunak baino zehaztuagoak izan behar dute ala beraiek bezain zehaztuak, eta Erkabide Erdibituko perpausetan ere, goiko KMZ buruari dagozkio ϕ -tasunik *zehaztuenak*, beheko KMZ buruak, AS azalaren baitakoak, ezin erka baitzezake ϕ -tasunik -ikus (4.3.2) azpiatala-.

Murasugiren *Mugaz* haxe azal daiteke, zergatik dagoen ageriko subjektu eta objektu komunztadura duen hizkuntzarik, eta ezkutuko subjektu nahiz objektu komunztadura duenik, baita subjektu komunztadura soilik duen hizkuntzarik, eta azkenik, zergatik ezin egon daitekeen ageriko objektu komunztadura eta ezkutuko subjektu komunztadura duen hizkuntzarik. Ildo honetan, Erkabide Erdibituko perpausetan, *Muga* urratzen dela irudi lezake, ageriko ϕ 2-tasunak egonik ere, ageriko ϕ 1-tasunik ez dagoelako, baina ϕ 2-tasunak ez dira, ohi bezala, objektu komunztadura tasunak, subjektu komunztadura tasunak baizik. Beraz, Erkabide Erdibitua ere, ohiko erkabidea bezalaxe, Tasun Zehaztapenaren Mugari lotzen zaio.

¹³Euskaltzaindiak (1987 b), neronek edota Albizuk (1994) ez bezala, [+/-orain] eta [+/-iragan] tasunak darabiltza Oraina, Iragana eta Alegiazkoa ezaugarritzatzeko.

Orainari [+orain, -iragan] tasunak egozten dizkio, Iraganari, [-orain, +iragan] eta Alegiazkoari, azkenik, [-orain, -iragan].

¹⁴Rikardo Gomezek diostanez, sistema neutrotzat jo liteke, baldin eta (27.iii) ere ohiko erkabideaz eratu eta predikatu iragankorreko subjektua, predikatu iragangaitzekoa eta predikatu iragankorreko objektua bezalaxe komunztatuko balitz, baina, bere iritziz, (27.iii) Erkabide Erdibitukoa denez, adizki ezberdina da eta, ondorioz, ezin saikila daiteke gainerako biekkin batera (27.i) eta (27.ii), hirurek sistema neutroa eratzen dutela ebatzeko.

Dena den, sistema ergatiboa ez den hori sistema neutroa dela ezin ebats badaiteke, ezin onetsiko da sistema nom/akusatiboa denik, azken batean, predikatu iragangaitzeko nahiz iragankorreko subjektuak berdintzen direla diotenean, Erkabide Erdibituko adizkiari ere erreparatzen diotelako, aintzat hartu gabe, gainera, predikatu iragankorreko objektutik bereizten den ala ez.

Bihoa nire esker ona, bide batez, Rikardo Gomezzi eta *Sistema ergatiboak, sistema erdibituak* mintegiko (Hizkuntzalaritza Mintegia, Deustu, 1996-3-8) gainontzeko lagunei orduan egin zizkidaten iruzkinengatik.

¹⁵Heathen (1976) aburuz, euskaraz Iragan nahiz Alegiazkoan, hau da, [+iragan] adikietan aditzak antipasibatzea jasaten du, ezen singularreko hirugarren pertsona adizkitik ezabatu -Heathen hastapeneko *d-* morfemari pertsona morfema deritza- eta lehen edota bigarren pertsona komunztatzen duen ERG atzizkia NOM aurrizki bihurtzen baita.

Heathen dioenez, halaber, antipasibatzea [+Iragan] adizkietan gertatzen da, baldin eta predikatu iragankorreko subjektua lehen edo bigarren pertsona bada eta objektua, bere aldetik, hirugarren pertsona. Nolanahi ere, antipasibatzea ez da prozedura sintaktikoa predikatu iragankorreko subjektuak nahiz objektuak perpausean iraun eta predikatua **edun* / **ezan* laguntzaileez jokatzeko delako.

¹⁶Nahitaezko Kasuaren Parametroa Bobaljikengan (1993) formulaturik dagoen erak pentsaraz diezaguke ABS kasua baino ez dela nahitaezkoa sistema ergatiboetan. Alabaina, ABS kasua ezeze, ϕ 2 tasunak ere ezinbestez erkatzen dira sistema ergatiboetan. Chomskyk (1993) formulatzen duen era izan daiteke, ene aburuz, egokiagoa, indarrean dagoen KMZ buruaren berri emanik, kasu nahiz ϕ -tasunen berri ematen delako.

¹⁷Ez dut uste Lópezengan (1995) ohiko erkabide eta Erkabide Erdibituko perpausak bereiz daitezkeenik, bigarrenetan ϕ -tasunak eta kasua Espez gune ezberdinetan zilegiztatzeko direla esanez, ezen berak beti banatzen baitu ϕ -tasunen erkaketa. Gogoan izan, Lópezen aburuz, predikatu iragangaitzeko perpausetan subjektuak [Espez, D] halabeharrez iritsi behar duela kasu abstraktua zilegiztatzeko eta sistemen arabera, [Espez, KMZ2] ala [Espez, KMZ1] guneak ere, ϕ -tasunak kasu morfologikoa bera ere- erkatzeko ϕ -kus lehen kapituluko (32) oharra-.

Nolanahi ere, Lópezek georgieraren Aoristo Saileko datuak (King, 1994) darabiltzanean ondokoa dio, subjektu komunztadura Dren kasu abstraktuaren ahoskatzea dela eta ABS, bere aldetik, Arekin erkatutako ϕ -tasunen isla. Abiaburu

hau onetsirik ere, ez dakit Lópezek argiro garatzen duen hipotesia. Bere eskuizkribuko (19) eratorpena bera ere predikatu ezakusatiboko perpausari al dagokio? Honelaxe bada, nola azal daiteke ISk bi [Espez, KMZ] gunen iristea, ABS [Espez, KMZ2] gunean erkatuz batetik, eta [Espez, D] gunean kasu abstraktua zilegiztatu ondoren, [Espez, KMZ1] gunean ϕ -tasunak zilegiztatuz bestetik? Areago, nola azal daiteke bi KMZ buru indarturik egotea predikatu iragangaitzeko perpausa bada? Agian, predikatu iragankorreko perpausa da (19), baina, honela bada, problemarik ere ez zaio falta, argumentu bakar baten mugimendua baino ezin azal baitaiteke (19) eratorpenaz. Arazoak arazo, Lópezengan ere, ϕ -tasunak eta kasua Espez gunen berean halabeharrez erkatu behar ez direla erakuts daiteke, georgiera darabilenean.

¹⁸Lyleren aburuz (1996), georgieraz ez subjektuak ez objektuak ez ditu I-tasunak Espez gunen berean erkatzen Aoristo Saileko perpausetan. Lylek, bi KMZ buru eta D buruez gain, ASP burua ere bereizten du georgieraz, euskaraz ez bezala, Aoristo Saile ASPz bana baitaiteke Orain/Gero Sailetatik, eta Aoristoan baino ez baita ageri kasu flexio eta komunztaduraren arteko erdibiketa. Aoristo Saileko predikatu iragankorreko perpausetan, esaterako, subjektuak [Espez, ASP] iritsiko du ERG erkatzeko eta [Espez, KMZ1] ondoren, ϕ 1-tasunak erkatzeko. Objektua, bestalde, [Espez, KMZ2] gunera igoko da ezkutuan eta [Espez, D] gunera gero, ABS erkatuz bertan. Aintzat izan, gorago esan dudana bezala, Lyle Murasugiri (1992) jarraitzen zaionez, Dren kasua ABS/NOM dela eta Arena, berriz, ERG/AK.

Ene aburuz, euskaraz predikatu iragankorreko subjektuak baino ez ditu I-tasuak erdibitzen, objektuak [Espez, KMZ2] iritsirik ere, ABS erka badezake ere, ϕ 2-tasunik erkatu ezin duelako Erkabide Erdibituko perpausetan.

¹⁹Objektuak ϕ 2-tasunik erkatzen ez duela diodanean, pertsona tasunez ari naiz eta ez zenbaki tasunez, objektua plurala bada, adizkiak zenbaki komunztadura zaindu behar duelako.

²⁰Bada, hirugarren pertsonak ϕ 2-tasuna erkatu bakoitzean, D *d-*, *z-*, *b-* zein *I-* morfemaz adierazten bada, hauxe pentsa daiteke, beraiek D morfemak barik (Oregi, 1974, Trask, 1977; Euskaltzaindia, 1987 b; Laka, 1988; Gomez & Sainz, 1995), objektuak Dren arabera erka dezakeen ϕ 2-tasun beraren marka morfologiko ezberdinak direla, alegia, pertsona morfemak (Heath, 1976; Ortiz de Urbina, 1986; Albizu, 1994). Hipotesia erabat ezin bazterturik ere, (36) perpausen arteko bereizkuntza zeharkako ebidentziez azal daiteke, subjektuak erkatzen dituen ϕ -tasunei behatuz.

²¹Dena den, D markatuan bada hirugarren pertsonako objektuak ϕ 2-pertsona tasuna erkatu dueneko adizkirik, *doten*, kasurako, Oraineko *dot* adizkian bezalakoxe erkabideaz eratu dena, ez Erkabide Erdibituaz Iraganeko *neban* adizkiaren antzera -ikus Ezeizabarrena (1996) jabekuntza prozesurako-. Eta hirugarren pertsonako objektuak ϕ 2-pertsona tasuna erkatu du baita *ziozun/etsazun* adizkiak eratzeko ere, Iraganeko zehar objektudun perpaus iragankorretan. Beraietan, zenion/zeuntsan adizkietan ez bezala, ez da Erkabide Erdibiturik.

²²KMZ buru orok definizioz ϕ -tasunik zilegizta badezake baina objektuak Erkabide Erdibituko perpausetan ϕ -tasunik ezin erka badezake, objektuak, agian, ez du [Espez, KMZ]rik iristen, beste funtzio bururen baten Espez gunea baizik, [Espez, D] kasurako, non ABS kasua zilegizta dezakeen, baina ez, ϕ -tasunik, ordea. AS azalaren mendean, KMZ ez beste funtzio bururik bereizi dute Travisek (1991, 1992) edota Collins & Thrainssonek (1993).

Ondorioak

Tesi honetan zehar erakutsi dudanez, predikatu iragankorreko perpausetan Isek bidezidor gurutzatuak zehazten dituzte sistema nom/akusatibo eta ergatiboetan, Mugimendu Laburrena Distantziakidetasunaren arabera definitu behar baita. Eta euskaraz, hiru KMZ buruak indarrean, Distantziakidetasuna urratu ezik, KMZ2 burua AS azalaren mendea baino ezin ezar daiteke.

Predikatu ezergatiboak, bestalde, iragankorrak dira Egitura Lexiko Erlaziozkoan, baina objektua maila honetan bertan inkorporatzen dutenez, *mintzatu* sailekoak iragangaitzak dira konputazio sisteman, predikatu ezakusatiboen eratorpen bera dagokielarik. *Borrokatu* eta *I + egin* ezergatiboak, aldiz, Egitura Lexiko Erlaziozkoan ezeze, konputazio sisteman ere iragankorrak dira, baina sistema honetan bertan inkorporatzen dute objektua, beronek nahiz Ak berak I-tasun bana zilegiztatu behar dutelako buruz buru. Bi sail hauek ekintza adierazten dute, eta interpretapen eztelikoa dagokie; bitartean, *mintzatu* sailari, agian, interpretapen telikoa edota burutzapena egokitu behar zaie, ezakusatiboen antzera.

Azkenik, erdibiketa uztartu vs. askea l-tasunen Erkabide Erdibituaren arabera azaldu dut, lSk l-tasunak ohi ez bezala erka ditzakeela erakutsiz, ϕ -tasunak KMZ buruetarik baten Espez gunean zilegiztatuz batetik, eta kasua Dren Espez gunean bestetik. Erdibiketa lehen/bigarren vs. hirugarren pertsonen aurkakotasunean ematen da euskaraz, D lragan zein Alegiazkoa denean. Dren [+iragan] tasunaz, hain zuzen ere, objektuak ez du ϕ -tasunik zilegiztatzen, subjektuak berak dakartzalarik, ohiko erkabidean objektuari dagozkionak, ϕ 2-tasunak halabeharrez erkatu behar baitira sistema ergatiboetan.

Aipu bibliografikoak

ADDIS, K. (1989). "Basque is not ergative!", Cornell University, eskuizkribua.

ALBIZU, Pablo (1994). *Ergative displacement revisited: a distributive morphology approach*, Hizkuntzalaritza Mintegia, Deustu, 1994-4-1.

AMUNDARAIN, Iñaki (1991). "Ormaiztegiko euskara: alokutiboa", EHU/UPV, eskuizkribua.

AZKUE, Resurrección María de (1969). *Morfología vasca*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.

ANDERSON, S. R. (1974). "On the syntax of ergative languages", *PICL* 11, 2, 73-77.

_ (1976). "On the notion of subject in ergative languages", Ch. N. Li (arg.), 1-23.

BAKER, Mark (1988). *Incorporation. A theory of grammatical function changing*, Chicago, The University of Chicago Press.

BELLETTI, Adriana (1987). "Los inacusativos como asignadores de caso", Violeta, Demonte & Marina, Fernández Lagunilla (arg.) *Sintaxis de las lenguas románicas*, Madrid, El Arquero, 167-230.

_ & Luigi, RIZZI (1986). "Psychological verbs and Th-Theory", *Natural language and linguistic theory* 6, 291-352.

BENVENISTE, Emile (1971). "Estructura de las relaciones de persona en el verbo", *Problemas de lingüística general* 1, México, S. XXI, 99-117.

BITTNER, Maria & Ken HALE (1992). "Ergativity", Rutgers University eta MIT, eskuizkribua. Argitaratzear: "Ergativity: toward a theory of a heterogeneous class", *LI* 27,4.

_ (1996) "The structural determination of case and agreement", *LI* 27, 1,1-68.

BOBALJIK, Jonathan D. (1992 a) "Notes on ergative unergatives", eskuizkribua.

_(1992 b). "E3: Ergativity, economy and the extended projection principle", eskuizkribua.

_ (1993). "On ergativity and ergative unergatives", Colin Phillips (arg.). *Papers on Case & Agreement II, MITWPL* 19, 45-88.

_ & Andrew H. Carnie (1992). "A minimalist approach to some problems of Irish word order". Argitaratzear: *Proceedings of the 12th Harvard Celtic Colloquium*.

BONET, Eulàlia (1991). *Morphology after syntax: pronominal clitics in Romance*, MIT (Mass.), Doctoral dissertation.

_ (1994). "The person-case constraint: a morphological approach", Heidi Harley & Colin Phillips (arg.) *The morphology-syntax connection, MITWPL* 22,33-52.

BORER, Hagit (1993). "The projection of arguments", Elena E. Benedicto & Jeffrey T. Runner (arg.). *Functional projections*, University of Massachusetts Occasional Papers 17, Amherst, GLSA, UMASS, 19-47.

BRICKER, Victoria R. (1977). *Pronominal inflection in the mayan languages, Occasional paper I*, New Orleans, Middle American Research Institute, Tulane University.

BURZIO, Luigi (1986). *Italian syntax: a government and binding approach*, Dordrecht, Reidel.

CHENG, Lisa Lai Shen & Hamida DEMIRDACHE (1993). "External Arguments in Basque", J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.) *Generative studies in basque linguistics*, Amsterdam/Philadelphia, John Benjamins.

CHOMSKY, Noam (1981). *Lectures on Government and Binding*, MIT Press, Cambridge (Mass.).

_ (1986 a). *Barriers*, Cambridge (Mass.), MIT Press.

_ (1986 b). *Knowledge of language: its nature, origins and use*, New York, Praeger.

_ (1991). "Algunas notas sobre la economía de la derivación y la representación", *ASJU* XXV-3, 659-696, 1991.

_ (1993). "A minimalist program for Linguistic Theory", K. Hale & J. Keyser (arg.) *The view from Building 20. Essays in Linguistics in honor of Sylvain Bromberger*, Current studies in linguistics series 24, Cambridge (Mass.), MIT, 1993.

_ (1994). "Bare phrase structure", *MIT Occasional papers in linguistics* 5, Cambridge (Mass.).

_ (1995). *The minimalist program*, Cambridge (Mass.), MIT Press.

_ & Howard LASNIK (1991). *Principles and Parameters Theory*. Argitaratzear: J. Jacobs, A. von Stechow & T. Vennemann (arg.) *Syntax: An international handbook of contemporary research*, Berlin, Walter de Gruyter.

COLLINS, Chris & Höskuldur THRAINSSON (1993). "Object shift in double object constructions and the theory of case", Colin Phillips (arg.) *Papers on Case & Agreement II*, MITWPL 19, 131-174.

COMRIE, Bernard (1976). *Aspect*, Cambridge, Cambridge University Press.

_ (1978). "Ergativity", W. Lehmann (arg), 329-394.

_ (1981 a). *Universales del lenguaje y tipología lingüística*, Madrid, Gredos, 1988.

_ (1981 b). "Ergativity and grammatical relations in Kalaw Lagaw Ya (Saibai dialect)", *AJL*, 1, 1-42.

CRAIG, Colette (1977). *The structure of Jacaltec*, Austin, University of Texas Press.

DEUSTUKO HIZKUNTZALARITZA MINTEGIA (1989). "Inkorporazioa perpaus kausatiboetan", Pello Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara*, VII. Udako ikastaroak Donostian, Donostia, EHUKo Argitarapen Zerbitzua, 87-119.

DIXON, R. M. W. (1972). *The Dyirbal language of North Queensland*, *Cambridge Studies in linguistics* 9, Cambridge, Cambridge University Press.

_ (1976) (arg.) *Grammatical categories in Australian languages*, *Linguistic series* 22, Canberra, Australian Institute of Aboriginal Studies.

_ (1979). "Ergativity", *Language* 55, 59-138.

_ (1980). *The languages of Australia*, Cambridge, Cambridge University Press.

_ (1994). *Ergativity*, Cambridge, Cambridge University Press.

DOWTY, D. R. (1979). *Word meaning and Montague grammar*, Dordrecht, Reidel.

_ (1991). "Thematic proto-roles and argument selection", *Language* 67, 547-619.

EGUZKITZA, Andolin (1986). *Topics on the syntax of Basque and Romance*, Indiana, Indiana Univ. Linguistics Club.

EMONDS, Joseph (1978). "The verbal complex V'-V in French", *LI* 9, 151-75.

ENGLAND, Nora (1983). "Ergativity in Mamean (Mayan) languages", *IJAL* 49, 1, 1-19.

EUSKALTZAINDIA (1985). *Euskal gramatika. Lehen urratsak I*, Iruñea, Dpto. de Educación y Cultura de la Comunidad Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana & Euskaltzaindia.

_ (1987 a). *Euskal gramatika. Lehen urratsak I (eranskina)*, Bilbo, Euskaltzaindia.

_ (1987 b). *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*, Bilbo, Euskaltzaindia.

EZEIZABARRENA, María José (1996). *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*, EHU/UPVko Argitarapen Zerbitzua.

FERNANDEZ, Beatriz (1993). "Sobre la naturaleza de los predicados inergativos del tipo sustantivo + predicado 'egin' en euskara, *Función* 13-14, Mexiko, Universidad de Guadalajara, Departamento de Estudios en Lenguas Indígenas.

_ (1994). "Los predicados inergativos en euskara: predicados de estructura nombre+verbo 'egin'", *I Congrès de Lingüística General*, Universitat de València.

_ (1995). "Teoría del caso y casos gramaticales en euskara", *Interlingüística. Resum de les comunicacions presentades a la VII Trobada de l' Associació de Joves Lingüistas*, 3, Barcelona, Universitat Autònoma de Barcelona, 35-40.

FUKUI, Nakoi & Margaret SPEAS (1986). "Specifiers and projections", *MITWPL* 8, 128-172.

GOENAGA (1985). "Complementación y nominalización en euskara", *ASJU* XIX-2, 493-570.

GOMEZ, Ricardo & Koldo SAINZ (1995), "On the origin of the finite forms of the basque verb", J. I Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.) *Towards a history of the Basque language*, Amsterdam/Philadelphia, John Benjamins, 235-274.

GORDON, Lynn (1986). *Maricopa morphology and syntax*, Berkeley, University of California Press.

GRIMSHAW, Jane & Armin MESTER (1988). "Light verbs and theta-marking, *LJ* 19,2, 205-232.

HAEGEMAN, Liliane (1994). *Introduction to Government & Binding Theory*, Cambridge (Mass.), Cambridge University Press.

HALE, Ken (1981). *On the position of Warlpiri in a typology of the base*, Bloomington, Indiana University Linguistics Club.

_ & S. J. KEYSER (1993). "On argument structure and the lexical expression of syntactic relations", K. Hale & S. J. Keyser (arg.) *The view*

from *Building 20. Essays in Linguistics in honor of Sylvain Bromberger*, Current studies in linguistics series 24, MIT.

HARRIS, Alice C. (1981). *Georgian syntax. A study in relational grammar*, Cambridge, Cambridge University Press.

HEATH, Jeffrey (1976). "Antipassivization: a functional typology", Thompson et al. (arg.) *BLS* 2, Univ. of California, Berkeley, 202-211.

HOEKSTRA, T. & J. MÜLDER (1990). "Unergatives as copular verbs", *The linguistic review* 7, 1-79.

HOLISKY, Dee Ann (1981). "Aspect theory and georgian aspect", *Syntax and Semantics*, 14, 127-144.

_(1987). "The case of the intransitive subject in Tsova Tush (Batsbi)", *Lingua* 71, 103-132.

HUALDE, J. I. (1986). "Case-assignment in Basque", *ASJU* XXII, 313-330.

JELINEK, Eloise (1993). "Ergative 'splits' and argument type". Jonathan D. Bobaljik & Colin Phillips (arg.) *Papers on case and agreement I*, *MITWPL* 18, 15-42.

JOHNS, Alana (1992). "Deriving ergativity", *LI* 23, 1, 57-87.

KAYNE, Richard S. (1993). "Toward a modular theory of auxiliar selection", *Studia Linguistica* 47 (1), 3-31.

_(1994). *The antisymmetry of Syntax*, Cambridge (Mass.), MIT Press.

KEENAN, Edward L. (1976). "Towards a universal definition of subject", Ch. N. Li (arg.), 303-333.

KING, Tracy Holloway (1994). "Spec AGR and case: Evidence from Georgian", Heidi Harley & Colin Phillips (arg.) *The morphology-syntax connection*, *MITWPL* 22, 91-110.

KITAGAWA, Yoshihisa (1994). *Subjects in Japanese and English*, New York, Garland.

KOIZUMI, Masatoshi (1993). "Object agreement phrases and the split VP hypothesis", Jonathan D. Bobaljik & Colin Phillips (arg.) *Papers on Case and agreement I*, *MITWPL* 18, 99-148.

KOOPMAN, Hilda & Dominique, SPORTICHE (1991) "The position of subjects", *Lingua* 85, 211-258.

KURODA, S. Y. (1988). "Whether we agree or not: a comparative syntax of English and Japanese", *Linguisticae Investigationes* 12, 1-47.

LAFITTE, Pierre (1962). *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)*, Donostia, Elkar.

LAFON, René (1943). *Le système du verbe Basque au XVIe siècle*, Elkar, Donostia, 1980.

_ (1954). "Comportement syntactique, structure et diathèse du verbe basque", *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 50, 1, 190-220.

LAKA, Itziar (1988). "Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque", *ASJU* XXII-2, 343-365.

_ (1989 a) "Buru mugimendua eta bere propietateak", Pello Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara*, VII. Udako ikastaroak Donostian, Donostia, EHUKo Argitarapen Zerbitzua, 55-72.

_ (1989 b) "Ezeztapena euskaraz", Pello Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara*, VII. Udako ikastaroak Donostian, Donostia, EHUKo Argitarapen Zerbitzua, 73-85.

_ (1990). *Negation in syntax: on the nature of functional categories and projections*. MIT doctoral dissertation, Cambridge (Mass.), MITWPL.

_ (1993). "Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative", Jonathan D. Bobaljik & Colin Phillips (arg.) *Papers on case and agreement I*, MITWPL 18, 149-172.

_ (1995). "Thetabind case: Burzio's generalization and its image in the mirror". Argitaratzear: E. Reuland (arg.) *Workshop on Burzio's generalization*.

LARSON, Richard K. (1988). "On the double object construction", *LI* 19,3, 335-391.

LASNIK, Howard (1994). "Case and expletives revisited: on Greed and other human failings", University of Connecticut, eskuizkribua.

LEVIN, Beth (1983). *On the nature of ergativity*, Cambridge (Mass.), MIT.

_ & D. MASSAM (1985). "Surface ergativity: case/theta relation reexamined", *NELS* 15, 286-301.

_ & M. RAPPAPORT (1995). *Unaccusativity. At the Syntax-Lexical Semantics Interface*, Cambridge (Mass.), MIT.

LI, Ch. N. & S. A. THOMPSON (1976). "Subject and topic: a new typology of language", Ch. N. Li (arg.) *Subject and topic*, New York, Academic Press, 457-490.

LYLE, James (1996). "Split ergativity and NP-movement". Argitaratzear: Proceedings of *WCCFL XIV*.

LOPEZ, Luís (1995). "Case parameters and split ergativity", *V Colloquium on Generative Grammar*, A Coruña.

_ & Jennifer AUSTIN (1995). "Nominative, absolutive and dative languages, Cornell University (Ithaca) NY, eskuizkribua.

MAHAJAN, Anoop K. (1995). "Universal grammar and the typology of ergative languages". Argitaratzear: A. Alexiadu & T. A. Hall (arg.), John Benjamins.

MARANTZ, P. (1984). *On the nature of grammatical relations*, Cambridge (Mass.), MIT Press.

_ (1995). "A reader's guide to 'A minimalist program for linguistic theory'". Gert Webelhuth (arg.), *The principles and parameters approach to syntactic theory: a synopsis*, Cambridge (Mass.) Basil Blackwell.

MARTINEZ, Arantza (1996). *Syntactic evidence in favor of degrees of incorporation in [N + egin] constructions*, Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia.

MIGUEL de, Elena (1992). *El aspecto en la sintaxis del español: Perfectividad e impersonalidad*, Madrid, Ediciones de la Universidad Autónoma de Madrid.

MITXELENA, Koldo (1981). "Lengua común y dialectos vascos", *ASJU* XV, 289-313.

MURASUGI, Kumiko (1992). *Crossing and nested paths: NP movement in accusative and ergative languages*, MIT doctoral dissertation, Cambridge (Mass.), MITWPL.

_ (1994). "A constraint of the feature specification of Agr", Heidi Harley & Colin Phillips (arg.). *The morphology-syntax connection*, MITWPL 22, 131-152.

MAY, Robert (1985). *Logical form: Its structure and derivation*, Cambridge (Mass.), MIT Press.

NASH, Léa (1994). "On BE and HAVE in Georgian", Heidi Harley & Colin Phillips (arg.) *The morphology-syntax connection*, MITWPL 22, 153-171.

NEDJALKOV, V. P. (1979). "Degrees of ergativity in Chuckchee", F. Plank (arg.), 241-262.

OREGI, Josu (1974). "Euskal aditzaz zenbait gogoeta", *FLV* 17, 265-283.

ORTIZ DE URBINA, Jon (1986). *Parameters in the grammar of Basque*, Dordrecht, Foris, 1988.

_ (1987). "Kasu ezarketa eta ergatibitatea euskaraz", Pello Salaburu (arg.), *Sintaxi arazoak*, VI Udako ikastaroak Donostian, Donostia, EHUKo Argitarapen Zerbitzua.

_ (1995). "Datibo komunztaduraren gainean", Ricardo Gómez & Joseba A. Lakarra (arg.) *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak, 2-6)*. JUEFMUG XXVIII, 579-588.

OYHARÇABAL, Beñat (1990). "Structural and inherent case-marking: Ergaccusativity in Basque", Joseba A. Lakarra & Jon Ortiz de Urbina (arg.) (1992), *Syntactic theory and basque syntax*, Donostia, 309-342.

_ (1994). "Contribution de la comparaison typologique à une analyse des rapports ergativité-(in)transitivité en basque", Le basque et la comparaison linguistique, Congrès de Bayonne, 27 et 28 septembre 1994, eskuizkribua.

PERLMUTTER, David M. (1978). "Impersonal passives and the unaccusative hypothesis", J. J. Jaeger & A. C. Woodbury (arg.) *BLS* 4, 157-189.

PLANK, Frans (arg.) (1979). *Ergativity: towards a theory of grammatical relations*, New York, Academic Press.

POLLOCK, J. Y. (1989). "Verb movement, UG and the structure of IP", *LI* 20-3, 365-424.

REBUSCHI, Georges (1986). "Sujeto, ergatividad y (no-) configuracionalidad; lugar del euskara en la tipología generativa", Patxi Goenaga (arg.) *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, Donostiako Udako IV. Ikastaroak, Bilbo, EHUKo Argitarapen Zerbitzua.

RIGAU, Gemma (1991). "On the funcional properties of Agr", Catalan Working Papers in Linguistics, Bellaterra, UAB, 235-260.

_ (1995). "Esser/haver alternation in catalan locative sentences", eskuizkribua.

RIJK R. de (1969). "Is Basque an SOV language", *FLV* 1, 319-351.

ROTAETXE, Karmele (1978 a). "Lingüística-lógica: la construcción ergativa vasca", *Revista española de Lingüística* 8, 431-445.

_ (1978 b). *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Durango, Leopoldo Zugaza.

ROSEN, Carol (1990). "Rethinking Southern Tiwa: the geometry of a triple agreement language", *Language* 66-4, 669-713.

SALABURU, Pello (1984). *Arau fonologikoak. Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia. Fonetika eta Fonologia (II)*, Bilbo, EHU/UPVko Argitarapen Zerbitzua.

_ (1986). "Uztarduraren Teoria", Patxi Goenaga (arg.). *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, Bilbo, EHU/UPVko Argitarapen Zerbitzua, 59-94.

_ (1991). "Euskara hizkuntza ergatiboa ote?", Euskaltzaindia (arg.). *Iker* 3, 417-433.

SARASOLA, Ibon (1977). "Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes", *ASJU* XI, 51-90.

SILVERSTEIN, Michael (1976). "Hierarchy of features and ergativity", R. M. W. Dixon (arg.) *Grammatical categories in Australian languages*, *Linguistics series* 22, Canberra, Australian Institute of Aboriginal Studies, 112-171.

SCHUCHARDT, Hugo (1893). "Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 215-337.

TENNY, C. (1992). "The aspectual interface hypothesis", I. Sag & A. Szabolcsi (arg.) *Lexical matters*, CSLI Lecture notes, Stanford, CA.

_ (1994). *Aspectual roles*, Dordrecht, Kluwer Academic Publishers.

TRASK, R. L. (1977). "Historical syntax and basque verbal morphology: two hypotheses", W. A. Douglas, R. Etulain & W. H. Jacobsen (arg.) *Anglo-american contributions to basque studies. Essays in honor of Jon Bilbao*, Reno, Univ. of Nevada.

(1979). "On the origins of ergativity", Frans Plank (arg.) *Ergativity*, New York, Academic Press.

TRAVIS, Lisa (1991). "Derived objects, inner aspect and the structure of VP", McGill University, eskuizkribua.

_ (1992). "Inner aspect and the structure of VP", McGill University, eskuizkribua.

URIBE-ETXEBARRIA, Myriam (1989 a). "On noun incorporation in Basque and some of its consequences in the phrase structure", University of Connecticut, eskuizkribua.

_ (1989 b) "Argument transfer vs. Predication: a speculative trip around the structure of IP in Basque", University of Connecticut, eskuizkribua.

VAMLING, Karina, R. TCHANTOURIA & A. LOMTADZE (1994). *The Kartvelian languages*, Eurotyp Third Plenary Conference, March 1994.

VAN VALIN (1990). "Semantic parameters of split intransitive", *Language* 66, 221-260.

VENDLER, Z. (1967). *Linguistics in Philosophy*, Ithaca (New York), Cornell University Press.

ZABALA, Igone (1995). "Infinitivos, tiempo y ergatividad", *Quinto Coloquio de Gramática Generativa*, A Coruña.

Hiztegia: ingeles-euskara

accomplishment	burutzapen
active	indarrean
adjoin	adjunktatu
adjunct	adjunktu
adjunction	adjunkzio
altruistic	altruistiko
antecedent	aitzindari
antipassive	antipasibatze
array	sail
atelic	ezteliko

atelicity	eztelikotasun
bare	soil
binding	uztardura
bound	uztartu
bound vs. free split	erdibiketa uztartu vs. aske
binary branching	adarreztatze bitar
branching	adarreztatze
c (constituent)-command	o(osagai) komando
chain	katea
check	erkatu
checking domain	erkaketa eremu
clause	perpaus
Closest Available Source	Eskuar dagoen Jatorri Hurbilena
Closest Featured Target	Tasunik duen Jomuga Hurbilena
coindexation	indizekidetasun
coindexed	indizekide

complement	osagarri
complement domain	osagarri eremu
computational system	konputazio sistema
constituent	osagai
contain	barruan izan
converge	bat egin
crash	huts egin
cross	gurutzatu
crossing paths	bidezidor gurutzatu
derivation	eratorpen
domain	mendean izan
domain	eremu
Double Object Constructions	Objektu Bikoitzeko Egiturak
economy principles	ekonomia hatsarreak
empty category	kategoria isil
Empty Category Principle	Kategoria Isilen Hatsarrea
equi-distant	distantziakide

equi-distance	distantziakidetasun
Ergative Displacement	Ergatiboaren Lekualdaketa
Ergative Parameter	Ergatibotasunaren Parametroa
Extended Projection Principle	Islapen Hatsarre Zabaldua
Exceptional Case Marking	Kasu Ezarketa Berezia
expansion	hedapen
feature	tasun
Feature Specification Constraint	Tasun Zehaztapenaren Muga
fewest step	urrats gutxien
filter	iragazki
finite clause	perpaus jokatu
fluid system	sistema isurkor
form chain	katea osatu
functional head	funtzio buru
govern	gobernatu
government	gobernu

governor	gobernatzaille
Greed	Gutizia
greedy	gutiziatsu
head	buru
heavy verb	aditz astun
ill-formed FF/LF object	FF/FL sasiobjektu
inert	indarge
inherent case	berezko kasua
interface level	elkargune
Last Resort	Azken Baliabidea
Least Effort	Gutxieneko Ahalegina
lexical head	buru lexiko
license	zilegiztatu
light verb	aditz arin
linguistic expression	adierazpen linguistiko
maximal projection	islapen goren
minimalist program	egitarau minimalista

minimal domain	gutxieneko eremu
minimal projection	islapien behere
movement	mugimendu
nested paths	bidezidor kabiratu
nest	kabiratu
nested paths	bidezidor kabiratu
non-finite clause perpaus	perpaus jokatugabe
Obligatory Case Parameter	Nahitaezko Kasuaren Paramtr.
oblique case	zihar kasu
object shift	objektuaren destokitze
output / output condition	irteera/irteera baldintza
parameter	parametro
parameterization	parametragarritasuna
performance system	ariketa sistema
position	gune
principle	hatsarre

Procrastinate	Luzatu
project	islatu
projection	islapen
quirky case	kasu bitxi
raise	igo
raising	igoera
representation	aurkezpen
residue	ondar eremu
rule	arau
sentence	perpaus
set	multzo
Shortest Move	Mugimendu Laburrena
source	jatorri
specifier	espezifikatzaile
Spell out	Ahoskatu
split	erdibiketa, erdibitu
split ergativity	ergatibotasun erdibitu

split system	sistema erdibitu
strong feature	tasun sendo
structural case	egiturazko kasu
structural description	egitura deskribapen
subset	azpimultzo
target	jomuga
telic	teliko
telicity	telikotasun
trace	aztarna
Unmarked AGR Parameter	KMZ Ezmarkatuaren Parametro
violate	urratu
VP-shell	AS azal
visible	ikusgarri
weak feature	tasun ahul
well-formed FF/LF object	FF/FL objektu

Hiztegia: euskara-ingelesa

adabegi	node
adarreztatze	branching
adarreztatze bitar	binary branching
adierazpen linguistiko	linguistic expression
aditz astun	heavy verb
aditz arin	light verb
adjunktatu	adjoin
adjunktu	adjunct
adjunkzio	adjunction
Ahoskatu	Spell out
aitzindari	antecedent

altruistiko	altruistic
arau	rule
ariketa sistema	performance system
AS azal	VP-shell
aurkezpen	representation
Azken Baliabidea	Last Resort
azpimultzo	subset
aztarna	trace
barruan izan	contain
bat egin	converge
berezko kasu	inherent case
bidezidor gurutzatu	crossing paths
bidezidor kabiratu	nested paths
buru	head
buru lexiko	lexical head
burutzapen	accomplishment

distantziakide	equi-distant
distantziakidetasun	equi-distance
egitarau minimalista	minimalist program
egiturazko kasu	structural case
egitura deskribapen	structural description
elkargune	interface
eratorpen	derivation
erdibiketa	split
erdibiketa uztartu vs. aske	bound vs. free split
erdibitu	split
eremu	domain
Ergatiboaren Lekualdaketa	Ergative Displacement
ergatibotasun erdibitu	split ergativity
erkaketa eremu	checking domain
erkatu	check

Eskuar dagoen Jatorri Hurbilena	Closest Available Source
espezifikatzaile	specifier
ezteliko	atelic
eztelikotasun	atelicity
FF/FL objektu	well-formed FF/LF object
FF/FL sasiobjektu	ill-formed FF/LF object
funtzio buru	functional head
gobernatu	govern
gobemu	government
gobernatzaile	governor
gune	position
gurutzatze	crossing
Gutizia	Greed
gutiziatsu	greedy
Gutxieneko Ahalegina	Least Effort
gutxieneko eremu	minimal domain

hatsarre	principle
hedapen	expansion
helmuga	target
huts egin	crash
igo	raise
igoera	raising
ikusgarri	visible
indarge	inert
indarrean	active
indizekide	coindexed
indizekidetasun	coindexation
iragazki	filter
irteera baldintza	output condition
islapen	projection
islapen behere	minimal projection
islapen goren	maximal projection

Islapen Hatsarre Zabaldua	Extended Projection Principle
islatu	project
kabiratze	nesting
kasu bitxi	quirky case
katea	chain
katea osatu	form chain
Kasu Iragazkia	Case Filter
kategoria isil	empty category
Kategoria Isilen Hatsarrea	Empty Category Principle
Kasu Markatze Berezia	Exceptional Case Marking
KMZ Ezmarkatuaren Parametroa	Unmarked AGR Parameter
konputazio sistema	computational system
Luzatu	Procrastinate
mendean izan	domain
mugimendu	movement
Mugimendu Laburrena	Shortest Move

multzo	set
Nahitaezko Kasuaren Parametroa	Obligatory Case Parameter
objektuaren destokitze	object shift
Objektu Bikoitzeko Egiturak	Double Object Constructions
ondar eremu	residue
osagai	constituent
o(osagai)-komando	c (constituent)-command
osagarri	complement
osagarri eremu	complement domain
parametro	parameter
parametragarritasun	parameterization
perpaus	clause
perpaus	sentence
perpaus jokatugabe	non-finite clause
perpaus jokatu	finite clause

sail	array
sistema erdibitu	split system
sistema isurkor	fluid system
soil	bare
tasun	feature
tasun ahul	weak feature
Tasun Zehaztapenaren Muga	Feature Specification Constraint
Tasunik duen Jomuga Hurbilena	Closest Featured Target
tasun sendo	strong feature
teliko	telic
telikotasun	telicity
urratu	violate
urrats gutxien	fewest step
uztardura	binding
uztartu	bound
zehar kasu	oblique case
zilegiztatu	license